

Berrikuntza inklusiboan ikastea

Berrikuntza-proiektu
eta lurralde-politiketarako erronka bat

Berrikuntza inklusiboan ikastea

Berrikuntza-proiektu
eta lurralde-politiketarako erronka bat

Julieta Barrenechea, Borja Luque eta Julen Ibarra (Argit.)



2016

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Aprender en innovación inclusiva: un reto para proyectos innovadores y políticas territoriales / Julieta Barrenechea, Borja Luque y Julen Ibarra (eds.) – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2016. – 183, 175 p.: il. ; 24 cm. – (Estudios de Ciencia, Tecnología e Innovación. Cátedra Sánchez Mazas ; 6)

Port. y texto contrapuesto en español y euskara.

D.L.: BI-1390-2016. — ISBN: 978-84-9082-453-5

1. Innovaciones tecnológicas – Aspecto social. 2. Aprendizaje. 3. Enseñanza – Innovaciones. 4. Integración social. 5. Responsabilidad social. I. Barrenechea, Julieta, coed. II. Luque, Borja, coed. III. Ibarra, Julen, coed. IV. Tit: Berrikuntza inklusiboan ikastea: berrikuntza-proiektu eta lurralde-politiketarako erronka bat.

001.895

37.012



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Liburu hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Sailaren laguntzaz argitaratzen da.

Este libro se publica con la ayuda del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
University of the Basque Country Press Service
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

ISBN: 978-84-9082-453-5

Lege gordailua/Depósito legal: BI-1.390-2016

Aurkibidea

Sarrera	
<i>Julieta Barrenechea eta Andoni Ibarra</i>	9
Etikatik politikara: berrikuntza arduratsua berrikuntza inklusibo gisa	
<i>Andoni Eizaguirre, Hannot Rodríguez eta Andoni Ibarra</i>	17
Lurralde-estrategia bat, hau ere, berrikuntza inklusiboan oinarritua	
<i>Ainhoa Aizpuru Murua eta Antton Tomasena Rodriguez</i>	39
Metodologia berriak kultur hiriburuetan: Donostia 2016ko kasua	
<i>Iñigo Cantero, Enara García eta Xabier Paya</i>	53
Finantza etikoak Gizarte-inklusioaren sustatzaile modura	
<i>Mikel Azqueta Alzuaz</i>	71
Berrikuntza inklusiboko esperientzia Euskadiko lanbide-heziketan	
<i>Daniel Irazola Atxa</i>	85
<i>Improving the world</i> , diseinutik mundua hobetzen	
<i>María Isabel Rodríguez-Ferradas eta Paz Morer Camo</i>	97
GAZE programako Idazkaritza Teknikoa berrikuntza inklusiboaren <i>broker</i> gisa	
<i>Borja Luque Martínez, Julen Ibarra Seguro eta Julieta Barrenechea</i>	115
GOBERNPROY: gogoetazaletasun inklusiboan oinarritutako egitasmoen kudea- ketarako tresna	
<i>Julieta Barrenechea, Javier García-Fronti eta Andoni Ibarra</i>	127
Ikasketa faseak GAZE proiektuan	
<i>Olaia Etxeberria Garmendia, Lucía Lomas Echeveste, Geisiane Maiara Marth eta Amaia Zumeaga Hurtado</i>	141
Berrikuntza inklusiboa GAZElanki-n	
<i>Amaia Iraundegi Gimenez, Ane Iturzaeta Agirre, Maria Markiegi Mendieta, Izaro Toledo Retegi, Martin Zozaya Apalategui, Borja Luque Martínez eta Julen Ibarra Seguro</i>	149
Unibertsitate Inklusiborantz	
<i>Beñat Azaldegi Lakuntza, Lide Gil Pascual eta Gorka Otermin Balda</i>	159
Autoreak	171

Sarrera

Julieta Barrenechea eta Andoni Ibarra

Miguel Sánchez-Mazas Katedra, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Goi-hezkuntzako erlazio-ikuspegia eta ikasleen protagonismoa ikaskuntza-espertentzien eta ekimenaren zentzuarekin eta kultura ekintzailearekin lotutako konpetentzien garapenaren dinamizatzaile eta sustatzaile nagusi modura, bi gako berritzaile dira, GAZE programa hastapenetik, 2008. urtetik, definitzen dutenak.

Azken bi urteotan GAZE programak jauzi kualitatiboa eman du bi alderdi horietan. Erlazio-ikuspegiari dagokionez, goi-hezkuntzako instituzioetatik irten eta «gizartera bideratu da, gizartea kontuan hartuz», kanpoko proiektuen aberastasuna sustatzeko xedez; ikasleen protagonismoari dagokionez, konfiantza handiagoa ematearen alde egin du, kolektibo horri egiazko proiektuak burutzeko lidergoa esleituz, eragile ezberdinen artean lankidetzak-ikusuntza eta ikaskuntza adierazgarria eraginez. Lankidetzak-proiektuak *crowdlearning* kontzeptuaren ikuspegi batetik burutzen dira eta «berrikuntza inklusiboaren» inguruan ikasteko esperientzia-eremutat proposatu dira.

Crowdfunding kontzeptuaren erreferentzia analogiko bat erabiliz, GAZE programaren barnean *crowdlearning* kontzeptua kontzeptualki eta metodologikoki garatzeko egiten da lan, ikaskuntza-ikuskerak eta -praktika jakin bat definitzeko, non baliabide, ezagutza eta gaitasun ezberdinak baliatzen diren arazoak ebatzi eta lankidetzak-ikusuntzako testuingurutan berrikuntza inklusiboko prozesuak sustatzeko.

Crowdlearning kontzeptua ikaskuntza kolektibo eta partekatuko modalitate modura ulertzen da beraz, guztiena den eta guztion zerbitzura dagoen ikaskuntza gisa definituta. Pertsona orok besteei helarazi ahal dien eta gizarte-elkarrekintzari esker hobetu dezakeen ezagutzaren jabe delako uste sendoa du oinarritzat. *Crowdlearning* ikuspegia Pierre Lévik (2004) planteatutako *adimen kolektiboaren* ikuspegitik abiatuz garatu da. Bere esanetan, adimena sakanaturik dago eta aberastu egin daiteke trebetasun eta ezagutzak barreiatu eta partekatzen diren heinean.

Bestalde, ikuspegi hori bat dator zientziaren teoria filosofiko eta sozialaren ikuspegiekin. Azken horietan deszentralizazio-prozesuak deskribatzen dira ezagutzaren ekoizpen, balioespen, legitimazio eta erabileran, eta ezagutza hori

dagoeneko ez da instituzio klasikoetan metatzen (eskolak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, etab.), *gizartean sakabanaturik* baitago (Gibbons *et al.*, 1997; Nowotny *et al.*, 2003; beste egile batzuen artean). Teoria horiek inklusiboak dira zentzu epistemologikoetatik so, izan ere, ezagutza mota eta iturri ezberdinak hierarkizatu eta legitimatzea ahalbidetzen dute.

Horrela, gizarte-elkarrekintza da ezagutza eta esperientziak trukatzeko espazio partekatuak finkatzeko funtsezko motorra. Ezagutza eta esperientzia horiek egungo gizartearen erronkei aurre hartu eta horiek ebatziz garatzen dira. Horregatik, *crowdlearning* kontzeptua ez da hezkuntza-ingurune formaletara mugatzen. Aitzitik, muga-espazio misto eta horizontalak onartzen dituen planteamendua da, ikaskuntzarako sarbide askeko dinamiketan garatua. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek nahiz gizarte-sareek funtsezko zeregina betetzen dute *crowdlearning* erako dinamiken hedapenean.

Bestalde, berrikuntzari buruzko ikuspegiari dagokionez, eztabaida nagusietako bat prozesu edo produktu berritzaile orok duen izaera *inklusibo*, *esklusibo* edo *baztertzailerean* ondoriozko tentsioei buruzkoa da.

Lehen definizioetan *berrikuntza inklusiboaren* kontzeptua *aldaketa berritzaileari* dagokio, *gizarte-inklusio* handiagoko erregistro gisa ulertuta (Gupta, 2007). Ikuspuntu horretatik, berrikuntza inklusiboek ekoizpena areagotzea dakartela ulertzen da, nahiz eta ekoizpen hori garapen irisgarri, eskuragarri eta arduratsura bideratzen den. Modu horretan, berrikuntza inklusiboak garapen-eta berrikuntza-dinamiketarik at dauden (Foster eta Heeks, 2013) edo baliabideetara iristeko zailtasunak dituzten (zentzu zabalean ulertuta, hau da, ekonomikoak, politikoak, teknologikoak, gaitasunekin lotutakoak, kognitiboak, etab.) pertsona, talde edo erakundeen inklusioa bilatzeari dagokionez bereziki aktiboa izan behar den prozesu gisa ulertzen du garapena (Sampedro, 2013).

Berrikuntza inklusiboak prozesuak edo emaitzak izan daitezke (George *et al.*, 2012). Prozesu gisa hartuta beren ikaskuntza-prozesuetan, besteak beste, koordinazioa, lankidetzak edota gaitasunak bateratzeko ezaugarria barneratzea eskatzen dute. Emaitza modura ulertuta, besteak beste, bizi-baldintzetara, baliabideetara, produktuetara edota zerbitzuetara iristerakoan hobekuntzak ezartzearekin lotzen dira (Sampedro, 2013).

Bestalde, erreferentziazko literaturan errepikatzen denez, berrikuntza inklusiboko prozesuetan, arrunki, balioak, erabilerak eta azturak premia egiazko eta testuingurukoetara eramateko ekintzak eta ezagutza teknikoak konbinatzeko gaitasuna duten interfaze-eragile eta -erakundeen partaidetza eskatzen dute (Foster eta Heeks, 2013; Klerkx eta Leeuwis, 2009). GAZE programaren barnean burutzen diren proiektuetan aplikatzen den berrikuntza inklusiboan goi-hezkuntzako instituzioek eta ikasleek rol hori ikastea sustatzen da eta, aldi berean, eragile horien artean beren lurralde-ingurunekeo bazterketa-arazoekin konpromiso arduratsua indartzea eragiten duen dimentsio etiko eta gizarte-elkartasunezkoa barneratzen du.

Zehazki, GAZE programaren barnean aplikatzeko moduari dagokionez, *crowdlearning* kontzeptua estrategia kontzeptuzko eta metodologiko bat da,

ezagutzaren kalitatea eta arazoak ebazteko proposamenak hobetzeko lagungarri dena. Modu berean, berrikuntza inklusiboko proiektu edo prozesuetan estrategia hori zinez da egokia, kontuan hartuz prozesuko etapa ezberdinetan berrikuntzaren hartzaile izatea nahi diren eragileen integrazio eraginkorra ahalbidetzen duela. Honatx etapa horiek: arazoa identifikatzea, interpretazioa egitea, proposamenak eratu eta burutzea, diseinuak egitea eta proiektuak gauzatzzea.

Finean, *crowdlearning* kontzeptua ikuspegia eta jardunbide bat da aldi berean, berrikuntza inklusiboko prozesuetan aplikatuta ezagutza eta berrikuntza ekoizteko espazio tradizionalak tupustean irekitzeko lagungarri dena. Modu horretan, *esperimentazio kolektiborako* testuinguruak gaitzen dira. Testuinguru horietan hainbat tresna, eszenario, ikuspegi, ezagutza eta baliabide koordinatuz prozesuak hornitu egiten dira eta *berrikuntzak sozialki hobeto hedatzea* ahalbidetzen da (Rip eta Joly, 2012).

Programaren une honetako etapan eta haren jardunean kontzeptuzko erronka horiek ipinita, liburu honen helburua berrikuntzaren ekoizpen-esparru inklusibo baterako elementuen ekarpenean bultzadaxoa ematea izan da. Beste behin, «*berrikuntza inklusiboan ikasteko*» xedez lankidetzan murgiltzea erabaki dugu, GAZE programako kide diren eragile ezberdinek gauzatzen dituzten esperientzia zehaztatetik eratorritako ezagutzak, gogoetak eta emaitzak guztion eskura jarritz.

Honaino iritsita, bereizketa kontzeptual bat egiteari zilegi deritzogu. Izan ere, berrikuntza inklusiboaren kontzeptua oso zentzu desberdinetan erabiltzen baita (batzuentzat, adibidez, prozesu batean eragileak aintzat hartzeak «berrikuntza inklusiboaz» hitz egitea ahalbidetzen du). Horrexegatik, bi zentzu bereizten ditugu berrikuntza inklusiboaren erabileran. Bata, zentzu gogorrean, RRI delakoari (*Responsible Research and Innovation*, ikerketa eta berrikuntza arduratsua) lotuta, eta hortik ondorioztatzen diren ondorio kontzeptual eta operazionaleri ere bai. Bestea, zentzu ahulean, inozoan edo intuitiboan, ulertuta, zeinetan berrikuntza inklusiboa berrikuntza prozesu batean edo ezagutza ekoizpen esperientzia batean eragileen inklusio sozialaz arduratzen den. Liburu honen helburua berrikuntza inklusiboaren ulerkuntza gogorrerantz urrats bat egitea bada ere, hainbat ataletan (Azqueta eta Irazola ekarpenetan adibidez edo Rodríguez-Ferradas eta Morer Canoren kapituluan) berrikuntza inklusiboaren erabilera ahula probematizatzen da ere bai, inklusio sozialari lotuta doakiona alegia.

Horrela, Eizagirre, Rodríguez eta Ibarraren ekarpenarekin abiatu dugu liburu hau. Liburuan akademiaren eta politikaren esparruetan gaur egun ematen den eztabaidako elementu nagusiak aipatzen dira. Eztabaida hori, oro har, berrikuntzaren izaera *esklusiboaren* zailtasunari buruzkoa da, berrikuntzak, berez, *sozialki arduratsu* modura planteatu beharko lirartekeen arren. Horretarako, berrikuntza-prozesuen kudeaketa inklusiboa aldarrikatzen da, prozesuaren ziklo osoan, sortzetik aplikatzen den arte. Egile horiekin bat etorri RRI (*Responsible Research and Innovation*) ikuspegi europarra da jarrera mutu-

rrekoena zentzu horretan, izan ere, berrikuntzak *modu heterogeneoan kontingenteak* diren fenomeno modura ulertzen dira; eta erantzukizunaren kontzeptu soziopolitikoak xedetzat hartuta, fenomeno horiek prozesu inklusiboak behar dituzte, berrikuntza-sistemaren oinarri buruzko printzipioak, aspirazioak eta helburuak negoziazio heterogeneo batera irekitzea» ahalbidetuko dutenak. «negoziazioan, hura ere heterogeneoa, berrikuntza-sistemetako oinarria osatzen duten printzipio, aspirazio, helburu eta onarpen berak txertatzea» ahalbidetzekoak.

Esku-hartze publikoko mailan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Saileko Ainhoa Aizpuru Murrak eta Antton Tomasea Rodríguezek, zenbait programa eta proiektu deskribatuz, berrikuntza inklusiboa Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurralde-garapenerako estrategia abiarazteko elementu aktiboa izan dela erakusten dute. Kasu honetan inklusibotasunak lurraldea bera azpimarratzen du, hala, «lurraldea ez da esku-hartzearen markoa. Aitzitik, gizarte-eraldaketa eta -aurrerapenaren eragile bat da, protagonista da». Ikuskera horretatik eta Herri Administrazioa «ekiteko gai den erakunde» modura ulertuta, eta berrikuntzako eragile modura ulertuta, inklusioaren kontzeptua pertsonen eta erakundeen ikasteko gaitasunarekin lotzen da hertsiki. Egile horien arabera, ikasteko eta ikasten ikasteko gaitasun horretan datza «inklusio sozial eta ekonomikoko dinamikak, demokratizaziorako dinamikak eta gizarte osorako garapen iraunkorrerako dinamikak» sortzeko aukera.

Era berean Administrazioaren ikuspegitik, kasu honetan Donostia hiriarren kudeaketa kulturalaren ikuspegitik, Cantero, Garcia eta Payak Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburuaren esparruan garatzen diren zenbait proiekturen adibideak eman dituzte. Horietan herritarren partaidetza, inklusio eta ahalduntzerako metodologia berritzaileen sustapen eta esperimintazioa nabarmentzen da. Hau da abiapuntutzat hartzen den ideia: «kulturan eta balioetan oinarritako heziketa da gizartean aldaketa eragiteko tresna» eta «baita gizarte parte-hartzaile eta inklusiboago bat sustatzeko ere, herritar-tasuna indartu eta gaikuntza nahiz ahalduntzea zilegituko duena, hala indibidualki nola gizarte osoari dagokionez». GAZE kaleidoskopio proiektuaren deskribapena barneratzen da, ikasturte akademiko honetan burutu dena proiektu honekin lankidetzan.

Halaber, Ekonomia Solidarioaren Euskal Behatokia ere gonbidatu dugu gogoeta kolektibo honetan parte hartzeko, berrikuntza inklusiboa sakonki aztertzeko eremu kritiko batean, hots, finantzen eremuan. Hala, Mikel Azquetak finantza etikoetako elementu nagusiak barneratzen ditu, gizarte-inklusioaren sustatzaile diren aldetik. Bertan finantza-bide alternatibo horiek eman dezaketen kreditu-eskubidearen (sarbidea) nozioa nabarmentzen da eta, aldi berean, finantza etikoetan sartzen diren proiektuetako iraunkortasun-irizpideak aintzat hartzen dira, erantzukidetasunaren irizpideekin eta Europako RRI ikuspegitik planteatzen diren *right impacts* izendatzen direnekin lot daitezkeenak. Ikuspegi horrek, arestian aipatu dugunez, sozialki arduratsua den berrikuntzari buruzko

gogoetaren testuingurua jartzen du. Coop57 kreditu-kooperatibaren adibidea aztertzen da eta, era berean, banku-entitateek eta bankuez aparteko entitateek inklusioa eta erantzukizuna nola sustatzen duten erakusten da, ikaskuntza kolektiboko edo hesirik gabeko ezagutzaren dinamiketarik abiatuz.

Goi-hezkuntzaren eremuan GAZE programako kide diren eragile ezberdinek egindako ekarpenak ditugu. Gainera, berrikuntza inklusiboaren inguruan modu aktibo eta gogoetatsuan ikastea erabaki dugu, gauzatzen diren praktika, ekimen eta proiektuetatik abiatuz.

Hala, Irazolaren artikuluan ETHAZI eredu deskribatu eta aztertzen da. Eredu horretan ikerketa eta ikaskuntza-metodo eta -prozesuetan aplikatutako prototipoen diseinua uztartzen dira. Eredua TKNIKA (Euskadiko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikatuko Zentroa) erakundearen 5 zentrotan partaidetza aktiboarekin txertatu da. Heziketa-eredu hori diseinatzeko eta garatzeko ikuspegi inklusibo eta dinamikoa nabarmentzen da nagusiki. Ereduak ikaskuntza eta irakasle-taldearen sareko lankidetzazko aplikazio eta transferigarritasuna izan ditu oinarritzat. Ingurune instituzional bideratzaile batean, eredu horren inklusibotasuna, nagusiki, sarearen barneko ezagutza, balio eta esperientzietan sostengatu da. Hain zuzen, sare hori izan da elkarren arteko sormena abiatu eta berrikuntzaren emaitzan lortu nahi ziren eraginak proiektatzeko erantzukidetasuna beregain hartu duena.

Bestalde, Rodríguez eta Morer egileek 2012-2013 ikasturtean TECNUN eskolako Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzako Graduan abian jarri zen eta gaur egun oraindik aktibo mantentzen den *Improving the World* izeneko ekimena aipatu dute. Esperientzia pedagogiko horrek berrikuntza inklusibo eta irekia diseinua gizarte-konpromiso (diseinu soziala) modura behatzeko ikuspegiarekin lotzen du. Horrela, erabiltzaileen premia, interes eta portaerak aztertu, ulertu eta gaineratzeko erronka planteatzen zaie ikasleei produktu berritzaileen garapenean aplikatu daitezkeen eta, aldi berean, enpresa-ekimen modura abian jarri ahal izateko ekonomikoki bideragarri izan daitezkeen irtenbideak bilatu ahal izateko. Ekimen horiek, hasiera batean, ikasleek gidatuko zituzketen baina garapenaren xede diren herrialdeetako herri-tarregana hedatzeko modukoak izan beharko liriateke. Esperientzia honekin ikasleek berrikuntzaren ikuspegi kritiko bat garatzea lortzen dela nabarmentzen da nagusiki. Gainera, hein batean, lagungarri da berrikuntzaren eredu lineal, eksklusibo eta hierarkikoak berregituratzeko.

Arreta GAZE programan jarriz, Luque, Ibarra Segurola eta Barrenecheak egindako artikuluan Idazkaritza Teknikoak lankidetzaren sare honetan finkatu nahi den berrikuntza inklusiboaren dinamikako eragile bitartekari modura duen zeregina definitzeko elementuei buruzko gogoeta egiten da. Ikuspegi ezberdinetatik argudiatzen da erantzukizunaren artikulazio operatiboa nahiz banaketa horizontala gobernantzaren eta funtzionamenduaren maila ezberdinetan ezartzea lortzeko Idazkaritza Teknikoak jorratzen duen lana. Era berean, lankidetzaren-ikaskuntzako prozesuen bideratzaile gisa duen partaidetza azpimarratzen da, esplorazio-, esperimentazio- eta ustiapen-prozesuak gauzatuz bi norabide-

tan: inklusioa eta, aldi berean, gaitasun, trebetasun eta ezagutzen banaketa instituzio arteko GAZE sarean eta «gizartearentzat eta gizartearekin» aldarri duen dinamikan.

Ondoren, Barrenechea, Fronti eta Ibarrek egindako ekarpenean GOBERNPROY tresna deskribatzen da, 2012. urtean garatu zena GAZE programaren barnean, instituzio arteko gobernantzaren dinamika plangintza estrategikoan zein kudeaketan sostengatzeko xedez. Tresna horrek inklusibotasunean eta aurre hartzen duen-gobernantzan oinarrituz garatu nahi diren lankidetzaproiektuen kudeaketan izan dezakeen baliagarritasuna aztertzen da, inklusibotasuna eta aurre hartzen duen-gobernantza RRI ikuspegitik erantzukidetasuneko printzipio modura ulertuta. Inklusibotasunari dagokionez, tresna horrekin sarrera hirukoitza ahalbidetzen dela ondorioztatzen da: ikuspegi anitz txertatzea, elkarren arteko erantzukizuna etorkizunera beha, eta sareko ikaskuntzaren dimentsio bat, lortu asmo diren eragin edo etorkizunak definitzera bideratzen den kapital gogoeta-eragile baten mobilizazioa ezaugarri duena. Halaber, tresna horrek proiektuan den komunitate baten elkarriketa eta gogoetarako ahalmena bizirik mantentzeko duen egokitasuna nabarmentzen da eta, modu berean, berrikuntza inklusiboko prozesuetan desiragarri den ikuspegi kontingentea bizirik mantentzeko eskaintzen duen aukera azpimarratzen da.

Liburua GAZE-kaleidoskopio delakoan (2015-2016 ikasturte akademikoko edizioaren izena) parte hartu duten ikasleen ekarpenarekin amaitzen da. Haiek egindako gogoeta eta ekarpenek hiru planotan banatzen dute esperientzia: a) lehen planoan pertsonalki, talde modura, proiektuaren barnean bere partaidetza izan duten faseetan, bizi duten ikaskuntza-prozesuari buruzkoa da (Iraundegi, Iturzaeta, Markiegi, Toledo, Zozaya, Ibarra eta Luque); b) bigarren planoan «gizartearentzat eta gizartearekin» lankidetzaproiektuen garapenean gauzatzen dituzten kompetentzia eta ikuspegi garapenean jartzen da arreta (Etxeberria, Lomas, Marth eta Zumeaga); eta c) hirugarren plano instituzional batean unibertsitate mailarako ikaskuntza inklusiboko dinamikak aztertzen dira, unibertsitate inklusiboko eredu bat sustatzera begira lan egiteko erronka planteatuz (Azaldegi, Gil eta Otermin).

Erreferentziak

- Foster, Christopher eta Richard Heeks. «Conceptualising inclusive innovation: Modifying systems of innovation frameworks to understand diffusion of new technology to low-income consumers», *The European Journal of Development Research*, 25, 3 (2013): 333-355.
- Gibbons, Michel, Camille Limoges, Helga Nowotny, Simon Schwartzman, Peter Scott eta Martin Trow. *La nueva producción del conocimiento. La dinámica de la ciencia y la investigación en las sociedades contemporáneas*. Bartzelona: Pomares, 1997.
- Gupta, Anil K. «Towards an inclusive innovation model for sustainable development.» *Global Business Policy Council, AT Kearney-CEO's. Dubai: Retreat*, 2007.

- Klerkx, Laurens eta Cees Leeuwis. «Establishment and embedding of innovation brokers at different innovation system levels: Insights from the Dutch agricultural sector.» *Technological forecasting and social change*, 76, 6 (2009): 849-860.
- Lévi, Pierre. «Inteligencia Colectiva: por una antropología del ciberespacio», 2004. <http://inteligenciacolectiva.bvsalud.org/public/documents/pdf/es/inteligenciaColectiva.pdf> (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 19)
- Nowotny, Helga, Peter Scott eta Michel Gibbons. *Repenser la science*. Paris: Debats Belin, 2003.
- Rip, Arie, eta Pierre-Benoit Joly. «Emerging spaces and governance», *A position paper for Eu-SPRI Forum*, 2012.
- Sampedro Hernández, José Luis. «Innovación Inclusiva con Instituciones Inclusivas.» Nazioarteko LALICS 2013 Konferentzia «Sistema Nacional de Innovación y Políticas de CTI para un Desarrollo Inclusivo y Sustentable». 2012ko azaroak 11 eta 12, Rio de Janeiro, Brasil.

Etikatik politikara: berrikuntza arduratsua berrikuntza inklusibo gisa

Andoni Eizagirre
Mondragon Unibertsitatea

Hannot Rodríguez,
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Andoni Ibarra
Miguel Sánchez-Mazas Katedra, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

1. Sarrera

Berrikuntza-sistemak herrialde industrializatueta hainbat supoziziotan funtsatu izan dira. Besteren artean, hauek aipa daitezke: berrikuntzako aktoreen artean rolen banaketa argi eta zurruna ezarri da; berrikuntza makro-ekonomiaren zerbitzura egon da; berrikuntza egitez aurrerabidearekin eta ongizatearekin identifikatzen da (OECD, 1972; Sarewitz, 1996).

Alabaina, berrikuntzaren oinarri ideologiko eta operatibo horiek pixkanaka —eta modu erlatiboan— auzitan ipini dira, adituek eta instituzioek berrikuntza prozesu konplexuagoa dela aitortu ahala. Izan ere, berrikuntza aktore, eskari, kontsiderazio, espektatiba eta balio ugariren arteko interakzioen araberakoa da. Horren harira, 1990eko hamarkadarekin berrikuntzarako «ekosistemak» eratzeko neurri politikoak garatuko dira. Modu honetan, berrikuntzako aktore akademiko eta enpresarialaren artean kultura ekintzailea eta kolaboratiboa sustatzeko programak eta estrategiak diseinatu eta inplementatuko dira (Lundvall, 1992).

Aktore eta auzi heterogeneoak integratzeko joera hori, berrikuntzaren prozesu konplexua adieraztera datorrena, azken hamarkadan jite diferentea hartzen ari da, nolabait esatearren, erradikalagoa. Izan ere, berrikuntzaren norabidea eta helburuak eztabaidara irekitzea proposatu da, 1990eko hamarkadako helburu ekonomizista hutseko estrategia integratzaile eta kolaboratiboak ehuntera mugatu ordez. Hori da Europar Batasunean, neurri batean, antzeman dai-tekeena. Ikuspegi berri honen arabera, integrazioa ireki egiten da berrikun-

tzaren dinamiketan aktore eta eskari sozial diferenteak aintzat hartzera, modu inklusiboan. Irekiera horrek berrikuntza prozesuetan eskari eta aktore diferenteak integratzea suposatzen du. Adibidez, Máire Geoghegan-Quinn Europako Ikerketa, Berrikuntza eta Zientziako Komisario ohiaren (2010-2014) arabera, «*Research and innovation must respond to the needs and ambitions of society, reflect its values, and be responsible. (...) The first key is to engage people and civil society organisations in the research and innovation process*» (Geoghegan-Quinn, 2012: 1).

Berrikuntza fenomeno heterogeneoki kontingente modura ulertzeak, bide batez, orain arteko formulazioen errebisioa ere iradokitzen du. Izan ere, aitortu egiten da berrikuntzaren gizarteratzea ezin daitekeela berrikuntza teknologikoaren gizarte eta ingurumen inpaktuen erregulaziorako neurri instituzional hutsekin egin, besteak beste, garapen zientifiko eta teknologikoaren ziurgabetasun eta konplexutasun epistemologikoa eta normatiboa dela eta, berrikuntza -prozesuaren gestio inklusiboa ezinbestekoa delako, prozesuan integratuz norabidearen eta xedearen eztabaida ere (Irwin, Jensen eta Jones, 2013). Horri buruzko ikasgaiak nekazaritzako elikagaien arloko bioteknologiak agerian utzi dizkigu. Izan ere, teknologia bideragarria eta egingarria izanagatik ere, haren garapena eta komertzializazioa erregulatzeko neurriek herrialde europarretan porrot egin dute (Thayyil, 2014).

Beste hitzetan esateko, ikuspegi inklusiboak proposatzen du berrikuntza erantzulearen auzia modu politikoan ardatzea. Horren arabera, berrikuntza erantzulea eta arduratsua izango da, baldin eta, inklusiboa baldin bada. Alegia, balioen, interesen eta ezagutzen ugaritasuna integratu, moldatu eta erakundetzen baditu, horiek guztiak ere berrikuntza dinamizatze eta eratzeko dimentsioak diren heinean. Zentzu honetan, ardura eta erantzukizuna arazo modura politizatzen dira, alegia, eztabaida-gaia da zer nolako berrikuntzak nahi ditugun, eta hori modu kolektiboan erabakitze gaitasunei estuki lotuta birdefinitzen da.

Kapitulu honetan europar berrikuntza-politikaren trantsizio inklusibistaren oinarri historikoak eta kontzeptualak argituko ditugu. Era berean, trantsizio horren analisi kritikoa egingo dugu, hainbat zailtasun identifikatze aldera. Ikusiko dugunez, trantsizioaren izaera politikoari eta eraldatzaileari estuki loturikoak dira zailtasun nabariak. Horiek izanik kapitulu honen helburu nagusiak, hiru atal nagusi bereiziko ditugu. Lehenik eta behin, berrikuntza «berrikuntza eskusibo» modura karakterizatuko dugu, hain zuzen ere, 1990eko hamarkada bitartean, I+G+i (Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza) sistemetan nagusitu izan den eredia. Bigarrenik, azken bi hamarkadetan berrikuntzaren dinamika eta traiektoriak dibertsifikatzeko ahaleginak nabarmenduko ditugu. Honek balioko digu berrikuntza-sistemetan aktoreen eta eskari gehiagoren integrazio esplizitua identifikatzeko. Ariketa hori egin ahala, ordea, integraziorako eta irekierarako gaitasuna eta lorpena erlatibizatu egingo ditugu, berrikuntza-sistemen inperatibo ekonomikoak direla eta. Azkenik, europar RRI (*Responsible Research and Innovation*) ikuspegia hona ekarriko dugu. Horrek balioko digu integra-

zioa modu erradikalagoan, inklusiboan, ulertu eta aztertzeko. Izan ere, RRI ikuspegiak berrikuntza-sistemaren oinarriari buruzko printzipioak, aspirazioak eta helburuak negoziazio heterogeneo batera irekitzea proposatzen du. Edozein kasutan, gure analisian testuinguru instituzionala aintzat hartzen segituko dugu, gaur gaurkoz, berrikuntza lehiakortasunaren eta hazkunde ekonomikoaren inperatibo modura artikulatzen duen testuinguru instituzionala, alegia.

2. Berrikuntzaren inperatiboa: pribilegioa eta esklusioa

Iruditeria modernoan berrikuntza aurrerabideari eta ongizateari estuki lotua dago (Godin, 2015). Alabaina, aurrerabidea, berrikuntza edota ongizatea bezalako nozioek gizarte modernoak blaitzen badituzte ere, nozio anbiguo eta ilunak dira, haien norabidea argitu ezean eta barneratu ohi dituzten aukerak, balioak eta aspirazioak zehaztu ezean. Malgutasun interpretatibo horri lotuta, bestetik, berrikuntzaren izaera normatiboak dinamika eta traiektoria sozio-tekniko batzuk hobesten dituen heinean, beste batzuk alboratuta uzten ditu (Leach, Scoones eta Wynne, 2005).

Beste hitz batzuekin esateko, aurrerabidearen ikuspegi normatiboa balio-multzo batean sustraitzen da, balio-multzo horiek eta gure ezagutzeko, jarduteko eta ebaluatzeko moduek elkarri eragiten diote, eta neurri horretan berrikuntzaren norabidea emantzat jotzen dugu eta alde aurretik barneratu ohi dugu bilakaera ekidinezin modura ere. Modu horretan, gauzen ibilbidea emantzat jo eta determinatua balego bezala hautematen dugun heinean, berrikuntzaren gobernu zentralizatuak ere arruntak zaizkigu, aukera bakar modura antizipazioa eta egokitzea soilik geratuz, aurrerabidearen kontzepzio ekidinezinak harrapatuta bezala (Pellizzoni eta Ylönen, 2012). Honen adibide garbiak dira aurrerabidearen ideologia, edota azken aldian garapen jasagarria deritzoguna (OECD, 1997), edota edozein sistema sozio-teknikoren traiektoria (e.g. automobila, hirigintza, elikadura, sare elektrikoa, etxeko kontsumo energetikoa) eta berau egonkortzen duten dinamikak eraldatzeko zailtasuna (Lockie, Sonnenfeld eta Fisher, 2014).

Eztabaidatu ahal dira berrikuntzaren gaitasuna, abiada edota berritasuna, baina ez berrikuntzaren zentzua, eta are gutxiago, berrikuntzaren norabidea. Berrikuntzaren ontologia marko normatibo partikular batean gotortuta dagoen heinean, traiektoria, direkzio eta konfigurazio sozio-tekniko diferentek pentsatzea ere zaildu egiten da (Rip eta Kemp, 1998). Bitxia iruditu arren, gaur egunean berritzeko molde gehienek berritzailetik ezer gutxi dute, berrikuntzaren helburu eta asmoak orientatzeko aukera eskasari arreta ipiniz gero bederen. Gaur gaurkoz, berrikuntza erabat dago lehiakortasunari makurtua, traiektoria instituzional eta teknologikoen aldaera edo aniztasuna ere mugatua da, eta teknologiek eta berrikuntzek testuinguruko berezitasun edota behar zehatzetara egokitzeko duten zailtasuna gero eta nabariagoa da (Voss, Bauknecht eta Kemp, 2006). Muga eta zailtasun horiek, oraindik-eta nabarmenagoak dira, be-

girada planeta osora zabaltzen badugu eta analisisian integratzen baditugu botere asimetriak, desberdintasunak edota gizartea antolatzeke eta naturarekiko harremana ulertzeko moduen dibertsitatea, horiek guztiek agerian uzten baitute gaur eguneko berrikuntzen norabidearen aniztasun eskasa eta tokiko beharrak asetzeko gaitasun mugatua (Arocena eta Sutz, 2013; Bolay, Schmid, Tejada eta Hazboun, 2012; Vessuri, 2012).

Berrikuntzaren izaera eskusiboa, eta esklusiboa, ulertze aldera, I+G+i politikari arreta ipiniko diegu. Gai ustez objektibo eta teknikoa dirudien arren, I+G+i politikak ere badira aurrerabideari buruzko bisioak eta etorkizunerako aspirazioak kontenplatu dituzten artefaktu sozio-teknikoak (Sarewitz, 1996). Ohikoa izaten da pentsatzea I+G+i sistema nazionalak antolatzeke modua aurrerabideari eta ongizateari buruz ditugun ideien produktu hutsa dela. Baina zehatzago aztertuta, antzeman dezakegu I+G+i politikak aurrerabideari eta ongizateari buruzko gure bisioak ere baldintzatu ohi dituztela (Dickson, 1984). Hori horrela izanda, ikuspegi normatibo bat dena, normalean botereari lotua, izaera ontologikoki ekidin ezineko zerbait izatera heltzen da. Zentzu honetan, azken sei hamarkadetan formulatu diren ondoz ondoko I+D+i ereduak galdera bat eta berari emaniko erantzun diferente gisa ulertu ahal ditugu, aldiro aurrerabidea ulertzeko norabide kontingente pribilegiatu batek hala baldintzatu (Leach, Scoones eta Stirling, 2010). Azken urteetan, I+D+i politikaren eredu kanoniko bakoitzak norabide unitario, objektibo eta neutrala integratzen du, eta neurri horretan, gainera, hobetsitako bisioak bestelako direktzioak eta aldaketarako aukerak eskluitu egiten ditu.

Horren lehen adibidea, *Science: The Endless Frontier* txostenak azpimarratzen dituen ildo ideologiko eta normatiboetan aurkitzen dugu. Txostena, zientzia-politiken aitzindaria, Bushek (1945) ondu zuen, Franklin D. Roosevelt Ameriketako Estatu Batuetako presidentearen eskariari erantzunez, asmoa zelarrik bake denboretan ere zientziak eta teknologiak gerra denboran izaniko bilakaerari jarraipen oparoa ematea. Txostenean sekuentziazte lineala identifika genezake eta oinarritzko ikerketa izango da aplikazio teknologikoaren motor, eta produktu berritzaileen komertzializazioa, enplegu berrien sorrera eta hazkunde ekonomikoa ekarriko dituen, eta hedaturaz, segurtasuna eta ongizate soziala. Ikuspegi baikor horren osagarri modura, oinarritzko ikerketaren direktioari buruzko eztabaida publikoa alboratu egiten da, eta pixkanaka berrikuntza teknologikoak gaitu eta arauturiko ibilbidea eta bizitzeko moldea egonkortzearekin batera, berrikuntzaren katean fase desberdinen mugaketa funtzionala, instituzionala eta morala ezarri eta legitimatuko da. Eginkizun eta arduren esklusibitate hori hierarkikoa, zentralizatu eta esklusiboa da.

Paradigma horretan, esate baterako, zientzialariak, berrikuntzaren motor diren horiek, ezagutza berriaz arduratuko dira, eta ezagutzaren aplikazio teknologikoarekiko independenteak izango dira, ez dute horretaz zertan kezkatu beharrik izango, beste fase bati eta beste aktore batzuei esleituz ardura hori. Gauzak horrela, bisio lineala, positibista eta triunfalista bereganatuta, zientzialarien autonomia sustatuko da. Honen arabera, komunitate zientifikoak ontzat

jotako meritu zientifikoaren estandarrak eta arauak izango dira zientzialarien iparra, hala nola, egiantzekotasun gradua, balio zientifikoa eta originaltasuna (Polanyi, 1961), eta neurri horretan, baztertu egingo ditu bere arau eta balioetatik giza beharren asetzea edota gizartearentzat onuragarria den ezagutzaren alde aritzea (Ziman, 1998). Beste adibide bat jarriko dugu. Hartek (1998) zehaztu moduan, zientzia teknologiantzat, industriarentzat eta enpleguarentzat funtsezkoa joko bada ere, garai haietan zientziak eta teknologiak ekonomiarekin duten harremana zeharkakoa baino ez da izango. Hala, ikerketa eta garapen esperimentalari buruzko lehen inkesta nazionalari arreta ipiniz gero, lehen *Frascati Manuala* (OECD, 1963) delakoak proposaturiko metodologia normalizatuarekin, baieztatu dezakegu adierazleek soilik inbertsioei egiten dietela erreferentzia, alegia, azpiegituretan eta ikertzaileetan eginiko inbertsioak dira axola duten emaitza bakarrak. Hori horrela izanda, bitxia eta berezia da egoera, ezen oinarritzko ikerketaren emaitzak aurreikusi ezin daitezkeela irizten den aldi berean, oinarritzko ikerketaren estimulu politiko eta ekonomikoa aldeztatik onurek justifikatuta egiten da; egoera paradoxikoa da: emaitzak ezin daitezke aurreikusi, baina onura emantzat jotzen da eta onura horrek finantzazioa justifikatzen du. Baike, harrigarria badirudi ere, orain gutxi artean berrikuntzako jardueren neurketak ez die arreta ipini emaitza eta inpaktu ekonomikoa eta sozialei (Godin, 2010).

Horrek aditzera ematen du berrikuntzari buruzko paradigma berriak ere gerora lehen uneko kontsiderazio normatiboetan funtsatuko direla, gure usuetan, berrikuntzaren izaera eksklusiboa eta esklusiboa ulertzeko aldagai esplikatzailerik inportantea dena. 1960ko hamarkadarekin adibide argigarria topatzen dugu (Greenberg, 1967). Hamarkada horretan egiaztatuko denez, 1950ko eta 1960ko hamarkadetan finantzaturako bi proiektu estrategikok (minbiziaz ardurakoa ikerketa eta espazioko teknologia) emaitza oso diferenteak ekarriko dituzte eta Manhattan Proiektuarekin ateratako ikasgai nagusiak errebisatzeko premisa piztuko da. Hain zuzen ere, Manhattan Proiektua izan zen Bushen lehen zientzia-politika diseinatzeko baliatu zuen kasua. Honen arabera, oinarritzko ikerketa mugarik gabe finantzatu behar da, orain aurreikusi ezin daitekeen arren, gero segidan etorriko baitira aplikazio teknologikoa, hazkunde ekonomikoa eta ongizate soziala. 1960eko hamarkadan esplikazio lineal hori eta berrikuntza-sistemak birformulatzeko beharra agerikoa suertatuko da. Izan ere, datu empirikoek erakutsiko dute ikertzaile zientifikoaren kalitateak eta hauen emaitza oparoez ez dutela bermatzen ezagutza zientifikoaren transferentzia egitea garapen teknologikora eta sistema produktibora, inbertsioen errendimendu tasetan beherako joera egiaztatzearekin batera; zientzia-sistemaren potentziala (bere dimentsioa Barne Produktu Gordinean) ez da aski aldagai izango herri edota enpresa baten gaitasun teknologikoa eta produktiboa esplikatzeko. Giro horretan, berrikuntzaren garai tolesgabea errebisatu eta gaitasunari ekingo zaio. Ezagutzaren sustatze hutsean oinarrituriko sistemari, merkatuaren eskarian oinarrituriko sistemak ordezkoa hartuko dio (Weinberg, 1967).

Egia esatera, eredu linealak iradokitzen duenaren aurka, lehen unetik beretik aurkitzen ditugu oso bestelako irakurketa baterako zantzuak. Izan ere, bonba atomikoaren arrakasta esplikatzekoan, oinarrizko ikerketa eta zientzialarien bikaintasuna ez dira aski esplikazio, garrantzitsuak baitira interes militarra edota bigarren mundu gerraren testuingurua, edota erresistentzia soziala ere, aldez edo moldez, eredu lineala auzitan ipintzen dutenak eta dimentsio aniztasuna eta interaktiboa hobesten dutenak. Aitzitik, lehen une hartan bederen, beste dimentsio horien garrantzi esplikatzailea bazterrean utziko da, eta horrekin batera, berrikuntza gobernatzeko modu deszentralizatuak hobesteko edota testuinguruari eta interes sozialei erantzuteko aukerak ere bai, eredu linealaren mesedetan. Gehiago ere esan liteke. Orduz gero, urriak izan dira bestelako aukerak diseinatu eta proposatu dituzten kasuak, salbuespenen artean, Brooksen (OECD, 1972) kasua aipa daitekeelarik, berak formulatu baitzuen «zientzia, teknologia eta gizartea sistema bat» eskari sozialak asetzerara orientatua egongo zena eta ingurumen jasangarria ipar izango zuena.

Horren ordez, 1960ko hamarkadan hasiko den paradigmaten errebisioak aditzera ematen du zientzia orientatu egin behar dela, inbertsioaren probetxurako mekanismoak hobetsiz eta ezagutzaren transferentzia sistema produktibora bermatuko duten ildo estrategikoak sustatuz (OECD, 1968, 1971). Ikerketaren izaera aplikatuak indarra hartzen du, eta ingeniariaren irudia lehen lerroan jarriko da, baina, edozein kasutan, aldaketa hauek guztiek xede bat dute, berrikuntzaren abiadura hobetzea, beti ere, sekuentzia lineal eta triumfalistan funtsatuta. Honen esplikazioa da herri baten izaera berritzailea eta bere sistema zientifiko-teknologikoaren efikaziak inaktuarekin eta emaitzarekin lotura estua duela. Zentzu horretan, bereizi egingo dira produkzio zientifikoari buruzko adierazleak eta emaitza teknologikoei buruzko adierazleak (bigarren adierazle multzoa, patenteei eta markei buruzkoa, argi eta garbi propietate industrialeko tituluak eskainiaz kreakzio teknologikoari loturiko ikerketa aktibitateak babestu eta sustatzera bideratua dago). Izan ere, uste da patenteak i+g arrakastatsuen produktua direla, eta neurri horretan, berrikuntza motibatzekeko estimulu berrizat joko dira, horretarako legedi propioa sortuz.

Pixkanaka, beraz, *laissez-faire* politikaren baztertze progresiboa gertatuko da, baina horrez gainera, 1960ko eta 1970eko hamarkadekin, berrikuntzaren irakurketa linealak ere arazo nabariak izango ditu, eta indarra hartuko dute berrikuntzaren izaera konplexua eta kontingentea azpimarratzen duten ikuspegiak, gero eta garrantzi gehiago emanaz garapen zientifiko eta teknologikorako testuinguruari eta alderdi instituzionalei. Berrikuntzaren parte kontsideratuko dira errealitate sektorialak (governua, unibertsitatea, industria, irabazi-asmorik gabeko elkarteak), testuinguru ekonomikoa eta finantzieroa, edota nazioarteko ingurumaria. Honek aditzera ematen du berrikuntzaren aspektu ontologikoa pribilegiatua eta kontingentea dela, alegia, berrikuntza errealitate bilakatzen da, nahiz eta modu unibokoan eta ekidin ezinean proiektatu, neurri instituzionalei eta politikoei esker (OECD, 1980, 1988, 1991a, 1991b). Zentzu honetan,

berrikuntzaren izaera konplexua aitortuko bada ere, ez da ohikoa ezagutzeko, jarduteko eta ebaluatzeko modu diferenteei buruzko eztabaida.

Guztiarekin, 1990eko hamarkadarekin ipiniko dira berrikuntzari eta aldaketa teknologikoari buruzko teoriak politika ekonomikoaren nukleoan (OECD, 1992). Garai berri baten hastapenak izango dira. Bere ezaugarri bereizlea izango da ezagutzaren produkzioarako sistemaren eta ondasun eta zerbitzuen produkzioarako sistemaren arteko fluxuen emaitza politika ekonomikoaren kontsideraziotik baloratuko dela. Hurrengo bi hamarkadetan berrikuntzak jite eskusiboki ekonomikoa hartuko du, eta lehen une batean eremu teknologiko eta enpresarialera irekiko bada, pixkanaka dibertsifikatu egingo da eta berrikuntza sozialaren erretorikarekin beste eremu guztietara helduko da (OECD, 1996). Testuinguru honetan, ekintzailea ikono sozial berria bilakatuko da, enpresari shumpeteriarraren aldaera gaurkotu gisa, eta figura hori ohikoa izatera iritsiko da laborategietan, unibertsitatean eta bizirautea xede duen gizarteko edozein ofiziotan.

Atal honetan ikusitakoarekin, beraz, XX. mendeko bigarren erdian berrikuntzaren irakurketa gero eta konplexuagoa egingo da, dimentsio teknikoen, ekonomikoen eta sozialen garrantzia onartuz, eta neurri horretan eredu lineala erabat gainditu dela pentsa liteke. Baina horren osagarri modura, berrikuntzari buruzko eredu diferentietan jarraidurarik ere antzeman liteke. Zehazki, oinarriko funts batzuk azpimarratu daitezke, hala nola: berrikuntzako aktoreen artean rolen banaketa argi eta zurruna; berrikuntza teknologikoa eskari makro-ekonomikora erabat baldintzatzea; aurrerabidearen irakurketa egitez positiboa.

3. Dibertsifikazioarako joerak: berrikuntza prozesu ireki modura

Azken bi hamarkadetan berrikuntza-prozesuen konplexutasun konstituti-boa gero eta modu nabariagoan aitortu da. Honen arabera, berrikuntza aktore eta eskari diferenteen arteko elkarrekintza eta berrelikadura modura ulertzea iradokitzen da (Biegelbauer eta Borrás, 2003). Aldaketa nabarietako bat da berrikuntzaren irakurketa ez dela egituran zentratua eta horri ordezkioa hartuko diola ikuspegi dinamikoak eta prozesuari garrantzia emango zaio. Modu honetan, berrikuntza ulertu eta eragite aldera, ingurumari produktiboa ez ezik bestelako agenteak eta jarduerak ere balioan jarriko dira. Berrikuntzako agenteak pluralizatu egingo diren bezala, jarduera berriek lehen mailako garrantzia hartuko dute, hala nola, diseinuak, ezagutzaren transferentziak, marketingak, patenteen gestioak edota aliantza finantzieroak (OECD, 1999).

Aldaketa ez da gutxietsi behar. Izan ere, sareen kreaioak eta berrikuntza distribuituak artefaktu teknologiko eta industrialen produkzioan kooperazioarako aukera informalak irekitzen ditu (OECD, 2001). Gainera, zientziaren eta gizartearen arteko muga tradizionalak lausotu egiten dira. Besteren artean, erabiltzailearen rola, normalean komertzializazioaren azken kate-maila, lehen le-

rrora etorriko da, izaera estrategikoa hartuko du (hainbatetan, instrumentala eta oportunistak ere bai), berrikuntzarako aukera eta eremuak zabaldu egingo dira (industriatik zerbitzuetara) eta, berrikuntza, produktibitatean duen rola dela eta, gobernu eta enpresek elaboraturiko lehiakortasun planen erdigunean kokatuko da (Marklund, Vonortas eta Wessner, 2009).

Neurri berean, berrikuntza irekiari buruzko interesa ere hazi egingo da. Hori horrela, ezagutzaren izaera distribuituaren aitortza egiten da eta organizazio desberdinen arteko kolaborazioak ere (enpresa pribatuak, ikerketa publikorako organismoak, erabiltzaileen organizazioak) garrantzia hartuko du. Hori neurri batean oso dago lotuta testuinguru, ingurumari eta erabiltzaile oso desberdinetara ireki eta heldu beharrak dakarren erronkari. Berrikuntza distribuituaren beste kasu adierazgarria, erabiltzailean funtsaturikoa, eta gizarteari buruzko ikuspegi normatibo oso diferentea iradokitzen duena, sarbide irekiko erremintak dira. Azken batean, hainbat eredu daude indarrean, horietako asko errentagarritasun enpresarialak orientatuta, baina badira berrikuntza ulertu, sustatu eta gobernatzeko modu diferenteak iradoki eta esperimintatzen ari direnak ere (von Hippel, 2004). Halako kasuetan, bereziki, lanaren banaketa oso diferentea antzematen da, konplexuagoa eta interaktiboa, berrikuntza errejimen distribuitua erakusten digutenak, profesional eta gizarteko talde desberdinek kolaboratzen duten heinean. Kasu batzuetan, gainera, erabiltzaileak (pazienteak, kirolariak, nekazariak) eragindako berrikuntzak dira, edota komunitatean oinarrituriko berrikuntzak ere izaten dira, behar eta aspirazio sozialei zuzeneko erantzun bat emateko asmoz. Neurri batean, aktore eta eskarien inklusio nabariagoa sustatzen duten sistema eta praktikak dira, eta horrek eragina du gobernantzan eta aurreikusitako emaitzetan ere (Callon, Lascoumes eta Barthe, 2009; Levidow eta Oreszczyn, 2012).

Gainera, modu horretako dinamikak ez dira soilik berrikuntza zientifiko eta teknologikoen alorretan ematen. Adibidez, hezkuntzaren eremuan, finlandiar eskola konprentsiboak berrikuntzaren eta ikaskuntza instituzionalaren inguruko galdera erdiguneko kezka gisa planteatzen du, eta behar eta gaitasun indibidualak garatzeko zerbitzu kapazitateak garatzen ditu (Miettinen, 2013). Hezkuntza-zerbitzuaren kalitateak, zentzu horretan, ezinbestekoak ditu esperimintazio lokaleko prozesuak (zerbitzuen probisioaren deszentralizazioa, gobernantza municipalak), eta horrek, bidenabar, aukerak ireki eta errazten ditu unibertsitateen, ikerketarako institutuen, profesionalen eta asoziazio zibikoaren arteko ikaskuntza partekaturako, horrek zirkulu bertutetsu modura aldiro errebisatu eta birdefinituko dituelarik hezkuntzaren alorreko estandarrak eta helburuak.

Behin hori esanda, ordea, azpimarratu egin behar da berrikuntza-dinamikek harreman edota kooperazio molde batzuk pribilegiatzeko joera dutela, beseztuzuen kalterako (OECD, 2005). Gauzak horrela, berrikuntza teknologikoen dinamiketan irekierarako eraldaketek nahitaez organizazio moduen, balio kateen eta negozio egituren eraberritzea beharko lituzkete. Egiatan, korrelazio estua dago berrikuntzaren orientazioaren eta artefaktu sozio-teknikoen

konfigurazioan biltzen diren aktore eta eskarien aniztasunaren artean (Markus, 2009). Hori dela eta, komeni da zuhurrak izatea eta berrikuntza gauzatu ohi den espazioei arreta ipintzea. Berrikuntzaren konplexutasuna aitortzeak edota kontingentzia sustatzeak ez du esan nahi, beraz, guztia denik posiblea, edo egingarria (Jasanoff, 2004).

Izan ere, berrikuntza sekula ez da hutsaltasun sozial eta politikoan gartzen. Berrikuntza-prozesuetan testuinguruko faktoreak (hezkuntza sistema, eredu produktiboa, zerga politika, finantzaziorako eta krediturako aukera, elkarren bermerako sozietateak, azpiegitura proiektuak) funtsezkoak dira (Aho, 2006). Zentzu honetan, berrikuntza teknologikoak gizartea antolatzen du, modelatu egiten du, alegia, berrikuntza teknologikoak beharrezkoa du gizarte ekintzailea, arriskuak bere gain hartzen dituen, eta berrikuntzaren laguna den ingurumaria (European Commission [EC], 2010).

Horrekin batera, instituzioen eraldaketa ere aipatu behar da, berrikuntza lehiakortasunerako motor kontsideratzeari estuki lotuta. Adibideetako bat dira unibertitateetako plan estrategikoak, gero eta garrantzi nabariagoa hartzen ari direlarik ezagutzaren transferentziari buruzko neurriak. Honen arabera, baliabideei eta jardueri buruzko adierazleek arreta ipintzen diete enpresekin eginiko kontratu eta hitzarmenei, garapen teknologikoari, enpresa-inkubadorari, profesionalen arteko hartu-emanari, ekintzailtzari eta enpresetan eginiko praktikei, eta hedaturaz, emaitzei eta inpaktuei buruzko adierazleak lerrotatzen dira neurtzera enpresen kreazioa, komertzializazioa, lizentziak, erabilgarritasun modeloak, patenteak, *spin-off*-ak, *start-up*-ak eta transferentzia teknologikoa (Perkmann *et al.*, 2013). Honek aditzera ematen du berrikuntza-ereduak gizarteak eta beren instituzioak birkonfiguratzera heltzen direla.

Honen harira, deigarria da berrikuntzari buruzko ikerketak (*Innovation Studies*) eta gobernuen neurriak eta inbertsiorako programak beti I+G+b sistemen antolaketa eta funtzionamenduari begirakoak izan ohi direla, haren instituzioak eta instrumentuak nola hobetu dela kezka nagusia (baliabideen optimizazioa, ezagutzaren gestioa), baina horretara mugatuta, berrikuntzari buruzko ikerketek eta neurri politikoek alde batera utzi dituzte berrikuntzaren garrantziari eta esanahiari buruzko eztabaidak (Boden, Johnston eta Scapolo, 2012; Smith, Voß eta Grin, 2010). Halaxe onartu berri dute berriki mundu mailako aktore nagusiek ere (Obama, 2009; OECD, 2010; EC 2011, 2013). Horrek esplikatzeko du nola den posible berrikuntzaren izaera konplexua aitortzearekin batera, traiektoria sozio-teknikoaren propietate normatiboak energia alorrean, garraioan, nekazaritzan, osasunean edota elikaduran interes eta intentzio sozio-tekniko oso mugatuekin erabakitzea (Ely, Smith, Stitling, Leach eta Scoones, 2013; Scoones, Leach eta Newell, 2015).

Honek guztiak indartu egiten du berrikuntza-sistemen izaera konstitutiboki eskluientea, modu horretan bide batez bestelako alternatiba bideragarriak alde batera utziz, urratuz edota murriztuz (van den Hove, McGlade, Mottet eta Depledge, 2012). Alabaina, eta paradoxikoa dirudien arren, joera eskusibista horrek hainbatetan ahuldu egiten dituzte berrikuntza-sistemak eta

hauen bere planak eta emaitzak (Hommels, Mesman eta Bijker, 2014): gizarteek eta herritarrek teknologiekiko menpekotasun handia duten modu berean, gerta daiteke berrikuntza teknologikoki bideragarriek blokeo soziala pairatzea, besteren artean, interes faltagatik, errentagarritasun ezagatik, edota oposizio nabarmen batengatik. Hau dela eta, gobernuak irekitasunaren aldeko rola jokatzera deituak daude, promesa teknologikoen zikloa elikatzen dutenaldi berean, dinamika zientifiko eta teknologikoen alorrean gizarte erreflexiboaren ardura eta kezkei ere erantzute aldera (Bauer, 2015). Gizarteak aldatzen ari dira, beren gaitasun ekonomikoak, kulturalak eta hezkuntza mailakoak direla eta. Berrikuntzaren gobernantza paradoxa horretan dago, alde batetik, promesa teknologikoa hauspotu behar du, baina, bestetik, talde antolatutako aktiboek kritikoa aitortzen du.

Halere, komeni da ostera ere gogora ekartzea, berrikuntza garatzeko traiektoria ugari dauden arren, politika sustraituagoak eta inklusiboak garatzeko joera instituzionalek arazo eta zailtasun ugari dituztela. Berrikuntza distribuituak eta askotarikoak hobetsi badaitezke ere, berrikuntzak ekosistema instituzionalaren eta tekno-ekonomikoaren menpekoak dira, eta horrek gobernantza eta lankidetzaren ereduak sustatu ahal ditu, edo, bestela, berrikuntzaren eredu zentralizatuak indartu. Iradoki daiteke, beraz, berrikuntza ulertzeko eta gobernatzeko modu diferenteak datozenetan aldi bereko errealitateak izango direla.

Nolanahi den, hurrengo atalean lantzen da Europar Batasunean azaleratzen ari den erregimen berri bat, tipo *inklusibista* batekoa, proposatzen baitu aktoreen parte hartze handiagoa eta bazterturiko auzien kontsiderazioa —eta instituzionalak ere modu sustraituagoan artikulatua— berrikuntzaren prozesu osoan zehar.

4. Berrikuntza inklusiboa: integrazio sozio-teknikoa eta RRI

XXI. mendeko lehen hamarkadarekin Europako berrikuntza-politiketan eskaera sozialak berrikuntza prozesuetan integratzeko kezka eta interesa nabarmentzen da (e.g. European Commission [EC], 2001, 2002, 2003). Europar Batasunean, berrikuntza-dinamiken inklusibitate soziala, bereziki, nekazaritzako elikagaien arloko bioteknologiaren garapen eta merkaturatzeari lotutako porrot erregulatzaileak eragin du. Izan ere, nekazaritzara aplikatutako genetikoki eraldatutako organismoen (GEO) arrisku eta onuren gaineko eztabaida eta desadostasuna nabaria izan da, batzuetan herrialdeetako arauen artean, beste batzuetan instituzioen eta gizarteko taldeen artean (Tosun, 2014; Wickson eta Wynne, 2012).

Esperientzia horrek zera utzi du agerian: berrikuntzak sustatu eta arautzeko mekanismo tradizionalak, adituen ezagutzan oinarrituriko irizpide eta arau tekniko eta ekonomikoek, gabeziak dituztela. Izan ere, mekanismo tradizionalak ez dira aski berrikuntzek duten eragina aurreikusi eta determinatzeko (Beck, 1995; Cranor, 2011; Shrader-Frechette, 2007), ez eta ere eragin hori normali-

zatu eta egonkortzeko (Kleinman, Cloud-Hansen eta Handelsman, 2014; Vogel, 2012). Egia esan, ez da gauza harrigarria. Aitzitik, gizartearen izaera konplexuaren adierazle bat da. Bestela esateko, gaur eguneko gizarteetan interes eta lehentasun normatiboen inguruan aniztasuna dago (Lassman, 2011), gizarteak pluralak dira, eta horrek gainera ez du bestelako joerarik hartuko, ikusita informazio-jario etengabea eta ezagutzen eskuragarritasuna (Castells, 2012).

Horren ildotik, eta porrot bioteknologikoaren harira «ikasitako irakaspenak» (David eta Thompson, 2008) direla eta, Europar Batzordeak, 2004. urtean, nanozientzia eta nanoteknologia hasiberrien berrikuntza integratzailea, edo inklusiboagoa aldarrikatu zuen. Aldarrikapen horren arabera, auzi sozial eta etikoek eta osasun- eta ingurune-azuek berrikuntzaren garapen prozesu osoan parte hartu beharko lukete:

Nanotechnology must be developed in a safe and responsible manner. Ethical principles must be adhered to and potential health, safety or environmental risks scientifically studied, also in order to prepare for possible regulation. Societal impacts need to be examined and taken into account. Dialogue with the public is essential ... (EC, 2004: 3).

Zehatzago esanda, bultzada inklusibo hori, lehen une batean nanoteknologiai estuki lotu zaiona, gaur egunean europar ikerketa eta garapen eremu guztietara zabaldutako aldarrikapena da. Are gehiago, aldarrikapenak joera narratibo erradikalagoa hartu berri du, integratu beharreko gai eta auziei arreta ipiniz gero, behintzat. Esaterako, ikerketa eta garapena sustatzeko 6. (2002-2006) eta 7. (2007-2013) europar Programa Markoetan [PM6 eta PM7], ikerketa-dinamikek auzi sozial eta etikoak integratzea beharrezkoa zen, ondorengo pasarteetan adierazten den moduan:

... consideration of the ethical, social, legal and wider cultural aspects of the research to be undertaken and its potential application ... will where relevant form a part of the [6th Framework Programme research] activities ... (Council of the European Union, 2002: 7).

The challenge today is to encourage actors in their own disciplines and fields to participate in developing Science in Society perspectives from the very beginning of the conception of their activities. This is in line with concepts developed in the field of governance, notably that of «co-operative research» ..., i.e. a research process aiming as much at the harmonious societal integration of new scientific and technological knowledge as to achieving the specific objective of the research itself (EC, 2007: 6).

Hori gutxi ez eta, integrazio sozio-teknikoaren edo «ikerketa kooperatiboaren» aldarrikapenek iradokitzen dute ikerketa-prozesuetan adituak ez diren publikoak ere integratzea. Adibidez, Europar Batzordeko Aurrerapen Zientifikoaren Zuzendari Orokorren Albokoa zenak, Zoran Stančič-ek (2004-2009), ondorengo zioen PM6tik PM7rako trantsizioaren harira: «*More must be done*

(...) *to find ways of actively engaging with civil society, stakeholder groups and the public at large in the preparation and execution of research*» (Stančič, 2007: 1).

Hori esanda, ordea, inklusibitatearen aldeko narratiba testuinguru zehatzean ipini behar da, eta hori eginez gero, errealitate sozio-instituzionalean bestelako ikuspegi eksklusiboak agertzen dira. Horrek zeharo zailtzen du berrikuntzaren gobernantza-dinamika instituzionalak modu inklusiboan funtsatzeko eraldaketa-saio oro.

Azken buruan, berrikuntzarako politika europarren xede nagusia da erabilera industrial eta lehiakortasun ekonomikoa ahalbidetuko duen ezagutza ekoiztea eta transferitzea. Hori da berrikuntzaren inguruko konpromiso estrategiko nagusia. Hori dela eta, berrikuntza-dinamiketan aurrerapen tekno-industrial oztopa dezaketen perspektiba eta balioen integrazio potentziala inpermeabilizatuta geratzen da. Halaz, esaterako, Europar Batzordearen ustetan, «*[f]or Europe to become the most advanced knowledge society in the world, it is imperative that legitimate societal concerns and needs concerning science and technology development are taken on board*» (EC, 2007: 4). Azken buruan, Europar Batzordeko Osasun eta Kontsumitzaile Politikako komisario ohi John Dalli-k (2010-2012) adierazi bezala, «*it is important (...) to convince citizens of the benefits of (...) innovative products*» (Dalli, 2010: 2).

Berrikuntza-politika arduratsu eta inklusibisten edukia eta irismena mugatuko luketen tentsioek bestelako aldaerak ere badituzte. Tentsioa, adibidez, europar Barometroek zientziari eta zientzia-gizartea harremani buruz eskaintzen duten irudiaren bitartez ere adierazten da. Esaterako, *Social Values, Science and Technology 225* Eurobarometroak (EC, 2005) berrikuntza teknologiko jakin batzuekiko mesfidantza eta erreparazio soziala ikerketa-askatasunaren eta balio moralen arteko gatazka lez interpretatzen du. Hein horretan, funtsezko zedarriztapen bat finkatzen da: ikerketaren alderdi zientifikoa eta alderdi soziala bereizi egiten dira, bi eremu desberdinetan zedarrizten dira, eta ondorioz, zientzia, inplizituki bada ere, jarduera autonomo gisa da ezaugarritua. Hori horrela, zientzia jarduera autonomoa den heinean, ez dago eztabaida publikora irekia, eta bere kasuan, eztabaida-gai bakarria zientziaren aplikazioaren «kanpo eraginak» soilik izango dira (e.g. Eizagirre, 2013). Mota horretako planteamenduak bereziki nabarmenak dira berrikuntza teknologikoen arriskuei buruzko gobernaketan (Council of the European Union, 2014; Greiving, 2009). Izan ere, eremu horretan arrisku «objektibo» eta kudeaketa-dinamika inklusiboaren arteko funtsezko zedarriztapen bat indarrean dago (Rodríguez, 2016).

Horrenbestez, instituzioek berrikuntza arduratsuaren dinamikak mugatzeko joera erakusten dutela dirudi. Joera horren oinarrian funtsezko planteamendu bat legoke: zilegia den eztabaidagai bakarria berrikuntzaren ondorioekin zerikusia duena da. Europar Batzordeak propio eskatutako adituen txosten batek ondorioztatu zuen eran, berrikuntza arduratsuaren politika europarrak sistematikoki uko egin izan dio berrikuntza-dinamiken oinarrian aurkitzen di-

ren motibazio, konpromiso eta ikuspegi azterketa kritikoa ahalbidetzeari (Felt, Wynne, 2007).

Testuinguru horretan, irudi du Europar Batasunak berriki modu esplizituagoan onartu duela ardurari buruzko ikuspegi zabalago eta konplexuago bat, *politikoago* bat, izateko beharra. Ikuspegi tradizionala berrikuntza teknologikoen kudeaketan zentratzen da. Honen arabera, berrikuntzen balorazioan aintzat hartuko dira arrisku eta arazo «objektiboak» eta lehiakortasunari, ongizateari eta aurrerapenari buruzko printzipioak. Ikuspegi berrian, ordea, ardura berrikuntza prozesuari berari lotzen zaio—«*the whole innovation process*» (von Schomberg, 2015: 2). Hori da behintzat PM8-ak (2014-2020), «Horizon 2020» gisa ere ezagutarazitakoak, aditzera ematen duena, modu anitzean, edo inklusiboan eratutako ikerketa eta berrikuntza aldarrikatzerakoan, «Zientzia Gizartearekin eta Gizartearentzat» (*Science with and for Society*) ikuspegia baliatuta. Europar Batzordearen hitzetan:

‘Science with and for Society’ will be instrumental in addressing the European societal challenges tackled by Horizon 2020, building capacities and developing innovative ways of connecting science to society. (...) It allows all societal actors (researchers, citizens, policy makers, business, third sector organizations etc.) to work together during the whole research and innovation process in order to better align both the process and its outcomes with the values, needs and expectations of European society. This approach to research and innovation is termed Responsible Research and Innovation (RRI) (EC, 2013: 4).

Pasarte horrek harreman estuan dauden bi auziri heltzen die nagusiki. Alde batetik, «Horizon 2020» proposamenak iradokitzen du I+G praktikak «erronketan oinarritutako ikuspegi» [*challenge-based approach*] (EC, 2011) baten arabera definitu eta artikulatuko direla. Ikuspegi horren arabera, ikerketa eta berrikuntza aintzatetsiko dira premiazko gizarte- eta ingurumen-arazoak ebazteko luketen balioaren arabera. Europar Batzordeak «Horizon 2020»-ren aurkezpen baten harira esan moduan:

Smart investment, notably in research and innovation, is vital in order to maintain high standards of living while dealing with pressing societal challenges such as climate change, an ageing population, or the move towards a more resource-efficient society (EC, 2011: 2).

Bestetik, ikerketaren muga diziplinarrak eta sozialak hautsiko lituzkeen «Ikerketa eta Berrikuntza Arduratsua» (RRI-*Responsible Research and Innovation*) eskatzen da. Izan ere, ikerketaren eta berrikuntzaren garrantzia arazo eta arazo horien konplexutasun sozio-teknikoaren arabera definitzen da, ez diziplina eta ezagutza-eremuen arabera, eta beraz indartu beharrekoa ikerketa-eremu eta aktore sozial anitzen arteko elkarlana edo integrazioa da. Hein horretan, berrikuntza-dinamikei lotutako ardura sozialaren dimentsioa termino

erlazioaletan edo sistemikoetan planteatzen dela dirudi. Azken buruan, arazo-en formulazioa bera, eta arazo horien ebazpenak eragingo lituzkeen onurak —«*right impacts*» (von Schomberg, 2013)—, eztabaidagai bilakatzen dira, eta, hein horretan, berrikuntza-sistema instituzionalen oinarrian aurkitzen diren printzipioak, interesak, ikuspegiak eta usteak eztabaidagarri bilakatu beharko lirateke.

RRI ikuspegiak, beraz, berrikuntzari buruzko irakurketa birformulatu eta *modu anitzean kontingentea* den fenomeno gisa ulertzen du. Horren arabera, ardura-maila berrikuntza dinamizatu eta eratzen duten balio, interes eta eza-gutza askotarikoen integrazio, egokitzapen eta instituzionalizazioaren arabera-koa izango da. Beste hitzetan esanda, ardura politizatu egiten da, eta arduraren inguruko eztabaida gizarte modura nahi ditugun berrikuntzen gaineko erabaki kolektiboekin lotzen da:

This, in turn, is challenging scientists, innovators, business partners, research funders and policy-makers to reflect on their own roles and responsibilities, acknowledging that the irresponsibility in innovation is a manifestation of the ecosystem of innovation and requires a collective, institutionalized response, if this is indeed possible (Owen, Macnaghten eta Stilgoe, 2012: 757).

Berrikuntza arduratsua izatea kolektiboa, modu esplizituagoan azaltzen da RRI formulatzeko beste planteamendu batean. Kasu honetan, ardura modu partekatuan ulertzen da, ardura partekatu gisa, alegia, eragile desberdinek elkarrenganako luketen ardura gisa:

Responsible Research and Innovation is a transparent, interactive process by which societal actors and innovators become mutually responsive to each other with a view to the (ethical) acceptability, sustainability and societal desirability of the innovation process and its marketable products (in order to allow a proper embedding of scientific and technological advances in our society) (von Schomberg, 2013: 63).

«Elkarri erantzuteko» deiaren arabera, beraz, berrikuntza eragiten dutenek edota eragina jasango dutenek, bakoitzak bere eremu eta eginkizunetatik hara-tago, partzialki bederen, beste eragileen eskaerak ere aintzat hartu beharko dituzte, eskaera horiek beren ahaleginean eta gaitasunetan integratuz. RRI eremuko teoriarrien ustetan, ardura partekatuaren aldeko deiak, alegia, sozialki inklusiboa den berrikuntza arduratsu batek, lau ezaugarri nagusi lituzke: aurre hartzea (*anticipation*), erreflexibitatea (*reflexivity*), deliberazioa (*deliberation*), eta sentikortasuna (*responsiveness*). Alegia, eta hurrenez hurren (baina modu elkarreragilean): (i) berrikuntzari loturiko era askotako eszenategi posibleen eremu zabal bat irudikatu eta aintzat hartzea; (ii) eszenategi horien harira lehentasunak, balioak eta ezagutzak birpentsatu eta birplanteatzea; (iii) irudikapen, lehentasun, balio eta ezagutza horiek kolektiboki deliberatzea;

(iv) eta berrikuntzaren eraketa kolektiboa, edo inklusiboa instituzionalizatu luketen gobernaketa mekanismo eraginkorrak garatzea (Owen, Stilgoe, Macnaghten, Gorman, Fisher eta Guston, 2013; Stilgoe, Owen eta Macnaghten, 2013).

Hemen, hortaz, berrikuntzari lotutako rolen haustura konstruktiboa, edo «erantzukidea» («*co-responsible*» [von Schomberg, 2013: 65]) proposatzen da, tartean, berrikuntzarekin kritikoak direnena ere bai. Hau da, «lanaren banaketa moral» gisa («*moral division of labor*») (Rip, 2014) ezagutarazi denaren eraldatze dinamiko bat, eraldatze zirkunstantzialki kontingente bat. Kasu honetan, proposamen inklusiboak, arduraren ikuspegi eraldatzailea eta etorkizunari begirakoa planteatu eta berrikuntza modu anitzean eratzea proposatzen duen heinean, aurre egin beharko dio bere izaeratik beragatik berrikuntza-sistemen oinarrian aurkitzen diren inertzia eta dinamika sozio-instituzionalak gainditzeko erronkari (Levidow eta Neubauer, 2014).

Komenigarria litzateke, bada, RRI-ren inklusibitatearen aldeko apustua eszeptizismo puntu batekin baloratzea. Adibidez, babes instituzionala duten parte hartze publikorako ekimenek garapen teknologikoan duten eragin potentziala mugatua geratzen da, berrikuntzaren sustatze eta erregulazio dinamikien oinarrian aurkitzen diren helburu, balio eta interes politiko-ekonomikoengatik. Izan ere, parte hartzeari loturiko auziak eta ikuspegi normatibo alternatiboak bazterrean geratzen dira (Sykes eta Macnaghten, 2013). Gainera, oro har, azken bi hamarkadetako europar zientzia-politiken garapenari lotutako berrikuntza inklusiboari buruzko etengabeko erradikalizazio narratiboak ez du bere neurriko eraldaketarik eragin praktika zientifiko-teknologikoan. Azken horiek oso lehiakorra den ezagutzan oinarritutako ekonomia baten eskaerak asetu eta ikerketaren alderdi industrialia ustiatzera daude bideratuta, nagusiki (Rodríguez, Fisher eta Schuurbiers, 2013).

RRI-k testuinguru sozialaren eraginagatik baztertuta utzi ohi diren berrikuntzaren auzi osagarriak eztabaida publikora ireki nahi ditu, eta hein horretan bere baitan darama zientziari eta zientzia-gizartea-natura harremani buruz alternatiboagoak lirakeen ikuspegi eta etorkizunen eraketa ahalbidetzea. Hein horretan, hala ere, ezin dugu ahaztu erradikalki arduratsuagoak lirakeen errealtate eta etorkizun sozio-teknikoen eraketa zeharo legokeela mugatuta indarrean diren oinarritzko inertzia, botere-asimetria eta lehentasunengatik. Edozein kasutan, modu inklusiboan kontingenteagoa litzatekeen berrikuntza-prozesu baten aldeko aldarrikapenaren bitartez, RRI-k dinamika eta hertsadura horien esplizitazioa ahalbidetzen du, eta hori bere baitan bada ekarpen garrantzitsu bat.

5. Ondorioak

Kapitulu honek Europar Batasunaren eremuan garatu eta formulatu diren berrikuntza zientifiko-teknologiko inklusiboari lotutako dinamika historiko-

kontzeptualak aztertu ditu. Alde batetik, politika europarrek —eta, oro har, gizarte industrializatuek— berrikuntza-prozesuei lotutako jarduera zientifiko-teknologikoen diseinuan eta gauzatzean auzi sozio-ekonomikoak integrazteko duten joera geroz eta handiagoa identifikatu dugu. Beste alde batetik, baina, agerian utzi nahi izan dugu inklusiboki arduratsuak diren berrikuntza ereduarentako eboluzioa ez dela hutsean gertatzen, baizik eta berrikuntzaren inperatibo ekonomikoa nagusi den testuinguruan. Inperatibo horren baitan, politika instituzionalak hazkunde ekonomikoren eta nazioarteko lehiakortasunaren zerbitzura dagoen ezagutzaren instrumentalizazioek definitu eta bideratzen dituzte. Beste hitzetan esateko, ezin zaio berrikuntza inklusiboaren esanahi, irismen eta eraginaren auziari heldu, berrikuntza horren testuinguru sozio-ekonomikoari erreparatu gabe. Izan ere, testuinguru horren baitan gauzatzen da potentzialki distorsionatzailea den «kanpo» eragin orotatik salbu mantentzen diren interes eta helburu jakin batzuekiko instrumentalizazio gradua (Stirling, 2008).

Edozein kasutan, europar politikek proposamen inklusibo erradikalak garatu dituzte. Hauetan zientzia eta gizartearen arteko harremanen formulazioa kontzeptualki oso eraldatzaileak diren oinarrietan ematen da. Horren adibide da europar RRI ikuspegia, ezagutza eta berrikuntzari buruzko perspektiba anitza, edo erlazionala, proposatzen duena. Izan ere, RRI ez da geroz eta zorrotzagoa eta erreflexiboagoa den gizarte baten eskakizunak asetu behar dituen usitezko zientzia autonomo baten gaineko ariketa erregulatzaile soil bat. Haatik, RRI berrikuntza-dinamikak berez konplexuak, anitzak eta erlazionalak direla onartzetik abiatzen da, eta, hein horretan, dinamika horiexen araberako gobernaketa ahalbidetzea du xede.

Arduraren auzia modu horretan planteatzeak, halabeharrez, potentzialki modu anitzean aldatu eta birformulatu daitezkeen berrikuntzaren prozesu eta dinamiketan beraietan kokatzen gaitu. Era berean, dena esan beharra dago, zientzia arduratsuen «politizazio» horrek agerian utzi behar du RRI ikuspegia berrikuntza prozesuetan aplikatzearen zailtasuna. Izan ere, ikuspegi horren bideragarritasuna berrikuntza prozesuen oinarrian aurkitzen diren printzipioak, inertziak, balioak, konpromisoak edota helburuak eraldatzeko gaitasunen araberakoa da, jakitun izanda, hori, beti ere, gradu handiago edo txikiagoan eman daitekeela, prozesu bakoitzaren zirkunstantzien eta berezitasunen baitan.

Hala ere, modu inklusiboan kontingenteagoak diren berrikuntza-dinamikak erdiesteko helburuak, berauei lotutako diagnosia eta azterketarekin batera, hertsadura horiek esplizitatzeko balio du, eta hori bere baitan ekarpen garrantzitsutzat har daiteke. Halaber, horrek guztiak aukera ematen digu inklusibitatearen auzia termino absolutuetan bainoago (i.e. inklusibitatea, bai ala ez), gradu-terminoetan ulertzeko, inklusibitateak testuinguruaren araberako ertz asko izan baititzake (esanahiei, irismenari, eskaerei, balorazioei, eta bestelakoei dagokienean).

6. Esker onak

Atal hau gauzatzeko ondorengo erakundeek laguntza jaso dugu: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila [IT644-13], Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa [FFI2015-69792-R], eta Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU [EHUA15/13] (Rodríguez).

7. Erreferentziak

- Aho, Esko. *Creating an Innovative Europe*. Report of the Independent Expert Group on R&D and Innovation. Luxemburgo: Office for Official Publications of the European Communities, 2006.
- Arocena, Rodrigo eta Judith Sutz. «Innovación y democratización del conocimiento como contribución al desarrollo inclusivo», in *Sistemas de innovación para un desarrollo inclusivo: La experiencia latinoamericana*, Gabriela Dutrénit eta Judith Sutz (argit.), 19-34. Mexiko Hiria: FCCyT, 2013.
- Bauer, Martin. *Atoms, Bytes & Genes: Public Resistance and Techno-Scientific Response*. Londres: Routledge, 2015.
- Beck, Ulrich. *Ecological Politics in an Age of Risk*. Amos Weisz-ek itzulia. Cambridge: Polity Press, 1995.
- Biegelbauer, Peter eta Susana Borrás (argit.). *Innovation Policies in Europe and the US: the New Agenda*. Burlington, VT: Ashgate Publishing Co., 2003.
- Boden, Mark, Ron Johnston eta Fabiana Scapolo. «The Role of FTA in Responding to Grand Challenges», *Science and Public Policy*, special section, 39, 2. zbk. (2012): 135-283.
- Bolay, Jean-Claude, Magali Schmid, Gabriela Tejada eta Eileen Hazboun (argit.). *Technologies and Innovations for Development: Scientific Cooperation for a Sustainable Future*. Paris: Springer-Verlag France, 2012.
- Bush, Vannevar. *Science: The Endless Frontier*. Washington, DC: NSF, 1945.
- Callon, Michel, Pierre Lascoumes eta Yannick Barthe. *Acting in an Uncertain World: An Essay on Technical Democracy*. Cambridge: MIT Press, 2009.
- Castells, Manuel. *Networks of Outrage and Hope: Social Movements in the Internet Age*. Cambridge; Malden, MA: Polity Press, 2012.
- Council of the European Union. «Council Decision of 30 September 2002 adopting a specific programme for research, technological development and demonstration: ‘Integrating and strengthening the European Research Area’ (2002-2006)», (2002/834/EC), in *Official Journal of the European Communities*, L 294 (29.10.2002), Brusela, 1-43. orr., 2002.
- Council of the European Union. «Council Directive 2014/87/Euratom of 8 July 2014 amending Directive 2009/71/Euratom establishing a Community framework for the nuclear safety of nuclear installations», in *Official Journal of the European Union*, L 219 (25.7.2014), 42-52. orr., 2014.
- Cranor, Carl F. *Legally Poisoned: How the Law Puts Us at Risk From Toxicants*, Cambridge, MA: Harvard University Press, 2011.
- Dalli, John. «Innovation needs to be in tune with the broad values of society» (SPEECH/10/741). EuropaBio Event: The Role of Biotechnology in Europe’s Responsible Innovation. Brusela, 2010eko abenduak 9.

- David, Kenneth eta Paul B. Thompson (argit.). *What Can Nanotechnology Learn from Biotechnology? Social and Ethical Lessons for Nanoscience from the Debate over Agrifood Biotechnology and GMOs*. Amsterdam: Academic Press, 2008.
- Dickson, David. *The New Politics of Science*. New York: Pantheon, 1984.
- Eizagirre, Andoni. «Las percepciones en Europa sobre el rol de la ciencia y la tecnología». *Revista de Estudios Sociales*, 47 (2013): 67-78.
- Ely, Adrian, Adrian Smith, Andy Stirling, Melissa Leach eta Ian Scoones. «Innovation Politics post-Rio+20: Hybrid Pathways to Sustainability?». *Environment and Planning C: Government and Policy*, 31, 6. zbk. (2013): 1063-1081.
- EC. *European Governance: A White Paper*, COM(2001) 428 final, Brusela, 25.7.2001, 2001.
- EC. *Science and Society: Action Plan*, Luxemburgo. Office for Official Publications of the European Communities, 2002.
- EC. *Report from the Commission on European Governance*, Luxemburgo: Office for Official Publications of the European Communities, 2003.
- EC. *Towards a European Strategy for Nanotechnology*, Luxemburgo: Office for Official Publications of the European Communities, 2004.
- EC. *Social Values, Science and Technology*, Special Eurobarometer 225 / Wave 63.1 – TNS Opinion & Social, Brusela, 2005.
- EC. *Work Programme 2007 – Capacities, Part 5: Science in Society* (C(2007)563 of 26.02.2007). The Seventh Framework Programme, Brusela, 2007.
- EC. *A Rationale for Action: Europe 2020 Flagship Initiative. Innovation Union*. 6.10.2010. SEC(2010) 1161 final, Brusela, 2010.
- EC. *Horizon 2020. The Framework Programme for Research and Innovation*. 30.11.2011. COM(2011) 808 final, Brusela, 2011.
- EC. *Horizon 2020. Work Programme 2014-2015: 16. Science with and for Society*, C(2013) 8631, Brusela, 2013.
- Felt, Ulrike (Rapporteur), Brian Wynne (Chairman) et al. *Science and governance: Taking European knowledge society seriously*. Brusela: European Commission, EUR 22700, 2007.
- Geoghegan-Quinn, Máire. «Keynote speech at the «Science in Dialogue Conference»». Odense, 2012ko apirilak 23-25.
- Godin, Benoît. *The Making of Science, Technology and Innovation Policy: Conceptual Frameworks as Narratives, 1945-2005*. Montreal: Centre Urbanisation Culture Société, 2010.
- Godin, Benoît. *Innovation Contested: The Idea of Innovation over the Centuries*. Londres: Routledge, 2015.
- Greenberg, Daniel S. *The Politics of Pure Science*. New York: New American Library, 1967.
- Greiving, Stefan (Rapporteur). *Goverscience Seminar on Inclusive Risk Governance* (European Commission, EUR 23910). Luxemburgo: Office for Official Publications of the European Communities, 2009.
- Hart, David. H. *Forged Consensus: Science, Technology, and Economic Policy in the United States, 1921-1953*. Princeton: Princeton University Press, 1998.
- Hommels, Anique, Jessica Mesman eta Wiebe E. Bijker (argit.). *Vulnerability in Technological Cultures*. Cambridge: MIT Press, 2014.
- Irwin, Alan, Torben Elgaard Jensen eta Kevin Jones. «The good, the bad and the perfect: Criticizing engagement practice», *Social Studies of Science*, 4, 1. zbk. (2013): 119-136.

- Jasanoff, Sheila (argit.). *States of Knowledge: The co-production of science and social order*. New York: Routledge, 2004.
- Kleinman, Daniel Lee, Karen A. Cloud-Hansen eta Jo Handelsman (argit.). *Controversies in Science and Technology. Volume 4: From Sustainability to Surveillance*. New York: Oxford University Press, 2014.
- Lassman, Peter. *Pluralism*. Cambridge; Malden, MA: Polity Press, 2011.
- Leach, Melissa, Ian Scoones eta Andy Stirling. *Dynamic Sustainabilities: Technology, Environment, Social Justice*. Londres: Routledge, 2010.
- Leach, Melissa, Ian Scoones eta Brian Wynne (argit.). *Science and Citizens: Globalisation & The Challenge of Engagement*. Londres: Zed Books, 2005.
- Levidow, Les eta Claudia Neubauer. «EU Research Agendas: Embedding What Future?». *Science as Culture*, 23, 3. zbk. (2014): 397-412.
- Levidow, Les eta Sue Oreszczyn. «Challenging Unsustainable Development through Research Cooperation». *Local Environment: The International Journal of Justice and Sustainability*, 17, 1. zbk., (2012): 35-56.
- Lockie, Stewart, David. A. Sonnenfeld eta Dana R. Fisher (argit.). *Routledge International Handbook of Social and Environmental Change*. Londres: Routledge, 2014.
- Lundvall, Bengt-Åke (argit.). *National Systems of Innovation: Towards a Theory of Innovation and Interactive Learning*. Londres: Pinter Publishers, 1992.
- Marklund, Goran, Nicholas Vonortas eta Charles Wessner (argit.). *The Innovation Imperative: National Innovation Strategies in the Global Economy*. Cheltenham, UK; Northampton, MA, USA: Edward Elgar, 2009.
- Markus, Eszter. *Challenging Futures of Science in Society: Emerging Trends and Cutting-Edge Issues*. Brusela: European Commission, 2009.
- Miettinen, Reijo. *Innovation, Human Capabilities, and Democracy. Towards an Enabling Welfare State*. Oxford: Oxford University Press, 2013.
- Obama, Barack. *A Strategy for American Innovation*. Washington, DC: National Economic Council and Office of Science and Technology Policy, 2009.
- OECD. *The Proposed Standard Practice for Surveys of Research and Experimental Development*. Paris: OECD, 1963.
- OECD. *Gaps in Technology: General Report*. Paris: OECD, 1968.
- OECD. *The Conditions of Success in Technological Innovation*. Paris: OECD, 1971.
- OECD. *Science, Growth and Society: A New Perspective*. Paris: OECD, 1972.
- OECD. *Technical Change and Economic Policy*. Paris: OECD, 1980.
- OECD. *New Technologies in the 1990s: A Socio-economic Strategy*. Paris: OECD, 1988.
- OECD. *Choosing Priorities in Science and Technology*. Paris: OECD, 1991a.
- OECD. *Technology in a Changing World*. Paris: OECD, 1991b.
- OECD. *Technology and the Economy: The Key Relationships*. Paris: OECD, 1992.
- OECD. *The Knowledge-Based Economy*. Paris: OECD, 1996.
- OECD. *Economic Globalization and the Environment*. Paris: OECD, 1997.
- OECD. *Managing Innovation Systems*. Paris: OECD, 1999.
- OECD. *Innovative Networks: Co-operation in National Innovation Systems*. Paris: OECD, 2001.
- OECD. *Governance of Innovation Systems*. Paris: OECD, 2005.
- OECD. *The OECD Innovation Strategy: Getting a Head Start on Tomorrow*. Paris: OECD, 2010.

- Owen, Richard, Paul Macnaghten eta Jack Stilgoe. «Responsible research and innovation: From science in society to science for society, with society». *Science and Public Policy*, 39 (2012): 751-760.
- Owen, Richard, Jack Stilgoe, Paul Macnaghten, Mike Gorman, Erik Fisher eta David Guston. «A Framework for Responsible Innovation», in *Responsible Innovation: Managing the Responsible Emergence of Science and Innovation in Society*, Richard Owen, John Bessant eta Maggy Heintz (argit.), 27-50. Chichester: Wiley, 2013.
- Pellizzoni, Luigi eta Marja Ylönen (argit.). *Neoliberalism and Technoscience: Critical Assessments*. Farnham: Ashgate Publishing, 2012.
- Perkmann, Markus, Valentina Tartari, Maureen McKelvey, Erkko Autio, Anders Broström, Pablo D'Este, Riccardo Fini, Aldo Geuna, Rosa Grimaldi, Alan Hughes, Stefan Krabel, Michael Kitson, Patrick Llerena, Francesco Lissoni, Ammon Salter eta Maurizio Sobrero. «Academic engagement and commercialisation: A review of the literature on university–industry relations». *Research Policy*, 42, 2. zbk. (2013): 423-442.
- Polanyi, Michael. «The Republic of Science: Its political and economic theory». *Minerva*, 1 (1961): 54-74.
- Rip, Arie. «The past and future of RRI». *Life Sciences, Society and Policy*, 10 (2014): 17.
- Rip, Arie eta René Kemp (1998). «Technological Change», in *Human Choice and Climate Change* (vol. 2), Steve Rayner eta Liz Malone (argit.), 327-399. Columbus, OH: Battelle Press, 1998.
- Rodríguez, Hannot. «From objective to constituted risk: an alternative approach to safety in strategic technological innovation in the European Union». *Journal of Risk Research*, 19, 1. zbk. (2016): 42-55.
- Rodríguez, Hannot, Erik Fisher eta Daan Schuurbiens. «Integrating science and society in European Framework Programmes: Trends in project-level solicitations». *Research Policy*, 42, 5. zbk. (2013): 1126-1137.
- Sarewitz, Daniel. *Frontiers of Illusion: Science, Technology and the Politics of Progress*. Filadelfia: Temple University Press, 1996.
- Scoones, Ian, Melissa Leach eta Peter Newell (argit.). *The Politics of Green Transformation*. Londres: Routledge, 2015.
- Shrader-Frechette, Kristin. *Taking Action, Saving Lives: Our Duties to Protect Environmental and Public Health*. Oxford: Oxford University Press, 2007.
- Smith, Adrian, Jan-Peter Voß eta John Grin. «Innovation Studies and Sustainability Transitions: The Allure of the Multi-level Perspective and its Challenges». *Research Policy*, 39, 4. zbk. (2010): 435-448.
- Stančič, Zoran. «Foreword», in *Integrating Science in Society Issues in Scientific Research: Main Findings of the Study on the Integration of Science and Society Issues in the Sixth Framework Programme* (Report to the European Commission-EUR 22976), Mary Braithwaite, Renate Fries, Thomas Zadrozny, Nathalie Wuiame, Miriam Anasagasti-Corta eta Nigel Ings (argit.). Luxemburgo: Office for Official Publications of the European Communities, 2007.
- Stilgoe, Jack, Richard Owen eta Paul Macnaghten. «Developing a framework for responsible innovation». *Research Policy*, 42, 9. zbk. (2013): 1568-1580.
- Stirling, Andrew. «'Opening Up' and 'Closing Down': Power, Participation, and Pluralism in the Social Appraisal of Technology». *Science, Technology, and Human Values*, 33, 2. zbk. (2008): 262-294.

- Sykes, Kathy eta Paul Macnaghten. «Responsible Innovation: Opening up Dialogue and Debate», in *Responsible Innovation: Managing the Responsible Emergence of Science and Innovation in Society*, Richard Owen, John Bessant eta Maggy Heintz (argit.), 85-107. Chichester: Wiley, 2013.
- Thayyil, Naveen. *Biotechnology Regulation and GMOs: Law, Technology and Public Contestations in Europe*. Cheltenham, UK; Northampton, MA, USA: Edward Elgar, 2014.
- Tosun, Jale. «Agricultural biotechnology in Central and Eastern Europe: determinants of cultivation bans». *Sociologia Ruralis*, 54, 3. zbk. (2014): 362-381.
- van den Hove, Sybille, Jacqueline McGlade, Pierre Mottet eta Michael Depledge. «The Innovation Union: A perfect means to confused ends?» *Environmental Science and Policy* 12, 1. zbk. (2012): 73-80.
- Vessuri, Hebe (argit.). «The use of knowledge for social cohesion and social inclusion». *Science and Public Policy*, special section, 39, 5. zbk. (2012): 545-617.
- Vogel, David. *The Politics of Precaution: Regulating Health, Safety, and Environmental Risks in Europe and the United States*. Princeton, NJ: Princeton University Press, 2012.
- von Hippel, Eric. *Democratizing Innovation*. Cambridge MA: MIT Press, 2004.
- von Schomberg, René. «A Vision of Responsible Research and Innovation», in *Responsible Innovation: Managing the Responsible Emergence of Science and Innovation in Society*, Richard Owen, John Bessant eta Maggy Heintz (argit.), 51-74. Chichester: Wiley, 2013
- von Schomberg, René. «From 'Responsible Development of Technologies' to Responsible Innovation». Adapted from J. Britt Holbrook and Carl Mitcham. *Ethics, Science, Technology, and Engineering: An International Resource (ESTE2)*, 2E. © 2015 Gale, a part of Cengage Learning, Inc, 2015.
- Voss, Jan-Peter, Dierk Bauknecht eta René Kemp (argit.). *Reflexive Governance for Sustainable Development*. Cheltenham, UK; Northampton, MA, USA: Edward Elgar, 2006.
- Weinberg, Alvin M. *Reflections on Big Science*. Cambridge: MIT Press, 1967
- Wickson, Fern eta Brian Wynne. «Ethics of science for policy in the environmental governance of biotechnology: MON810 Maize in Europe». *Ethics, Policy & Environment*, 15, 3. zbk. (2012): 321-340.
- Ziman, John. «Why Must Scientists Become More Ethically Sensitive Than They Used to Be?». *Science*, 282, 5395. zbk. (1998): 1813-1814.

Lurralde-estrategia bat, hau ere, berrikuntza inklusiboan oinarritua

Ainhoa Aizpuru Murua eta Antton Tomasena Rodríguez
Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Saila

1. Berrikuntza-kontzeptuaren hurbilketa gisa

Ekarpen honen helburua ez da berrikuntza inklusiboaren kontzepturako hurbilketa teoriko bat egitea, baizik eta esku-hartze publiko batetik, tokiko Administrazio batetik, premisen artean berrikuntza inklusibo duen lurralde-garapenerako estrategia bat nola gara daitekeen (dagoeneko garatu baita) aurkeztea.

Horregatik, eta esku-hartze hori testuinguruan kokatzeko, ezinbestekotzat jotzen da, besteak beste, berrikuntzaren kontzeptuak berak, ez kontzeptu teoriko gisa baizik eta elementu modura, egindako ibilbidea partekatzea, ekintza publiko bat mugiaraziz.

Ildo horretatik, egoki dirudi hala zientziaren ikuspegiak nola berrikuntzarenak jorratutako ibilbideen artean paralelismo bat egitea. Biak, lehen hurbilketa batzuetan, arlo «teknologikora» mugatutako kontzeptu gisa ulertzen ziren, gerora, sorrerako eta gizarte-inpaktuzko kontzeptu modura ulertzeko.

John D. Bernal egileak ondorengo eratan nabarmendu zuen paralelismo hori:

...zientzia naturalaren aurrerapenak gizartearena berarena zehazten lagun dezake, eta hori ez soilik asmakuntza zientifikoak aplikatzean izandako aldaketa ekonomikoetan, baita pentsamenduaren egitura orokorrean teoria zientifiko berrien inpaktuak sorrarazten duen eraginaren ondorioz ere. (1967: 7)

Hala nola:

...zientzia instituzio modura, metodo modura, ezagutza metatzeko tradizio modura, ekoizpenaren mantenu eta garapenerako faktore erabakigarri modura eta unibertsoarekiko eta pertsonarekiko sinesmenak eta jarrerak modelatzeko prozesuan eragin handiko faktore modura ikus daiteke; beranduago ikusiko dugunez, badirudi paralelismoa duela gizarte berrikuntzaren kontzeptualizazioaren bilakabidearekin. (1967: 27)

Paralelismo hori harago doa, zera dionean:

*...egiaz, arazoak deskubritzea konponbideak aurkitzea baino askoz ere garrantzitsuagoa da: azken horiek esperimentazioaren eta argudiatze logikoa-
ren bidez lor daitezke, eta lehenengoak zailtasunaren esperientziak estimula-
tutako irudipenarekin baino ezin dira aurkitu. (1967: 474)*

Eta, are argiagoa dirudi ondorengo pasartean:

*...oraindik asko dago egiteke: Lehen urratsa eta zailena ezagutzen ditugun
gaitzak baztertzeko gure egungo jakituria erabiltzea da. Bigarrena ikerketa
erabiltzea da egun ekidin ezin diren gaitzak baztertzeko bide berriak aur-
kitzeko, gaitzotasunak sendatzeko eta guztion bizitza eta ongizatea manten-
tzeko. Baina badira haragoko lanak, hain zuzen, ikerketarekin jarraitu eta
hura areagotzekoa, oraindik ohartarazi ez diren arriskuak deskubritzeko,
horiek aurka borroka egin behar baita suntsitu nahi badira. Eta aldi berean,
zentzu positiboan, ezinbestekoa da gauza on berriak deskubritzea, material
berriak, prozesu berriak eta, batez ere, gizarte-ekintza antolatzeke oinarri
berri eta eraginkorrak. (1967: 475)*

Berrikuntzak Osloko Eskuliburuaz¹ geroztik egin duen bilakabide horre-
tan (esparru teknologikoan arreta jarritz), zinez agerikoak dira eskuliburuaren
berrikuspena (antolaketaekin —pertsonek agertzen dira— eta merkatuekin lot-
utako alderdiak txertatuz) eta ebaluazio-sistemen txertaketa, ondoren, gizarte
berrikuntzaren² eta «piramidearen oinarriaren³» kontzeptuetan sartuz. Bertan
berrikuntza bere oinarri nahiz gizarte-inpaktuekin korrelazioan jartzen da, ba-
tez ere, bere gizarte-erantzukizunarekin (kohesio soziala). Eta, fase horretan,
gizarte berrikuntzaren⁴ neurketa bera ere garatu egiten da.

Eta, puntu honetan, bi galdera ditugu aurrez aurre: Nondik abiatuz berri-
tzen gara? eta norantz eta zertarako berritzen dugu?

Lehen galderari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, erantzuna ematen
zaio, izan ere, errealitate zehatz batetik abiatuz, ezagutza (beranduago aipatu
eta ñabartuko dugu *ikaskuntza-gizarte* kontzeptua) aurrerapena eta kohesio so-
ziala eragin dezakeen elementu estrategikoa dela ulertzen da, eta egungo nahiz
etorkizuneko gizartean balio bereizgarria dela. Horrenbestez, pertsonak dira
eredu berriaren muina.

¹ Egia da badirela aurretiko definizio zenbait, baina Osloko Eskuliburua ELGA erakun-
deak proposatutako erreferentetzat hartzen da, ondorio operatibo agerikoa (fiskala barne)
duena.

² Bere definizioa —eztabaidara— hurbiltzeko, oso egokitzat jotzen dugu NESTAk egin-
dakoa: «gizarte-ertronkei modu sortzailean erantzuteko gaitasun praktikoa»

³ Zentzu horretan, merezi du «La Base de la Pirámide bajo el prisma de Euskadi» izeneko
lana berreskuratzea

⁴ Merezi du RESINDEX ([http://www.innobasque.eus/microsite/politicas_de_innovacion/
proyectos/resindex/](http://www.innobasque.eus/microsite/politicas_de_innovacion/proyectos/resindex/)) proiektuaren bidez egindako ahalegina berriro irakurtzea.

Baina hori lurralde-hurbilketa batetik, hau da, lurraldea funtsezko eragile modura gaineratzen duen erronbo baten bidez ezagutzaren hiruki deritzona (hezkontza, ezagutza eta berrikuntza) aberasten saiatzen den hurbilketa batetik. Lurraldea ez da esku-hartzearen markoa. Aitzitik, gizarte-erlaldaketa eta -aurre-rapenaren eragile bat da, protagonista da.

Lurraldean hiru kontzeptu inkardinatzen dituen prozesu bat da: giza kapitala, kapital soziala eta gizarte berrikuntza.

Giza kapitala pertsonengan txertatutako ezagutza, trebetasun, konpetentzia eta atributu gisa ulertuta, ongizate pertsonal, sozial eta ekonomikoa sortzea ahalbidetzen dutenak.

Kapital soziala komunitate batek partekatzen dituen arau, balio, lotura eta ulermen modura ulertuta, konfiantzan oinarritzen direnak. Lankidetzak, trukea eta berrikuntza ahalbidetzen dituen kapitala.

Eta gizarte berrikuntza helburutzat gizarte-egoerak hobetu edota eraldatzea duten pertsonen arteko partaidetzazko lankidetzak-prozesu modura ulertuta, elkarren arteko irtenbideak eta zeharkako ikuspegiak eskatzen dituenak; modu horretan, ikaskuntzak sortu eta hurbileko lurralde malan eraldaketa eta inpak-tua eragingo duten konpromisoak har daitezten.

Finean, lurralde bat, gizarte bat, garatzen ahalegintzea da xedea beren es-kubide eta betebeharren jabe diren pertsonen osatua, partaidetzaren bidez eta ikasteko jarrera aktibo batekin, ezagutza (ikaskuntza —gizarte gertakari mo-dura—) gizarte aurreratu eta bateratu baten oinarri modura finkatzeko asmoa dutenak.

Lurralde horretan pertsonak dira, beren jarrera, trebezia eta ezagutzeekin, etorkizunerako gakoa. Pertsonak dira gizarte eta ekonomia lehiakor, bidezko, bateratu eta iraunkorrago bat finkatzea lortzeko beharrezkoa den ezagutza sortu, aplikatu eta transmititzeko gaitasuna dutenak, etengabeko eraldaketa oi-narritzat hartuta. Konfiantzan oinarrituz kapital soziala garatzera bideratutako pertsonak, komunitatearen garapenean (alderdi politiko, kultural eta ekonomi-koa) modu positiboan eragingo duen gizarte-elkarrekintzazko partaidetza-pro-zesuak sortzeko ahalmena garatzera bideratutako Gipuzkoa batean.

Bigarren galderari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta, zehazki, Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Sailak, bere ekar-pena egin nahi du gizarte-iraunkortasunean (kohesio soziala), ekonomiaren iraunkortasunean (lehiakortasun) eta ingurumenaren iraunkortasunean oina-rritutako Gipuzkoa baten eraikuntzan. Horrek bere erronka ekonomiko, sozial eta ingurumen arlokoiei modu aktiboan aurre egitea eskatzen du, lankidetzak-es-trategiak eta konpromiso aldeaniztuna baliatuz, alde guztientzat balioa sortzea eragingo duten irtenbide efizienteekin, berezko aktibo ukigarri eta ukiezinak kudeatuz eta lurraldearen ikuspegi iraunkor bati so lerrokatuz.

Eta puntu horretan ulertu eta onartu behar dugu Gipuzkoako Foru Aldun-diak berak barneratu duela Herri Administrazioa ekintzaile izan daitekeen era-kunde bat dela, hau da, modu estrategikoan eta, horrenbestez, epe luzearako ikuspegi batekin, pentsatzen duena, besteak beste, proiektu eta ikerketak, bul-

tzatu, garatu eta finantzatzean hartzen dituen arrisku ekonomikoen fruituak jasotzen ikasteko gai dena, gerora, fruitu horiek berriro gizartean inberti daitezzen. Berrikuntzaren eragile ere badela, alegia.

2. Berrikuntza inklusiboa ahalbidetzen duen lurralde-estrategia

Eginahal jakin batetik abiatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak «ikasten duen-gizartearen» kontzeptua aldarrikatu du, Lundvall (2011) egileak adierazitako moduan: «pertsonek eta erakundeek ikasteko duten gaitasuna»; horrenbestez, gizarte- eta ekonomia-inklusioko, demokratizaziorako eta gizarte osoaren garapen iraunkorrerako dinamikak sortzera bideratu behar gara. Stiglitz ekonomialariak berriki oroitarazi digunez, «ikasten duen gizarte baten sorrera izan behar da politika ekonomikoko agintariaren helburuetako bat».

Horregatik, aukera-berdintasuna, kohesio soziala eta herritartasun aktiboa sustatzen dituen ikaskuntza bultzatu da. Bertan herritartasun aktiboak norberak bere burua pertsona autonomo eta lehiakor modura hautematea eskatzen du, pertsonalki burutzeko helburu batzuekin, eta komunitate bateko kide modura (nortasuna eta kidesuna), jarduteko eremu eta esfera ugari dituen: ekonomikoa, soziala eta politikoa; esku-hartzeko eta parte hartzeko zilegitasuna ematen diona.

Giza ahalmena etengabeko laguntza-prozesu baten bidez garatzeko ikaskuntza, pertsonak estimulatzeko dituen eta bizitzan zehar beharko dituzten eza-gutza, trebetasun, balio eta jarrera guztiak baitaratzeko gaitasuna ematen diona, gero konfiantzaz, sormenez, espiritu kritikoz eta alderdi, inguruabar eta ingurune guztietan gozatuz aplikatu ditzaten.

Finean, gizartearen aurrerapenerako, oparotasun ekonomikorako, gizarte-ongizaterako eta norberaren garapenerako, nahiz lurralde iraunkor bat garatzeko funtsezkoa den ikaskuntza. Pertsonak bere gizarte-ingurunearekiko sormena, partaidetza, ekarpena eta konpromisoa estimulatzeko dituen ikaskuntza. Modu horretan, ikaskuntza horrek gizartea eta erakundeak antolatze modu berriak sortzea dakar, berrikuntza ireki eta soziala oinarritzat hartuta.

Ildo horretatik, berrikuntza inklusiboko kontzeptu batekin uztartzen da, testuinguru espezifikoei aktore eta aktorea ezberdinen inplikazioa eskatzen duen prozesu modura ulertuta, non instituzioek zeregin oinarritzakoa betetzen duten ikaskuntza eta lankidetzaren berrikuntza prozesuetan; eta gizarteratzeko aukera gutxi dituzten edo gizarte-aurrerapenaren abantaila horrenbeste jasotzen ez duten herritarrengan arreta berezia ipiniz. Eta, horrenbestez, emaitza egiazko eta desiragarriak lortzeko prozesu hutsetik haragokoa izan behar da: herritar batzuen, gizarte baten, lurralde baten ongizatea eta bizi-kalitatea.

Hori dela eta, gizarte lehiakortasuna (maila instituzional ezberdinen arteko adostasunarekin sustatutako proiektuaren ikuskera bateratu baten gainean modu eraginkor eta bateratuan jarduteko eragilearen gaitasuna), ingurumenaren lehiakortasuna (ingurunea baliozkotzeko eragilearen gaitasuna, hura bere lurral-

deko elementu bereizgarri eta diferentziala bilakatu) eta lehiakortasun ekonomikoa (lurraldean balio erantsi ahalik eta handiena sortu eta mantentzeko eragileen gaitasuna, sektoreen arteko loturarekin eta tokiko produktu eta zerbitzuen izaera espezifikoak balioetsiz) elkarlotzen dituen lurralde-estrategiaren eredu baten alde egin da eta hura hartu da konpromiso modura. Eta hori guztiori testuinguru orokorrean lokalizazio bat aldarrikatzeko, hau da, beste lurraldeekiko eta, oro har, kanpoko munduarekiko kokapen bat izateko, lurraldearen proiektua aurreratzeko eta globalizazioaren testuinguruan haren bideragarritasun eta ikusgarritasuna bermatzeko xedez.

Abantaila lehiakorren (enpresak eta haiek hartzen dituen lurraldea beren eskaintzarekin gainerako lehiakideekiko modu positiboan desberdintzea ahalbidetzen duten elementuak) eta lurralde lehiakortasunera bideratutako kompetentzia egokien (enpresei eta lurraldeari beren eskaintza garatu eta sendotzea ahalbidetzeko trebetasun, esperientzia eta ezagutza multzoa) garapenaren sustapenean oinarritutako eredu bat. Hau da, koherentzia globalaren bilaketan lurraldeko baliabideak aintzatestea, eragile eta instituzioen inplikazioa, jarduera-sektoreak eraldaketa-logika batean txertatzea, eta beste lurralde batzuen lankidetzeta eta lurraldez gaindiko politikekin haiek artikulatzea ezaugarri dituen eredu bat.

Kapital naturala, giza kapitala, kapital kulturala, kapital soziala eta kapital produktiboa sortu eta garatzeko eredu bat.

Horrenbestez, lurralde-eraldaketarako prozesuak ahalbidetzeko politikak sustatzea da gakoa, ingurune instituzionalak nahiz abantaila lehiakor dinamiakoak eraiki eta garatzeko zerbitzu eta azpiegitura egokiak sortuz.

3. Lurralde-estrategiatik berrikuntza inklusiboaren zeharkako planteamendu batera

Ekarpen honetako fase honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi nahi du gizarte berrikuntza jardute-printzipio modura ulertua izan dela eta, horregatik, zeharkako elementu modura ulertu da jardunbide bakoitzean.

Horrela, hurrengo ardatzetatik abiatuz lanketa bat garatu da:

- *I+G+b*: alde batetik, esku-hartze ildo bakoitzean, diskurtsoari argudio gehiago emateko alderdi guztiak sendotzea ahalbidetzeko ikerketa-proiektuak garatuz, eta hori *action/research*⁵ ikuspegi batetik.
- *Gizarte-hdapen eta balorizazioa*: ekintzen garapena, hala esku-hartze ildo bakoitzaren aldeko mezua nola zentzu horretan errealitateen existentzia (konpromiso sozial, ekonomiko eta politikoak) hedatzeko xedez. Eta hori guztiori argitalpen, tokiko nahiz eskualdeko jardunaldiak burutu da eskualdeko foroan laguntzarekin; eta jardunaldiak eginez, horietako zenbait nazioartekoak.

⁵ https://en.wikipedia.org/wiki/Action_research

- *Tresnak*: esku-hartze ildo bakoitzaren aldeko ekimen eta ibilbideak ahalbidetzea ekar dezaketen eta haietan baliagarri izan daitezkeen tresnak garatuz. Hau da, beste urrats bat, *action/research* ikuspegiarekin koherentea dena. Helburua diskurtsoari abaguneak eta errealitatea ematea da. Jarduna zilegitu eta laguntzea da xedea.
- *Esperimentazioa*: esperimentatzea ahalbidetzen duten ekimen guztiak babestu eta haietan akonpainamendua eginez (ikasi eta «ikasitako irakaspén» bilakatzea). *Gizarte-hedapen eta balorizazioa* abiapuntutzat hartuta esan dezagun, badagoela egiten duenik eta nola egiten duen, beste enpresa batzuentzat erreferentzia modura erabili ahal izateko. Eredu bakarra ez dagoela jakinik eta onartuz. Eta ahal den kasuetan, ekintza eta esku-hartzeak *Sortera* jotzea.

Eta neketsuegiak izateko asmorik gabe, gure ustez Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Sailak sustatu dituen esku-hartze ardatzen bidez antolatutako esperientzia zehatzen aurkezpenarekin.

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren sustapen-eremua

Nola txertatu dugu berrikuntza inklusiboa?

Jacques Delors (1997) politikariaren ikuskera hartzen dugu abiapuntutzat, hezkuntzak harribitxia gordetzen duela esan baitzigun. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren kontzeptuarekin laboratu nahi izan dugun harribitxia.

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren eredu espezifiko bat sustatu duen eta Gipuzkoa ikasi egiten duen lurralde bilakatu nahi izan duen ekimen (*Ikasmina*⁶ izenarekin ezagutu duguna) baten bidez garatu den kontzeptu bat. Motibazioa eta konfiantza oinarritzat dituen jarrera positibodun pertsonen osatutako lurraldea, bizitzan zeharreko ikaskuntza arrakastaz abiatu eta burutzeko, ikasitakoa eta aurretik bizitakoa aplikatzeko gogoz eta ikasteko abaguneak bilatzeko jakin-minez, eta ikasitakoa bizitzako testuinguru anitzetan egiazko bilakatzeko asmoz; non eragile guztiek lankidetzan diharduten ikaskuntza-beharrizan espezifikotan erreparatu eta baterako arazoak ebazteko elkarren arteko irtenbideak hartzeko, bertako eragile guztien artean tokiko lankidetzaren eraginkorrak garatuz ikaskuntza-kultura sustatzen duen lurralde bat, eta pertsonak, erakundeak eta, oro har, gizartea laguntzen eta sustatzen dituen ikaskuntzan parte har dezaten.

Finean, ikaskuntza aktiboa, ikasteko motibazioa, judizio kritiko bat emateko gaitasuna eta nola ikasi jakiteko ahalmena ekartzen dituen. Heziketaren zeregin aldagaitza (ezagutzen, egiten, elkarbizitzen, izaten eta ekiten ikastea), hain zuzen, gizakiak baitaratutako ezagutzak sortu, transmititu eta aplikatzeko duen gaitasuna elikatzea da.

Soilik gertaera sozial modura gara daitezkeen eta garatu behar den ikaskuntza, hala bere prozesuan nola ematen dituen onuretan.

⁶ <http://ikasmina.eus/index.php?lang=es>

Dakigun oro guztion artean jakin, ikasi eta irakasten dugula onartu behar dugu; eta jakiturien hartu-emanen, hots, partekatzen ditugun jakiturietan, oinarritutako ezagutza sortzeko lankidetzak moduetatik azaleratzen den adimen kolektiboaren alde egin behar dugu.

Eta eremu horretan bertan hezkuntza-esparruan (unibertsitatekoa eta unibertsitatez kanpokoa) ekimenaren zentzua sustatzera bideratzen diren bi ekimen nabarmendu behar dira. Komunitatearen proposamenarekin bat etorritik, pertsonen ideiak ekintza bilakatzeko duten trebetasuna sustatzea zen xedea. Sormenarekin, berrikuntzarekin eta arriskuak hartzearekin zerikusia duen konpetentzia. Halaber, egitasmoak planifikatu eta kudeatzeko gaitasunari lotzen zaio helburu oro erdiesteko asmoz. Konpetentzia horretan oinarritzen dira pertsona guztiak, ez egunerokotasunean, etxean eta gizartean soilik, lantokian ere konpetentzia hori dute oinarri, lana zein testuingurutan garatzen duten badakitelako eta aukerak aprobetxatzeko gaitasuna dutelako. Hori da pertsonen behar dituzten bestelako gaitasun eta ezagutza espezifikagoen funtsa (jarduera sozialean eta komertzialean). Horrekin batera ezinbestekoak dira balio etikoei buruzko kontzientziarioa eta gobernantza onaren sustapena:

Horietako bat da *Kosmodisea*⁷. Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-etapa guztiek partaidetza izan duen ekimena, talde-lanaren bidez (gainerako pertsonen entzutea, zintzotasunez hitz egitea, erabakiak adostea, elkar errespetatzea, aniztasuna integratzea) kultura ekintzailearen balioak (sormena, auto-konfiantza, ekimena, inklusibotasuna, malgutasuna, talde-lana, tolerantzia, ikertzeko gaitasuna, borondate-indarra, gogoeta, lidergoa, jarraikortasuna, akatsarekiko tolerantzia, gatazkei aurre egiteko gaitasuna eta erantzukizun soziala) konpetentziak eta trebetasunak (gizalegezkoa, hizkuntzazkoa, digitala, teknologikoa, zientifikoa, soziala) garatuz.

Ekimen horretan, hura zehazteko prozesutik bertatik, ikasle-kolektibo ezberdinetan erreparatu da eta kolektibo mota guztien inklusibotasuna ziurtatzeko neurriak (prozesuak) hartu dira; eta jorrazteko gaiak ikasleek eurek garatu dituzte, izan ere, ingurune hurbilean egoera jakin bat hauteman eta hura hobetzeko (produktua/emaitza) konpromisoa hartu du; modu horretan, proiektu solidario bat garatu da ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak erabiltzea ahalbidetu duena.

Eta beste ekimena *Gaze*⁸ da. *Gazte Ekinzale (GAZE)*⁹ ekimena 2008an sortu zen Gipuzkoako Lurralde Historikoko goi-hezkuntzako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko helburuarekin eta EHU¹⁰, Mondragon Unibertsitatea¹¹,

⁷ <http://www.kosmodisea.net>

⁸ <https://es.wikipedia.org/wiki/GAZE>

⁹ <https://gaztekintzaile.wordpress.com/>

¹⁰ <http://www.ehu.eus/es>

¹¹ <http://www.mondragon.edu/es/es>

Deustuko Unibertsitatea¹², TECNUN¹³ eta TKNIKAK¹⁴ parte hartzen dute. lau dimentsioen gainean artikulatzen da ekimena: partaidetza, aniztasuna, kompetentzia eta kultura; eta gobernantzaren oinarritzko printzipioen arabera kudeatzen da.

Ekimenak bere bilakaera izan du. Horrela, harremani dagokienez goi-Hezkuntzako instituzioetatik irten eta *gizartera bideratu da, gizartea kontuan hartuz*, kanpoko proiektuen aberastasuna sustatze aldera. Beste alde batetik, ikasleen protagonismoa ere indartuz joan da. Hala, ikasleek lidergo handiagoa hartu dute egiazko proiektuak burutzeko (beren gizarte-inguruneakoak), lankidetzak ikaskuntza eta ikaskuntza adierazgarria eraginez lurraldeko gizarte-eragile eta eragile ekonomikoen artean.

Ildo horretatik, paradigmatikoa da berrikuntza inklusiboari buruzko argitalpen hau dela ekimen horren babesean garatzen den ekintzetako bat (ekimenaren bilakabidea eta bilakaera islatzen baitu hein batean).

Eta, ekimen horrekin lotuta, Euskal Herriko Unibertsitatearen proiektua aipatu behar da, *IKD-Gazte*¹⁵ ekimenaren bidez (Hezkuntza arloko Aholkularitza Zerbitzuaren —HELAZ¹⁶— barnean 2011/2012 ikasturtean sortzen den ekimena) garatzen dena. Ekimen hori UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko gradu ezberdinetako ikasleek autokudeatu, koordinatu eta dinamizatzen dute. Ikasleek egindako eta ikasleak hartzaile dituen proiektua da eta proiektuaren helburua nagusia ikasleen ahalduntzea sustatzea da, hau da, ikasleei beren ikaskuntza-prozesuko protagonista izateko baliabideak eskaintzea. Horren barnean, xedeetako bat unibertsitatearen eta gizartearen arteko zubiak eraikitzea da, unibertsitate sentibilizatua eta inplikaturik sortzeko, kokaturik dagoen gizarte horretan gara dadin eta gizarte horrekin harreman etengabe izan dadin.

Berez, jarduera-ardatzetako bat *Proiektuak eraikitzen dituzten ideiak* izenekoa da. Bertan, ingurune hurbileko gizarte-eragile ezberdinek egiazko erronkak planteatzen dituzte eta gradu ezberdinetako ikasleek erronka horiei erantzuteko egiten dute lan diziplina anitzeko moduan eta proiektua errealitatean aplikatuz.

Ezagutza enpresetara transferitzea sustatzeko eremua

Ekimen¹⁷ horren helburu orokorra lurraldeko teknologia-zentro eta enpresek garatutako jardueraren gizarte-eragina hobetu eta neurtzea da; I+G+b hiru-koaren Gizarte-eragina eta Balio Partekatua Gipuzkoako lurraldean sustatzeko mekanismoen bilaketarekin osagarri izateko.

¹² <http://www.deusto.es/cs/Satellite/deusto/es/universidad-deusto>

¹³ <http://www.tecnun.es/>

¹⁴ <http://www.tknika.eus/liferay/es/web/public/home>

¹⁵ <https://ikdgazte.wordpress.com/>

¹⁶ <http://www.ehu.eus/es/web/sae-helaz>

¹⁷ <http://www.tecnalia.com/eu/gizarte-eragina/inpaktu-sozialaren-ebaluazio-soluzioa/inpaktu-sozialaren-ebaluazio-soluzioa.htm>

Horri dagokionez, nabarmentzekoa da:

- Berrikuntza-proiektuen edota garapen teknologikoko proiektuen gizarte-eragina bultzatu eta neurtzeko metodologia bat garatu dela. Bi tresna garatu dira:
 - Gizarte-eraginaren ikuspegia proiektuak sortzeko jardunean txertatzeko tresna dinamiko eta parte-hartzaile bat.
 - Berrikuntza-proiektu baten edo garapen teknologikoko proiektu baten gizarte-eraginaren auto-diagnosia burutzeko tresna bat.

Gizartearen garapenean duten eginkizunari dagokionez sentsibilitatea erakusten duten erakundeetara iritsi nahi izan da, ikuspuntu ekonomikotik ez ezik, beren ikerketa- eta berrikuntza-jardunetan ikuspegi soziala txertatuz lurraldeari zer-nolako ekarpena egiten dioten erakusteko. Eta I+G+b hirukoaren gizarte-eraginari buruzko ezagutzaren transferentzian, beren proiektuen ebaluazioan eta gizarte-eragina eta balio partekatua sustatzeko lankidetzaren sare bat eraikitzeko laguntza emateko.

Pertsonetan oinarritutako erakunde mota berrien sustapena

Esparru honetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburua pertsonak, pertsona-taldeak eta erakundeak, gizarte- eta lurralde-eremu jakin batzuetan, helburu eta esku-hartze eta balio zehatz batzuen inguruan lerrokatzea ahalbidetzeko inguruneak sustatzea izan da, berrikuntza eta konpromisoaren jiran ibili behar direnak (arlotan pertsonala, profesionala eta soziala). Eta hori guztiori baterako helburu batekin: enpresen aldetik ahalik eta balio gehien sortzea sustatzea.

Bestela esanda, enpresa-ereduen eraldaketa sustatu da, partaidetzan oinarritutako harreman-eredu berriak, proiektu partekatua duten erakundeak, sortzen lagunduz. Eredu horiek enpresa-proiektuan inplikazio aktiboa duten pertsonekin eta hori ahalbidetzeko testuinguru bat sortzen laguntzen duten erakundeekin osatzen da. Horrela, bi aldeek, pertsonak eta erakundeak, balio partekatua sortzen laguntzen dute elkarren arteko sormen horretan.

Eta hori elkar elikatu egiten diren bi esku-hartze ildoren bidez gauzatu da: enpresetako langileen partaidetza; eta laneko testuinguru eraldatzaileen garapena (pertsonen beharrianak, erakundeetako espazioak eta teknologiak txertatuz).

Esku-hartze ildo horietako lehenari, partaidetzari, dagokionez¹⁸, helburua erabakiak hartzeko prozesuetan balio-eredu bat eta metodo parte-hartzaile bat partekatu asmo duen lurralde baten eraikuntza ahalbidetzea izan da, praktika onak eta alde interesdunen arteko etengabeko elkarrekintza ahalbidetzearekin

¹⁸ <http://www.gipuzkoapartaidetza.net/es/portada>

batera, berrikuntza, lehiakortasuna, iraunkortasuna eta kohesio soziala sustatze aldera.

Eta hori pertsonetikiko eta lurraldearekiko konpromisodun politika bati esker garatu da, gizarte bidezkoago eta kohesionatuago bat sortzeko helburuarekin. Gizarte berri horrek, besteak beste, ekonomia lehiakorrago eta iraunkorragoa behar du eta enpresen antolaketa-eredu parte-hartzaileagoetan oinarritu behar da.

Horrek berekin ekarri du enpresetako antolaketa-ereduetan berrikuntza sustatzea. Pertsonen partaidetza eta erantzunkidetasuna sustatzea enpresetako jardunean. Hau da, erakundeen barneko talentua, sormena, sustatu eta dinamizatzea.

Eta une honetan enpresaren gaineko gure ikuspegia nabarmendu behar dugu. Alderdi interesdunen arteko lankidetzan oinarritzen den instituzio modura ulertzen dugu enpresa, non alde guztiek elkarren arteko negoziazio-ikuspegi iraunkor bat, lehiakortasun ekonomikoa eta oreka soziala bilatzen duten, eta horren arabera jarduten duten.

Langileen, zuzendaritza-taldearen eta jabetzaren arteko *bidezko harremanaren*»printzipioa aldarri duen gobernatzeko modua duten enpresak; modu horretan, planteatutako erronkei aurre egiteko moduko irtenbide sendoak, helburuak erdiestea ahalbidetzen dutenak, ziurtatzen dira parte hartzen dutenentzat. Enpresa horiek *gizarte-erakunde* modura birdefinitu behar ditugu, eta langileen *ahotsa* errespetatu behar dute.

Eta bigarren esku-hartze ildoari dagokionez, testuinguru eraldatzaileak lanpostuetan izeneko ildoari dagokionez, helburua lan-prozesuak, lan-antolamendua, lan-metodo eta -tresnak, lan-ingurune materiala, langileen gaitasun eta praktika profesionalak, nahiz zuzendaritza eta kudeaketari dagozkion lanak sustatu eta garatzea izan da.

Finean, ezagutzan edo lana antolatzeko eta lan-ingurunea garatzeko moduan oinarritutako abantaila lehiakorren garapena ahalbidetzea. Eta hori guztiori erakundeetan prozesu eraldatzaileak eta lanpostuetan langileak kudeatzeko prozesuak txertatuz, enpresetako errendimendua hobetu eta lehiakortasuna areagotzea aldera, modu horretan, enplegu berri eta hobe sortzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustetan lan arloan ekoizpena eta bizi-kalitatea hobetzeko oinarria teknologia eta zuzendaritzaren eginkizuna langileen gaitasunekin, konpromisoarekin eta motibazioarekin txertatzen asmatzea da batez ere; eta horren guztiorren emaitza produktu, zerbitzu eta metodo operatibo berriak dira. Erakunde baten gaitasuna hobetuz zirkulu bertutetsu bat sortzen da. Zirkulu horretan testuinguru berriek sormena ekartzen dute. Horri esker, era berean, inbertsioa erakunde horretara itzularaztea lortzen da, erakunde-testuinguru eraldatzaileak bultzatuz.

Hori dela eta, pertsona ardatz duten eta lanpostuaren definizioan, besteak beste, *lankidetzak*, *autentikoa*, *pertsonala*, *eraldaketa* eta *harreman sozialak* hitzak barneratzen dituen enpresa-erakundeak lagundu dira. Ikaskuntza indibiduala nahiz erakunde osoarena sustatu duten enpresak lagundu dira. Eral-

daketa, kualifikazio eta enplegu berriak, eta kalitatezko enpleguaren eta etengabeko ikaskuntzaren sustapena uztartzea erdietsi da.

Garapenaren sustapena eta lurralde-kohesioa

Lurraldea eragile modura ulertzen duen kontzeptuarekin koherentzia gehien landu den esparruetako bat izan da honakoa. Horrenbestez, hiru ekimen baino ez dira nabarmenduko.

Lehenengo ekimenean¹⁹ lurraldean (zehazki bi eskualdeotan: BETERRI eta UROLA-ERDIA) esperimentatzeko ahalegina egin da, helburu honekin:

- Gizarte berrikuntza ulertu, ulertu eta sustatzea (faktoreen identifikazioa eta adierazle-sistema).
- Tokiko eragileak dinamizatzea (konfiantza eta gardentasuna dira prozesuaren ezaugarri nagusiak).
- Tokiko eragileek baliatzeko tresnak ematea (gizarte berrikuntzaren neurketa/ebaluazioa hobekuntza-esparrua egiaztatu eta identifikatzeko).
- Gizartearen aurrerapenean laguntzea, kohesioa eta gizarteratzea oinarritzat hartuz, eta
- Praktika onak identifikatzea

Debagoienan garatutako ekimena da bigarrena, gizarte-eraldaketa esperimentatzeko xedea izan duena, eta modu espezifikoagoan hauek landu dituen:

- gizarte-eraldaketaren esparru sozioekonomikoa, hezkuntza eta ikaskuntza-prozesua integratzea; eta
- Partaidetza aktiboa faktore sozioekonomikoen eta metatutako ezagutzaren (esperientziak, praktika hobeak, etab.) bilaketan, sareko bere konfiantza transmititzeko; eta partaidetza aktiboa eskualdearen eragile sozioekonomikoen bilaketan gizarte-eraldaketarako erreferentziatzeko gune bilakatzeko.

Horri dagokionez, gizarte-eraldaketarako komunitateko proiektu bakoitzak ezaugarri hauek izan ditu: tokikoa izatea; zeharkakoa; berritzailea; lidergo partekatu eta sakabanatua izatea; deszentralizatua eta subsidiarioa; pertsonen eta gizartearen inplikazioa izatea; ebaluagarria; sare-kontzeptua izatea; interdependentea izatea —eragileak—. Eta ikuspegi partekatu batekin: garapen iraunkorra.

Eta horretarako hainbat jarduera garatu ziren ikerketa, prestakuntza, ekintza eta ebaluazio arloan. Hori guztiori tresna batekin gauzatu da (praktikotasuna-gizarte-eraldaketarako eta hobekuntzarako urratsak erabilgarri izateko-), lau dimentsiori beha dagoena: pertsonak (giza izaera, duintasuna, errespetua); auto-antolaketa (erabakiak hartzeko mekanismoak, demokrazia, gardentasuna eta komunikazioaren garapena; kooperazioa (kooperazio-jarduerak eredu ezberdinak erabiliz); iraunkortasuna (ingurumena eta naturarekiko erantzukizuna);

¹⁹ <http://berrikuntzasoziala.elhuyar.eus/>

eta, nortasuna. Dimentsio horiek erakundearen esparru hauetan neurtzen dira: entitate hornitzaileak, finantza-entitateak, parte-hartzaileak (pertsonak); bezeroak; eta gizartea.

Eta hirugarren jardute-ildoarekin, *Gipuzkoa Sarean* izenekoarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak jauzi kualitatiboa eman nahi izan du gobernantzaren bere ereduan; zehazki, lankidetzaren oinarri duen gobernantza-eredu ireki bat bultzatuz eta, horretarako, ezinbestekoa da lan-sareak garatzea. Horrek lan egiteko modu berriak eskatzen ditu.

Gipuzkoa Sarean ekimenaren helburua Gipuzkoaren lehiakortasuna eta ongizatea hobetzea da, bere kapital soziala garatuz.

Ekimena ikerketa-proiektu modura sortu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak²⁰ zuzendutako ekintza izan zen, harreman-eredu berri bat (zubiak) eraikitze aldera, Gipuzkoaren lurralde-eredu berria garatzea ahalbidetzeko xedez). Zehazki:

- Eskualdeetako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta beste maila batzuetako talde politikoetako eta talde teknikoetako arduradunen artean lankidetzarako espazioak sortuz.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren sail ezberdinetan eskualdeari begira parte-hartzaileagoak diren moduak garatuz.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko politikak eta eskualdeetako erronkak letroratzea lortuz.
- Eskualdeetan harreman-eredu parte-hartzaileagoak sustatuz.
- Eskualdeetan ikuspegi eta pentsamendu estrategikoren garapena sustatuz.
- Gipuzkoa mailan lan egiten duten zenbait instituzio eta eskualdeetako errealitateak elkarrengana hurbilduz.

Gipuzkoa Sarean ekimenaren barnean lurralde-garapena eragile ezberdinen (publikoak eta pribatuak) arteko mugikortasunerako eta partaidetzarako prozesu modura ulertzen da, esku-hartzeak gidatzeko baliagarriak izan daitezkeen estrategiak eztabaidatu eta adosteko.

4. Ikasitako irakaspen eta ondorio modura

Gure konpromisoa eta gure ibilbidea partekatu nahi ditugu. Eta horretarako, ohar labur zenbait egin nahi ditugu, ezinbestekotzat jotzen ditugunak berrikuntza inklusiboa ere barneratuko duen lurralde-estrategia ulertu eta garatzeko:

- Eraldatzeko ikasi. Derrigorrezkoa da gure berezko errealitatean oinarritutako berezko definizio zenbait eraikitzea, barrura begira nahiz kanpora begira ikasiz, haiek gure errealitatean aplikatzeko.

²⁰ https://es.wikipedia.org/wiki/Diputaci%C3%B3n_Foral_de_Guip%C3%BAzcoa

- Akonpainamendu-ekosistema bat eraiki eta garatzea. Konplizitatea eta akonpainamendua ezaugarri dituen ekosistema bat eraikitzea, lurraldearen gaineko ikuspegi partekatu batekin eragile guztientzat (ekonomikoak, gizarte-eragileak, eta lurraldekoak).
- Trakzioa eragingo duen diskurtso bat garatzea. Enpresaren, gizartearen eta lurralde arloaren aniztasuna abiapuntutzat hartuta enpresaren, gizartearen eta lurraldearen arloa eraldatzea ahalbidetzeko mezu indartsuak lerrokatzea.
- Esku hartu eta eraldatzea. Elkarren artean elikatzeko esku-hartze eremu zenbait (esku-hartzea) artikulatzea.
- Epe luzearako ikuspegi batekin jardutea. Indarra eta jarrera irmoa behar dira desiratutako inpaktuak lortzeko. Lurralde-garapen eredu inklusibo bat.

Hartu dugun ikuspuntutik, nabarmendu egiten da gure ikaskuntza-ikuspegiak oinarritzko kontzeptuak (esate baterako, abantaila konparatiboa, politikak eta estrategia ekonomikoak) birdefinitzeko modu garrantzitsua. Ikaskuntza-ikuspegi horri esker, era berean, aspaldidanik emandakotzat hartzen ziren beste zenbait nozio birpentsatu ditugu. Garapen-estrategia konplexu eta sofistikatuagoak planteatzera eraman gaitu. Lurralde bateko politikak diseinatu eta garatzerakoan lurralde horrek, bere inguruneekin lotuta, ezagutzari eta ikasteko gaitasunari (ikasteko gaitasuna eta ikasten ikastekoa barne) dagokionez dituen abantaila konparatiboak aprobetxatzeko moduari eta gaitasun horiek are gehiago garatzen laguntzeko moduari erreparatu behar zaiola ulertu dugu. Finen, Gipuzkoarentzat ongizatea erdiesteko bidean efizienteagoak eta eragin-korragoak izateko lan egin behar da.

5. Erreferentziak

- Bernal, John D. *Historia social de la Ciencia*. Barcelona: Península, 1967.
- Delors, Jacques, et al. *La educación encierra un tesoro: informe para la UNESCO de la Comisión Internacional sobre la Educación para el Siglo Veintiuno*. Unesco, 1997. http://www.unesco.org/education/pdf/DELORS_S.PDF (Kontsulta-data: 2016ko martxoak 15)
- DE OSLO, Manual. Manual de Oslo. <http://gestionaria.com.br/wpcontent/uploads/2013/06/Manual-de-OSLO-2005.pdf>, 1997. (Kontsulta-data: 2016ko ekainak 17)
- EC, «Horizon 2020 Work Programme 2016-2017 Europe in a changing world – inclusive, innovative and reflective Societies», http://ec.europa.eu/research/participants/data/ref/h2020/wp/2016_2017/main/h2020-wp1617-societies_en.pdf (Kontsulta-data: 2016ko martxoak 12).
- EU, «Social innovation research in the European Union. Approaches, findings and future directions». Luxembourg: Policy Review, 2013. https://ec.europa.eu/research/social-sciences/pdf/policy_reviews/social_innovation.pdf (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 15).

- Larrea, Miren. *¿Hacia dónde evoluciona la participación para el desarrollo territorial? Reflexiones desde Gipuzkoa. Ciudadanía empoderada: cultural y participación para el desarrollo local*. Valencia: Germania, 2013.
- Lundvall, Bengt-Ake, K.J. Joseph, Cristina Chaminade eta Jan Vang. *Handbook of Innovation Systems and Developing Countries: Building Domestic Capabilities in a Global Setting*. Cheltenham: Edward Elgar, 2011.
- NESTA «Social Frontiers: does social innovation need better definition?» 6 November 2013. <http://www.nesta.org.uk/blog/social-frontiers-does-social-innovation-need-better-definition> (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 21)
- Sánchez, Pablo, Fernando Casado, Jordi Vives eta Juliana Mutis. «*La base de la Pirámide bajo el Prisma de Euskadi*», Innobasque, 2011. <http://www.innobasque.eus/uploads/documentos/cuarto%20sector/5FF518ACF801F95E67E96B801156ED99F207A0BA.pdf> (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 25).
- Sampedro Hernández, José Luis. «Innovación Inclusiva con Instituciones Inclusivas.» Nazioarteko LALICS 2013 Konferentzia «Sistema Nacional de Innovación y Políticas de CTI para un Desarrollo Inclusivo y Sustentable». 2012ko azaroak 11 eta 12, Rio de Janeiro, Brasil.
- Stiglitz, Joseph E. eta Bruce Greenwald. *La creación de una sociedad del aprendizaje. La esfera de los libros. Una nueva aproximación al crecimiento, el desarrollo y el progreso social*. Madrid: La esfera de los libros, 2016.
- UE RECOMENDACIÓN DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 18 de diciembre de 2006 sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente. Diario Oficial de la Unión Europea, L 394/10, ES, 2006 http://www.mcu.es/cine/docs/Novedades/Recomendacion_Parlamento_Europeo_Consejo_Aprendizaje_permanente.pdf (Kontsulta-data: 2016ko martxoak 12).
- United Nations «Innovation policy tools for inclusive development». United Nations Conference on Trade and Development. Sixth session Geneva, 28 April-2 May 2014. http://unctad.org/meetings/en/SessionalDocuments/ciid25_en.pdf (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 14)

Helbide interesgarriak

- EUROPEAN SOCIAL INNOVATION RESEACH: <http://siresearch.eu/>
- OECD: Innovation for Inclusive Growth: <http://www.oecd.org/sti/inno/knowledge-and-innovation-for-inclusive-development.htm>
- THE GLOBAL RESEARCH ALLIANCE: <http://www.theglobalresearchalliance.org/index.php/inclusive-innovation>

Metodologia berriak kultur hiriburuetan: Donostia 2016ko kasua

Iñigo Cantero, Enara Garcia eta Xabier Paya

Donostia 2016, Europako Kultura Hiriburua

1. Sarrera

Artikulu honen xedea Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak metodologia berriak sustatzeko izan duen ekimenaren berri ematea da. Asmo horren kariatara, lehenbiziko puntuan Europako Kultur Hiriburuaren marko orokorra azalduko dugu, Donostiak proposatutako programaren kasuan partaidetza eta ahalduntzearen inguruko ezaugarriak azpimarratuz. Ondoren, metodologia berriak probatzea xede nagusi duen *Bestelab* programa-atala aurkeztuko dugu, bere baitan kokatutako jarduera esanguratsuenak xehatuz. Jarraian programaren baitan aurki daitezkeen beste zenbait adibide bilduko dira (*Hirikilabs*, *Energia olatuak* eta *Ardora*, besteak beste), horietan guztietan garatutako metodologia berrien erabilera berritzaileak nabarmenduz. Azkenik, orain arteko ibilbidean sortutako hausnarketa eta ondorioak laburtuko dira.

2. Europako Kultur Hiriburuaren egitasmoa eta Donostia 2016

Europako Kultur hiriburuaren egitasmoa 1985. urtean abiatu zen (Europako Batzordea, 1985), Greziako Kultur Ministro zen Melina Merkouri artistak proposatuta. Ordutik zenbait aldaera izan baditu ere, 2007tik 2019ra proiektua arautuko duen ebazpenari jarraiki (Europako Batzordea, 2006), bi izango dira urtez urte Batasunak izango dituen kultur hiriburuak. Hiriok 12 hilabeteko epea izango dute beren herritarren bizimoduan hobekuntzak eragiteko xedea duen kultur programa bat gauzatzeko. Programa horrek honako helburuak bete behar ditu (Europako Batzordea, 2006):

- Europarrek konpartitutako kultur korronteak azpimarratzea, korronte horiei hiriak eragindako inspirazioari edo ekarpen esanguratsuari arreta berezia eskainiz,

- Beste estatu-kideetako hirietako kultur eragileekin lotutako adierazpenak sustatzea, epe luzerako kultur lankidetzak ezartzea bultzatuz eta Europako Batasunean beren zirkulazioa erraztuz,
- Sorkuntza lana babestea eta garatzea,
- Herritarren sektore handien partaidetza eta mobilizazioa bermatzea proiektuaren baitan,
- Batasuneko herritarren harrera sustatzea eta ekintzen zabalkunde handiena bilatzea,
- Europako kulturen eta munduko gainerakoen arteko elkarrizketa indartzea,
- Ondare historikoa eta hiriko arkitektura balioestea, baita hiriko bizi-kalitatea ere.

Europako Kultur Hiriburu izendapena jasotzen duen hiria ahaleginduko da bere kultur eskaintzaren irismena, aniztasuna eta europar dimentsioa (Europako Batzordea, 2006) areagotzen, kulturarako sarbidea eta partaidetza sustatzen, bere kultur sektorearen gaitasunak indartzen, eta hiriaren nazioarteko profila igotzen.

Europako Parlamentuaren ebazpenak, haatik, helburuak ez ezik irizpideak ere ezartzen ditu (Europako Batzordea, 2006). Irizpide horiek ekintza, ekitaldi eta jarduera guztietan jarraitu beharreko hiru zehar-lerro dira: europar dimentsioa (Batasuneko eragileak, erakundeak edo gai garrantzitsuak inplikatzeko), partaidetza (herritarrak jardueren atal eta urrats guztiekin izan dezaketelotura areagotzea) eta iraunkortasuna (ospakizun urtean abiatutako jardueren jarraipena).

Arestian aipatutako helburu eta irizpide horiek abiapuntu izanik, hiri bakoitzak bere ezaugarrietara egokitzen du arrakastaren neurria, askotariko metropoliak eta hiriguneak izan baitira izendatuak, eta nazioarteko profila igotzen, besteak beste, oso bestelako erronkak dituzte Liverpoolek (2008ko kultur hiriburutzak) edo Kosice-k (2013koak). Testuinguru horretan, Donostiak, *elkarrekin bizitzeko kultura* lelopean, hiru xede ezarri dizkio bere kultur hiriburutzari (Donostia 2016, 2015):

Lehenik eta behin, kultura eta balioetan oinarritutako hezkuntza eraldaketa sozialerako tresna izatea bilatzen du, berdinen eta ezberdinen arteko bizikidetzak hobetzeko; erronka horri soilik hel dakioko herritarren lidergo aktiboaren bidez. Bigarrenik, erronkak konpartitzeko hiria eta lurraldea Europara gehiago zabaltzeko garrantzia azpimarratzea sustatzen du, esperientzien trukaketa eta elkarlana balioetsiz. Azkenik, sormena eta berrikuntza bultzatu nahi ditu kultur sektorean, esparru ezberdinetako eragileen arteko lankidetzak areagotuz, eta hiria bestelako metodologiak eta formulak probatzeko laborategi gisa bultzatuz. Helburu horiei erreparatuta, esan daiteke Donostia 2016ren hitz gakoak *bizikidetzak*, *Europa* eta *kultur sorkuntza* direla.

3. Donostia 2016: berrikuntza, partaidetza eta ahalduntzea

Europako kultur hiriburu donostiarraren programan, oro har, arlo soziokulturaleko esparru askotan bultzatzen dira metodologia berritzaileak, partaidetza sustatzeko dinamikak eta herritarren ahalduntze globala edo partziala areagotzeko ekimenak.

Kultur sektorean sormena eta berrikuntza sustatzeko asmoari dagokionez, xede horren gauzapena jarduera-eremu zehatzetara bideratzen du Donostia 2016ren kultur programak. Etsenplu ugari aurki ditzake sarean eskuragarri dagoen ediziora (Donostia 2016, 2015) jotzen duenak. *Hazitegiak* programa-atalaren zigilua duten ekintzek, adibidez, bitartekaritza artistikoaren garrantzia aldarrikatzen dute, herritarren ahalduntzea eta parte-hartze aktiboa sustatzeko, eta sortzaileen eta publikoaren arteko distantzia txikitzeko. Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatearekin elkarlanean landutako *Hirikia* programa-ataleko ekimenek ere herritarren ahalduntzea bultzatzen dute teknologiaren arloan. 284+ izeneko programa-atalak, bestalde, hizkuntz eta kultur aniztasunaren jasangarritasuna bultzatzeko formula berriak bilatzen ditu. Berrikuntza, beraz, egitasmo orokorraren oinarrietako bat da.

Partaidetzari dagokionez, Europako Parlamentuko irizpidearen garapena eginik, hainbat arlotan aurreikus daiteke Donostia 2016ko egitasmoaren baitan. Donostia 2016ko Partaidetza ataleko irizpideei jarraiki, hiru aldetatik uler daiteke kontzeptua, betiere kultur sektorearen ikuspegitik begira:

- Zentzu zabalenean, partaidetza izan daiteke herritarrek kultur produktuak erabiltzeko estrategia. Erabiltzaile hori ikuslea edo entzulea izaten da gehienetan, eta kultur sektorearen ezinbesteko elementua da,
- Izan daiteke ere kultur ekimenen sorkuntzan, garapenean eta ebaluazioan herritarren inplikazio aktiboa lortzea. Zentzu hau ez da hain eza-guna, baina gero eta ohikoagoa da gutxienik gauzatutako kultur ekintzaren ebaluazioan hartzailearen edo erabiltzailearen iritzia jasotzea,
- Partaidetza, azkenik, elkarte edo boluntario taldeek abiatutako kultur ekimenak bultzatzeko ildo gisa uler daiteke. Ildoak herritarren ahalduntze maila handiagoa eskatzen du, aurreko zentzuekin alderatuta.

Espectro de la Participación Pública txostenaren arabera ere (Asociación Internacional para la Participación Pública, 2000), herritarrek parte hartzeko dituzten bost mailak antzeman daitezke Donostia 2016ren jardueretan: informatzea (online zein offline komunikazio bide ohikoen bidez), kontsultatzea (sare sozialen bidez), inplikatzeko (boluntarioentzako gunearen bidez), kolaboratzea (proiektuetan parte hartzeko deialdiak eginez edo antolatutako jardueretan audientzietan lekua egitearen bidez) eta erabakimena ematea (*Ardora* herritarren batzordearen bidez).

Azkenik, ahalduntzeari erreparatuta, esan daiteke berori dela Donostia 2016 egitasmoaren xede nagusia lortzeko faktore garrantzitsuenetarikoa, arestian aipatutako helburuetan adierazi bezala, bizikidetzaren hoberako bidean

ezinbestekoa baita herritarren ahalduntzea eta lidergoa. Alde horretatik, ahalduntzea deitzen zaio pertsonak gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa indartzeko prozesuari, bizi dituzten egoeretan aldaketa positiboak eragin ahal izan ditzaten. Prozesu horretan pertsonak beren eskubide, ahalmen eta interesen kontzientzia hartzen dute, eta ikusten dute zein den beste pertsonen kiko posizionamendua. Zentzu horretan, ahalduntzea lantzeko estrategien artean, Donostia 2016k ezagutza eta ikuspegi berriekiko irisgarritasuna bultzatzen du, hausnarketa kritikorako trebakuntza sustatzen du, elkarte eta gizataldeen inplikazioa indartzen du, eta espazio publikoen erabilera areagotzeko borondatea du.

4. Bestelab

Europako kultur hiriburu honetan, kultura elkarrekin bizitzeko tresna da, eta erronka kolektibo horri heltzeko herritar guztiak inplikatu nahi dituen programa diseinatu da. Hiriburutzaren programaren esparru guztietan bultzatzen da herritarren partaidetza; zehar-lerroko gai bezala lantzen da. *Bestelab* kaia izena hartu duen programa-atalak apustu egiten du metodologia berritzaileen, partaidetza sustatzeko dinamiken, eta herritarren ahalduntzea areagotzeko ekimenen alde. Programaren baitan zehar-lerro orokorra dena, kai honek langune eta egiteko nagusi du.

Herritarrek gizartean duten esku-hartzea sustatzeak demokratizazioaren kontzeptuari berari erantzuten dio, eta hori bultzatzeak herritarren eskubide bat garatzea dakar. Pertsonak beren komunitatearekin konprometitzen dira, eta gizartearen atal aktibo bihurtzen; herritarren inplikazioa funtsezkoa da edozein jarduerara arrakastatsua izan dadin. Pedro Ibarra eta Asier Blasek partaidetza mailak ezberdintzeko garatutako tipologiaren arabera (Blas eta Ibarra, 2006), maila bakoitzak aurrekoaren asmo eta helburuak bere gain hartzen ditu. Partaidetzaren mailaren gorenean, eraldaketa sozialerako partaidetza dago: «Herritarren partaidetza tresna bezala erabiltzen da eraldaketa soziala, kulturala, ekonomikoa eta politikoa lortzeko asmoz, eta nagusitzen den orden soziala eraldatzeko» (Blas eta Ibarra, 2006: 34). Oinarritzko elementua da erronka berrien aurrean beraz, elkarbizitza hobetzeko, gizartearen koherentzia indartzeko, immigrazio berria integratzeko edo ingurumena zaintzeko.

Kai honetako ekimenek erraztu egin nahi dute pertsonen ahalduntzea eta partaidetza; orobat, **sortzeko modu berrien alde egiten du, non ezberdinen arteko topaketek, hibridazioak eta diziplinartekotasunak garrantzi berezia hartzen baitute**. Bestelabek gizarte-berrikuntzako laborategi esperimentalta izan nahi du, lankidetzajardunbideak oinarri hartuta. Laborategiaren kontzeptua harremanetarako espazio ireki bezala ulertzen du, non jendea ez den kontsumitzaile soila, baizik eta edukien sortzaile. Espazio horretan errealitatea eraldatzeko ahalmena duten ekimenak bultzatuko dira. Beraz, ez da planteamendu teoriko soila; aniztasunean eta ikuspegi ezberdinen aberastasunean oi-

narritutako proiektuak sustatzen asmo irmoa du. Ideiak gauzatzeko, helmuga berriei ekiteko, irisgarritasuna eta inklusioa bultzatzeko edo harreman berriak sartzeko helburua duten proiektuak sustatzen ditu.

Jarraian programa-atal honen barneko proiektu batzuen deskribapena egingo da. Argitu behar da, kapitulu hau idazteko orduan, kultur hiriburutzaren urtean murgilduta, proiektu gehienak martxan daudela, baina amaitu gabe, eta, beraz, zaila izango da behin betiko ondorioak ateratzea.

Hibrilaldiak

Egitasmo honen helburua profil ezberdinak dituzten profesional-taldeen arteko hibridazio-prozesuak sortzea da, erronka kolektiboari aurre egiteko. Hibrilaldiak egitasmoaren baitako partaidetza irekia da, eta, horri esker, edozein pertsona-taldek hausnarketa eta sormen kolektiboko prozesu bat aktibatzen auzera izango du; Donostia 2016k egindako deialdiei erantzunez, edozein taldek edo elkartek parte har dezake eta bere erronka aurkeztu. Lantzen diren erronkek edo beharrezko aldaketak-prozesu bat ekar dezaketen edozein alderidirekin izan dezakete lotura: barne-antolamendua, sortutako jarduerak edo zerbitzuak, inguruarekin harremanetan jartzeko modua... Parte hartzen duten taldeak alde zuzenarekin eratuak edo proiektuan parte hartzeko espresuki sortutakoak izan daitezke, estatus juridiko bat izan zein ez. Egitasmoak, beraz, pertsona talde batek identifikatutako beharrei erantzun berriak bilatzeko hausnarketa prozesu jakin bat proposatuko du, erantzun berriak bilatzeko.

Hibrilaldiek hausnarketa prozesu bat planteatzen dute, eta prozesu horren helburua da pertsona-talde bat elkartu eta, *ez ohiko* profilak dituzten profesionalen laguntzaz, beren jarduerak berriro pentsatzea eta kolektiboak jarduteko modu berriak irudikatzea. *Ez ohiko* profesionalak (*heterodoxoek, desberdinek* izena hartzen dutenak) aniztasuna ematen diote taldeari. Proiektuaren antolakuntza taldeak sartuko ditu profesional hauek, «naturalki» edo berez gertatzen ez diren «konexioak» sortze aldera: artistak sartuko ditu ekonomiarekin lotutako gaiak jorratzen dituzten taldeetan, ingeniariak gai kulturalak birpentsatuko dituztenetan... Pertsona horiek beste pentsamendu eta esperientzia bat gehitzeaz gain, prozesuak dinamizatuko dituzte; taldeen arteko loturak ezarri eta emaitza bat sortzeko ardura hartuko dute.

Profesional hauen zeregina, prozesuan zehar pentsamendu sortzaile bat piztea izango da, pentsamendu laterala sustatzea sorkuntza prozesuan zehar, eta taldea probokatzea. Irtenbide berriak bilatzeko, ez ohikoa den perfil bateko pertsona bat txertatzean, taldeak aukera edo bide berriak aztertzea da helburua (Correa, 2010: 6):

«Pentsamendu bertikala hautakorra da pentsamendu laterala sortzailea den bitartean. Pentsamendu bertikalean zehaztasuna funtsezkoa da, pentsamendu lateralean aukera aberastasuna da funtsezkoa. Pentsamendu lateralak irtenbiderako bide gehiago edo aukera gehiago aurkitzera jotzen du. Pentsamendu lateralean arazora ahalik eta gehien hurbiltzeko alternatibak bilatzen

dira. Pentsamendu laterala probokatzailerak da, orden sekuntzial bat ez jarraitzea ahalbidetzen du eta askotan hutsala dena ez da baztertzeko, ez-ohikoak diren bide eta erantzun berriak bilatzen.»

Prozesu horren helburua da jarduteko eta ingurua eraldatzeko eremu-berriak bilatzea kolektiboen indarretan. Batetik, arteak, kulturak eta pentsamenduak gizarte- eta ekoizpen-berrikuntza prozesuetan duten garrantzia da egitasmoaren oinarria eta, bestetik, tokiko sormen-gaitasunak katalizatzeko, eta ideiak eta inguruak eraldatzeko duten gaitasuna.

2014. urtean, hiriburutzatik metodologia berdinean oinarritutako hausnarketa prozesuak abiarazi ziren. Kasu hartan, jatorri ezberdineko eragile ugari gonbidatu ziren hiriburutzak berak planteatutako erronkei aurre egiteko prozesuetara. Kasu hartako eta egungo hibrilaldietako emaitzen alderaketa egiteko goiz den arren, esan daiteke giza-taldeen partaidetza eraginkorragoa dela taldeak berak proposatutako erronkei heldu behar zaienean. Hibrilaldiek lurraldeko taldeek beraiek proposatutako erronkei erantzun berriak bilatzeko aukera eskaintzen dute, gizarteko taldeek dituzten arazo errealei erreparatuz, eta, beraz, gizarteak dauzkan beharretan oinarritutako erronkak lantzeaz gain, parte hartzaileen inplikazio handitu egiten du; eraldaketa modu natural eta errazago batean errotzea eragiten du.

Break a leg!

Break a leg! proiektuak ezgaitasuna duten pertsonen kultur arloan duten ikusgarritasuna, inklusioa eta parte-hartze aktiboa sustatu nahi ditu. Parte-hartzaileen aniztasun funtzionalean oinarritutako sorkuntza-prozesu bat egingo da, hainbat gaitasun dituzten artistekin talde-lan inklusiboko esperientzia baten bidez. Esperientzia zehatz bat antolatzen da, ezgaitasuna duten pertsonak kide dituzten lan-taldeen ikuskizunen aberastasuna ikusarazteko; diziplina anitzeko tailer inklusibo bat, hain zuzen. Hogei artistek parte hartzen dute bertan, eta horietako hamar ezgaitasuna duten artistak dira; talde-lan inklusiboko esperientzia bat egiten dute hainbat gaitasun dituzten artistekin, parte-hartzaileen aniztasun funtzionalean oinarritutako sorkuntza-prozesu bat egiteko.

Diziplina anitzeko tailer horren abiapuntua da zer eta nola kontatu: joko bat proposatzen da, giza gorputzak espazioarekiko, soinuarekiko eta beste gorputz batzuekiko harremanean dituen aukera espresibo eta dramatikoei buruzkoa. Zer eta nola kontatu, antzerkigintzako oinarritzko harremanaren arabera, hau da, publikoaren eta antzezlearen artekoaren arabera. Lantzen dira espazioaren mugak, soinua, gorputzak... horiek zeharkatzeko edo horiekin jolas-teko. Lana bi astetan egiten da, eta ezgaitasuna duten eta ezgaitasunik gabeko 20 artistek osatzen dute taldea. Lehen astean, sorkuntza garaikidearen mugetatik haratago doazen kontatzeko moduak ikertzen dira. Hizkera berriak bilatzen dira, sortzeko joera berriak ezagutu... Bigarren astean, tailerreko zuzendariek

aurreko asteko lan-saioetan sortutako materiala barneratzen dute, partaide bakoitzaren gaitasunetan oinarritutako pieza bat «sortzeko».

Helburua desberdintasunean oinarritutako sorkuntza bultzatzea da eta hainbat ezgaitasun dituzten pertsonak ohiko paperetara egokitzea. Azken urteotako integrazioaren kontzeptuak inklusioaren kontzeptuari leku utzi dio. Normaltasunean edo orokortasunean oinarritutako planteamendu baten bazterkeria ekiditeko «beharrezkoa da onarpenean eta ezberdintasunaren sustapenean oinarritutako subjektuaren ikuspegia izatea, gaitasun eta autodeterminazioan, norberaren zein kolektiboaren proiektzio eta errealizazio espazio moduan» (Soláγγελ eta Fernandez, 2005: 11). Proiektu honek ere horren aldeko apustua egin nahi du sorkuntza artistikoaren alorrean: sortzeko modu berriak bilatu nahi ditu gizarteko aniztasunean oinarrituta. Planteamendua Adam Benjamin-ek *Making an Entrance, Theory and Practice for Disabled and Non-Disabled Dancers* liburuan egiten duenarekin bat dator (Benjamin, 2002). Hitzaurreak honela dio:

«...dantzara hurbilketa berri bat da, ezgaitasuna duten pertsonen eta ez dutenen arteko esperimentazio eta ikerketan oinarritutakoa. Bere helburua bata bestearen munduan barneratzeko irekigune bat sortzea da, ez hainbeste ikasle talde berri batentzako dantza hezkuntza modelo berri baten sorreran, baizik eta modeloa bera aldatzeko saiakera, eta dantza zein dantza hezkuntza ulertzeko ditugun modu batzuk... .. ez da «beraien» inguruko beste liburu bat, gu guztion inguruko liburu bat da, eta elkarrekin dantzatzean gertatzen denaren ingurukoa.» (18 or.)

Herri zahar, andre berri

Emakumeek tokiko tradizioetan eta praktika kulturetan dituzten zereginaz eta parte-hartzeaz euskal gizarteak duen proiektzioaren gainean hausnarketa kolektiboa erraztu nahi du *Herri Zahar, Andre Berri* proiektuak, etorkizunerako jokalekuen eraikuntzan eta horiek lortzeko estrategien eraikuntzan taldean lan egitea ahalbidetuko duen metodologia erabiliz.

Horrela izanik, zehatzago esan liteke gai horren inguruan gogoeta egiten ari diren edo egin nahi duten pertsonen edo eragileen arteko topagunea bultzatu nahi duela proiektuak, gai honen inguruan iraganari buruzko narratiba anitzak partekatuz, topaleku posibleak eraikitze eta etorkizun komuna ikusteko. Bestelako esperientziatan emaitza onak eman dituzten elementuak identifikatzeko: nola egin den, zer erantzun jaso diren, zailtasunak zerk eragin dituen, izan diren elementu mugiarazleak... eta ideia horiek guztiak jasota, partaide guztien artean etorkizuna irudikatu, eta horra iristeko bideak eta estrategiak definitzeko. Emakumeen partaidetza eta presentzia kulturaren, hala bestelako adierazpenetan nola tokiko tradizioetan, modu desorekatuan gertatzen da (Pink eta Abram, 2015). Nahiz eta urteen poderioz harreman sozialetan nahiz egituretan eraldaketak izan, oraindik ere asko dago lortzeko emakumeen esku-bideei dagokienez, eta kulturaren eta tradizioaren arloan bereziki, erresistentzia handiak egon dira emakumeen bidezko presentzia eta parte-hartzearekiko.

Proposamen hau praktika kulturaletan eta tokiko tradizioetan zentratzen da, Euskal Herriko herrien identitate kolektiborako funtsezkoak diren askotariko adierazpenak direla ulertuz; erreferenteak diren praktikak, identitate kolektiboaren, historiaren, komunitatearen eta afektibitate-sareen sortzailak. Azkenik, tradizioetan eta praktika kulturaletan emakumeen partaidetza bermatzeko helburuaren baitan, bestelako estrategiak eta esperientziak aurki ditzakegu, irakaspen kolektiboak atera eta etorkizuneko erronkak definitu ahalbidetzen duten bide ezberdinak. Esperientzia askotan partaidetza modu kuantitatiboan soilik hartu da kontuan, emakumeak gehituz praktika zehatz batera baina pentsatu gabe aurredefinitutako rolen aldaketan; beste batzuetan emakumeen presentzia eta rola zalantzan jarri ondoren, tradizioa edo praktika bera eraldatu da.

Proiektu hau garatzeko metodologia eta tresna ezberdinak erabiliko dira, kalitatezko denbora bat eskainita irakaspen kolektiboak atera eta etorkizuneko erronkak definitzeko erronkari. Gaiari interesa, esperientzia edo ibilbide bat eginda duten pertsonen arteko elkarlanetik sortutako estrategiak bilatuko dira elkarbizitza-espazio bat abian jarrita. Topaketa honek askotariko eragileak elkartzea xedea du; elkarte kulturalak, emakumeen edo elkarte feministak, arlo akademikoko ordezkariak, administrazio publikoa, hedabideak, eta abar, gai honen inguruan lan egiteko konfiantzazko espazio bat eskainita. Horretarako oso garrantzitsua izango da kalitatezko denbora tarte bat eskaintzea hausnarketa honi, hasieratik partaideen harrera eta elkar sorkuntza zaindu.

Proiektuaren lehen hausnarketa prozesurako hiru eguneko topaketa planteatzen da. Horretarako, proiektuaren helburuetara espresuki egokitzen den metodologia propio bat landu da, «Etorkizuna Bilatzeko Konferentziaren» metodologiatik abiatutako proposamena. Emery eta Trist-ek diseinatutako metodologia hori, planifikazio prozesuetan erabili ohi da bereziki. Taldeka lan egiteko metodologia parte hartzaile horrek lantzen den gaiarekiko etorkizuneko tendentziak identifikatzen laguntzen die partaideei, hortik abiatuta desiratutako etorkizun bat irudikatu eta horretara iristeko estrategiak diseinatuz. «Etorkizuna Bilatzeko Konferentziaren» bidez, desiratutako etorkizuneko eszenatokiak irudikatzeaz gain, egungo egoera edo testuinguruaren inguruko analisi partekatua bat egitea ahalbidetzen da, azken horrekiko kontzientzia bat hartuta. Horretarako ibilbide bat egiten da: iraganeko *narratibak* konpartitzen dira, egungo egoera aztertzen da eta azterketa horretan oinarrituta desiratutako etorkizuna irudikatzen da.

Horretaz gain, «Etorkizuna Bilatzeko Konferentziaren» tankerako metodologiak aztertu dira ere, esaterako, Weisbord-en metodologia horren bertsioa edo EASW (*European Awareness Scenario Workshop*) metodologia. Topaketa horren planteamendu metodologikoa egiteko orduan, metodologia horietatik baliaagarriak zaizkigun elementuak identifikatu dira. Bereziki, metodologia horietan planteatzen den hezurdura berreskuratzen da, garai ezberdinetan zehar ibilbidea egitearena. Hausnarketa prozesua, beraz, hiru une nagusietan estrukturatzen da: iraganaren inguruko kontakizun, esperientziak edo bizipenak kon-

partitzea; gaur egungo egoeraren azterketa eta etorkizuneko desiratutako egoeren diseinu edo irudikapena.

Hiru aro horietan zehar euskal tradizioen inguruko lanketa egiteko, lau gai edo lanketa ildo markatzen dira: hitza, ahotsa, plaza eta memoria. Lan ildo horietako bakoitza izaera eta jatorri ezberdinetako partaideez osatutako askotariko lan talde batean jorratu eta sakontzen da. Horretarako, topaketara jendea gonbidatzeko orduan, kontuan izan behar da lan ildo horien banaketa, horietako bakoitza jorratuko duen jende kopuru antzekoa gonbidatuta. Taldearen aniztasuna bermatzeko, lurraldeko leku ezberdinetako jatorria eta ondorioz, esperientzia ezberdinak dituzten pertsonen gain, gaiarekiko begirada ezberdineko pertsonak bilatzea garrantzi handikoa izango da. Etorkizun komun bat irudikatzeke, garrantzi handikoa izango da ahalik eta ikuspegi gehien txertatzea hausnarketa prozesu honetara. Kasu horretan, lau eremu ezberdinetako partaideak bilatzen dira:

- mugimendu feministatik datozenak,
- ikerketa, irakaskuntza edo arlo akademikotik datozenak,
- administrazio publikoetatik datozenak, eta
- herri mugimendu edo lurraldeko talde eragile ezberdinetatik datozenak.

Horien arteko elkar sorkuntza modu aberasgarri batean gertatzeko eta ohiko erantzun edo gogoetak ez errepikatzeko, oso beharrezkoa izango da tesuinguruaren eta jardunaren baldintzak zaintzea. Helburua partaideek beraien kabuz esploratu eta beraien hausnarketa propioak egitea izango da, urte askoko eraldaketa esperientzia duten pertsonak, haien ohiko kokalekutik atera eta hausnarketa berriak egiteko.

Berrikuntzan aritzean, Steen eta Dhont-en arabera, «abiaduran gehiegizko enfasia jartzeak, miaketa, hausnarketa eta ikasketa oztopatzen du. Horregatik, guk *slow innovation*-aren aldeko apustua egiten dugu, egungo ikuspegiak osatzeko asmoz. Izan ere, berrikuntza prozesuak sistema konplexuak bezala ulertzen ditugu, prozesu sozialak errazteko bideen esplorazioak bezala, berrikuntza prozesuetako partaideen artekoa, eta ikerketa, hausnarketa eta ikasketa sustatzen dutenak» (Steen eta Dhondt, 2010: 1). Gatazka eta sufrimendu handiko gai bat modu berritzaile eta sortzaile batean lantzeko, konfiantzazko espazio bat izatea planteatzen da, partaide bakoitza modu libre eta eroso batean ekarpenak egiteko. Partaideak beraien artean errespetuz entzun eta modu positiboan ekarpenak egiteko espazioa izango da. Gainera, ez ohiko erantzunak edo posizionamenduak bilatzeko xedez, ohiko hausnarketa bide edo formulez gain, ariketa esperimental batzuk planteatzen dira, hausnarketa abiarazteko orduan kokaleku berri batetik hasia helburu duten ariketak.

GAZE-Kaleidoskopio

GAZE-Kaleidoskopio proiektua Donostia 2016 Europako kultur hiriburuak eta GAZEK (Gazte Ekinzalek) sustatutako proiektua da, eta Gipuzkoako hain-

bat diziplinako goi-mailako ikasketa zentroetako ikasleekin berrikuntza eta izaera kolaboratiboa duten ekimenak sustatzea bilatzen du. Hortaz, multidiziplinarrak eta interinstituzionalak diren proiektuetan parte hartzeko aukera ematen die ikasleei, mundu profesionalean gero eta ohikoagoa den diziplina arte-kotasun esperientzia aukera bat eskainita testuinguru aurre-profesional batean.

Eremu profesionalaren teknifikazioarekin, eremu akademikoetan diziplinen teknifikazioa eman da. Baina azken urteetako berrikuntza diziplinen arteko hibridaziotik etorri da hein handi batean. Eremu profesionalean modu natural eta espontaneo batean eman den joera, arlo akademikoan oraindik ez da errotu. Testuinguru akademikoan, esperientzian oinarritutako hibridazio praktiketan sakontzea da proiektuaren helburuetako bat. Proiektuak planteatzen dituen gurtzaketen bidez, ikasleengan aniztasunaren balio eta aberastasuna sustatu nahi da. Aldaketa eta berrikuntzarako diziplinartekotasun prozesuen potentzialtasuna agerian jartzeko proiektua da, ikasleriak proiektu bat planteatzeko moduan eta pentsamoldean eragin nahi duen proiektua. Etorkizuneko konexio multidiziplinarren alde egingo duen lan ibilbide aurre-profesionala bultzatzen du. Dagoeneko sortuta dauden eta dinamika konkretu batzuk dituzten egitura egonkorretan (goi mailako ikasketa zentroak), horrelako elkarlan esperientziak bultzatzeko eta aplikatzeko aukerak azalerratu nahi ditu proiektuak.

Alde batetik, *GAZE-Kaleidoskopiok* hausnarketa eta sorkuntza kooperatiboaren prozesua lantzea ahalbidetzen du beste espezialitateko eta beste zentroetako ikasleekin arazo errealetan oinarritutako proiektuekin. Arazo errealak dituzten eragile sozialekin lan egitean datzan esperientzia da, esperientzian oinarritutako taldekako ikasketa. Ikasleriaren arteko harremanetan zein ikasle eta kanpo eragileen arteko harremanetan oinarritzen den ikasketa prozesu kolaboratzailea da.

Kanpo proiektuetan oinarritutako esperientzia esperimental da, goi mailako ikasketa zentroi lotuta dagoen den esperientzia. Ikasleriak kanpo proiektu bat interpretatzen du, aberasteko moduak aztertzen ditu, kanpo eragileekin proposamen bat adosten du eta baliabideak, pertsonak zein instituzioak mugiarazten ditu proposamenak aurrera eramateko. Berrikuntza inklusiboaren ikuspegitik lantzen dira arazo errealetan oinarritutako proiektuok. Berrikuntza-aren alorretik kanporatua izan den gizarte atala barnerratzeko moduak lantzen dira proiektuetan.

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza da, non ikasleek klasean jasotako ezagutza modu praktikoa batean aplikatu dezaketen. Ikaskuntza mota horretan «profil, diziplina, lanbide, hizkuntza eta kultura ugaritako pertsonen osatutako taldeak osatzen dira proiektuak gauzatu eta errealtatezko arazoak konpontzeko. Desberdintasun horiek ikaskuntzarako eta ingurune anitz eta globalean lan egiteko aukera handiak eskaintzen dituzte» (Luque *et al.*, 2014: 130).

Beste alde batetik, egitasmoaren beste ildo batean, Kaleidoskopiok obra baten berrinterpretazioa egiteko aukera ematen du norbanakoaren ikuspuntutik. Bigarren modalitate horrek ikuspuntu ezberdinak jasotzea espero du hirian ikusgai egongo diren arte-lan batzuen inguruan, hauetatik urrun dauden biz-

tanleriaren sektoreetara gerturatzeko helburuarekin. Horrela, inklusibitatearen inguruan lan egitea du xede, hainbat ikuspegitako lan ugari jasoz. Hainbat diziplinatako ikasleek, proposatutako obra baten inguruan egin nahi dituzten berrinterpretazioen proposamenak aurkezten dituzte, beti ere ikasten ari direneko diziplinarekin zerikusia duen proposamena. Aurkezten diren proposamenetik, hainbat diziplinatako ikasketak gauzatzen dituzten hiru ikasleren proposamenak aukeratzen dira obra bakoitzeko, beka laguntza baten bidez proposatutako berrinterpretazioa gauzatzeko.

Nahiz eta geroz eta irisgarriagoak diren, arte-lanak ez daude trabez salbuesita gizarte segmentu batzuentzat, kontuan hartuta horien egoera sozial, ekonomiko edo kulturalaren arabera. Horregatik, proiektuaren bigarren alderdian helburua hiriburutzaren programaren baitan dauden erakusketa ugarietako arte-lanen ikuspuntu anitzak jasotzea da, hauetatik urrunduta dauden pertsoneri gerturatzeko asmoz.

Proiektuen Azoka, (K)idea

Proiektuen Azoka, (K)idea-k topaketa fisiko eta birtualak sustatzen ditu, ideiak, baliabideak eta tresnak partekatuzko. Besteengandik ikasteko, eztabaidatzeko eta ekarpenak egiteko espazioak, gure proiektuetan harago egiteko. Bi alderdi nagusi jorratzen ditu:

- Sorkuntza kolektiboaren alderdian, izaera sozialeko ideia eta proiektuak aberastea sustatuko du,
- Prestakuntzaren alderdiak pertsonak gaituko ditu, proiektuak prestatu, diseinatu eta garatzeko.

Ekitaldia elkartrukatzeko eta garapen kolektiborako plaza da. Topaketa espazio bat eskaintzen du, gizarte eraldaketarako proiektuak eta ideiak dauzkatzen pertsona zein taldeak elkartzeko espazio fisiko bat. Konpartitzeko, ikasteko eta ezagutza elkartruckerako espazioa da. Topaketaren helburua, guztion artean ekintzaile sozialen ideiak eta proiektuak sendotzeko bidean beste pauso bat ematea da. Jakintza eta baliabideez baliatuz, gizarte eraldaketarako proposamenak sendotzeko asmoa du. Elkarri laguntzeko eta elkarrekin konpartitzeko espazio komuna da.

Sorkuntza kolektiborako espazioa da beraz, aurkezten diren ideia eta proiektuak aberasteko kanalak bultzatzen dituen. Proiektuen sustatzaileak diren pertsonen gain, laguntzeko gogoia duten profesionalak, kuriosoak eta ilusioa daukan pertsona oro batzen duen gunea da. Horretaz gain, ikasketarako espazio ludiko eta esperimentalak izan nahi du, proiektuen diseinu, komunikazio, kudeaketa eta produkzioan ezagutza eskainiko duen espazio informala. Eredu horrek norbanakoaren ikasketa, lan taldearen ikasketa eta komunitatearen ikasketa ahalbidetzen du. Mayalen Piquerasek bere doktorego-tesian jorkaera sortzaileen eta jorkaera ludikoen ezaugarrien arteko azterketa konparatibo bat egiten du eta «konprobatu da ez bakarrik bi portaeren arteko konexio

ugari daudela, baizik eta, kasu gehienetan ezin dela bata bestea gabe eman. Badirudi produktu sortzaileak hasierako unerren batean ekintza ludikoarekin zerikusia duten egoeren beharra izan duten prozesuetatik eratorriak direla» (Piqueras, 1996: 11). Jokaera ludikoek, jokoak berak, ausarta da, aukera gehiago aztertze bide ematen du: «Jokoan, partaideak, porroterako arriskurik gabeko ideia eta gauzen arteko bat bateko loturak egiteko askeago sentitzen dira» (Piqueras, 1996: 11).

Prozesu horren bidez, pertsonen arteko loturak eta partaide zein proiektuaren sustatzaileen arteko elkarrekintza bilatu nahi dira, inpaktu sozial eraldatzaile bat izan dezaketen ikasketa eta ekintzetan bilakatu daitezkeenak. Topaketa hauen dinamikak, tokiko ekintzaileentzako aukerak elkar diseinatzen, ekintzailetasun sozialari gune ireki bat eskaintzen eta pentsamendu berritzailea sortuko duten harreman sozialak sustatzen bideratuta egongo dira. Muga teorikoa gaindituko duen espazio bat izango da, partaide guztiek besteen esperientzietatik ikasteko eta ororen ongiaren zerbitzura eraldatzeko aukera eskainiko duena, bizi gareneko testuinguruan positiboki eragiteko asmoz.

Gainera, lan egiten jarraitzeko espazioa fisiko hau mundu birtualera hedatuko da plataforma digital baten bitartez, non garatutako baliabideak, izaera irekian, eskuragarri izango diren. Prozesuan parte hartzen dutenen komunikazioa mantentzeko tresna digitalak gehitzearen helburuak, ekitaldi bakoitzean hasitako harremanak indartu eta jarraitzeko beharri erantzuten dio. Komunitate aktibo eta ahaldundu batean bilakatzeko elementu bat bezala ulertzen da, ekimen ekintzaile indartu bat duen eta ingurune sozialari benetako balio bat eskaini diezaiokkeen ezagutza duen komunitate bat. Baina saretze lan hau egiteaz gain, plataformak beste eragile edo proiektuen eskura jarriko ditu topaketa bakoitzean izandako ikasketa kolektiboak, berrerabili daitezken tresnak izango dira.

Proiektu hau Impact Hub Donostiarekin batera garatzen ari da, aldez aurretik bultzatu dituzten ekimenetan oinarrituta. Saio bakoitzean izandako ikasketen eta jasotako beharren arabera, topaketa batetik bestera garatuz doan formatu bat planteatzen da. Proiektua amaitzen denerako prozesuan zehar izandako ikasketak jasoko dira eta antzeko ekimenak bultzatzeko interesa duten bestelako talde edo norbanakoentzako eskuragarri utziko da ezagutza kolektibo hori. Sortutako tresnen sistematizazio bat egingo da erabilera kolektibo bat izan dezan, topaketa bakoitzean zein prozesu guztian zehar izandako ikasketak beste kolektiboen eskura jarrita.

5. Ezagutza partekatzeko bestelako esperientziak

Crowdlearning-a pertsona guztien artean ikastearen eta pertsona guztientzako ikaskuntzaren ideia azaltzen duen kontzeptuari esaten zaio. *Crowd* (multzo ingelesez) terminoak ikaskuntza kolektiboari egiten dio erreferentzia kasu honetan, elkarren artean ezagutza konpartitu eta elkarrekin ezagu-

tza bilatzearen ekintzari alegia. Mugimendu honek pertsona orok besteen hobekuntzarako eskuragarri jarri ahal dituen ezagutzak dituela, eta era berean, besteengandik jasotakoaren ondorioz norbera aberasten denaren konbikzioan dauka oinarria.

Kontzeptu honen aitzindaria Pierre Levy-k aipatzen zuen adimen kolektiboaren terminoa genuke. Levy-k adimen kolektiboa gizarteko kide bakoitzak dituen ezagutza eta gaitasunez haratago, gizartean banatuta dagoen adimena deskribatzeko erabiltzen du. Adimen honek gaitasun ezberdinak mugiarazteko aukera ematen duela argudiatzen du, ideiak partekatzeaz haratago gizartea erakitzekeko modu bat bezala ulertuz (Lévy, 1994). Kontzeptu hori *crowdlearning*-aren eremura daramagu, halako adimen-mota garatzea bai du helburu. Norbanakoak inguruak eskaintzen dionari egokituta bereganatzen ditu ezagutzak. 2016ren testuinguruan, *Crowdlearning*-ak garrantzia berezia hartzen du, Hirikilabs eta Horkonpon gisako proiektuetan. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak eta Tabakalerak elkarlanean sortu eta garatzen duten proiektua da Hirikilabs. Teknologiaren erabilera soziala, kritikoa, sortzailea eta kolaboratiboa uztartzen dituen kultura digitalari eta teknologiari eskainitako laborategia da, eta mundu digitala, elkarlaneko sorkuntza eta herritarren ekimenak harremanetan jartzen dituzten aktibitateak eskaintzen ditu, esperimendazio eta prototipatze gune bezala.

Laborategiko *Lantaldeez* gain, proiektuak *Hirikikas* eta *Hirikilabs* plaza lan-ildoak ditu. Lehenengoak komunikazioa eta sarea bezalako gaiak hiltzen die. Gainera, 3D inprimaketa edo robotika bezalako tresna teknologikoen erabilera sustatzen du, era sortzaile batean aplikatu daitezkeen. Tailerretan skate bat edo konpost-ontzi bat sortzen ikas daiteke, adibidez, eta parte-hartzaile eta gonbidatuen artean ezagutzak partekatu egiten dira.

Hirikilabs plaza ildoak alegia, asteroko maiztasunarekin elkartzeko espazio bat proposatzen du, non proiektuak modu autonomoan proposatu eta praktikara eramanez daitezkeen. *Maker* mugimendura irekitako ate bat alegia. Abiapuntua, norbanakoek ekarritako proiektu proposamenen aurkezpena da. Edozein pertsona batu daiteke proposatutako ideiak garatzera bideratuta dauden taldeetara. Taldeko kide bakoitzaren ezagutza partekatuko da planteatu den proiektua pentsatu eta gauzatzeko. *Maker* mugimenduarekin eta elkarlaneko ikaskuntzarekin estuki loturik dagoen beste proiektu bat HorKonpon dugu.

HorKonpon tailer irekia da, ardatz duena egunerokoan erabiltzen diren etxetresna elektrikoak konpontzea eta berrerrabiltzea, autonomia handiago lortzen lagundu (*do it yourself*) eta talde lana ere sustatuz (*do it together*). Horretarako, era guztietako adin eta trebetasunak dituzten pertsonekin hilabeteko maiztasuna duen laborategi bat sortzen da. Arrazoi ezberdinengatik matxurata dauden tresnei bigarren bizitza emateko aitzakipean, elkarren arteko ikasketa prozesu bat sustatzen da, norberak dakarren ezagutza tekniko eta teknologikoen bidez. Adineko jendearen ezagutza izaten ohi dena jartzen du balioan bereziki, galtzen ari den ezagutza bat berreskuratuz generazio ezberdinen arteko ezagutza transmisioaren bidez.

6. Energia Olatuak eta Ardora

Askotarikoak dira partaidetzaren inguruan eta herritarrek parte hartzeko dituzten maila ezberdinei buruz landutako teoriak eta askotarikoak ere azken hamarkadetan partaidetza sustatzeko abian jarri diren ekimenak. Urte batzuk dira Arnesteinek landu zuen «Partaidetzaren eskailerak» (REF, escalera participación 1969...) partaidetzaren mailaketa baten inguruan pentsa araztera eramán gintuela, partaidetza zer den edo ez denaren inguruko hausnarketa sustatuz. Orduetik, garapen mota ezberdinak izan dituzte teoriak, esaterako Roger Hart-ek eskailera hori haur eta nerabeen partaidetza prozesuetara egokitu zuen (Hart, 1992) eta artikuluaeren hasieran aipatutako *Espectro de la Participación Pública* txostenean mailaketa hori 5 maila ezberdinetan zehazten da. Teoria bat edo beste hautatu, guztiek aipatzen dituzte parte hartzeko maila eta modu ezberdinak, gutxieneko maila batean herritarrak informatzea kokatuz.

Ezin uka genezake azken hamarkadetan europar mailan herritarren ahalduntzea eta partaidetzan eman den garapena, askotarikoak izan baitira parte hartzeko abian jarri diren bide eta ekimenak. Herrialde ezberdinetan partaidetza eremuan legediari dagokionez eman diren aurrerapausoek (Frantzia, Erresuma Batuan, Espainian, Holandan) aldaketa instituzional baten aurrean gaudela pentsatzera garamatza, herritarren partaidetzarekiko kezka berezia azaltzen duena (gardentasuna areagotzeko neurriak hartuz eta herritarrengandik gertua kokatzen den politika bat sustatuz).

Honen adibide dira, «Iniciativa Ciudadana Europea»-ren barne 2013an zehar Europako etorkizunaren inguruan hausnartzeko garatutako eztabaida prozesua; hainbat gairen inguruan abian jarritako kontsulta prozesuak; iradokizun, kexa edo eskakizunak egiteko habilitatutako bideak. Herritar aktibo eta parte hartzaileak izatea sustatzeko hainbat ekimen ere martxan jarri dira. 2014an *Reglamento Europa para la ciudadanía* sortu zen, 2014-2020 epealdirako. Araudi horrek helburu gisa ditu, besteak beste, Europar herritartasuna sustatu eta parte hartze «zibiko» eta demokratikoen aldeko baldintzak hobetzea. Araudian bertan jasotzen denez, herritarren partaidetza sustatzen duten modu berriak sustatzea da 2015erako ildo estrategikoetako bat. Testuinguru horretan, eta Hiria eta Herritarrak Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua-aren ardatzetako bat izanik, ulertu behar dira Energia Olatuak eta Ardora ekimena.

Energia-olatuak herritarren kultur ekimenak diruz laguntzeko abian jarri duen programa da. Programa honen bidez, herritarrek eta irabazi asmorik gabeko elkarteek helarazitako kultur egitasmoak eta proposamenak diruz lagunduko ditu, eta helburu bikoitz bati erantzuten dio. Batetik, dagoeneko definitututa dagoen kultur programaren ildo paralelo gisa, proiektu ezberdinez osatzeko bidea eskaintzen du, herritarrek sortu eta garatzen dituzten proiektuei bide emanez. Bestalde, herritarrek kultur eragile paperean kokatu eta sustatzen ditu.

Berezitasunen artean, honakoak nabarmendu beharko genituzke:

- Egitasmoa bera ez ohiko jarduerak laguntzera dago bideratua, beraz ohiko jarduera duten eragile edo herritarrak ekintza berrietan pentsatzera daramatza.
- Oinarrietan irizpide zehatz batzuk jasotzeak, ordura arte landu ez diren alderdi batzuk lantzeko aukera ematen du, hala nola, proiektuetan europar dimentsioa garatzera edo bitartekaritza artistikoarekin lotutako ekintzak barneratzera.
- Diru laguntza eskaera egiteko bidea ere oinarritzkoa eta erreza da, proiektuak baloratzeko oinarritzko elementuak zehaztea besterik eskatzen ez duena. Zentzu honetan, eskakizuna bera betetzea proiektuak aurkezteko muga ez izatea sustatu nahi da.
- Energia olatuetara proiektuak aurkezteko bideak eta anitzak dira, bide digital nahiz analogikoak errespetatuz.
- Azkenik, berritzaileena den alderdia kudeaketarekin lotura dauka, lehen esan bezala, herritar talde bat baita laguntzen diren proiektuak zeintzuk diren aukeratzearen ardura daukana.

Esan bezala, gero eta anitzagoak dira herritarrak parte hartzeko sortu diren bideak. Halaber, erabakitze ahalmenaren esparruan eta kultur eremuaren esparruan eta erabakitze ahalmenaren mailari dagokionez, asko dago egiteke. Aipatu adibide gehienak (entzute aktiborako ekimenak, eztabaida guneak...) kontsulta, proposamen aukera edo arlo deliberatibora mugatzen dira. Erabaki ahalmenari dagokionez, oso araututako esparruetara mugatzen da, edo herritarrak konkezio maila altua duten elementu ezberdin batzuen artean erabakitze aukera soilik izan ohi dute. 2016k, egitekoan eta hasieran aipatu ditugun arrazoiei jarraiki, arlo honetan esperimintatzearen aldeko apustua egin du, lagunduko diren proiektuak zeintzuk diren erabakitze ahalmena duen herritar talde batek osatutako batzorde bat eratuz. Batzorde horren izena *Ardora* da.

Ardora, zoriz aukeratutako herritarrek osatzen duten batzordea

Edozein batzorde osatzerako orduan sortzen den lehen galderetako bat da batzordea nork eta nola osatuko den. Batzordekideak norbaiten edo zerbaiten ordezkari diren, gizartearen aniztasunaren islada izan behar duten... Berdintasun batean parte hartzeko aukera sustatzea hainbat partaidetza mekanismoren helburua da bere horretan, eta badira berdintasun horretara heltzera begira parte hartzen duten pertsonen perfila aztertu duten ikerlanak ere.

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuak herritarren partaidetza eta batzordearen eraketara begira irisgarritasuna eta berdintasuna sustatu nahirik, hausnarketa eta esperimintazio fasean dauden sistema batzuek probatu nahi izan ditu. Sistema horietako bat batzordekideen aukeraketa zozketa bitartez egitean oinarritzen den planteamendua da. Zozketaren aukera sistema politi-

koa eraldatzeko aztertzen ari diren aukeretako bat da. Proposamena, funtsean, kargu politikoak zoriz aukeratuak izatean datza, eta Etienne Chouard-ek (2012) gobernantza egokiago bat sortzeko aukeren inguruan egindako hausnarketetan oinarrituta dagoen mugimendua da.

Halaber, zozketa bidezko aukeraketa sistema, bere horretan, ez da planteamendu berritzailea. Antzinako Grezian erabiltzen zen sistema izanik, Aristotelesek ez omen zuen dudarik zozketa demokrazia bermatzeko modurik eraginkorrena zela. Gobernu on baterako, karguetan denbora gutxi izatea eta errotazio altu bat ematea funtsezko aldagaiak ziren bere ustetan. Hainbat batzorderen eraketetarako «Kleroterion» izeneko erreminta erabilia aukeratzen ziren pertsonak (gizonezko libreak edozein kasutan, beraien izenak borondatez ematen zituztenak) (Berazaluze, 2011).

Aristotelesek zuen ideia hau, aurrerago Montesquieuk edo Rousseauk eta Rancière-k ere partekatu zuten (Eraso, 2014). Pertsonen berezko gaitasunei egiten zieten erreferentzia, «adituak» izan daitezken pertsonen senti dezaketen erabakitze eskubidetik haratago joanaz. Rancièren ustetan boterea eta erabakitze ahalmena ekintza horrekiko inolako interes pertsonalik ez zuen edozein pertsonaren esku egon daiteke eta beraz zozketa unibertsalaren aldeko apustua egiten du.

Arlo politikotik haratago, bestelako erabakitze prozesuetan zozketaren teknika aplikatu izanaren esperientzia gertuagokoak ere izan badira, 2010ean Islandian esaterako. Konstituzio berria sortzeko zoriz aukeratutako 950 herritarren batzordea osatu zuten. Berlinen 2001 eta 2003 artean auzo ezberdinetan 17 batzorde sortu ziren, 500.000 euroko aurrekontuarekin zein eskaintza garatu erabakitze ahalmena zutenak, eta gurera etorrita Idiazabalen 1992an 3 egunez zehar udalerriko eroldaren arabera zoriz aukeratutako 25 pertsonaz osatutako talde batek herriko futbol zelaia nolakoa izango zen erabaki behar izan zuen (Parte hartuz, 2003).

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuaren kasuan, Ardora izeneko batzordea sortu zen 2015ean, eta bi urtez Energia Olatuetara aurkeztutako proiektuen balorazio eta lagunduko diren proiektuen aukeraketa egitearen ardura batzordeari dagokio. Orotara ia 200 pertsonak hartuko dute parte batzorde honetan, eta guztiak zoriz aukeratuak izan dira, 18 urtez gorako Donostian erroldatutako pertsonen artean. Zozketa burutzeak, pertsona oro aukera berdintasun baten aurrean jartzea suposatu du, kultur eremutik gertu ala urrun daude-nak, Donostiara jatorriz ala izatez, bizileku edo sorleku duten pertsona orori aukera emanaz.

Metodologia berritzaileak, kontsensuaren bila

Osatze moduz gain, batzordearen funtzionamenduak ere badu izaera berritzailea. Erabakitze dinamika ezberdinak frogatu nahi izan dira, ohikoak diren bozketak alde batera utzita, kontsensua lortzea helburu duten dinamikak aplikatzeko. Gehiengoak kontuan izanda hartzen diren erabakietan aukera ez-

berdinen artean «lehia» bat izateko arriskua dagoen bitartean, kontsensusa eta teknika deliberatiboek pertsonen arteko elkarlanean guztiak elkarri entzun, iritzi ezberdintasunak kontuan izan eta talde gisara erabakiak hartzea ahalbidetzen du. Honek, lotura zuzena dauka Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburu proiektuak bilatzen dituen balio eta helburuekin, bestearen eta taldearen ikuspuntuak kontuan izaten ikasi, eta norberaren erabakiak edo iritziak eta taldearenak alderatuta ikuspegi kolektiboa lantzeko aukera emanaz.

Ardoraren funtzionamenduari dagokionez, metodologian aurki daitezkeen beste elementu berritzaile bat, balorazio dinamika kuantitatibo eta kualitatiboak aplikatzean eman da. Edozein baloraziotan alderdi subjektiboa erabat ekin ezin dela ukatzerik ez dago. Baina alderdi subjektiboari leku egiten zaionean, objektibotasuna eskatzen den unean hala izatearen bermea areagotzen dela aipatzen duen hipotesia aintzakotzat hartu nahi izan da. Honela, Ardorkideek proiektu baten balorazioa egiterako orduan bi irakurketa horiek burutzen dituzte. Lehenik, konpartituak eta aurrez adostuak diren irizpide batzuen betetze maila baloratzen duen balorazio kuantitatibo bat, -1 eta 1 arteko eskala batean oinarrituz. Bigarrenik, erabat subjektiboa den posizionamendu bat adierazten da, norberaren pertzepzioan oinarrituz, proiektuen inguruko posizionamendua azalduz. Prozesu guzti hori aurrez aurrekoa denez, jarraian eztabaida eta deliberazio faseari ematen zaio bide. Balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboaren artean lortutako emaitzari erreparatu eta norberak bere irizpideak azaltzen ditu, ikuspuntu ezberdinak konpartituz. Azkenik, elkarrekin deliberazio eta erabakitze fase bati pausu ematen zaio, beti ere, hasieran esan bezala, kontsensusa bilatuz.

7. Ondorioak

Donostia 2016k ondare gisa utzi nahi du herritartasun askeagoa, humanistagoa eta giza eskubideak gehiago errespetatuko dituen, bere gatazkak kulturaren eta arteen bitartez konpontzen ikasteko gai izango dena. Gizarte parte-hartzaileagoa eta inklusiboa, herritartasuna indartu eta norbanakoen nahiz gizarte osoaren gaikuntza eta ahalduntzea ahalbidetuko dituen. Horretarako, kultura eta balioetan oinarritutako hezkuntza eraldaketa sozialerako tresna izatea bilatzen du, eta esperientzien trukaketa eta elkarlana balioesteaz gain, sormena eta berrikuntza ere bultzatu nahi ditu kultur sektorean, bestelako formula eta metodologia horiek probatuz.

Donostia 2016ren programak sortzeko modu berrien bilaketa egiten du Hibrilaldiak, Herri zahar andre berri edo Break a leg! proiektuen bidez, edo Ardora herritarren batzordean metodologia berriak aplikatuz; metodologia ezagunak erabiltzen ditu ohikoak ez diren espazio eta testuinguruetan; ezberdintasunari lekua ematen dio prozesuetan eta baldintzak zaintzen ditu, inklusiboa izan daitezen; eta aukera berdintasuna bermatzen du, partaidetza sustatzeko.

8. Erreferentziak

- Adam, Benjamin. *Making an Entrance, Theory and Practice for Disabled and Non-Disabled Dancers*. Londres: Routledge, 2002.
- Arnstein, Sherry R. «A ladder of citizen participation». *Journal of the American Institute of planners*, 35, 4 (1969): 216-224.
- Asociación Internacional para la Participación Pública (2000), sarean: <http://www.ipa2.org>. (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 2).
- Berazaluce, Iñaki (2011), sarean: <http://www.yorokobu.es/diputados-al-azar/>. (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 2).
- Blas, Asier, eta Pedro Ibarra. «La participación: estado de la cuestión». *Cuadernos de trabajo Hegoa* 39. zbk., 2006.
- Chouard, Etienne. «El sorteo para mejorar la gobernanza. Activar un debate sobre el sorteo político», 2012ko otsailak 25. <https://sorteopolitico.wordpress.com/2012/02/25/demonstraciones-por-etienne-chouard/> (kontsulta-data_ 2016ko maiatza 2).
- Correa Rodríguez, Ernesto. «El pensamiento creativo.» *Revista digital Innovación y experiencias educativas* 27. zbk., 2010.
- Donostia 2016 (2015). Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren programa. Donostia: Donostia 2016. & <http://dss2016.eu/es/san-sebastian-2016> (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 2).
- Eraso, Santiago (2014), <https://santieraso.wordpress.com/2014/05/13/europa-democracia-de-ls-cualquiera/>, 2014/05/13 webgunetik berreskuratua. (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 2).
- European Commission. «Resolution of the Ministers Responsible for Cultural Affairs Concerning the Annual Event ‘European City of Culture», Dok 7081/84, Brusela: Comisión Europea, 1985.
- European Commission. «Community action for the European Capital of Culture event for the years 2007 to 2019», Dek. zbk., 1622/2006/EC. Brusela: European Commission, 2006.
- Hart, Roger A. *Children's participation: from tokenism to citizenship*. Florentzia: UNICEF, 1992.
- Lévy, Pierre. *L'Intelligence collective. Pour une anthropologie du cyberspace*. París: La Découverte, 1994.
- Luque, Borja, Mikel Subiza, Goiatz Irazabal, Maddi Suarez eta Oihane Calderón, «IKD GAZTE: Autogestión, multidisciplinariedad y proyectos colaborativos para la adquisición del sentido de la iniciativa». *Tendencias Pedagógicas* 23. zbk., (2014): 127-142.
- Parte hartuz (UPV/EHU), *Informe sobre democracia participativa en el País Vasco*, 2003.
- Pink, Sara eta Simone Abram. *Media, Anthropology and Public Engagement*. Nueva York: Berghahn books, 2015.
- Piqueras Calero, Mayalen. *Juego y Creatividad: Estudio sobre las posibilidades de Fomentar la Creatividad Artística Mediante una Enseñanza Lúdica*, Doktorego Tesia (21-09-1996).
- Rancière, Jacques. *El odio a la democracia*. Buenos Aires: Amorrortu, 2006.
- Röcke, Anja. «Représentation “miroir” et démocratie: Le tirage au sort dans les jurys citoyens berlinois». *Politique et sociétés* 25.1 (2006): 13-30.
- Ruiz, Alix Solángel García, eta Aleida Fernández Moreno. «La inclusión para las personas con discapacidad: entre la igualdad y la diferencia.» *Rev. Cienc. Salud/Bogotá (Colombia)* 3.2 (2005): 235-246.
- Steen, Marc eta Steven Dhondt, «Slow Innovation. Netherlands», Paper presented at EGOS 2010 Colloquium, 1-3 July, Lisboa.

Finantza etikoak Gizarte-inklusioaren sustatzaile modura

Mikel Azqueta Alzuaz

Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

1. Sarrera

Finantza etikoei buruzko kapitulu honen aurkezpenak kontu eta zuhurtzia handia eskatzen ditu esparru teoriko berean gizarte-ekonomia eta solidarioaren prospekzio baten barnean jarduten duten korrante eta instituzio guztiak zedarritzeko unean. Horrela bada, lan honek finantza etikoen jardunbideei eta horiek berrikuntza inklusiboaren¹ (hurrengo ataletan aipatuko da kontzeptu hori) adibidea irudikatzeko moduari buruzko lehen ideia orokor bat eskaintzen du. Aldi berean, lehen atalaren barnean alde batetik banku-entitateen eta beste alde batetik bankuez aparteko entitateen hasierako sailkapen bat eskaintzen da, Coop57² izanik gure ikerketako adibide nagusia. Hala, kapituluko azken atala harri buruzkoa izango da, finantza etikoen barnean duen garrantzia erlatiboa dela medio.

Hirugarren atalean kreditu-eskubidearen gaia, hura eskuratzeko planteatzen diren betekizunak eta berrikuntza inklusiboaren ikuspegiaren eta eskubide horretarako eskuragarritasunaren arteko harremana jorratzen dira.

Azkenik, eta aurrez aipatu den moduan, kapituluko azken atalean kreditu-eskubiderako adibide argi bat ematen da berrikuntza inklusiboaren ikuspegitik: Coop57. Finantza etikoen inguruan argitaratutako literatura ugariari so, Coop57 erreferente modura kokatzen da finantza solidario eta etikoen alorrean jarduten duten bankuez aparteko entitateen multzoaren barnean.

¹ Liburu honen Sarreran aipatu denez, atal honetan *berrikuntza inklusiboaren* kontzeptuaren erabilera haren zentzu intuitibo edo inozoari lotuta doakio, alegia berrikuntza inklusiboa eragilean gizarte berrikuntzari lotuta doana, eta ez RRI delakoaren zentzuan erabil dezakegun berrikuntza inklusiboaren esanahiari.

² Coop57 1987. urtean sortutako kreditu-kooperatiba bat da, Bruguera Argitaletxeko langileek hura baitaratu ostean, langileentzako kooperatiba bat sortzeko xedez, operatiboki eratu berriak ziren kooperatibentzat finantza-zerbitzuak eskaintzeko.

2. Finantza etikoak

Proposatutako planteamenduarekin hasi aurretik, ezinbestekoa da irakurleari finantza etikoak egiaz zer diren eta zein alorretan jorratzen diren azaltzeko kontzeptuzko lehen hurbilketa bat eskaintzea. Finantza etikoak «txanponaren beste aldetzat» aurkezten dira, hots, banku-jarduera tradizionalaren aurreko alternatiba modura, kredituaren eta aurrezkiaren inguruko ikuskera ezberdinekin lan egiten duena, onura sozial, ingurumeneko eta ekonomikoa bilatuz, proiektu iraunkor eta tokikoak finantzatuz. Finantza etikoek gizarte-arentzako balio erantsi bat sortzeko kezka dute, balio erantsia ikuspuntu ekonomiko *paretiano* batetik ulertuta.³

Banku etikoak, finantza alternatiboen organo nagusi modura, Hego hemisferioko garapen-proiektuen (garapenerako lankidetzak, familia ekoizleen kooperatibak eta baztertzeko-arriskuan diren emakumeek kudeatutako mikro negozioak), ingurumena errespetatzen duten proiektuen (nekazaritza ekologikoa eta energia berriztagarriak) eta gizarte-ekimenezko proiektuen finantziazioa (lan kooperatiboa eta gizarteratzearen aldeko enpresa-ekimenak) sustatzeko egiten du lan.

Zentzu zabalean hartuta, finantza etikoen munduak bilakaera progresiboa izan du azken urteotan, izan ere, berriki alor ekonomiko nahiz finantzarioan jarduten duten herrialdeetako lege-esparruetan sartu da. Horrenbestez, Espainiako banku-sistema, hiru finantza-erakunde mota ezberdinek osatzen dute, sarritan elkarren artean interdependente izanik: *bankuak, aurrezki-kutxak eta kreditu-kooperatibak*. Azken bi erakunde motak banku-jarduera sozialaren adibide argia dira (Belmonte, 2007).

Finantza solidarioen barnean ere bi erakunde pribatu mota bereiz ditzakegu: *Banku erakoak* (aurrezki-kutxak, kreditu-kooperatibak eta Banku Etikoak, esate baterako, Fiare eta Triodos) eta *banku erakoak ez direnak*, azken horiek banku forma ez duten diru bitartekari modura ulertuta, esate baterako, tokiko jarduera-esparrua duten aurrezki-erakunde pribatuak (elkartekak edo fundazioak), kreditu-erakundeen lege-esparruaren barnean arautzen ez diren kooperatibak edo dagozkion finantza-ikuskapenen mende ez dauden esperientzia mikro finantzarioak.

Finantza etikoaren alorrean izandako bilakaeraren buruan kreditu-merkatuan kreditu-kooperatibek duten gero eta partaidetza handiagoa kokatzen bada ere, aurrezki-kutxek beheranzko prozesua jasan dute, hein batean, finantza arloko desarauketari dagokionez legean izan diren aurrerapenak bultzatuta. Hasiere batean, aurrezki-kutxak «egiazko» kreditu-instituzio modura katalogatu ziren, gordailugile txikien bidez metatutako aurrezkiak proiektu sozialetako inbertsioetara bideratzeaz arduratzen direnak, garapen ekonomiko eta finantza-

³ Paretoaren zentzuan hobekuntzaren helburua eskuragarri dauden baliabideak herri bateko biztanleen artean behar bezala banatzea da. Modu horretan, ezinezkoa da norbanako baten egoera hobetzea, herri berean aldeztu aurretik beste norbanako baten egoera okertu gabe.

rio iraunkorra sustatuz, bazterketa finantzario eta soziala ekiditearen ondorioz. FEBEA (*Fédération Européenne des Banques Ethiques et Alternatives*) federazioaren arabera, XX. mendearen 30eko hamarkadaz geroztik, hasiera batean konnotazio soziala zuten aurrezki-kutxek jatorrizko ezaugarri etikoak galdu dituzte pixkanaka. Horren ondorioz, kreditu-erakunde berriak sortu dira «erakunde etiko-bankario» gisa ezagutzen direnak.

Bestalde, Espainiako eta nazioarteko legeriak sustatutako finantza-lege berrien ondorioz aurrezki-kutxak desagertzera kondenatuta daude edota, sarritan, banku handien aldetik xurgatuak izatera. Horren adibide da CaixaBank S.A. sozietatea, izan ere, Fundación Bancaria Caja de Ahorros de Navarra, Caja Canarias eta Caja de Burgos xurgatu ditu, eta finantza arloko desarauketa-prozesu horretan esanguratsuenetakoa da bera (CaixaBank Taldea-kudeaketa-txostena 2015, Deloitte S.L). Aurrezki-kutxa kopurua murriztean, finantza etikoaren alorrean parte hartzen zuen erakunde kopuruak ere behera egin zuen, finantzaketa bide tradizionalak dituzten kolektibo ahantziak finantzaren munduan barnera-tzeko hesiak jasoz. Finantza alternatiboen esparru etikoaren barnean jardunean diren aurrezki-kutxa kopurua murriztearekin batera, dagoeneko finkatuta zeuden kreditu-kooperatibak eta banku etikoak enpresa-jardunera iristeko aukera areagotu egiten zen, hori da, adibide batera, Triodos eta Fiare izeneko kasua. Lan Ministerioaren Europako Gizarte Funtsetik eskuratutako datuei so, teoria hori berresten duten datu numerikoak aurki daitezke.

Espainiako banku-sistemaren barnean hirugarren finantza-erakundea kreditu-kooperatibek osatzen dute. Erakunde horiek banku erako kreditu-instituzio pribatuak dira, *1999ko uztailaren 16ko Kooperatiben Legeak* arautzen dituenak. Erakunde horien jardute-eremua lege aldetik finantza-jarduera hori arautzeko berezko araudia garatzeko eskumena duten hamazazpi autonomia erkidegoetako hamahirutan xedatzen denaren arabera dago zedarritu eta baldintzatu. Erakunde pribatuak dira eta horien izaera juridikoa haietako kide diren kooperatibistenaz bestelakoa da. Hala, erakunde horietako politika eta jarraibideen helburu nagusia irabazteko asmoaz apartekoa da. (García Delgado, 2004). 1999. urteko kooperatiben legearekin bat etorritik, *derrigorrezko erreserba-funtsa* da kreditu-kooperatibak beste banku-erakunde batzuetatik bereiztea eragiten duen ezaugarria, horiek horrela osatzen direlarik: a) kooperatibetako soberakinen portzentaje jakin bat eta Batzar Nagusiak ezarritako kooperatibaz aparteko eta ezohiko mozkinen portzentaje jakin bat; b) kapital sozialera derrigorrez egiteko ekarpenen gaineko murrizketak bazkideen baja ez justifikatuetan; eta c) bazkideen sarrera-kuotak estatutuetan aurreikusten direnean eta batzar nagusiak finkatzen dituenean. Beraz, derrigorrezko erreserba-funtsa kooperatibistek elikatzen duten funtsa baino ez da, eta bere helburua kooperatiben kaudimena eta sinesgarritasuna areagotzea da, berezko baliabideak areagotzearen bidez.

Banku etikoaren aldetik, bi banku-entitate nabarmentzen dira nagusiki: Triodos eta Fiare; horiek banku-entitatetzat hartzen dira, izan ere, banku tradizionalako erakunde homologoez duten lege-esparru bera darabilte araudi mo-

dura. Fiare Banku Etikoak, adibidez, bere kreditu-jarduera irizpide jakin batzuk betetzen dituzten proiektutara murrizten du. Hurrengo atalean aipatuko ditugu irizpide horiek. Peru Sasiaren arabera (Santos, 2012), finantzaketa-eskaeren egokitzapen etiko eta soziala lurralde-batzar bakoitzean hautatutako borondatezko batzordeen eskutik gauzatzen da, Estatuko Batzorde Etiko batek lagunduta. Batzorde Etiko hori bazkide-batzar batek izendatzen du lurralde-batzarretatik aurkeztutako hautagaitzak kontuan hartuta.

Azken lerroalde horretatik askatzen da kapitulu honetako lehen ideia nagusia eta hurrengo atalean sakontasun handiagoz eztabaidatuko duguna, hots, kreditu-eskubidearena, gauzatzeko aukera jakin batzuen arabera erabilgarri dagoen giza eskubide gisa ulertuta (Santos, 2012).

3. Kreditu-eskubidea

Banku-entitate solidarioen helburu nagusia bere bazkideak nahiz kreditu-merkatuan sartzeko aukera eskasa duten taldeak finantzatzea denez, bere kreditu-politikaren gauzapenak ikuspegi bikoitza du: Lehen ikuspegi inklusibo bat, banku tradizionalak merkatu horretatik kanpo utzitako kolektiboek kreditu-eskubidea ematekoa; eta, kredituarekin lotutako bigarren ikuspegi eskusibo eta murrizgarri bat, jarduera ekonomikoak ebaluatu eta haiek positibo edo negatibo modura sailkatzekoa, gizartean jarduera horiek duten eraginaren arabera. Jarduera positibo modura hartzen ditugu banku tradizionalaren sektoreak artatzen ez dituen eskakizun etikoak bultzatu edo ahalbidetzen dituzten gizarte-eraginak sortzen dituztenak, esate baterako, langileen partaidetza, generoaren inklusioa eta egoera ahulenean diren kolektiboak gaineratzea, besteak beste (Santos, 2012). Jarduera negatibo modura hartzen ditugu duinak ez diren lan-baldintzak bultzatzen dituztenak, ingurumenarekin oldarkorrek direnak edo armamentuaren merkatua eta ekoizpena ahalbidetzen dutenak.

Berrikuntza inklusiboko ikuspegi horrekin jarraituz, finantza etikoen barnean jarduten duten erakundeek, esate baterako, kreditu-kooperatibek, norbanako eta bazkideen aurrezkoa aurrez deskribatu ditugun jarduera positiboetara bideratzea dute xede. Berrikuntza inklusiboko ikuspegi horrek kreditua giza eskubide modura hartzen du, betiere, hura gauzatzeko aukera existitzen bada. Lehen eremu batean, ezinbestekoa da eskubide hori eskuratu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak egotea. Horrek zera esan nahi du, alde batetik, pertsona aurreztaileak egon behar direla eta, beste alde batetik, kreditua bideratzeko erakundeak edo erakunde bitartekariak egon behar direla. Bigarren eremu batean, finantzatutako inbertsio-proiektuen errentagarritasuna ezinbesteko betekizuna da kreditu-sistemaren funtzionamendurako; gainera, derrigorrezkoa da mailegua onartu zenean mailegu horrek zuen helburura bideratzea espresuki. Banku-entitate solidarioen organigramaren barnean nahiz kanpoan hainbat mekanismo daude, kreditua eskatzen duten pertsonen finantza arloko aholkularitza ematekoak eta proiektuaren bideragarritasuna eta maile-

guaren itzulera bermatzekoak. Aurrerago aztertuko dugun Coop57 erakundearen kasuan, bere organigramaren barnean Batzorde Teknikoa nabarmentzen da. Batzorde hori arloko kontseiluari helarazteko txostenak, positiboak eta negatiboak, egiteaz arduratzen da. Azkenik, arloko kontseilua da, lurralde-atal bakoitzean, emateko mailegua onartzeko erantzukizuna duen organoa. Gainera, Batzorde Teknikoak finantzatzeko proiektuetako titular direnei finantza arloko aholkularitza emateko eginkizuna betetzen du, titular horiek iraunkortasunari nahiz errentagarritasunari dagokienez beharrezkoak diren betekizunak bete ditzaten.

Coop57 kreditu-kooperatibak hartutako arriskuari dagokionez, Oinarri sozietatearekin adostutako akordioa nabarmentzen da. Oinarri elkar bermatzeko sozietate bat da, gizarte-ekonomian eta ekonomia solidarioan espezializatu, eta izaera mutualista duena. Sozietate horren helburua abalak ematea da, Coop57 erakundeak ematen duen finantzaketa eskuratu ahal izateko. Horrenbestez, Coop57 erakundeak eta Oinarri sozietateak hitzarmen bat dute sinatuta, finantza-eragiketa jakin batzuetako arriskua partekatzeke. Hitzarmen horri esker, Coop57 erakundeak onartutako mailegu kopurua areagotu dezake.

Bada nabarmentzeko azken mekanismo bat, hain zuen, abal pertsonal mankomunatuena, zeinaren bermearen helburua finantzazioaren xede den pertsonak bere ingurune hurbilera jotzea den, proiektuan sinesten duten pertsonak (bazkideak) bilatu eta abal-emaile modura erantzukizun bat baitara dezaten maileguaren zati txiki baten gainean. Ordainketa egin ezean, abal-emailearen erantzukizuna baitaratutako mailegu zatira mugatuko litzateke. Sistema horri esker, ekonomikoki bideragarri diren proiektuak dituzten baina ondare bidez kapitalizaturik ez dauden erakunde askok finantzaketa lor dezakete.

Finantzaketa tradizionalaren sistemaren eta finantzaketarako sistema etikoaren arteko ezberdintasun nagusiak kreditu-erakundeek eskatzen dituzten *berme-eskakizunetan* aurkitzen dira; horrela, lehenengoen berme-sistema erabiltzen dute lehen iragazki modura likidezia onartzeko garaian, eta Banku Etikoaren erakundearen kasuan, berriz, finantza-tresna jakin batzuekin, esate baterako, *mikro-kredituekin*, berme horien eskakizun-maila murriztu egiten da, kreditu hori egoera ahulenean dauden kolektiboetara joan eta, modu horretan, txirotasunari aurre egiteko. Beranduago helduko diogu mikro-kredituen gaiari, baina aurrez garrantzitsua da banku tradizionalaren eta banku etikoaren artean dauden ezberdintasun guztiak ikustea. Horrela bada, bi erakunde mota horien arteko ezberdintasunak 5 dimentsioko ikuspegi batekin jaso daitezke (Febea, 2012):

- *Banku etiko baten rola*: Banku etiko baten eginkizun edo rola guztion onuraren alde lan egin eta *kreditua jasotzeko eskubidea* ziurtatzea da. Horretarako, funtsak (gordailuak) metatzean oinarritzen den banku-jarduera bat garatzen du, gerora, kreditu modura, kultura, gizarte eta ingurumen arloko proiektuetara bideratzeko. Beren jardunarekin banku etikoek *gizarteratzea*, garapen iraunkorra eta kultura ekintzailea duen gizarte-ekonomia baten garapena bultzatzen dute. Banku etikoek, era berean, diruak gizartearen betetzen duen paperaren eta, helburu modura, epe laburreko

- ikusmiran eta mozkinetan oinarritzen den sistema ekonomiko baten aldeko joera okerraren inguruko kontzientzia soziala sortzeko rola dute.
- *Diruaren jatorria*: Banku solidarioetako oinarri etikoetan oinarritzat hartzen den dirua beren bezeroen aurrezki-jarduera sinpleetan dute jatorria, egiazko ekonomia batean oinarritutako jarduera ekintzaileen bidez soberakin ekonomikoak sortzen baitituzte aipatu bezeroek. Banku etiko batek jatorria ezagutu gabe dirurik ez onartzea, legez kanpoko jardueretatik (diruaren zuriketa, narkotrafikoa, armen legez kanpoko trafikoa) datorren dirua ez onartzea nahiz oso kutsakorrak diren enpresetatik datorren dirua ez onartzea darabil politika modura.
 - *Diruaren helmuga*: Banku etiko baten kreditu-jarduerak maila sozial eta ingurumenekoan eta, aldi berean, maila ekonomikoetan ere eragin positiboa izatea du helburutzat. Helburu hori gizarteratzea eta enplegarritasuna ahalbidetzen duten jardueri (irabazi asmorik gabeko erakundeen bidez) babesari emanek lortzen da. Modu horretan, banku etikoaren eta bere bezeroen artean finkatzen den banku-harremana, normalean, lankidetzaren ikuspegitik hautematen da, eta ez ikuspegi komertzial batetik. Banku etiko batentzat gizarte-eragin eta ingurumeneko balio positiboak funtsezkoak dira, eta inpaktu ekonomiko positiboaren balioetik bereizezinak. Horrenbeste, banku etiko batean, finantzatzeko proiektu ekonomikoek txosten sozial eta ingurumeneko paraleloa gaineratzen dute. Txosten hori finantzatzeko proiektu hori gauzatuko duenak betetzeko irizpide-zerrenda batean oinarritzen da. Hiru mailatan (soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa) egiten den proiektu baten bideragarritasunaren sakoneko azterketa horri esker, banku etikoek arrisku-maila txikiak hartzen dituzte, hala kaudimen aldetik nola ekologia aldetik. Banku etiko batek arreta berezia eskaintzen dio, tokiko mailan nahiz nazio mailan, emakume eta gazteen kolektiboek burututako *ekimen ekintzaileen babesari*, aurrez aipatutako *mikro-kredituaren* bidez.
 - *Dirua erabiltzeko irizpideak eta balioak*: Banku etikoko inbertsioek garrantasun-irizpideari jarraitzen diote beti. Modu horretan, bankuko inbertitzaile/bezero/bazkide txikiak beti dakite beren dirua enpresa arloko zein proiektu ekintzailetan inbertitzen den. Banku etiko batek ez ditu bere diru-sarrerak espekulazio-jardueretan berrinbertitzen. Banku gehienek aurrezki- eta kreditu-eragiketak burutzen dituzte soilik. Kredituari dagokionez, kreditua ematerako orduan, banku etikoak berme egiazko/zeharkakoak kontuan hartzeaz gain, fundazioa nahasirik dagoen tokiko sareek emandako berme pertsonal edo sozialak ere balioesten ditu.
 - *Banku baten gidaritzarako baldintzak*: Banku etiko batek *kreditua jendearen zerbitzura* jartzen du. Errentagarritasunaren bilaketa eskusibo ez da lehentasunezko helburu bat. Mozkin «justu» bat nahikoa da erakundearen bideragarritasuna bermatzeko. Diru-soberakinak sozietatearen helburu sozialetan berrinbertitzen dira, gehienetan tokiko mailan edo sozietatea hartzen duen lurraldean. Erakundea espekulazio-proiektuetan sar-

tzen ez denez, nazioartean hedatzeko aukerak murriztu egiten dira. Azkenik, banku-entitatea erabakietan langile eta bazkide guztien partaidetza aktiboa bultzatzen saiatzen da eta erakundearen maila altuenetan eta baxuenetan soldaten berdintasunezko politika bat mantentzen saiatzen da.

Alde batetik, kreditua, hein handi batean, finantza-bitartekaritzak duen gizarte-eragin positiboa ulertzeko faktore erabakigarri modura hartu izan da (de la Cruz, Sasia eta Garibi, 2010; Sasia, 2012).

Finantza-erakundeek pertsonak kaltetzen dituztenean edo, hori egin gabe ere, herriko sektore zabalak kreditu-zirkuitutik kanpo mantentzen dituztenean, kreditua nork jaso behar duen, zergatik, zein baldintzatan eta zein mekanismoren bidez zehazteko gogoeta egitea berehala agerian geratzen den zutabeetako bat da (de la Cruz, Sasia eta Garibi, 2010: 187). Horrenbestez, hainbat dimentsiotan (sozialak, ingurumenekoak, lan arlokoak, etab.) eragin positiboak lortzeko premia etengabeak agerikoak direnean, beharrezkoa da esparru europar berri bat, bere forma guztien ekitatea eta iraunkortasuna bermatzeko ikerketa eta berrikuntza arduratsuen bidez.

Ikerketa arduratsurako esparru europarraren arabera (RRI, *Responsible Research and Innovation*), gizarte bereko gizarte-eragileek (ikertzaileak, herritarrrak, politikariak, hirugarren sektoreko negozio eta erakundeak) modu arduratsu eta koordinatuan lan egin behar dute ikerketa- eta berrikuntza-prozesu guztian zehar, modu horretan, efizientziari eta ekitateari dagokionez emaitza onenak optimizatu eta lortzeko, gizarte osorako ekarpen positiboa egin.

Banku etikoak Horizon 2020 programa europarraren esparruan duen egin-kizuna agerikoa da. Horrela bada, aurrez azaldutako mekanismo ugarien bidez finantza etikoen esparrupean jarduten duten instituzio ezberdinak Europako RRI esparruko (*Responsible Research and Innovation*) helburuekin bat datozen jardunbide ezberdinak gauzatzeaz arduratzen dira. Modu horretan, dagozkion «*right impacts*» eraginak lortzen dituzte iraunkortasunari, ingurumenari, generoaren inklusioari eta erantzukidetasun zibilari dagokienez. Europako Batzordea aspaldidanik dago kezkatutik sozialki desiragarria den teknologia eta zientzia bultzatzearekin. Horrela, gizarte bereko eragile guztien partaidetza bultzatzen du erantzukidetasunaren printzipioaren baitan, Banku Etikoaren jardunean ere aintzat hartzen den kontzeptua. Finantzetako praktika etikoak bultzatuz, aldi berean, gure gizarteetako hazkunde inklusiboa sustatzen da. Hain zuzen, azken hori da Europako Batzordeak berrikuntza eta ikerketa arduratsuekin (RRI) lotuta duen asmo handiko ekimenaren ardatz eragilea.

Gizarte-eraginaren neurketa nahikoa berria da eta ekonomia eta enpresa-zientzien ikerketaz arduratzen diren hainbat unibertsitatearen ikergai bilakatu da. Atis-The Higher Institution of Business and Enterprise at the Catholic University of Milan izenekoak egindako ikerketa baten arabera, 15 urteko jardunean banku etikoak energia berriztagarriko 1.531 plantaren instalazioa sustatu du. Horrela, urtean 48.000 Mwh energia garbi ekoizten da gutxienez. Modu horretan, atmosferara 25,600 tona CO₂ aireeratzea ekiditen da eta urtean 410.000 euro aurrezteaz lortzen da gizarte osorako.

Ikuspegi familiar eta sozial batetik, banku etikoari esker 12.500 norbanako baino gehiagok kreditua eskuratu ahal izan dute etxebizitza erosi, etxeetan ingurumenari dagokionez efizientzia areagotzeko berregituraketak egin eta etxeak baitaratu eta gurasoen etxetik emantzipatzeko.

Europar Batasunaren esparruan ikerketa eta berrikuntza arduratsua aurrez aipatutako iraunkortasun-printzipio etikoak jarraituz gauzatu behar da ezinbestean. Horretarako, derrigorrezkoa da esparru horretan banku etikoa aintzatestea finantzazioari dagokionez, inklusio soziala areagotu eta berrikuntza eta ekin-tzailtza sustatzeko.

Hurrengo atalean mikro-kredituaren kontzeptuaren inguruko eztabaida plazaratzen da, gizarteratzea sustatu eta arestian aipatutako *right impacts* eraginak lortzeko ingurumen-iraunkortasunari, generoaren inklusioari eta erantzukidetasun zibilari dagokienez.

4. Berrikuntza inklusiboaren ikuspegia

Horrenbestez, kreditu-eskubidearen kontzeptua, finantza etikoen esparruan banku-entitateak aski aintzatesten dutena, 70eko hamarkadan zehar erlatiboki erabilitako kontzeptu batetik eratorzen da, berrikuntza inklusiboaren adibide argi bat islatzen duena: *mikro-kreditua*.

Mikro-kreditua inklusibo modura har daiteke finantza-sistema tradizionalak bazter uzteko arriskuan diren kolektiboaren gizarteratzea barneratze hutsagatik. Gazte eta emakumeen kolektiboak dira gehienbat, gizarte-ekintzailtzako proiektuak abian jartzeko asmoa dutenak. Horrela bada, finantza etikoak defendatzen dituztenen artean diskriminatutako kolektiboek krediturako eskubidea izatea bermatzeko erabiltzen den mekanismo berri samarra da, betiere, ekitateko proiektu horiek aurrez azaldu diren betekizunak betetzen badituzte: eragin positiboak gizaritari, ingurumenari eta ekonomiari dagokienez.

Finantza-produktu gisa mikro-kredituak eskaintzen dituzten instituzioek enpresa-ikaskuntza sustatzeaz arduratzen diren erakunde bitartekariak direla erakutsi dute. Hego Amerikako zonaldeetan krediturako sarbidea oso mugaturik dago (mikroenpresen % 5 baino gutxiago dira sarbide hori dutenak) eta mikro-kreditua txirotasunaren⁴ zepoa saihesteko ihesbide modura hautematen da aurretiaz bultzada ekintzailea duten kolektiboentzat (Vera, 2002).

⁴ Jeffrey Sachsek «*the end of poverty*»(2005) liburuan adierazten duenaren arabera, txirotasunaren zepoa kontzeptua txirotasuna baldintza sozioekonomiko jakin batzuetan iraunaraztea eragiten duen sistema oso modura defini dezakegu: krediturako eta kapitaletako merkatuetarako sarbide eskasa, ustelkeria, kapital-ihesa eta heziketa eta osasun maila apalak. Faktore horiek gizartea bere osotasunean garatzea oztopatzen dute, izan ere, biztanleei ez zaie ematen jarduera ekonomiko batek behar bezala funtzionatzeko behar dituen baldintzez osatutako sistema bat. Enpresa-jardunetik eratorritako moneta-soberakinik ez dagoenez, txirotasuna sorrarazten duten faktoreak indartu egiten dira eta, modu horretan, gurpil-zorua sortzen da eta nekez egin daiteke hartatik ihes.

Baina mikro-kreditua egiaz berrikuntza inklusiboaren eta krediturako sarbidea izateko eskubidearen adibidea dela erakusteko nahikoa da bere definizioa eta aplikazio-eremua arretaz ikertzearekin: «Mikro-kreditu hitza, oro har, diru-sarrera apalak dituzten pertsona edo mikroenpresei zuzendutako mailegu oso txikiak adierazteko erabiltzen da» (Velázquez González, 2007). Washingtonen 1997an mikro-kredituari buruz egindako Nazioarteko goi-bileran horrela definitu zen: «Txiroen artean behar gehien dutenei kreditu txikiak emateko programak, diru-sarrerak sortzeko negozio txikiak abian jar ditzaten, beren bizi-kalitatea eta familiarena hobetzeko» (Fernandez, 2006). Banku-entitate tradizionalak ikuspegi finantzariotik bazter utzitako behartsuenei kredituak bideratze hutsa gizarteratzearen adibide argia da.

Bestalde, banku sozialek kaltetutako kolektibo horien gizarteratzea eragin eta bultzatzeaz gain, finantza arloko *bazterkeria*-politikak ere garatzen dituzte kreditu soziala eskuratzeko betekizunetara egokitzen ez diren erakundeetan aplikatzeko; horrela, oso kutsakorrek diren enpresek, ikuspegi *ekonomikotik errentagarriak ez diren* proiektuek, gehiegikeriaz gauzatzen diren lan-jardunak bultzatzen dituzten proiektuek edo legez kanpoko jardueretan oinarritzen diren proiektuek (esate baterako, armen trafikoa) ez lukete krediturako sarbiderik izango finantza etikoan esparruan.

Mikro-kreditu hitza 80ko hamarkadaren amaiera aldera hasi zen Espainian egokitzen. Herrialdea astindu zuen industria-atzeraldi nagusiaren ondoren, porrot egiteko arriskuan ziren industria-negozio asko enpresa horietako langileek baitaratu zituzten beren lanpostuak mantentzeko xedez. Logikoa den moduan, sortu berriak ziren kooperatiba gehienak «ezegonkor» edo «porrot-arriskuko» modura hartu ziren. Horrenbestez, kreditua eskuratzeko eskubidea (mikro-kredituak eskuratzekoa) aski mugaturik zuten banku-sistema tradizionalan. Eze-gonkortasun ekonomikoko egoera horretan sortu zen Coop57 kreditu-kooperatiba, kreditu aldetiko urritasunaren arazoari erantzuteko asmoz. Hurrengo atalean kreditu-kooperatiba horri buruz mintzatuko gara.

5. Kreditu-eskubidearen adibide bat berrikuntza inklusiboko ikuspegi batetik: Coop57

Coop57 kreditu-kooperatibaren jatorria Kataluniako Bruguera argitaletxearen likidazioarekin (1987) dago estu lotuta. Argitaletxe hartako 57 langilek Bruguera argitaletxearen hartzekodunen konkurtsoaren ondoriozko likidaziotik eratorritako funts kopuru jakin bat jartzea erabaki zuten erakunde fisikoa erreskatatu eta finantza alternatiboan esparruaren barneko erakunde berri bat azalartzeko asmoz. Horixe izan zen kooperatibaren jatorria. Kreditu-erakunde kooperatibista bat sortzea erabaki zuten, industriaren sektorean operatiboki eratu berriak ziren kooperatibentzat finantza-zerbitzuak eskaintzeaz arduratuko zena. Sortzaileek erabaki zuten, *kideek* erakundeko funtsen erabilera *modu kolektiboan erabakitzeko* kooperatiba moduan kontsolidatu beharko zen erakunde.

1995. urtetik Coop57 kooperatibaren jarduera finantza etikoen mugimen-
duarekin egon da lotuta pixkanaka, berezko baliabideak eskainiz, mailegu (mi-
kro-kreditu) modura, langabetutako pertsonen enplegua eta industria-koopera-
tiben garapena bultzatzen duten, eta elkartasunarekin eta iraunkortasunarekin
lotutako jardunak erabiltzen dituzten gizarte-proiektuetara bideratzeko.

Aurrez adierazi dugun moduan, kreditu-kooperatibak kreditu-instituzio pri-
batuak dira, helburu sozial baten arabera eratuak. Kredituak finantzatzeko gaine-
rako adar tradizionalekin lehiatzen dira, baina haiek ez bezala, kredituak emateko
jardunak sozietate-oinarriarekin daude hertsiki lotuta. Kasu gehienetan, bezeroak
bazkide kapitalistak eta kooperatibako jabedunak dira. Haatik, Espainiako egungo
legeriak «kide ez diren» beste kolektibo batzuk kreditu- eta aurrezki-eragiketetan
barneratzeko aukera ematen die kreditu-kooperatibei. (Soler, 2002). Berez, kre-
ditu-kooperatiben jardute-eremuak sektore ugari baitaritzen ditu, lehen sektorea
izanik funtsen hartzaile nagusia Espainian (Landa Bankuak)⁵.

Kreditu-kooperatiben enpresa-jardunari dagokionez, eta globalizazio ekono-
mikoaren etengabe hazten ari den arren, oraindik eraturik daudeneko tokiko lurral-
dera daude estu lotuta jardunari dagokionez. Modu horretan, normalean, bertako
kideei emandako finantza arloko laguntza (mikro-kredituen bidez) errentagarri-
tasun urriko iguripenak dituzten jardueretara dago mugaturik. Coop57 koopera-
tibaren baliabide ekonomikoek helburu nagusi bat dute: «eskubide osoko bere
kideei maileguak eskaintzea». Eskubide osoko kide oro mailegu bat jasotzeko
hautagai izan daiteke. Haatik, kreditua onartu ahal izateko *Eskualdeko Batzor-
deak* bere onespina eman behar du ezinbestean. Batzorde horrek mailegua jaso-
tzeko derrigorrezko instantzia igaro eta 15 egunera ematen du bere epaia.

Epe luzerako maileguak oso malguak izan ohi dira. Gehienez, 7 urteko
iraupena izaten dute eta gehienezko zenbatekoa 300,000 eurokoa da (2013ko
datua), % 6.5eko interes finko batekin (banku tradizionalak eskainitakoa baino
baxuagoa). Interes bera aplikatzen da epe luzerako kredituetan. Dena den, az-
ken horien iraupena 18 hilabetekoa izaten da gehienez.

Coop57 kooperatibaren maileguez *ez dute bermerik eskatzen*, banku tradi-
zionalak ez bezala, kreditua eskuratzeko hesi modura *bermeak eskatzen* baitzi-
tuen (aurrez azalduta bezala). Modu horretan, Coop57 kooperatibak mailegua
itzultzeko erantzukizuna kooperatiba mailegu-hartzaileko edo erakundeko ki-
deen artean banatzen du. Adibide batera, 5 kidez osatutako kooperatiba mai-
legu-hartzaile batean, kide bakoitza mailegu osoaren bosten batez arduratuko
litzateke. *Berrikuntza inklusiboko metodologia hori* (maileguaren karga nor-
banako ugariren artean banatzea eta kreditua eskuratu ahal izatea ahalbidetzen
baitu) mikro-kredituak ematen dituzten beste instituzio batzuek erabiltzen du-
tenaren antzekoa da, esate baterako, Grameen Bank izenekoak erabiltzen due-
naren antzekoa (Grameen Bank, 2009).

⁵ Landa banku modura ulertzen dugu jarduera nagusitzat landa inguruneke granjentzat
edota ekonomiaren lehen sektoreko beste kooperatiba batzuentzat maileguak onartzean oina-
rritzen den kreditu-kooperatiba.

Kataluniako kreditu-kooperatibak azken urteotan bilakaera nabarmena izan duela ikus dezakegu Espainiako CIRIEC aldizkariak 2014. urtean emandako datu numerikoetan erreparatuta. Horrela, 2001. urteaz geroztik onartutako kreditu kopurua 1002 mailegukoa da, horietatik 819 Katalunian. Gainerako maileguak Aragoi (72), Madril (42), Andaluzia (34), Galizia (30), Valentziako Komunitatea (4) eta Asturiasen (1) banatu ziren. Coop57 kooperatibak tokiko izaeratik kooperatiba nazionalera emandako jauziak kooperatibak 1987. urtean sortu zuenean zuen gizarteratzeko grina indartzen du.

Bestalde, maileguen tamaina ere areagotuz joan da, 2009-2015 bitartean. Horrela, onartutako mailegu kopurua 4.188.558 eurotan areagotu da, 2009. urteko zenbatekoa (4.447.552 €) ia bikoiztuz. Hala, azken urtean, 2015. urtean, onartutako mailegu guztien artean ia 9.000.000 euro batzen dira.

Bazkideen ekarpen osoei dagokienez, Coop57 kooperatibak bere webgunean eskainitako zenbakietan erreparatuz, hazkundera nabarmena dela ikus dezakegu, batez ere, bazkideen ekarpenekin lotuta (2009an 5.854.403 €; eta 2015ean 28.230.851 €), eta berezko funtsetan ia ez da igoerarik izan. Aurrez eztabaidatu dugun moduan, hastapenetik, Coop57 kooperatiba langileen kooperatiben finantzari argia izan dela ikus daiteke, izan ere, ematen dituen mailegu gehienak sektore horretara bideratzen dira. Haatik, 2006. urteaz geroztik, *irabazi asmorik gabeko erakunde* kopurua areagotzearen ondorioz, horiek osatzen dute Coop57 kooperatibaren eskutik funts gehien jasotzen duen bigarren talde nagusia, arestian aipatutako kooperatiben ondok. Onartutako maileguen % 46.14 (15.644.135€) kooperatibetara bideratu ziren, eta % 30.64 (10.388.509 €) irabazi asmorik gabeko erakundetara. Gainerakoa beste erakunde mota batera bideratu zen, esate baterako, *Fundazio pribatu*etara (% 8.44 = 2.860.288 €), *laneratzeko enpres*etara (% 2.42 = 820.895 €), *lan-sozietate*etara (% 4.14 = 1.405.320 €) eta *beste batzue*tara (% 8.22 = 2.787.533 €).

Esan dezakegu Kataluniako kreditu-kooperatibak erakutsitako etengabeko hazkundera Espainian hirugarren sektoreak izandako hazkunderarekin batera gertatu dela. Hirugarren sektore hori gizarte-ekonomiaren nahiz ekonomia solidarioaren esparruan lan egiten duten enprekin osaturik dago, eta hainbat mekanismo baliatuz berrikuntza inklusiboko jardunak gauzatzen ditu gizarte kapitalista baten barruan egoera ahulenean dauden kolektiboen gizarteratzea eta laneratzeari hobetzeko xedez: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, langileen kooperatibak, minusbaliotasunak dituzten pertsonak, krediturako sarbiderik ez duten gazte ekintzaileak, etab.

6. Ondorioak

Artikulu hau finantza etikoek gure gizartean betetzen duten zereginari buruzkoa da. Hura osatzen duten erakundeak zein eremu sozioekonomikoetan mugitzen diren eta berrikuntza inklusiboko zein mekanismo berritzaile erabiltzen dituzten

aztertzen da. Kreditu-kooperatibak, Coop57 kasu, eta banku etikoak sistema tradizionalaren esparru kapitalistan bazter utzitako kolektiboek kreditua eskura dezatela bermatzeaz arduratzen dira, izan ere, sistema tradizional horretan mozkin ekonomikoari baino ez zaio begiratzen, beste lehentasun batzuk alboratuz, esate baterako: ingurumena, laneratzea eta gizarteratzea. Elkarre horiek (banku erakoak zein bankuz apartekoak) ere hesirik gabeko ikaskuntzaren bultzatzaile modura definitzen dute beren burua. Banku etikoek finantzatutako erakunde askok (esate baterako, soberanía alimentaria e ingenierías sin fronteras) kolektibo ezberdinen arteko mugarik gabeko jardun eta ezagutzen (guztion eskura dagoen ezagutza) zirkulazio askearekin arduratzen dira iraunkorragoa den eta ingurumena gehiago errespetatzen duen gizartea eta ekonomia bermatzeko xedez.

Amaitzeko, esan dezakegu, Espainian sektore sozial eta solidario baten existentzia, hein batean ikaskuntzarekin lotutako ezagutzak eta teknikak modu askean hedatzeaz arduratzen dena, ongi babesturik dagoela, izan ere, kreditua aurreztaileetatik mailegu-eskatzaileetara beren proiektuak (esparru sozial edota teknologikokoak) abian jartzeko modu askean mugi dadin arduratzen diren hainbat erakunde daude (banku erakoak zein bankuz apartekoak). Bestalde, banku etikoa Horizon 2020 programako RRI (*Responsible Research and Innovation*) esparruak planteatutako helburuaren erantzun modura azaltzen da Europar Batasunaren esparruaren barnean, izan ere, ikerketa- eta berrikuntza-programak sustatu nahi ditu prozesuan aurrez aipatutako gizarte-eragile guztiak nahasiz, gizartean, bere osotasunean (ingurumen aldetik nahiz alderdi soziallean), gizarte-eragin positiboak sorrarazteko helburua dutenak.

Eragile guztien erantzunkidetasuna ere gizarteratze handiagoa lortzeko mekanismo ezberdinak txertatzean kontuan hartu beharko litzatekeen alderdia da. Horrenbestez, gizarte beraren barneko erakunde ezberdinen arteko lankidetzaz ezinbestekoa da eta, banku etikoak, beste batzuen artean, ikerketa- eta berrikuntza-zentro ezberdinen funtzionamendu egokia eta inplikazioa behar du finantza-esparru tradizionalaren alternatiboa den finantza-esparru batean behar bezala lan egiteko.

7. Erreferentziak

- ALTIS - Alta Scuola Impresa e Società «The social impact of Banca Ética. 15 years of finance serving the good common.» Università Cattolica del sacro Cuore. https://www.bancaetica.it/sites/bancaetica.it/files/web/BLOG/ricerca%20altis/BE-ricerca15anni_ABSTRACT_ENG_web.pdf (Kontsulta-data: 2016ko ekainak 10).
- Ambrós, Francisco. *Grupo CaixaBank-informe de gestión 2015*. Deloitte S.L., 2016.
- de la Cruz, Cristina, Pedro M. Sasia eta Juan Garibi. «Lo que debe ser y es una banca ética». *Lan Harremanak, Revista de Relaciones Laborales* 14 (2011): 175-204.
- Etapé-Dubreuil, Glòria eta Mirada Consol Torreguitart. «Social Financing Alternatives for Social Economy Enterprises: Coop57.» *CIRIEC-España Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 80 (2014).
- European Commission «Public Public Engagement in Responsible Research and Innovation». The EU Framework Programme for Research and Innovation. <https://>

- ec.europa.eu/programmes/horizon2020/en/h2020-section/public-engagement-responsible-research-and-innovation (Kontsulta-data: 2016ko ekainak 10).
- Febea - *Fédération Européenne de Finances et Banques Ethiques et Alternatives*, «Charter: Distinctive elements of an ethical banks», <http://www.febea.org/content/charter> (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 6).
- García Delgado, José Luis, Juan Carlos Jimenez eta Enrique Viaña. *Las cuentas de la economía social. El tercer sector en España*. Pamplona: Civitas, 2004.
- González Velásquez, José Ángel. «El microcrédito: Sostenibilidad financiera vs. impacto sobre la pobreza». *Anales de la universidad Metropolitana*, 7, 1 (2007).
- Sachs, Jeffrey D. «Why some countries fail to thrive», in Sachs, Jeffrey D. *The end of poverty: economic possibilities for our time*. 51-74 orr. New York: Penguin, 2005.
- Santos Sasia, Pedro M. «La Banca Ética en Europa: el enfoque del crédito como criterio de configuración de un espacio de alternativa». *CIRIEC-España Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 75 (2012): 277-299.
- Soler, Francisco.V. «La identidad Cooperativa como garantía de futuro: las cooperativas de crédito ante la trivialización de sus principios». *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 40 (2002): 215-242.
- Ureña Belmonte, Luis Jesús. *El sector de Cooperativas de Crédito en España. Un estudio por Comunidades autónomas*. Doktorego Tesia, Consejo Económico y Social de Andalucía. Departamento de economía aplicada, 2007.
- Vera, Leonardo, Francisco Vivancos, eta Luis Zambrano Sequín. «Para el desarrollo de las microfinanzas en Venezuela». *Revista venezolana de análisis de coyuntura*, 8, 2. (2002): 233-263.

Berrikuntza inklusiboko esperientzia Euskadiko lanbide-heziketan: ETHAZI errendimendu handirako hezkuntza-eredua

Daniel Irazola Atxa

TKNIKA Euskadiko LHRako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroa

1. Sarrera

Begirada bat iraganera

Zaila da zehaztea berrikuntza gure bizitzetara iritsi zen momentua. Momentu hori, kasu gehienetan, XX. mende amaiera aldera gertatu zen. Ekoizpen-ereduen aldaketak, globalizazioak eta sareko ezagueran oinarritutako gizarteak bultzatzen gaituzte paradigma berrietarantz mugitu gaitezten; ez da hobetzeko kontua, baizik eta gauza berriak egiteko kontua. Hasiera batean, ikerketa eta garapenaren ondoan «b» minuskula jarri genuen, baina denbora joan ahala, «b» hori lehenengo planora iritsi da, berrikuntza izan baita XXI. mendera ekarri gaituen aldaketaren erantzuna.

Hasiera batean ekintza puntuala izan zen berrikuntza formula antolatua goak behar izatera pasa zen. Peter Drucker-en *Managing in the Next Society* (2002) liburuan planteatu zen lehenengoz erakundeak produktuekin lehiatu beharrean enpresa-ereduekin lehiatzen direlako ideia. Eredu horiek berrikuntzatik jaiotzen dira eta, are eta berrikuntza biziagoa izan, orduan eta lehiakorrak dira.

Antolakuntza-eredu berritzaileenek eta baita produktu berritzaileetara orientatutako erakundeek ere sustatu egiten dute lehiakortasunaren ideia, merkatu batean bizirauteko pentsatutako berrikuntza alegia, non bakar bat gera daitekeen.

Berrikuntza

Madrilen burututako berrikuntzaren inguruko kongresu batean aukera izan nuen berrikuntza-prozesu bat izan litekeenaren ikuspegia hainbat hezkuntza-zentrotan partekatzeko: zaintza, sormena, hainbat tresna eta teknika, etab. Funtsean, berrikuntzaren definizio balioztatuen aplikazioa: Berrikuntza da

elementu berri bat gizarte-unitate batean sartzea ahalbidetzen duten jardueren sekuentzia, unitateari, unitate horren zati bati edo gizarte osoari onura ekartzeko xedearekin. Elementuak ez du zertan erabat berria edo ezezaguna izan unitatearen kideentzat, baina *status quo*-an nolabaiteko aldaketa ikusgarria edo zalantzan jartzea eragin behar du (West eta Altnik 1996, Farr 1990).

Kontzeptualizazio honen garapena Youtube-ko bideo batekin alderatu nuen: «Sasquatch 2009 Dancing Man Party Original Audio». Bideo honetan ikus daiteke nola gizon batek elementu berri bat sartzen duen, kasu honetan dantza-elementu bat, gainerako pertsonak parke batean eserita dauden gizarte-ingurune batean. Momentu honetan egin genezake lehenengo bereizketa: non gertatzen da berrikuntza? Planteamendu hau eztabaida-gai interesgarria da eta, eztabaida horretan, ia planteamendu guztiak izaten dira zuzenak.

Elementu edo produktu desberdinaren arreta dantzan jar dezakegu, zer edo zer desberdina proban jartzea erabakitzen duen pertsona ekintzailean, edota jarduera osoan hasieratik amaierara. Egoera guzti horiek bat etor daitezke berrikuntzaren definizioen batekin. Berrikuntza klasikoan, sartzen den elementu berria elementu estatikoa da eta erabiltzaile berria da elementu horretara egokitu behar duena, baina bideoan deskribatzen denaren antzeko egoera batetik eratorritako berrikuntzaren kontzeptua atseginagoa da. Pertsonak prozesura sartzen dira bakoitza dena eta bakoitzak ekar dezakeena abiapuntu gisa hartuta, berrikuntza-eredu sozialago eta gizatiarrago bat sortuz, berrikuntza-eredu inklusiboago bat alegia.

*Berrikuntza inklusiboa*¹

Erreferentzia gisa erabil daiteke José Luis Sampedrok LALICS 2013 Nazioarteko Konferentzian eskaini zuen laburpena:

La innovación inclusiva es un proceso que involucra la coordinación de diferentes actores en contextos específicos, en el cual las instituciones juegan un papel central en los procesos de aprendizaje e innovación colaborativa de la población de escasos recursos. (2013:1)

Planteamendu honetan hiru elementu nabarmendu daitezke, lan honen garapenean funtzio garrantzitsua izango dutenak:

- Proposamena dinamizatzeko erabiltzen den erakunde-lidergoa.
- Edozein berrikuntza-prozesuko eragile garrantzitsuenen identifikazioa, berrikuntzaren egile eta hartzaile izango diren interes-talde guztiak.
- Ikasketarako egitura egokiak ahalbidetzea.

¹ Liburu honen Sarreran aipatu denez, atal honetan *berrikuntza inklusiboaren* kontzeptuaren erabilera haren zentzu intuitibo edo inozoari lotuta doakio, alegia berrikuntza inklusiboa eragilean gizarte berrikuntzari lotuta doana, eta ez RRI delakoaren zentzuan erabil dezakegun berrikuntza inklusiboaren esanahiari.

2. Interpretazioa Euskadiko lanbide-heziketaren esparrura egokitzea. Erakunde-lidergoa

Euskadiko lanbide-heziketa sistemak, munduko gainerako hezkuntza-sistemek bezala, elementu berritzaileak barne hartzeko beharra du orain, elementu berritzaile gisa ulertuta gehienbat oinarri teknologikoa duten produktuak eta lan-ereduak, bai kudeaketarako nahiz metodologikoak.

Lanbide-heziketa sareko eragile nagusiak pertsonak dira. Pertsona guzti horiek elkarrekin osatzen dute edozein erakundek izan dezakeen zaintza-antena handiena. Antena horretatik zaindu egiten da gainerakoek egiten dutena ikusteko, gauza berriak sortzen dira eta zaintza-antena areagotuko duten alianztzak ezartzen dira.

Euskadiko lanbide-heziketako ikastegiak beren berrikuntza propioak garatzeko aukera dute. Zer edo zer interesgarria dela uste dutenean, abian jartzen dute ikastegi bakoitzaren barnean, bakarka edo besteekin lankidetzan. Berrikuntza-laborategi hauek funtsezkoak dira esperimenteren gaiaren potentziala zehaztu ahal izateko.

Euskadiko lanbide-heziketa sistemak ahalbidetu egiten du ikastegi bakoitzak berrikuntzarekin lotutako ideia- eta esperientzia-iturri bilaka dadin. Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren barruan, 2. eta 4. helburuak funtsezkoak dira lan honen garapenerako:

2. helburua:

Berrikuntza bultzatzea ikaskuntzan, metodologia berriak bultzatuz, eta lehiakortasun- eta enplegarritasun-premia berriei lotutako gaitasun berriak garatzea erraztuz.

Bigarren helburu honek ondorengo jarduera-ildoak ezartzen ditu:

— Zeharkako gaitasunak garatzea errazten duten ikaskuntza-eredu eta -tresna berriak zehaztea eta ezartzea eta ikaskuntza-eredu berrietara egokitzen den ikasgela-kontzeptu berri bat diseinatzea eta lantzea.

4. helburua:

Euskadiko enpresekin berrikuntza aplikatuko proiektuak babestea eta sustatzea, bereziki ETEekin, lanbide-heziketa ikastegi eta enpresa horien arteko harreman estuaren bidez, Euskadi lehiakortasunerako estrategikotzat jotako arloetan.

Laugarren helburu honek ondorengo jarduera-ildoak ditu:


- **Produkzio-ehunean ingurune estrategikoak garatzea eta horietan enpresak eta lanbide-heziketako ikastegiak elkarlanean aritzea, enpresalehiakortasuna eta enpresetan balioa sortzea indartzeko aukera elkarrekin zehazte eta garatze aldera.**
- **Espezializazio-arloak ezartzea suspertzen ari diren sektoreetan.**
- **Lanbide-heziketako ikastegietan modu proaktiboan sortutako berrikuntza aplikatuko proiektuen garapena babestea.**
- **Pentsamendu eta errutina sortzaileak errazten dituzten proiektuak garatzea, ideiak sortzeko askotariko inguruneetan.**

Iturria: Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana.

Lan-esparru honen bidez berrikuntza inklusiboarekin lotutako erakunde-lidergoa bultzatzen da. Lanbide-heziketako laugarren euskal planaren helburuak (gainerako planen antzera) Euskadiko lanbide-heziketako ikastegien sare guztietan abian jartzen dira. Hori da lehenengo inklusibotasun-plantamendua hain zuzen ere: ulertzea zentro guztiak direla sarearen zati aktiboa, beren titulartasuna edozein izanda ere (publikoa ala pribatua) eta edonon egonda ere.

Egitura inklusiboak

Euskadiko lanbide-heziketan egitura inklusiboaren sorrerak beti izan ditu kontuan heziketa-sareko irakasle guztiek osatzen duten komunitateko kideak. Berrikuntza aplikatu eta inklusiboa sortzeko beharrezko egitura.



Euskadiko Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren apustuaren emaitza izan da ikastegi-sare osoari zuzendutako zentro bat, TKNIKA, honako xedea duena:

Berrikuntza hartzea Euskadiko lanbide-heziketaren ardatz gisa, ikaskuntza-ingurune eta -prozesu berrietan aurrera jotzea eta lehiakortasun-ga-beziak murriztea ideia edo teknologia bat sortzen denetik gizarteak horren onura jasotzen duen arte. Guzti hori zaintza teknologikoa, diseinua eta garapena erabiliz eta kudeaketaren, trebakuntzaren, teknologia eta IKTen eta e-learning-aren alorretako produktu eta zerbitzua berritzaileak lanbide-heziketa ikastegietan ezarri eta bertatik enpresa-sektorerara eramanez. Lankidetzeta eta aliantzak ezartzea sustatzen dituen dinamika bat lortzea, enpresekin batera eta unibertsitate eta zentro teknologikoetako ikerketa-departamentuekin batera, betiere sareen sorrera, elkarlana eta sormena bultzatuz. (Iturria: xedearen atala www.tknika.net webgunean)

TKNIKA da lanbide-heziketara aplikatutako ikerketa eta berrikuntza zentroa. Ondorengo 5 alorrak jorratzen ditu:

- Lanbide-heziketara aplikatutako berrikuntzaren alorra.
- Etengabeko hobekuntzaren alorra.
- Ikaskuntza-metodo eta -prozesuen ikerketaren alorra.
- Ekintzaitzeta eta aldaketaren kudeaketaren alorra.
- Nazioartekotzearen alorra lanbide-heziketaren esparruan.

Alor guzti hauetan bi elementu komun daude:

Lanbide-heziketa ikastegietako irakasleek prozesu osoaren ikerketan, garapenean eta berrikuntzan duten protagonismoa.

Sarean lan egiteko grina, non berrikuntza ideiak eta esperientziak partekatuz sortzen den, hartara ideia eta esperientzia berriak sortuz eta horiek, aldi berean, berriz ere ideia eta esperientzia berriak sortzea ahalbidetuz.

3. ETHAZI esperientzia

Azken urteotan zehar, ikaskuntza-metodo eta -prozesuen alorra irakasleek ikasgelan duten esku-hartzea birdiseinatzeke lanean aritu da. Iraultza teknologikoak berarekin ekarri du ezagueraren iraultza, eta iraultza hori ikasgeletara iritsi da. Alde batetik, aldaketa handiak gertatu dira ezaguerara iristeko eta ezaguerak helarazteko moduan. Formula tradizionalak dagoeneko ez dira bakarrak eta bigarren planora pasa dira. Bestalde, hezkuntza ulertzeko dugun modua aldatu duen elementu berri bat agertu da. Dagoeneko ez da beharrezkoa pertsonak zerbait egiteko gai izatea, orain trebeak izan behar dugu, hau da, baliabide txikienarekin emaitza onena lortzeko gai izan behar dugu. Bi faktore hauen baturak eragin du bestelako gaitasunak, duela gutxi arte zeharkako gaitasun gisa ezagutzen zirenak, gaitasun estratergiko bilakatzea: ikasten ikastea, taldeko lana eta arazoan sormenezko ebazpena.


Hezkuntza-planteamendu berri baten beharra fase guztietan aurkitzen dugun beharra da. Aldaketaren ikuspuntuak baditu aurretiko esperientziak Euskadiko hainbat ikastegitan, baina berrikuntzarantz eman beharreko benetako bultzada erakunde-lidergo bati esker gertatzen da, berritzeko beharra helburu estrategiko gisa ezarriz.

Hezkuntza-ereduaren berrikuntza hasieratik planteatu zen ikuspuntu inklusibo batetik. Hasierako ereduaren sorrera 5 ikastegiren lankidetzari esker garatu zen. Bi urteko epean zehar, ikastegiaren arteko lankidetzak honako elementuak uztartu zituen: hainbat ikastegik eta irakasle-taldeak probatu zituzten prototipoen ikerketa eta diseinua, emaitzen balorazioaren eta hobekuntzaren bidezko ikaskuntza eta, azkenik, transferigarritasuna ahalbidetu zezaketen elementuen diseinua.

Planteamendu guzti honen oinarria eta elementurik garrantzitsuenak da hedatu beharreko lan-metodologia: erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza.

Lan egiteko modu honen garapena hasierako diseinu bat abiapuntu hartuta eraikitzen da, hasierako diseinu hori taldearen zati baten esperimentazioaren emaitza izanik, eta, ETHAZIren 5 zikloetan ezarriz joan ahala, egitura hartzen du apurka-apurka. Produktua elkarlaneko berrikuntza inklusiboaren bidez gauzatzen da, 5 ikastegietatik dinamizatzen da eta 25 pertsonen esperientzian oinarritzen da, «sortu-prototipatu-aztertu-hobetu» lan-zikloa errutina bilakatuz.

Lan horren emaitza da gainerako lanbide-heziketa sistemara hedatu daitekeen lan-metodo frogatua.



Hedapenak aurrera jarraitzen du 2014-2015 ikasturtean, hazten jarraitzeko momentua da eta metodoa ikastegi baten egituran integratzeko moduari forma emateko garaia. Berrikuntzaren hurrengo mailak ziklo-kopurua eta irakasle-kopurua areagotzen du, ziklo baten kontzeptua ikastegi baten kontzepturako egokitu behar baita. Taldeak handitzean, hasierako irakasleak aditu bilakatzen dira, edo hobe esanda, esperientziadun.

Hedapena zuzentzeko eginkizuna gain hartzen duten pertsona esperientziadunek komuneko ezaugarri bat dute: esperientzia bat helarazteko ezaguera nahikoa dute eta apaltasun nahikoa dute beren ezaguera handitzen uzteko ezaguera helarazi dieten horien ekarpenei esker. Berrikuntza inklusibo honek ahalbidetu egin du erronka lantzeko prozesuaren fase guztiei edukiak ematea.

Abiapuntua, zero fasea, ikasgelan 4 edo 5 laguneko taldeak sortzean datza, estilo pertsonalak lantzen dituen dinamika azkar baten bidez estilo horien inguruko talde orekatuak sortuz. Talde bakoitzak bere jarduerari ekiten dio lanbaldintzak ezarriz: zer sustatuko duten gerta dadin eta zer zainduko duten gerta ez dadin.

Irudian ageri den zikloaren hasiera, 1. puntua, egoera korapilatsu bat aurkeztean datza. Egoera honen jatorria dagokion zikloaren ikaskuntzaren emaitzetan dago, zikloaren errealtatearekiko hurbila den egoera da eta erronka barne duen ikaskuntza-momentuaren testuinguruan kokatzen da. Barne ditu ikaskuntza tekniko/espezifikoen emaitzak eta baita zeharkako emaitzak ere. Puntu honetan, garrantzitsua da ikasleek argi izan dezaten egoera konplikatu hori ebazteko espero den amaierako produktua zein den.

Bigarren puntuak berebiziko garrantzia du. Ez baditugu egoera konplikatuak erronka gisa ikusten, gure inplikazio-maila askoz baxuagoa izango da erronka gisa bizitzen baditugu baino. Puntu honetan ikasleei lagundu behar diegu amaierako produktua irudikatzen eta produktu horrekin konektatzen.

Hirugarren eta laugarren faseak elkarri lotuta daude eta kasu gehienetan begizta bat osatzen dute. Erronka baten aurrean galdera asko planteatzen zaizkigu, azpierronkak erronkaren barnean alegia. Irakasleen lana da ikasleei laguntzea erronkarekin lotutako galdera guztiak planteatzen eta ikasleei informazioa bilatzeko bideak eskaintzea. Zenbaitetan modu autonomoan egin ahalko dute, beste batzuetan kanpoko adituen laguntza beharko dute eta beste zenbaitetan mintegi espezifikokoak antolatuko dira gai jakinetarako. Askotan, galderrei emandako erantzunek galdera berriak sortuko dituzte eta horregatik esaten dugu bi fase hauek begizta moduan aritzen direla.

Alternatibak sortzea inflexio-puntua da planteamendu honetan. Galderak planteatu eta erantzun direnean, ikasleek ezaguera nahikoa izango dute proposamen desberdinak mahai gainean jartzeko. Bosgarren fase honetan, sormenezko tresnak erabiltzea lagungarria da ikasleei alternatiba desberdinak proposa ditzaten laguntzeko. Talde desberdinen artean alternatibak aurkeztea, 6. fasean adierazi den moduan, aukera bikaina da ere ideia berriak sortzeko, bai ideia bera oinarri hartuta edo ideia desberdinen arteko fusioaren emaitza gisa.

Idea guztiak mahai gainean daudenean, egokiena zein den erabakitzeko ordua da. Modu asko daude taldeek erabaki dezaten garatuko duten alternatiba zein izango den, baina bada hautaketa honetan komodin gisa erabil daitekeen irizpidea: alternatibarik egokiena izango da 2. fasean deskribatutakoaren hurbilena dena, fase horretan irudikatu baikenuen zer lortu nahi genuen.


Zortzigarren eta bederatzigarren faseak amaierako proposamenaren exekuzioaren plangintza egitean eta exekutatzean datza. Azkenik, talde guztiek beren emaitzak aurkeztuko dituzte.

Hamaikagarren elementuak ebazpenaren zirkulua ixten digu. Lan egiteko modu honetan, ebaluazioa ez datza zenbaki-balio bat ematean. Ebaluazioaren barruan egin behar duguna da bai taldeari eta baita pertsona bakoitzari ahalik eta informazio erabilgarri gehiena ematea ongi funtzionatu duten gauzez eta funtzionatu ez duten gauzez ohar daitezen eta informazio horrek hurrengo erroka batean erabiliko dituzten ondorioetara iristea ahalbidetu behar du.

Horretan datza berrikuntza inklusiboa eta horren emaitza da Euskadiko lanbide-heziketako eredu pedagogikoa. Zikloen, ikastegiaren eta irakasleen eboluzioa ondorengo taulak ikus daiteke:

	13-14	14-15	15-16
ETHAZI zikloak	5	18	91
ETHAZI zikloak dituzten ikastegiak	5	5	30
Irakasle parte-hartzaileak	25	90	455

Ondoz ondoko hedapen hauen emaitza amaierako ekosistemaren erreferentzia gisa erabiltzen dugun ondorengo infografian adierazi da:



Lehenik eta behin, erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzan oinarritutako ekosistema batek erronka-mapa bat behar du, erronken araberrako ikasturtearen plangintza berri bat hain zuzen, non ikaskuntzaren emaitzak bermatuko ditugun. Sare honetako ikastegi guztiek erronka-biltegiaren kontzeptuaren inguruan lan egiten dute, guztiek sortzen dituzte taldeak eta beste ikastegietako taldeekin erronkak partekatzen dituzte, beste horiek, aldi berean, hasierako ideiarekin lotutako erronka berriak sortzen dituzte-larik.

Bigarrenik, erronken egiturak berak eskatzen du ikasgai/moduluetan oinarritutako ordutegi klasikoaren planteamenduekiko bilakaera bat egitea. Planteamendu berriak ahalbidetze aldera, autokudeaketa-gaitasun handiagoa duten irakasleak behar ditugu, momentuei dagokienez, denborei, epeei, etab. Ikastegiek diseinatu eta esperimendatzen dituzte antolaketa-modu berriak: ordutegiak, moduluak, etab. Esperimentazio hori partekatu egiten da eta ideia berriak sortzen ditu, berrikuntza-zikloa berriz ere elikatuz.

Azkenik, ebaluazioa sistema honen alderdi oso garrantzitsua da. Iraganen soilik oinarritzen den ebaluazioa ez dator bat jorratzen ari garen ikaskuntza-planteamenduarekin. Erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzak eboluzionatzea ahalbidetzen duen ebaluazio bat behar du, norabide guztietatik datozen ebidentziak kontuan hartuz (autoebaluazioa, koebaluazioa, produktuaren ebaluazioa, etab.) ikasleak ohartu daitezten, bai banaka eta baita taldeka ere, zer den ongi joan dena eta zer den horren ongi joan ez dena, eta horren arabera erabaki dezaten hurrengo erronkarako zer aldatu. Ebaluazio-sistemaren diseinuak ere izan du proposamenen ikerketa- eta prototipo-prozesua. Ebaluazioaren prozesuan, gainera, irakasleek parte-hartze sakona izaten duten eta ideia desberdinak sortzen dituzte. Planteamendu horri esker, gaur egun gaitasunak ebaluatzeko tresna bat diseinatu da eta sarearen barnean hedatzen ari da, ikastegi desberdinek egindako ekarpenekin tresna aberasten doalarik.

4. Ondorioak

ETHAZI eredu bizirik eta etengabeko bilakaeran dagoen formula da, bere gobernantza-ereduari esker erakunde-ekosistema lagungarri bat abiapuntu hartuta.

Aplikazio bakoitzarekin batera aplikazioa burutzen ari den pertsonaren ekarpena sortzen da sare osoaren onurarako eta, beraz, berrikuntzan parte hartzen duten guztien eboluzioa, berrikuntza eta inklusioa funtsezkoak dira prozesu honetan.

ETHAZI ereduaren inklusibotasuna bat dator erantzukizun eta erantzukidetasunaren alderdiarekin. Alde batetik, Euskadiko lanbide-heziketaren sentibilitate eta errealitate guztiak barne hartzen ditu, etapa desberdinetatik eta kokapen desberdinetatik —bakoitza bere biztanleria-ezaugarriekin—, balioen,

interesen eta ezagueren aniztasuna egokitu eta instituzionalizatu egiten da, hartara eredia dinamizatu eta osatuz. Bestalde, erantzukizun-prozesuak elkarren artean sortzea eta berrikuntzarekin lortu nahi diren emaitzak partekatzea eskatzen du.

Inklusibotasun-eredua areagotu egin daiteke. Ikasleek berrikuntza-talde gisa parte hartzen dute ikaskuntza-prozesua amaitzean, hau da, ikasle izateari uzten diotenean. Inklusibotasun-prozesuak ikasleak kontuan har ditzake prozesuaren hasieran, lortu nahi diren emaitzen erantzukidetasuna hartuz. Honela, Europar Batasunarekin lerrotasuna iritsi gaitezke, gizarte-eskakizunen aniztasunari modu inklusiboan erantzuteari dagokionez, eragile garrantzitsuenak berrikuntza-prozesuaren kate guztian zehar barne hartuz.

Prozesuko eragile guztien inklusibotasunean oinarritutako berrikuntzaren alorrean hurrengo mailara iristeko planteatzen zaigun erronka da eragile horiek ahalduz. Europako erakundeek dagoeneko aipatu zuten, 6. eta 7. I+G Esparru Programetan, gogoeta sozio-etikoak kontuan hartu behar zirela:

The challenge today is to encourage actors in their own disciplines and fields to participate in developing Science in Society perspectives from the very beginning of the conception of their activities. This is in line with concepts developed in the field of governance, notably that of «co-operative research» ..., i.e. a research process aiming as much at the harmonious societal integration of new scientific and technological knowledge as to achieving the specific objective of the research itself (EC, 2007: 6).

Lan honen oinarri gisa erabilitako 11 pausoko ereduak badu puntu bat non egoera erronka gisa bizitzeko ereduak sustatzen den. Trebakuntzaren diziplina eta alorrekin lotutako egoera korapilatsuen aurrean eredu hau etengabe aplikatzen bada, ikasleek barneratuko dute egoera horiek erronka gisa bizitzeko dinamika hori eta, gure iritziz, hori izango da eragile berriak prozesura ekartzeko aukera emango diguna.

5. Erreferentziak

- Drucker, Peter. *Managing in the Next Society*. New York, Macmillan, 2007.
- Eizagirre, Andoni, Hannot Rodríguez eta Andoni Ibarra «Etikatik politikara: berrikuntza arduratsua berrikuntza inklusibo gisa». (Liburu honetan).
- Farr, James L., eta Cameron M. Ford. «Individual innovation» in West, Michael A. y Farr, James (argit.), *Innovation and creativity at work: Psychological and organizational strategies*. 63-80 orr. Oxford: John Wiley & Sons, (1990).
- IV Plan Vasco FP Euskadi http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_programa_proyecto/xleg_plangub_11/es_plang_11/adjuntos/IV%20Plan%20vasco%20de%20formaci%C3%B3n%20profesional.pdf webgunetik berreskuratua, (Kontsulta-data: 2016ko martxoak 10).

- Sampedro Hernández, José Luis. «Innovación Inclusiva con Instituciones Inclusivas». Nazioarteko LALICS 2013 Konferentzia «Sistema Nacional de Innovación y Políticas de CTI para un Desarrollo Inclusivo y Sustentable». 2012ko azaroak 11 eta 12, Rio de Janeiro, Brasil.
- West, Michael A. eta Wieby Altink. «Innovation at work: Individual, group, organizational, and socio-historical perspectives.» *European Journal of Work and Organizational Psychology* 5.1 (1996): 3-11.

Improving the world, diseinutik mundua hobetzen

María Isabel Rodríguez-Ferradas eta Paz Morer Camo
TECNUN-Nafarroako Unibertsitatea

1. Sarrera

Azken hamarkadan, gure testuinguru ekonomiko eta sozialak gure historian zehar jasan duen krisi ekonomiko handiena izan du eta egoera horrek kontzeptu eta praktika berriak sortu ditu, Eraberritze Inklusiboa¹ eta Diseinu soziala, esaterako. Horiek enpresen etekin ekonomikoen aurrean, norbanakoari ematen diote protagonismo handiagoa, baita horien beharrei ere.

Eraberritze Inklusiboa da aukera berriak sortzeko ideien garapena eta inplementazioa. Horrek «eskubideak urratuta» (George *et al.*, 2012) dituzten herritarren ongizate soziala eta ekonomikoa handituko du eta Eraberritzearen kontzeptu klasikoaren aurrean gailenduko da; horrek esan nahi du, Osloko Eskuliburuan biltzen denaren arabera (Mortensen eta Bloch, 2005), antolaketa ekonomikoan produktu eta prozesu berriak (edo nabarmen hobetuak) sartuko direla, irabazi ekonomikoak maximizatzeko testuinguruan.

Era berean, bere Diseinu Soziala hazkuntzarako eredu tradizionalen garapen-paradigma alternatibotzat hartuko da, eta hori dimentsio sozial eta inklusiboa norbanakoen beharrek inbentzio berriak eraberritzean oinarrituko da eta horien parte-hartzea kontuan hartuko da. Konponbideak bilatzeko modu hori milurteko honen hasieran martxan jarri zen, globalizazioa eta gizartean, ekonomian eta kulturaren gertatutako aldaketak bateratzearen eraginez.

Hala eta guztiz ere, Diseinu Sozialak William Morris-en du jatorria. William Morris Arte eta Lanbideak Mugimenduaren sortzailea da, XIX. mendean amaieran sortu zena. Morrisek uste zuen diseinatzailearen nahi nagusia gizartea salbatzea zela, eta hori norbanakoarentzako eta gizartearentzako objektu erabilgarriak sorkuntzaren bidez egitea proposatzen zuen. Gainera, ingurugiroa zaintzea bultzatzen zuen, material natiboak erabiliz, naturan iradokitako patroi formala lortuz, edo garai horretan iraultza industrialean nagusitu ziren makinekin konparatuta kutsatzen ez zuten ahaztutako ekoizpen-teknikak berrerrabiliz.

¹ Liburu honen Sarreran aipatu denez, atal honetan *berrikuntza inklusiboaren* kontzeptuaren erabilera haren zentzu intuitibo edo inozoari lotuta doakio, alegia berrikuntza inklusiboa eragileen gizarte berrikuntzari lotuta doana, eta ez RRI delakoaren zentzuan erabil dezakegun berrikuntza inklusiboaren esanahiari.

Diseinu Sozialaren beste egile garrantzitsu bat Victor Papanek da. Horrek 70eko hamarkadan *Design for the Real World* liburua idatzi zuen (Papanek, 1971), eta bertan adierazi zuen eta justifikatu zuen gizartearentzat konponbidean sortzeko garrantzia, baita horiek egiteak dakartzan inplikazio etikoak ere. Urte hauetan, beste argitalpen batzuk sortu dira «Design for the other 90%» (Smith, 2007), esaterako. Entsegu batzuen laburpena da eta merkatu zehazterako garatutako objektuak aurkezten ditu, eraberritze inklusibotzat hartu direnak. Hala-ber, ikerketaren arloan, Diseinu Sozialari buruzko artikulua batzuk argitaratu dira, eta Eraberritze Inklusiboa gertagarriago, eraginkorrago, iraupen luzeagokoa eta zabaltzeko joera duen diseinurako ekimenen konstelazio moduan definitzen da (Manzini, 2014). Horrek diseinua arazoak konpontzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko tresnatzat hartzea eragin du. Iturri horretatik hornitzen dira erabiltzailean ardaztutako diseinuaren kontzeptuak (HCD - Human Centered Design). Horiek diseinatzaileek baldintza horiek diseinatzeko garatu behar dituzten gaitasun berriak sortzea eragiten dute. Hori dela eta, baieztatu daiteke «Eraberritze Inklusiboa gertatzen dela diseinuak ideiak sortzen laguntzen duten plataformak sortzen dituenen. Pertsonak, ondoren, horiek ezagutuko dituzte, elkarrekin erlazionatutako entitate aniztasun handiko parte hartzearen bidez».

Kontzeptu horiek guztiak gero eta ohikoagoak dira diseinuaren eremu profesionalean, baina oraindik ere, gutxieneko praktikak dira eta, horregatik, ez daude sartuta Produktu Garapen eta Diseinu Industrialeko Ingeniaritzako unibertsitate graduaren hezkuntza planetan. Egoera horrek unibertsitate ikasketei dagokionez, hainbat galdera planteatzen ditu: nola motiba ditzakegu gure ikasleak Eraberritze Inklusiboko ekimenei ekiteko? Nortzuk dira kanpoko eragile katalizatzaileak, ekimen horietan, ikasleak sozialki baztertutako herritar taldeekin konektatzeko orduan?

Kapitulu honetan «Improving the World» ekimena aurkeztuko da. Hori TECNUNen, Donostiako Nafarroako Unibertsitateko Campus Teknologikoaren Ingeniaritza Eskolan jarri zen martxan 2012-2013 ikasturtean, eta oraindik ere jardunean dago. Produktu Garapen eta Diseinu Industrialeko Ingeniaritzak sustatzen duen ekimen honen helburua da gure ikasleen artean ekintzailatza soziala sustatzeko trebetasunak garatzea, *learning-by-doing* filosofiaren bidez. Ekimenak Gipuzkoako Aldundiaren babesa izan zuen, Gipuzkoaren Sustapenerako programaren bidez, 2012 eta 2013an ekiten duen lurralde moduan. 4 urte hauetan garapen garrantzitsua lortu du eta ikasitako ikasgaiak momentu batzuetan partekatze aukera ematen du eta galdera berberak dituzten beste entitate batzuentzako erabilgarria da.

2. Planteamendua eta ekimena martxan jartzea

Ekimenaren hasierako ikuspegia eta helburuak

2012-2013 ikasturtearen hasieran, TECNUNeko Produktu Garapen eta Diseinu Industrialeko Ingeniaritzako Graduaren irakasle talde batek «*Human*

Centered-Design Piramidearen Oinarriarentzat» izendatu zuen ekimena diseinatu zuen. Helburua da, ikasle talde batek, borondatez, diseinurako eta garapen bidean dauden eta baliabide eskasak dituzten herrietarako produktuak garatzea.

Ekimen hori sortu zen diseinua konpromiso sozialtzat hartzeko ikuspegitik. Ikasleei Piramidearen Oinarriko herrietako pertsonen beharrak, interesak eta portaerak analizatu eta ulertzeko erronka planteatu zitzairen, produktu berritzaileen garapenean hezurmamitu zitezkeen konponbideak aurkitzeko. Erronka horrek, alde batetik, erabiltzaileek behar zutena entzutea eta ulertzea zekarren; eta beste alde batetik, aukera teknikoak eta bideragarritasun ekonomikoa analizatzea, hasiera batean, ikasleak eurak buru diren enpresa-ekimen moduan martxan jartzeko, baina garatuko diren herrietara bidaltzeko ahalmena dutenak.

Proiektu honek proposatzen duen Piramidearen Oinarriko herrialdeen garapenari laguntzeko filosofia laburbildu daiteke 2006ko Bakearen Nobel Sariduna izan zen eta mikrokredituaren kontzeptua garatu zuen Muhammad Yunus-en hitzak erabiliz: «Pertsonak eurak gai dira pobreziatik ateratzeko. Behar duten guztia aukerak dira. Ez dute karitaterik edo argibiderik espero. Karitatea ona da, baina ez da nahikoa. Enpresa-proposamen bat ezarriz gero, herri horientzako etekinak sortzeko aukera egongo litzateke eta herri horiek, inoren laguntzarik gabe, garatu ahal izango lirateke.»

Diseinu industrialaren aplikazio eremu honek gure ikasle askoren gizarte sentibilitatearekin bat egiten du. Ikasleok egiten dituzten boluntarioritza lanak gaur arte ez dira zuzenean lotuta egon haien formakuntza eta lanbide garapenarekin. Deskonexio honek ikasleentzat ahalegin erantsia egin behar izatea dakar, jarduera horiek haien ikasketekin bateratzeko, eta askotan boluntarioritza lanak utzi behar dituzte haien helburu akademikoetan zentratzeko. Ikasleen lanbide garapena, hots, industria diseinuaren Ingeniaritza, eta gizarte-egoera ahuleko taldeekiko (kasu honetan Piramidearen Oinarriko herriak) duten sentibilitatea lotu nahi zen. Horrela, lotura emozionala eta ikasleek herri horien beharrei erantzuna eman ahal dien diseinu erronkei aurre egingo dien pasioa modu esanguratsuan nabarmenduko dituzten sinergiak lortuko dira.

Lotura emozional hau gakotzat hartzen zen gure ikasleek ekinbide gaitasuna garatzeko, eta inizatiba honetatik sortutako lan egitasmoekiko lidergotza konpromezua garatzeko.

3. Jardueraren inplementazioa eta eragile laguntzaileak

Jarduera hau Tecnunen, irailero ikasturte berriari begira, antolatzen den Jarduera Azokan abiarazi zen. Azoka honetan stand-ak antolatzen dira. Bertan, gure campusean ikasgelaz kanpoko ekintzak bultzatzen dituzten irakasle edota ikasleek ekintza bakoitzaren helburu eta esperientziak zabaltzen dituzte, batez ere 2. eta 3. mailetako ikasleen artean erakartzeko asmoz.

«Human Centered-Desing POrrentzat» jarduerak arrakasta handia lortu zuen Azoka honetan, eta lehen ikasturtea zenbait Ingeniaritza gradutako 20 ikasle baino gehiagoko talde batekin abiatu zen (Produktu Garapen eta Diseinu Industrialeko Ingeniaritza Gradua, Industria Antolakuntza Gradua eta Biomediku Ingeniaritza)

Lehen urratsa ikasle taldearekin lan bileren egutegia ezartzea izan zen. Deialdiaren arrakastaren ondorioz, jardueraren kudeaketan konpondu behar izan zen lehen arazoa izan zen hori. Gradu eta ikastaro ezberdinen eskola ordutegien diferentzien kariatara, oso zaila zen aipatu talde bilerak egiteko tarte egokia topatzea. Azkenean, ostiraletako eguerdiak aukeratu ziren. Goizez eta arratsaldez eskola zuten ikasleei, bilerara janaria eramateko aukera eman zitzaizen. Eskola ordutegiari egokitzeko, azterketa eta opor garaian saioak bertan behera uztea adostu zen. Beraz, lanerako egiazko denbora, oinarrian, irailaren erdialdetik azaroaren erdialdera eta urtarilaren erdialdetik maiatzaren erdialdera izango zen.

Hastapenetatik, SINNPLE gizarte berrikuntza aholkuraritza enpresaren laguntza eduki zen, Tecnuneko bi graduatuk sortutakoa, hiru eragile profilekin loturak eta kontaktuak ezartzeko:

- Gizarte Enpresak: gizarte ekintzaileen naizoarteko sare bizkortzaileen bitartez: Ashoka, Ennovent eta Acumen Fund.
- POn dauden gure inguruko enpresak.
- Garapen bidean dauden eskualdeetan presentzia aktiboa duten GKEak.

Hasierako kontaktu hauetatik esperientziak trukatzeko zenbait jardunaldi sortu zuten. Horietan, ikasleek POko biztanleriarekin lan sozilean ari den hainbat GKEren esperientziak lehen eskutik ezagutu zituzten. Esaterako, honako hauek:

- Zabalketa (www.zabalketa.org), hezkuntzan eta kooperazioan diharduena, batez ere honako hauek: Nigeria, Kenia, Boli Kosta, Peru, Bolivia eta Kolonia.
- Onay (www.onay.org), garapen integrala bilatzen duena, biztanleen gaitasunak eta trebetasunak garatzeko formakuntza emanez. Jarduera El Salvador eta Kongoko Errepublikan garatu du batez ere.
- Denok Osasunaren Alde (DOA) (<http://www.doaong.net>), osasungintza eta hezkuntzaren eremuetan zenbait proiektutan lan egiten duena, Guatemala, Kolonia eta Bolivian.
- Gipuzkoako Elizbarrutiko Misioak (<http://www.asiaf.es>), Ekuador eta Angolarekin elkarlanean aritzen dena, garapenerako lankidetzako eta hezkuntzako zenbait egitasmo lagunduz.

GKEek eurek egitasmoan garrantzi handia dutela ikusten zutela egiazta-tzea jardunaldi horietatik eratorritako alderdi oso interesgarria izan zen. GKE

horien oinarritzko rola diseinu erronketarako proposatzen diren konponbideen bideragarritasun soziologikoa aztertzea izan liteke, beren esperientziaren bitartez, PO herrialdeetako errealitateaz duten ezagutza sakona dela medio.

PO herrialdeetan egindako jarduketek maiz aurrikusi gabeko ondorioak dituztela azaldu zen, oso zaila baita herrialde horietan egindako edozein jarduketak izan ditzakeen ondorioak identifikatzea eta kuantifikatzea.

Baliabide urriko taldeentzat landa, eremuetan lan egitea hirigune handietan lan egitea baino errazagoa dela egiaztatzea izan zen elkarrizketa horretatik eratorritako beste alderdi interesgarrietako bat. Hirigune handietan biztanleriaren dentsitatea oso handia da, eta ekinbideek har dezaketan tamaina kontrolatzea eta norik bere gain hartzea oso zaila da.

Hainbat gizarte enpresarekin harremanak hasi ziren, eta birekin lan egiteko erronkak zehaztu ziren. Lehenengo Castelló-ko Open MS zen (www.openms.es), «Agua sin fronteras» (ura mugarik gabe) elkartearen babesle nagusia. Enpresa hori irtenbide tekno-ekologikoetarako nanoteknologia aplikatua espezializatuta dago. NANO, AIR eta WATER dira bere hiru negozio lerro nagusiak. Hiruretan, edozein gai babesteko material nanoteknologiko aurreratuak eta uraren eta airearen sorkuntza eta arazketa alternatiborako irtenbideak eskaintzen dituzte. Bigarrena Aquasure (www.aquasure.fr) gizarte enpresa frantsesa zen, ura edangarri bihurtzeko irtenbideak eskaintzeko lan egiten du mundu mailan. Bere produktuak ura edangarri bihurtzeko eragin bikoitzeko (desinfekzio eta argitzea) pastilletan oinarritzen da. Produktuetako bat Aquasure Kit deritzona da. Horrek ur edangarria berehala sortzea ahalbidetzen du krisi egoeretan (uholdeak, tsunamiak, urakanak eta abar). Kit bakarrarekin 6 egunetarako ur edangarriz hornitu ahal ditu 1000 lagun.

Azkenik, ikasurtean zehar, ikasleak jadanik beren diseinu erronketan lanean ari zirela, esperientziak trukatzeko jardunaldi bat antolatu zen. Jardunaldian Marta Lago euskal diseinatzaileak parte hartu zuen, HCD metodologietan aditua da, eta harreman zuzena izan du IDEO aholkularitzak mundu mailan PO merkatuentzako diseinuan garatutako zenbait egitasmo garrantzitsurekin.

Marta Lagok eta ikasleek partekatutako jardunaldian, azken horiek beren erronkak azaldu zituzten Martari, eta hark bere iritzia eman zien, erronka bakoitzaren ikuspegiari buruz. Erronka bakoitzari buruz zenbait alderdi bereziki interesgarri azpimarratu zituen, halaber. Martak PO herrialdeentzat HCD egitasmoak garatzeko zenbait gako ere eskaini zituzkien ikasleei; produktuaren behaketa zabaltzeko beharra eta erabiltzaileen testuinguru sozialean egindako erabilera azpimarratu zituen, beren beharrak, gustuak, nahiak, ametsak, etab. Hau da, beharretik harago joatea, pertsonen nahi eta egitasmo pertsonalekin lotutako alderdietarantza.

Era berean, jardunaldiaren zati honetan, Martak IDEOn lan egin zuen garaiko zenbait egitasmoen adibideekin argitu zituen bere gomendioak. Batzuetan, zuzenean partu hartu zuen, beste batzuetan, IDEO eta IDEO.ORG taldeetako bere kideek hartu zuten parte.

2012-2013 ikasturteko gizarte diseinu erronkak

Arestian aipatutako kontaktuen bitartez, gizarte diseinuko 3 erronka zehaztu ziren. Kasualdidez, guztiek PO herrialdeetako populazioen ur edan-garriaren hornikuntzarekin harremana zuten. Erronkei ikasleen 3 lan talde osatuz ekin zitzairen. Ikasleek eurek aukeratu zuten zein erronkari ekin, eta taldeak, kopuruari eta profilei dagokienez, nahiko orekatuta geratu ziren. Jarraian, erronkak azalduko dira labur-labur.

1. ERRONKA. LAINO KAPTADOREA BERDISEINATZEA

2012ko urtarriletik Zabalketa euskal GKEak fase pilotu bat darama aurrera, Peru eta Bolivian ura sei tokitan modu pasiboan kaptatzeko teknologia baliozkotzeko. Toki horiek urtaro lehorrean (6 hilebete urtean) euria ez den ur iturri alternatiboak lortzeko beharra eta laino zerratu ugari izatea zuten komunean.

Instalatutako laino kaptatzaileak, 1. eta 2. irudietan ikus daitezkeenak, asmatzaile kanariar baten diseinuan oinarrituta daude, gailuok patentatuta dauzka eta irabazi asmorik gabeko elkarte bat sortu du, «Agua sin fronteras» (<http://www.aguasinfrenteras.org>). Elkartearen bitartez, GKEn esku jartzen du jakintza teknologikoaren ustiapena, baita ura kaptatzeko eta tratatzeko hainbat sistema eta teknologien patenteak ere.

**1. irudia**

Laino kaptatzaileen garraioa Zabalketaren instalazio pilotuetatik



2. irudia

Laino kaptatzaileen instalazioa Zabalketaren instalazio pilotuetatik

Zabalketak gizarte diseinuko erronketarako honako helburuak proposatu zizkien ikasleei:

- Laino kaptatzaileen funtzionamendua eta gaurko diseinua ulertzea eta aztertzea.
- Tokiko beharrak eta ur kaptatzaileek tokiko ohituretan duten eragina ulertzea.
- Laino kaptatzaileetarako eta bere osagaietarako hobekuntzak proposatzea, eraginkortasuna handitu eta kostua gutxitzeko asmoz.
- Zabalketako teknikoekin eta tokiko komunitatearekin lankidetzan aritu, taldeak garatutako diseinuak lekuan bertan egiaztatzeko.

2. ERRONKA. KONDENTSAZIO BIDEZKO UR-KAPTAZIO TEKNOLOGIA BERRIAK ETA PO MERKATUETAN HAIEN BALIZKO APLIKAZIOA

Open MS enpresak aktibo deritzoten ura kaptatzeko beste teknologia batzuk ditu, kondentsadore deritzoten zenbait produktutan aplikatzen direnak. Gaur egun, produktu horiek herrialde garatuetan erabilera industrialak izaten dituzte, eta erronka honen bitartez produktu horien diseinu berriak esploratzea planteatzen zaie ikasleei, PO herrialdeetan ezar ditzaten.

Taldearen helburu nagusia bi teknologiaren bideragarritasuna aztertzea zen: vortex kondentsadoreak eta termoelektrokoak. Biek balizko erabilgarritasuna dute aipatutako irtenbideak garatzeko.

Ikasleek garatu beharreko lanean, honako diseinuak aztertuko zituzten: batetik, mota horretako produktuek autonomia elektrikoa izatea lortzea, eguzki indarraren edota nanogeruzez estalitako botilen bidez lortutako ura araztea lortzea eta irtenbidearen sinplifikatzea, bizitza ziklo propioaren arabera; baita, teknologia horietan oinarrituta, diseinatutako irtenbideak PO herrialdeetan komertzializatzeko negozio ereduak ere.

3. ERRONKA. URA KIMIKOKI ARAZTEKO KIT-AREN DISEINU BERRIA

Kit horiek Aquasure enpresak komertzializatzen ditu. Horien hasierako antolaketa 3. irudian ikus daiteke. GKEek edota tokiko gobernuek eskuratu ohi dituzte hondamendiak gertatzen direnean, lehen egunetan biztanleriari ur edangarria eman ahal izateko. Modu azkarrean ur edangarriaz hornitzea ahalbidetzen du, beste bide batzuk berrezarri bitartean, edo beste beste ekipo egonkor batzuk ezarri bitartean.

2012 urtean zehar, Aquasurek berrikuntzak egin zituen aipatutako produktuan, eta horietako bat banaketarako arrapala berriro diseinatzea izan zen. Horren bidez ura ura arazteko biltegitik erabiltzaileen ontzietara bideratzen da, 4. eta 5. irudietan azaltzen den bezala. Bertan, Bangladeshen egindako eta erabiltitako prototipoa ageri da.



3. irudia

Aquasure kit-aren osaera



4. irudia
Uraren arazketa biltegia



5. irudia
Banaketa arrapala

Aquasurek gizarte diseinuko erronketarako honako helburuak proposatu zizkien ikasleei:

- Banaketa arrapalen funtzionamendua eta proposatutako diseinu berria ulertzea eta aztertzea.
- Erabiltzaileen beharrak eta ohiturak ulertzea.
- Jariakinen mekanikaren eta serieko ekoizpenaren ikuspegitik garatutako prototipoa aztertu.
- Izan zitezkeen arazoak aurkitu eta diseinuaren hobekuntzak proposatu, bai banaketa arrapalarenak, bai kit-aren gainontzeko osagarrienak.
- Produktuaren erabilera lagunduko duen Seinalitikaren diseinuan (erabilerara argibideak) eta xede taldearen kontzientziazioan (ur edangarriaren onurak) eragitean aurrera egitea, munduko edozein herrialde izan daitekeela kontuan hartuz.

Lehen esperientzia honen emaitzak eta ikaskuntza esanguratsuak

Jorratutako gizarte diseinuen hiru erronketan parte hartutako talde bakoitzak ikasturte horretan zehar funtsezko ibilbidea egin zuen, emaitza ezberdinak lortu zituzten, eta honela laburbildu daitezkeen ikaskuntza esanguratsuak lortu zituzten:

1. ERRONKA. LAINO KAPTADOREA BERDISEINATZEA

Laino kaptadorea bere erabilerarekin eta bere inguruarekin estu lotutako teknologia da. Ondorioz, esperientzia honek teknologia berriak ez ezik, kultura, sistema, baloreak eta bizitzeko beste modu bat ere ikasteko aukera eman zion taldeari. Horrela, ikasle horiek era sakonean enpatizatu ahal izan zuten Zabalketak elementuak ezarritako kokalekuetako biztanleekin.

Bestalde, lan-taldea kanpo-parte hartzaile batzuekin etengabeko komunikazioan egon zen, eta horrek baliabideak bilatzeko, ikerketa-, adierazpen-, ulergarritasun- eta sorkuntza-gaitasunak sustatzeko balio izan zuen. Lana talde heterogeneo eta diziplina anitzekoan garatu zen eta bertan bakoitzak parte hartzen zuen norberaren talentua, ezagutzak eta gaitasunak emanez. Esperientziaren balorazioan, talde horretako kideek azpimarratu zuten konpromiso indibiduala; talde-lanak duen indarra; tolerantziaz, ilusioz eta esfortzuaz gizar-teari lagun dakiokela; beste balio asko aurkitzen direla eta etorkizun profesionale-rako balio handiko esperientziak eskuratzen direla.

2. ERRONKA. KONDENTSazio BIDEZKO UR-KAPTAZIO TEKNOLOGIA BERRIAK ETA PO MERKATUETAN HAIEN BALIZKO APLIKAZIOA


Proiektuari esker, lan-taldeak Boliviako laino-kaptadorean erabiltzaileen beharrak ezagutu ditu. Horrek aipatutako kaptadorean diseinuan sakontzeaz gain, pertsona horien behar berriak ezagutzeko aukera ematen du, eta horrela

behar horietarako konponbide berriak proposatu. Hori, etorkizunean, herri horien bizi-kalitatean laguntzeko proiektu berriak ekar ditzake.

Beste alde batetik, zuzenean eta OpenMS-rekin duen erlazioari esker, taldeak existitzen diren ur-kaptazioen teknologiak ezagutu ahal izan ditu. Hala-ber, gizakiak erabilitako hozte eta kondentsazio metodo zaharrenak ikasi dira, naturak erabilitako metodoak eta horretarako sortu diren teknologia berriak.

3. ERRONKA. URA KIMIKOKI ARAZTEKO KIT-AREN DISEINU BERRIA

Talde hori izan zen alternatiba bideragarrien kopururik handiena sortu zuena haien erronkaren barruan, uraren banatze-sistemaren eta ur-andela nagusiaren berdiseinurako, egonkortasun handiaz hornitzeko, behin urez beteta zegoenean. Azkenean, ura banatzeko elementu berriaren diseinu zehatza garatu zen, 6. irudian erakusten dena. Kit maletaren heldulekuan eusteko aukera ematen du, aurretik existitzen zen elementuaren muntai eta desmuntai-denbora saihesten du eta 8 puntutan aldi berean ura banatzeko aukera ematen du. Konponbide horrek kit-aren eraginkortasuna handitzen du, ur arazia azkarrago banatzeko eta, ki-ta berriz desmuntatzeko aukera ematen duenez, larrialdi-egoeran dauden beste lokalizazio batzuetara arin-arin eramateko.



6. irudia

Banatze-sistemaren pieza nagusiaren diseinu berria

Esperientzia honetatik, konklusio orokor batzuk ere lortu dira, horiek lantaldearen antolakuntza eta metodologia birplanteatzeko kontuan hartu ziren, hurrengo ikasturteari begira:

- Piramidearen Oinarriko herriak erronken erdigunean jartzeak eragin zuen kanpo-eragileen eskuragarritasunaren dependentzia-maila handia (GKEak eta enpresa sozialak) diseinuaren prozesuaren fase erabakigarrietan. Talde guztiek zailtasun handiak izan zituzten entitate horietako ordezkariekin jario handiko komunikazioa izateko, ez interes falta zutelako, baizik eta baliabide falta zutelako. Entitate horietan lan egiten duten pertsonak etengabe bidaiatzen zuten eta denboraren zati handiena baztertutako eskualdeetan egoten ziren eta horietan komunikatzeko bideak aurkitzeko zailtasunak zituzten (Skype, posta elektronikoa eta abar). Zailtasun horiez gain, beste batzuk izaten zituzten, esaterako, ikasturtearen erritmoaren berariazkotasunak. Horietan ikasleak derri gor gelditu behar izan ziren, azterketa-garaian haien ikasketetan zentratzeko. Horrek proiektuen garapenean atzerapen handiak eragin zituen eta ikasturte-denboran talde bakarrean soilik lortu zen modu eraginkorrean ezar zitekeen diseinu zehaztua,
- Lehenengo esperientzia honetan, talde bakoitzak Produktu Garapen eta Diseinu Industrialeko Ingeniaritza Graduak irakasle baten tutoretza zuzena izan zuen. Tutore horren irudiak eta erronkak kanpoko eragileek proposatzeak ikasleei protagonismoa kendu zien, eta horrek irakasle bakoitzak bere taldeari ematen zion argibideekiko dependentzia ekarri zuen, batez ere, taldean erabakiak hartzeko orduan.

4. Hurrengo ikasturteen ekimenen garapena eta berezko lan-metodologia baten garapena

Ondorengo edizioetan sartutako aldaketak

Ekimen hau ezarri zen lehen ikasturtearen esperientzia positiboa ikusita, 2013-14 ikasturtean horrekin aurrera jarraitzea erabaki zen, baina horren antolakuntzan eta lan-metodologian aldaketa batzuk sartu ziren, motibazioa eta ikasleen aldetik buruzagitza indartzeko asmoz eta horiek proiektuei eskaini dalkiekeen eraginkortasun denbora handitzeko eta kanpoko eragileekiko dependentzia mailak eragindako atzerapenak saihesteko asmoz.

Sartutako lehen aldaketa izan zen erronken identifikazioa boluntarioen esperientzietatik edo ikasleen hurbileko babesgabeen beharretatik sortzea.

Gainera, ikasleentzako motibazio gehigarria zen beste faktore bat gehitu zen, haien erronketan garatutako diseinuak osagai «soziala» baloratzen duten eskualdeko, nazio edo nazioarteko lehiaketetara aurkeztea, hain zuzen. Aldaketa horrek kanpoko behar batzuk gehituko ditu entregagaien formatu eta kalitateari dagokionez. Horrek ikasleei haien CV eta laneko paper-zorroetan lan hauek gehitzeko aukera ematen die eta lanen batek aipatutako lehiaketaren batean irabaziz gero, haien profilerako balio erantsia izango da eta lan bilaketan elementu bereizgarria izan daiteke.

Ikasleek ekimenerako izen eta logotipo bat bilatzea erabaki zen eta taldekideen arteko barne ideia-lehiaketa baten bidez «Improving the World» izena aukeratu zen eta logoa 7. irudian agertzen dena, mundua hobetzeko interesa erakusten duena, betiere produktu eta eragin soziala duten zerbitzuen ikuspegitik.



7. irudia


Improving the World taldearen logotipoa

Garatutako lan-metodologiaren laburpena

2012-13, 2013-14, 2014-15 y 2015-16 ikasturteetan garatutako esperientzietatik, Improving the World taldeak berezko lan-metodologia garatu du, 8. irudian laburbiltzen dena, eta hiru aldi nagusi dituena:

- *Hear*: «entzute» aldia. Honetan, parte hartzaileek haien diseinu sozialaren erronkak identifikatzen dituzte eta *Human Centered Design*-en bidez erabiltzaileak eta haien testuingurua ikertzen dituzte, erronkak zehazteko eta proiektuan zehar lan egingo duten kanpo-eragileen profilak identifikatzeko,
- *Create*: Eragin soziala duten zerbitzu edota produktuen ideia-gintza-aldia. Fase honetan, taldekide guztien aldetik eta ikuspegi desberdinetatik balioa erantsi ahal duten kanpo-eragileen (erabiltzaileak, eta industrializatu eta ikasleek sortutako konponbideak merkaturatu ahal dituzten enpresak, ekintzailtza sozialean adituak eta abar) aldetik ideiak elkar trukatzeko eta feedback-ak emateko dinamikak ere sortuko dira: ikasle parte hartzaileen artean; tutore lana baino, bideratzaile lana egiten duten irakasleen artean; eta proiektuen hasierako aldietan elkarrekiko ikas-kuntza prozesuak indartzen duen parte hartze espazioa osatzen duten kanpoko eragileen (erabiltzaile potentzialak, GKEak, enpresak eta abar) artean, crowdlearning-a indartzen den aldia da,
- *Deliver*: Proposamenaren konkretutasun-aldia. Aldi honetan, ikasleek lan egiten dute bere kontzeptua nazioarteko diseinu lehiaketetara edo

industrializatzeko interesa duten enpresetara aurkezteko beharrezko entregagaien garapenean. Aldi honetan, ikasleak haien konponbideen «saltze» prozesuan sartuko dira, prozesuan parte hartu duten eragileekin, inbertsore potentzialekin egiaztatuz eta negozio-modelo bat diseinatuz, merkaturatu ahal izateko.



8. irudia

«Improving the World» proiektuetan erabilitako metodologiaren jario-diagrama

2013 eta 2016 bitarteko Improving the World taldeak eta eragile laguntzaileek jorratutako erronkak

Hurrengo taulan (1. taula) oso labur jasotzen dira orain arteko edizioetan ikasleek jorratutako egitasmoak. Ikasle parte-hartzaileen kopurua egonkortu egin da taldeko 10-15 ikasle kopuruan. Gehiengoa diseinu industrial eta produktuen garapeneko ingeniartzako ikasleek osatzen dute, baina badira beste gradu batzuetako ikasleak ere, biomedikuntzaren ingeniartzak, telekomunikazioen ingeniartzak, industria antolakuntzaren ingeniartzak, ingeniartzak mekanikoa, etab.

1. taula

Ekimen honen edizioen ikasleek landutako erronkak

Ikasturtea	Erronkaren izenburua	Deskribapen laburra
2013-14	Adaptatlet	Egitasmo hau zenbait gupildun aukien diseinutara egokitu daitekeen tablet-arako euskarri baten diseinua izan zen. Beharra taldekide batek ASPACEn egiten duen bolondres lanetik eratorri zen. Euskarri honek garun-paralisia duten pertsoneri beraientzat garututako aplikazio bat erabiltzeko aukera emango zaie, tablet baten bidez komunikazioa errazten du, hirian zehar egindako irteeretan.
	Ur edangarria lekuz aldatzeko bizkar-zorroa	Egitasmo honen helburua bizkar-zorro ergonomiko bat diseinatzea zen, PO herrialdeetako emakume eta hurrek egunero ura garraiatzeko erabiltzen dituzten ontziak ordezteko.
	Sukaldari-hodeiak	Egitasmo hau bakarrik bizi diren eta sukaldatzeko eta dieta osasuntsua mantentzeko zailtasunak dituzten hirugarren adineko pertsonentzako catering eta etxeko laguntza zerbitzu baten diseinuan zentratu zen.
	Soundlet	<p>Eskumuturreko honek pertsona gorrei etxe inguruko soinuak identifikatzea eta irudi eta dardar bidezko oharpenak jasotzeko aukera ematen die, etxe inguruan gertatzen ari dena jakin ahal izateko.</p> <p>Egitasmoa taldeak emandako hitzaldi batean sortu zen, zeinu hizkuntzaren itzultzaile baten eta ikasle parte-hartzaile baten aitaren laguntzaz. Azken hori gormutua eta Gipuzkoako Gorren Elkarteko kidea da. Egitasmo hau bi lehiaketara aurkeztu zen:</p> <ul style="list-style-type: none"> — James Dyson Awards diseinu lehiaketako nazio fasea eta gure ikasleen proposamena lehiaketaren webgunearen bitartez hedatu zen: http://www.jamesdysonaward.org/projects/soundlet/ — Tecnune antolatutako eta Laborak Kutxak eta IKORek lagundutako «Ingenio y Diseño» lehiaketako unibertsitateko ikasleentzako kategoria. Talde honek saria eskuratu zuen, honako berriari ikus daitekeenez: http://www.feun.es/feun/noticias/j%C3%B3venes-con-ingenio-y-dise%C3%B1o-premiados-en-tecnun

2014-15	Zure mundua birziklatu	Sakelakoentzako aplikazio honek egiten duen gamifikazio proposamenaren bitartez, erabiltzailea birziklatzera motibatzen du eta informazio erabilgarria eskaintzen du, mota guztietako produktu eta tresnak birziklatzeko.
	Quick & Easy shopper	Gailu honek edadeko pertsoneri erosketak orgarik gabe eta modu erraz eta ergonomikoan egiteko aukera ematen die, barra kodeen irakurgailua eta hartutako produktuen informazioa erakusten duen pantaila baten bitartez.
	Autoetan gurpildun aukietarako egokigailua	Gailu honek gurpildun aukian mugitzen diren mugikortasun urriko pertsonak autoan sartzera ahalbidetzen du, bere laguntzailearentzat modu ergonomikoan.
	Hirugarren adinekoentzako erosketetarako orga	Hirugarren adinekoen beharretara egokitzen den erosketetarako orgaren diseinua, ergonomia fisiko eta kognitiboen irizpideak kontuan hartuz.
	Gida-baimenaren proba psikomotorren simulagailua	Horrek pertsona baten gidatzeko gaitasuna neurtuko du, lesio fisiko bat izan ondoren edo adinak eragindako narriadura psikomotorea pairatzen duenean ere.
2015-16 (Garatzen ari diren proiektuak)	Gadgeto-sport	Kode irekidun haur-ortosiaren diseinua, malformazioak edo goiko gorputz-adarren anputazioak dituzten eskola-adina duten umeei haien ikaskideekin eskolakirola egin dezaten.
	Mugikortasun urriko umeentzako patinetea	Mugitzeko desgaitasuna edo adimen-desgaitasuna duten umeentzako patinete baten diseinua, haien mugitzeko gaitasunean edo oreka-zentzumenean lagun dezan.
	Ring sentsorea	Wearable gailu baten diseinua. Horrek adineko pertsonen jardura fisikoak monitorizatzeko aukera emango du, medikuen esku-hartzearen patroiak antzemateko.

2. taulan, kanpo eragileak zerrendatzen dira, edizio bakoitzean parte hartu dutenak erronka bakoitzari erantzuteko (xede erabiltzaile-mota, produktua edota zerbitzua helburu merkatuan presentzia duten enpresak, aholkulariak, elkarteak GKE-ak...).

2. taula

Ekimen honen edizioen kanpo-eragile parte hartzaileak

Ikasturtea	Kanpo-eragileak
2013-14	Aspace, Gipuzkoako Gorren Elkarte
2014-15	Emaus, Grupo Uvesco, Grupo Icavi, Fundación Matia, Sinnple, Biomimetiks, Grupo Indaux.
2015-16	Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa, Hegalak, Sancheski, CEIT.

5. Ondorioak

Heldu askok uste dutenaren kontra, gaur egun, unibertsitatean hezten ari garen gazteak, gure gizartearen arazo sozialen gainean kontzientzia handia duten gazteak dira. Gazte horien ehuneko handi batek harreman zuzena du boluntario-lanen bidez babesgabeen taldeetako pertsonekin, eta askotan produktua eta zerbitzuak diseinatzean eta etekin ekonomikoak maximizatzea soilik bilatzen denean eta, enpresa-negozioen modeloan sartzen ez diren irizpide sozialak sartzen, ez direnean merkatuak lehenengo ahazten dituenak dira.

Sentsibiltate sozial hori aprobetxatzea erronka eta, gaur egun, unibertsitate eremuko irakasle guztion arduraren da, gure ingeniartzako ikasleek *learning-by-doing* ikaskuntza gara dezaten, ezagutzak eta gizartea, eta haiek inguratzen duen mundua hobetzeko, etorkizuneko lan aktibitateko berezko tresnak garatuz.

Beste alde batetik, Eraberritze Inklusiboaren eta Diseinu Sozialaren arteko harreman kontzeptuala analizatuz, eta berrikuntza inklusiboaren RRI (*Responsible Research and Innovation*) ikuspegitik sakontzeko asmoz, esperientzia honetatik alor garrantzitsu batzuk sortuko dira eta honako puntu hauetan laburbilduko dira:

- Proiektu zehatzen bidez, ikasleek berrikuntzaren, haien motibazioen eta helburuen ikuspegi kritikoagoa garatuko dute, eta hori lagungarri izango da herritar belaunaldi berri bat sortzeko, erantzunkide modura hartzen direnak bere gizarterako zentzu gehien duen berrikuntza mota zehazterakoan,
- Proiektuak berrikuntza irekiaren prozesuen bidez garatuko dira (Chesbrough, 2003). Bertan profil osagarriak bilatuko dira, dinamikan eta proiektuaren edukietan zentzua dutenak; taldez edo unibertsitateaz kanpokoak ala barrukoak izan, marko honetan beste eragileekin elkarreraginak sortuko dira eta proiektuak ezagutza-iturri batzuetatik atzeraelikadura jasoko du eta ikasleei prozesu irekien onurak ulertzeko aukera

- emango die eta horiek gero aplikazioaren beste eremu batzuetara estrapola ditzakete,
- Diseinu soziala zalantzan jartzen ari da eredu linealak, baztertzailak eta eraberritze-hierarkikoak, zeren eta eragile berriak prozesuan sartzen diren neurrian, egitasmoen berkonfigurazio dinamikoa eta zirkunstantzialki gerta daitekeena sortzen baita. Behar berriak sortuko dira, aukera berriak, lehentasunak aldatuko dira, dena ikuspegi berrietatik ikusiko da, eta egitasmoen *rights impacts*-ak zeintzuk diren etengabe galdekaturako duen oreka konplexu eta dinamikoa aurkitu beharko da.

Azkenik, diziplinarteko eta maila desberdinetako ikasleen arteko learning-by-doing ekintzak sustatzea bilatzen denean, gure unibertsitate-sistemaren ikasketa plan zorrotzak planteatzen dituen «oztopoak saihestearen» garrantzia nabarmendu behar da. Lortzea ez da erraza eta askotan irakasleen boluntariorik lortzen du, baina garrantzitsua da gure instituzioek horren gaineko hausnarketa egitea, esperientzia pilotu-mota honetako bideak errazteko, ondoren beste zentro batzuetara hedatu daitezkeenak edo esperientzia inklusibotzat planteatu daitezkeenak, gure gizarteko beste eragile askorekin.

6. Erreferentziak

- Chesbrough, Henry Willian. «The era of the open innovation». *MIT Sloan Management Review* 44, 3 . zbk. (2003): 35-41.
- George, Gerard, McGahan, Anita M. eta Prabhu, Jaideep. «Innovation for Inclusive Growth: Towards a theoretical framework and a research agenda». *Journal of Management studies*, 49 . zbk. (2012): 661-683.
- Manzini, Ezio. «Making things happen: social innovation and design». *Design Issues*, 30 . zbk. (Winter 2014): 57-66.
- Mortensen, Peter Stendahl, eta Bloch, Carter Walter. *Oslo Manual-Guidelines for collecting and interpreting innovation data*. Organisation for Economic Co-operation and Development, OECD, 2005.
- Papanek, Viktor. *Design for the Real World: Human Ecology and Social Change*. New York: Pantheon Books, 1971.
- Smith, Cynthia E. *Design for the Other 90%*. New York: Cooper Hewitt, 2007.

GAZE programako Idazkaritza Teknikoa berrikuntza inklusiboaren *broker* gisa

Borja Luque Martínez

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Julen Ibarra Segurola

Kaleidoskopio Proiektua, Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua

Julieta Barrenechea

Miguel Sánchez-Mazas Katedra, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

1. Sarrera

GIPUZKOA: GAZTE EKINZALE (GAZE) programak ikaskuntzazko lankidetzaren sare bat osatzen du. Goi-hezkuntzako sistema ikasleek ekimenaren zentzuarekin eta kultura ekintzailearekin lotutako kompetentziak garatzeko beharrezkoak diren tresnez hornitzeko modu berriak ikertu eta aztertzen ditu. Ingurunea aintzatetsiz eta harekin elkartuta lan eginez. Hezkuntza arloko alternatiba berritzaileak erakusten dituen testuingurua da eta, aldi berean, zinez interesgarria den abagunea da ikasleek berrikuntza modu arduratsu eta iraunkorrean garatzen ikas dezaten.

Sare modura egituraturik dagoenez, eragile anitzek (erakunde politikoak, hezkuntza arloko instituzioak eta ikasleak edo GAZEekideak) parte hartzen dute, aldi berean, kanpoko beste zenbait eragilerekin lankidetzan jarduten dutenak proiektuak garatu eta ekimenak gauzatzeko aldera. Eragile horien arteko baten misio nagusia sareari koherentzia eta kohesioa ematea da, programaren funtzionamendua, jarraipena eta hobekuntza ziurtatuz. Horrenbestez, eragile hori sarearen muinean kokatzean da eta katalizatzaile modura jarduten du hezkuntza arloko berrikuntza-prozesuan. Idazkaritza Teknikoaz ari gara, egunez egun betetzen dituen lankidetzan erreparaturik, berrikuntza arloko eragile bitartekari edo *broker* modura har daitekeena. Bestalde, GAZE sarean prozesuak egituratzeko eta ikaskuntzak bideratu nahiz banatzeko bere eginkizunari so, berrikuntza «inklusiboko» *broker* modura jarduteko gaitasunari dagokion bezeritasun partikular bat arakatzea ahalbidetzen duten elementuak identifikatzen ditugu.

GAZE programaren barnean inklusibotasun hori bere printzipio gidaria-ekin (gobernantza) estu lotuta dago. Horrela, hastapenetik erantzukizunak modu horizontalean banatu dira eragileen artean, ikasleak (erabiltzaileak) protagonista nagusitzat hartuz. Erantzukizun eta langintzen banaketa horrekin batera, kasu honetan berrikuntza inklusiboa hezkuntza arloko berrikuntza-prozesuei eta goi-hezkuntzan nahasitako eragile guztien artean ekimenaren zentzua sustatzeari begira dago nagusiki eta, aldi berean, horren emaitza ikaskuntzen banaketa eta baitaratze horizontala da. Ildo horretatik, GAZE programan, «GAZElanki: lankidetzako ikaskuntzako komunitateak» proiektua abiapuntutzat hartuta, 2014-2015 ikasturtean *crowdlearning* kontzeptua aztertu zen, ikaskuntza ekoitzi eta banatzeko dinamika modura, modu horretan, ikaskuntzaren ikuskera eta jokamolde jakin bat zehazteko, non baliabide, ezagutza eta gaitasun ugari mugitzen diren arazoak ebatzi eta berrikuntza inklusiboko prozesuak bultzatzeko lankidetzako ikaskuntzako testuingurutan.

Horrenbestez, kapitulu honetan GAZE programak beregain hartu asmo duen berrikuntza inklusiboko dinamikaren barnean Idazkaritza Teknikoak eragile bitartekari modura duen eginkizuna definitzeko elementuen inguruko gogoeta egiten da.

2. GAZE programako Idazkaritza Teknikoa eta bere eginkizuna lankidetzako eraginkorrean

GAZE programak berrikuntzari begira dagoen ikaskuntzako lankidetzak sare bat osatzen du, ingurunearekin hartu-emanen lan eginez. Idazkaritza Teknikoak berrikuntzaren *broker* modura duen eginkizuna ulertzeko gako bat programa garatzen deneko inguruabarra zehaztea eta idazkaritza horrek berrikuntza-prozesuan lankidetzako eraginkorra bermatzeko betetzen dituen *gap* ezberdinak aztertzea da.

Gap kontzeptua Smits (2002) egileak emandako ikuspegitik ulertzen dugu. Hark definitutakoaren arabera, berrikuntza bat, inora iristen ez den esku-hartze hutsean (edo ideia multzo batean) geratu gabe gerta dadin, ezinbestekoa da hiru elementuren arteko uztardura arrakastatsua ematea ikuspegi sozial edota ekonomiko batetik so. Elementuok *hardwarea*, *softwarea* eta *orgwarea* dira. *Hardwarea*, nagusiki, ekipamendu materialarekin lotzen da; *softwareak*, aldiz, ezagutzari egiten dio erreferentzia, eskuliburuzko zentzuan, hots, *software* informatikoak, eduki digitalak eta berrikuntzan nahasitako ezagutza tazitua. Bestalde, *orgwarea* berrikuntza baten garapen eta funtzionamendu egiazkoan eragina duten erakunde eta instituziozko baldintzekin lotzen da.

GAZE programak berrikuntza ahalbidetzen duten *hardware*, *software* eta *orgware* baliabideak ditu. Hala, konbinazio horri esker, bere nortasuna indartzen da idiosinkrasiadun programa modura. Haatik, programan nahasitako eragileen instituzio arteko eta aniztasun izaera dela medio, aparteko beste ele-

mentu bat behar da (*orgware* elementuan barnera daitekeena), hain zuzen, Idazkaritza Teknikoa, *gap* zenbait betetzeaz arduratzen dena.

Aipatu den moduan, GAZE programak sarean lankidetzan aritzen diren zenbait eragile koordinatzen ditu (erakunde politikoak, hezkuntza arlokoak eta GAZE kideak). Horiek, aldi berean, beste gizarte-eragile eta hornitzaile batzuekin jartzen dira harremanetan jarduera, proiektu eta ekitaldi anitz gauzatzeko. Eragile horietako bakoitzean komunikazio eta koordinazioko *gap* dago, eta Idazkaritza Teknikoak esku-hartzen du zirrikitu horietan.

Idazkaritza Teknikoak betetzen duen beste *gap* bat proiektuari denboran jarraikortasuna eta egonkortasuna ematearekin lotzen da. Aldi berean, GAZE programaren barnean belaunaldiz belaunaldi baitaratutako kultura eta ezagutzak mantentzeaz arduratzen da, eta ezagutza berriak ere gaineratzen ditu ikerketa eta esperimentazioa aplikatuz. Alderdi horiek 3.1. atalean, «Lankidetzeta-ikaskuntza GAZE programaren bilakaeran» izenekoan, garatzen dira.

Azkenik, Idazkaritza Teknikoak kontzeptuzko, metodologiazko eta akademiako gogoetak nahiz programaren etorkizuneko lan-ildoak dinamizatzeko gune gisa jarduten du.

Horrenbestez, lankidetzeta eraginkorra bermatzeari dagokionez, Idazkaritza Teknikoaren funtzio nagusiak berrikuntzaren *broker* modura jardutearekin du zerikusia, harremana ahalbidetzen duen eta nahasitako eragileak koordinatzen dituen erakunde bitartekaria izanik, programari koherentzia eta egonkortasuna emanez, eta GAZE sarearen kultura eta nortasun inklusibo horretan gune modura jarduten duen eragilea izanik.

3. Erakunde bitartekari baten funtzioak berrikuntzaren broker modura

Berrikuntzaren *broker* modura ulertzen ditugu berrikuntza-prozesu bat planifikatu, kudeatu eta gauzatzeko ardura duten eragileak, bereziki, sustapenarekin, akonpainamenduarekin eta aholkularitzarekin lotuta. Bestalde, Winch eta Courtney (2007) egileek eragile-sare bateko kide gisa jarduten duen erakunde gisa definitzen dute berrikuntzaren *broker* izenekoan, berrikuntza sortu eta txertatzeko zeregina baino gehiago, berrikuntza gauzatzeko beste erakunde batzuk aktibatzeke zeregina duena. Berrikuntzaren *broker* horiek bitartekari gisa jarduten dute berrikuntzako lankidetzeta-prozesuan, bitarteko erakunde gisa, eragile-sare baten barnean. Bi definizioak aintzat hartuz, Idazkaritza Teknikoa bi bide nagusi baliatuz ariko litzateke berrikuntzaren *broker* bitartekari modura jarduten: 1) Programan bertan berrikuntza-prozesua planifikatu eta koordinatuz eta 2) beste eragile zenbait aktibatuz (unibertsitateko komunitatea, gizarte-eragileak eta gizarteko beste kolektibo zenbait) proiektu, ekitaldi eta jarduera berritzaile ezberdinen garapenean.

Halaber, beharrezkotzat jotzen dugu haietako funtzio nagusiak zerrendatuz definizio hori osatzea. Van Lente, Hekkert, Smits eta Van Waveren (2003) egileek oinarrizko hiru funtzio bereizten dituzte:

- Eskaria egituratzea, hots, berrikuntza-premiak eta dagozkion eskariak teknologia, ezagutza, finantzaketa eta politikarekin lotuta egituratzea,
- Lan-sareak sortzea, eragileen arteko loturak ahalbidetuz,
- Berrikuntza-prozesua kudeatzea, ikaskuntza eta lankidetzak ahalbidetuz.

Johnson (2008) egileak rol modura deskribatzen ditu *broker* bitartekariaren funtzioak: arbitro bitartekaria, finantzazio-hornitzailea, legitimatzailea, baliabideen kudeatzailea, etab. Rol horiek lanketa zehatzagoak gaineratuta osatzen dira.

Howells (2006) egileak, aldiz, funtzio hauek bereizten ditu: 1) aurreikuspena eta diagnosis; 2) informazioaren prozesamendua; 3) ezagutzaren prozesamendu, konbinazio eta birkonbinazioa; 4) bitartekaritza; 5) frogantza eta baliozkotzea; 6) egiaztatzea; 7) erregulazioa; 8) emaitzen babesa; 9) merkatu-ratzea; 10) emaitzen ebaluazioa.

Azkenik, bitartekaritza mota horrek sareko eguneroko arazoetan erreparatzea eskatzen du, konfiantza hobetuz eta gatazkak ebatziz (Kingsley eta Malecki, 2004; Provan eta Kenis, 2008). Berrikuntzaren *brokerra* izanik sistemaren barnean loturak sortzen dituen, eta eginkizun dinamizatzailea baitaratu, abagune berriak sortuz eta katalizatzaile gisa jardunez (Howells, 2006). Modu horretan, berrikuntzaren *brokerrak* berrikuntzaren hastapeneko unetan zalantza murrizten laguntzen du (Sapsed, Grantham eta De Fillippi, 2007).

GAZE programako Idazkaritza Teknikoa berrikuntza «inklusiboaren» broker gisa

GAZE gobernantzaren kultura sustatu nahi zuen giro politiko baten erdian sortu zen. Horrek botere-harreman tradizionalak aldatzea dakar, erantzukizunak birbanatuz eta eragile ezberdinen partaidetza eraginkor baterako tresna berriak sortuz. Testuinguru horretan, GAZE programak bere esku-hartzeak gobernantzaren printzipioetan oinarritzea proposatzen du, ikasleen protagonismoa eta ahalduak bereziki azpimarratuz eta konprometitutako eragile guztien artean erantzukizuna banatuz. Agertoki berri horretan Idazkaritza Teknikoaren ezaugarri eta zereginak zehaztu behar ziren; haatik, argi zegoen gobernantzaren *broker* modura jardungo zuela, izan ere, GAZE programaren dinamika eta nortasun inklusiboa zehaztu duen funtzionamendu-printzipio gisa gobernantza aplikatzea ahalbidetzen duten ekintzen ideologo eta dinamizatzaile nagusia zen. Behin lehen urratsak emanda eta gobernantza oinarritzat duen funtzionamendu-sistema bat finkatuta, Idazkaritza Teknikoaren zereginak berrikuntzaren inguruko gogoeta eta lanketara bideratu ziren pixkanaka, GAZE sarearekin batera jarduera nahiz ekitaldiak proposatu eta koordinatuz. Modu horretan, bere funtzioak definitu ziren apurka, eta programako ekintza ezberdinak garatzeko erreferentziazko bitartekari nagusi bilakatu zen, modu horretan, berrikuntza kudeatzeko prozesuetan *broker* modura jarduten hasi zen.

GAZE programako Idazkaritza Teknikoak balio, logika, funtzionamendu, egitura eta lan egiteko modu ezberdinak dituzten instituzioetan bitartekari, interpretatzaile eta, finean, itzultzaile modura jarduten du. Horrek testuinguruak

jarri eta transferentzia eraginkorra gauzatzeko trebetasunak izatea eskatzen du. Eragile ugari dituen sarea izaki, funtzio horiek garatuta Idazkaritza Teknikoak *broker* modura duen zeregina sendotu egiten da. Horrela, inklusibotasunerako tresna garrantzitsua da, berrikuntzarekin lotutako emaitzak hobetzea ahalbidetzen duena.

4. Erakunde bitartekaria eta ikaskuntza inklusiboa

Lankidetzeta-ikaskuntza eta ikaskuntza inklusiboa GAZE programaren bilakaeran

Idazkaritza Teknikoak dituen funtzio betearazleez gain, hezkuntza arloko berrikuntzari dagokionez GAZE sarean sortzen diren lankidetzeta-ikaskuntza eta ikaskuntza inklusiboko prozesuak ahalbidetzen dituztenak nabarmentzen ditugu nagusiki. Ikaskuntza horiek berrikuntzak aztertu, esperimendu eta ustiatzeko prozesuetan oinarritutako programaren bilakaeran islatuz joan dira. Adibide adierazgarriena EKINnet izenekoen (2009. urtean abiatu zirenak) jardura zehatzaren azterketatik inguruko gizarte-eragileekin gaur egun burutzen diren lankidetzeta-proiektuetara izandako bilakaera da.

2009. urtean EKINnet izeneko gailu bat diseinatu zen, Gipuzkoak ikasleek GAZE programa eratzeko baliatu zen prozesu parte-hartzailean identifikatutako lehentasun-ardatzei erantzuteko asmoz: berrikuntza pedagogikoa, gizarte-sarea, sare instituzionala. EKINnet 4 saiotan landutako lantegitan garatu zen. Lantegi horietan gizarte-eragile batek ikasgai espezifikoko ikasleei erronka egiazko bat planteatzen zien eta instituzio bakoitzean ikasle-talde ezberdinak alternatibak planteatzen zituzten erronka hori ebazteko, prozesuaren amaieran eragileekin elkartruke bat burutuz. Esperientzia horrekin ekimenaren zentzuarekin lotuta zeuden eta metodoaren jomuga ziren konpetentziak landu nahi ziren: talde-lana, ideiak proiektu bilakatzea, arazoak ebaztea, komunikazio eraginkorra, auto-ebaluazioa eta sormena.

Esperientzia horietatik abiatuz, gaur egun bilakaera gertatu da eta gizarte-eragileekin lankidetzeta-proiektuak burutzen dira. Proiektu horietan ikasle-talde mistoek (instituzionalki nahiz diziplinari dagokionez) parte hartzen dute. Erronka eta proiektua ikasleek gauzatzen dute erakundeekin batera eta proiektu osoan zehar elkarrekintza, negoziazioa eta lankidetzeta ematen dira. Proiektuaren amaieran ekintza egiazko bat egiten da eta ez asmatutako konponbide baten proposamen hutsa. Lortutako berrikuntzak, aldi berean, inklusibotasun-maila handiago bat islatzen du, arazoen diziplina arteko ikuspegiarekin, proiektu-ziklo osoan zeharreko ikasleen eta gizarte-eragile arteko integrazioarekin, burutzen den proiektura sarritan batzen diren erabiltzaileekin eta talde mistoetako instituzio arteko integrazioarekin definitzen dena. Bestalde, gizarterako eta gizartearekiko goi-hezkuntzaren alorrean dinamika berri bat definitzen da, «erantzukizun» modura ulertzen den inklusibotasun-kontzeptu berri bateko funtsezko bi elementu direnak (Owen, 2012).

Programaren bilakaera hori ikaskuntza-prozesua aintzat hartuz aztertzen badugu eta Idazkaritza Teknikoa *broker* modura jarduten duen erakunde gisa aztertzen badugu berriro, erakundeek bi barne-indar dituztela nabarmentzen da: esplorazioa eta ustiaketa. Azken hori ordena, estandarrak eta ezagutza hurbila ezaugarri dituen giro batean eraginkortasun handiagoz burutzen da. Ezau-garri horiek, ordea, esplorazio egokia ekidingo lukete, izan ere, anbiguotasuna eta aldagarritasuna mugatzea ekarriko lukete, berrikuntzan erabakigarriak direnak (Kato, 2005). Bi polo horien kontrako izaerak ez du eragiten erakunde baten bere jarduera horietako bakarrera bideratzea, baizik eta bere joera nagusia adieraziko zukeen.

Erakundeek gaitasunak eta baliabide ekonomikoak izaten dituzte. Gaitasunak konpetentzia tekniko eta ekonomikoekin eraten dira, antolatutako jardueren inguruan garatzen dira eta erakundearen egiten jakitearekin identifikatzen dira. Horrenbestez, erakundeek beren konpetentzia nagusiak (besteengandik ezberdintzea dakartenak eta balio erantsia ematen dietenak) erabiltzea gomendatzen da, aldi berean, gaitasun dinamikoak garatzea eta berrikuntzak sortzea ahalbidetuz. Horrek erakunde aldetiko malgutasuna eskatzen du eta, horretarako, era berean, ezinbestekoak dira ustiapenarekin lortzen diren jarraikortasuna eta egonkortasuna eta esplorazioaren bidez lortzen den aldaketa.

GAZEk, erakunde modura, berezko konpetentziak ditu, hau da, erakundeari berezkoak zaizkion errutinak, ezagutzak eta kultura. Alderdi horiek ingurunean ematen diren aldaketetara egokitzen dira ikaskuntza garatu ahala.

Ustiapen eta esplorazioan estandar egokiak lortze aldera, erakundeek beren funtzio-eremuak bereizi egin behar dituzte, bereizketa horri banaketa horizontal deritzo (Kato, 2005). Ildo horretatik, GAZE programa bi jarduera-ardatzak uztartzen dituen proposamena da, lan-sare horizontala osatuz lankidetzak eta berrikuntza ezaugarri dituen ikaskuntzaren inguruan. Proposamen parte-hartzailea da eta inklusibotasun-irizpideetan oinarritzen da. Horrenbestez, gazteek, instituzioek eta irakasleek ekimenaren zentzua eta kultura ekintzailea sustatzeko koordinazioarekin nahiz partaidetzarekin lotuta dituzten beharrezanean erantzuna eman nahi die. Horri esker, GAZEren barneko esku-hartze maila ezberdinetan ikaskuntza-prozesu indibidual eta instituzionalak integratzeko elementu gisa funtzionatzen duten partaidetzarako eta gobernantza inklusiborako irizpideak sendotu egiten dira; bereziki, *crowdlearning* delakoa aintzatetsiz. Honatx aipatu maila horiek: a) Eragile instituzionalak, b) Idazkaritza Teknikoa, c) Ikasleak eta d) Gizarte-eragilea.

GAZEk metatutako esperientzia sendotzea eta esplorazioarekin jarraitzea du helburua, azken hori ekimenarekin estu lotutako tasuna izaki. Sendotasun horrek Programaren barnean sortzen joan diren ezagutza eta gaitasunak «ustiatzea» dakar, programaren bilakaera ahalbidetzeko abagune berriak «esploratzen» diren bitartean.

Apustu bikoitz horrek GAZE definitu eta egituratzerakoan hura esplorazioarekin eta ustiapenarekin ardazteko zenbait kontsiderazio kontuan hartzea

eskutzen du. Programa honen kasuan, bere sendotasunarekin bat datorren kontzeptuzkoa eta operazionala izango den malgutasuna lortu nahi da, aldi berean, aurretiko etapetan lortutakoaren ustiapenarekin uztartuz.

Horrela, GAZE programaren sendotasuna bere gaitasunen eta erakundearen berezko ikaskuntzaren garapenarekin dago hertsiki lotuta. Berez, ustiapenaren eta esplorazioaren paradoxari aurre egiterakoan, lantalde teknikoak eta modu aktiboan parte hartzen duten eragileek (ikasleek eta instituzioek) programaren egungo «egiten jakite» hori (gaitasun teknikoak) indartuko dute. Aldi berean, programaren bilakaerarako konpetentzia eta konfigurazio berriak abiarazten dituzte (gaitasun dinamikoak). Gainera, oreka hori eman dadin beharrezkoa den kontzeptuzko eta erakundearen malgutasunak bertako kideen ikaskuntza bultzatzea, trebetasun eta konpetentzien banaketa bizkortzea eta, oro har, Programa garatzea eragin dezake.

Bestalde, GAZE programaren izaerari eta bere funtzionamenduari esker, hirugarren dimentsio bat gainera daiteke «esplorazio-ustiapen» paradigmarekin irudikatzen den elkarren aurkako parearen osagarri. Esperimentazioa da hirugarren dimentsio hori. Horrela, GAZE programaren kasuistikan aplikatutako paradigma horrela zehaztuko litzateke:

- ESPLORAZIOA. Ideia berritzaileen eta auto-eguneraketarako bideen bilaketak eta esku-hartze berrien planaren diseinuak definituta,
- ESPERIMENTAZIOA. Proposamenen tresna bidezko egituraketa eta esperimentazioa dituen ezaugarri. Esperientzia pilotuen entseguak eta frogak egitea da xedea,
- USTIAPENA. *Know how* delakoa finkatu eta bere protokoloa gaitzea, GAZE programa txertatu, sendotu eta indartzea.

Hastapenetik, GAZE programak «esplorazioa» (ideia berritzaileen eta auto-eguneraketarako bideen bilaketa), «esperimentazioa» (esperientzia pilotuen entseguak) eta «ustiapena» (errepikapena proiektuaren garapenerako positiboki balioetsitako esku-hartzeetan doikuntzak burutuz) uztartzen dituen prozesu bat izan du oinarritzat bere funtzionamendurako. GAZE programak urtero garatzen dituen jarduerak eta Idazkaritza Teknikoak egindako lanketak, hein handi batean, esku-hartze pilotuetako esperientzietatik (esperimentazioa) abiatutako ustiapen, formalizazio eta protokolizazioari dagozkio. Argitu behar da protokolizazio horrek GAZE programaren egiturazko malgutasuna onartzen duela, aldaketa eta eguneratze jarraituak ahalbidetuz eta kasu zehatzaren arabera bere aplikagarritasuna aldagarri izanez.

Bestalde, Idazkaritza Teknikoak jardunbide eta gogoeta berrien esplorazioa bultzatzen eta egituratzen du urtero, GAZE sareko eragile ezberdinekin batera. Horrela bi ekintza-maila bereizten ditugu: alde batetik, makro mailan, GAZE sarearen multzoaren barnean, Idazkaritza Teknika berrikuntzaren *broker* izatean dago espezializatua eta horretara bideratua dago, *esplorazioari* beha. Beste alde batetik, funtzionamendu operatiboari dagokionez, *esperimentaziora* bideratuta egongo litzateke dagozkion esperientzia pilotuak aplikatuz

eta, hori abiapuntutzat hartuta, programaren *know how* delakoa bere osotasunean finkatuz (*ustiapena*). Ekintzaren arreta gunearen aldakortasun hori egiturazko malgutasuna eta ustiapenaren, esperimentazioaren edo esplorazioaren egokitzapena unean uneko berrikuntza- edo garapen-etaparen baitan daudelako gertatzen da (Nootboom, 2000). Une bakoitzean arreta-gune horien oreka bilatzen da programa dinamikoki egokiro doi dadin. Horretarako, ezinbestekoa da erakundearen malgutasuna funtzionamenduaren makro, meso eta mikro mailetan.

Crowdlearning delakoaren kudeaketa eta Idazkaritza Teknikoaren bitartekaritza

Crowdlearning kontzeptuak ikaskuntzari buruzko gogoeta egitea dakar, berau norbanako guztien aldetik ematen dela eta guztien eskuragarri egon behar dela berretsiz. Gizarte-elkarrekintzaren bidez, ezagutza eta trebetasunen garapena partekatzea eskatzen du. Modu horretan, eta prestakuntza demokratizatuz, pertsonak beren inguruneko eskarietara egokitutako ezagutzak baitarazten dituzte, egunerokotasunean ematen diren egoerak ebazteko baliagarri direnak (Luque, 2015).

Erakundeari dagokionez, *crowdlearning* kontzeptuak erakundearen barnean ikaskuntza modu esponenzialean hobetzea ahalbidetzen du, ezagutza ezberdin edota berritzaileak dituzten kide berriak gaineratzeari eta aurretiaz dauden kideen ikaskuntzari esker. Izan ere, egile askok (esate baterako, Teece *et al.*, 2000) nabarmentzen dutenez, erakundearen baitako ezagutzaren zati handi bat hura osatzen duten norbanakoengan gorde eta sostengatzen da. Hauek izanik erakunde-ikaskuntzaren ezaugarriak: 1) izaera metagarria edo aurretiaz dagoen ezagutzari berria batezko joera, 2) ezagutza mantentzeko premia eta 3) ikaskuntza-prozesuen konnotazio soziala.

GAZE programaren testuinguruan, *crowdlearning* kontzeptuarekin ikaskuntzarako espazio partekatu bat sartzen da, edukiak eta esperientziak trukatzeko xedez. Horrela, aurretiaz dagoen ezagutza areagotzea eta nahasitako pertsonen eta erakundeari egungo gizarteko erronkei aurre egiteko trebetasunak ematea lortzen da, aldaketei aurrea hartuz eta haietara egokituz.

Puntu horretan Idazkaritza Teknikoaren zeregina oso garrantzitsua da, izan ere, GAZE sareko eragile ezberdinen arteko lotune bilakatzen da eta, gainera, ikasleak ahalduztzen ditu haiek izan daitezen *crowdlearning* kontzeptua praktikan jartzeko ekintzak gauzatzen dituztenak. GAZE kideko taldeak garatzen dituen jarduerekin jartzen da praktikan *crowdlearning* kontzeptua. Jarduera horiek liburu honetako bi kapitulutan islatzen dira.

Ikaskuntzaren banaketa

GAZE programaren ikaskuntzari dagokionez, programari berari dagokion barne-funtzionamendutik harago doa. Horrek zera esan nahi du, eragile dina-

mizatzaileek ez ezik, kanpoko eragileek ere ikasi egiten dutela. Horretarako, Van Lieshout, Egyedi eta Bijker (2001) egileek *innofusion* izendatzen dutena aplikatzen dugu, hots, berrikuntza-prozesuan IKT-ak sartzeko, berrikuntza eta hedapena uztartzeko prozesuaren bidez, modua aztertzen duen kontzeptua. Bi prozesu horiek aldeberekoak dira.

Ikaskuntza arloko berrikuntzaren eta hedapenaren uztarketa horretan funtzionamenduaren barneko eta kanpoko mailak bereiz ditzakegu. Lehen mailari dagokionez, aipagarri da Idazkaritza Teknikoak eragile ezberdinen gainean burutzen duen itzulpena eta informazio-transferentzia hedapen-prozesuari dagozkiola, zeina, aldi berean, berrikuntza aberasten ari baita. Bigarren mailari dagokionez, GAZE programak esperientziak eta gogoeta kritikoak trukatzeko espazioen sorrera bultzatzen du. Esperientzia eta gogoeta horiekin programaren egitura eta funtzionamendua berrelikatzen da, etengabeko eguneratzea ahalbidetuz.

4.2. atalean azaltzen den moduan, GAZE programan ikaskuntza, programaren intzidentzia-maila ezberdinetan, *crowdlearning* kontzeptua aintzatetsiz burutzen da. Horrela, *innofusion* kontzeptua zilegitzen da.

Ildo horretatik, zenbait egilek adierazten dutenez (Lundvall, 2010), eragile ezberdinen arteko harremanetan aldaketak gertatzeko moduek eta sistema barneko ikaskuntza moduek bideratzen dute berrikuntza denboran zehar. Puntu honetan berrikuntzak eta ikaskuntzak zer-nolako harremana ote duten galde daiteke edo, bestela esanda, ikaskuntzaren bidez berrikuntza nola sortu eta zer-nolako bilakaera duen galde daiteke. Foster eta Heeks (2013) egileek fenomeno hori gertatzea eragiten duten hiru ikaskuntza-kategoria bereizten dituzte:

- *Learning by doing*. Norbanakoez sormen- edo ekoizpen-prozesuan parte hartuz eraikitzen dute ezagutza.
- *Learning by using*. Ikaskuntza teknologiak eta berritasunak lanketa jakin batzuetara egokitzen direla ziurtatzeko eragileek burutu beharreko doikuntza modura ulertuta.
- *Learning by interaction*. Ikaskuntzak sistemako beste eragileekin gartutako lanketan du jatorria.

Elkarrekintza horretan, zinez garrantzitsua da instituzio bakoitzak duen erakunde-egitura nahiz eragile-sistemak duen egitura aztertzea, izan ere, ondorio hauek sorraraz baitituzakete: 1) bertako kideen ikaskuntza bultzatzea edo desagerraraztea, 2) erakundearen errutina aldatzea eragin dezaketen trebetasun eta konpetentzien banaketa bizkortzea eta 3) erakundearen garapen orokorra eta norbanakoen trebetasunak bultzatzea (Dosi, Faillo eta Marengo, 2003). Horrela, erakunde-egiturak eragina du norbanakoen ikaskuntza-tasan, ikaskuntza horren norabidean eta bere banaketan.

Horrenbestez, prozesuan parte hartzen duen erakunde bakoitzaren egitura eta funtzionamenduak berrikuntza-prozesua ahalbidetu ala blokeatzea eragin dezake, erakunde horiek eragile baitira. Aldi berean, gertatutako berrikuntzen inklusibotasuna ahalbidetu ala eragozteko eragin dezakete.

Idazkaritza Teknikoaren eginkizuna funtsezkoa da ikaskuntzak egokiro bana daitezen eta programa eta hartako premiak instituzio bakoitzaren egitura eta funtzionamendura egoki daitezen. Horrela, berrikuntza-prozesua ahalbidetzea eta berrikuntzen inklusibotasuna ziurtatzea lortzen da.

5. Ondorioak

Artikulu honetan GAZE programak beregain hartu asmo duen berrikuntza inklusiboko dinamikaren barnean Idazkaritza Teknikoak eragile bitartekari modura duen eginkizuna definitzeko elementuen inguruko gogoeta egitea proposatu da.

GAZE programa ikaskuntzazko lankidetzaren modura definitu da eta, testuinguru horretan, Idazkaritza Teknikoaren eginkizuna aztertu da, berrikuntzaren erakunde bitartekari edo *broker* modura. Horretarako, lehenik eta behin, alderdi operatiboan betetzen duen eginkizun artikulatzailea nabarmendu da, egitasmoaren funtzionamendua eta egonkortasuna ziurtatzen duena kudeaketarekin, plangintzarekin eta exekuzioarekin lotutako lanketak garatuz.

Bestalde, proiektuaren gobernantza maila ezberdinetan erantzukizunen banaketa horizontala modu aktiboan mantentzeko bere eginkizuna aztertu da, nagusiki, dinamizazio-lanekin betetzen duena. Dinamizazio-lan hori barneko lantaldeen (ikasle osatuak) koordinazioarekin eta instituzioen arteko loturak ahalbidetuz betetzen du, inguruneke gizarte-eragileekiko eta haiekin egiteko lan-dinamikak betetzeaz gain.

Erakunde horrek proiektuaren kultura, filosofia eta nortasuna parte hartzen duten eragileen artean eta programako eboluzio-etapa ezberdinetan transmititzeko moduak garrantzia handia du.

Azkenik, Idazkaritza Teknikoak betetzen duen katalizatzaile eginkizuna nabarmendu da, GAZE programak ekimenaren zentzuarekin eta kultura ekintzailearekin lotutako konpetentziak garatzeko sustatzen dituen hezikuntza arloko berrikuntza-prozesuetan arreta berezia ipiniz. Maila horretan, lankidetzaren ikaskuntzako prozesuen bideratzaile gisa duen partaidetza azpimarratzen da, esplorazio-, esperimintazio- eta ustiapen-prozesuak gauzatuz bi norabidetan: inklusioa eta, aldi berean, gaitasun, trebetasun eta ezagutzen banaketa GAZE sarearen maila ezberdinetan eta gizartearekiko eta gizartearekin aldarri duen dinamikan.

Finean, GAZE programako Idazkaritza Teknikoak berrikuntza inklusiboko *broker* modura jarduten du, bereziki bi mailatan (erakunde-gobernantza eta lankidetzaren ikaskuntza): alde batetik, proiektuaren barneko mailan eta, beste alde batetik, inguruneke gizarte-eragileekin burutzen diren proiektuetan.

6. Eskerrak

Egileek eskerrak eman nahi dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Sailari, GIPUZKOA: GAZTE EKINZALE (GAZE) programa zilegi izatea ahalbidetzeagatik eta liburu honen argitalpena bultzatzerakoan emandako laguntza erabakigarriengatik. Kapitulu honetan azaltzen diren gogoetak bertako egileen sormen eta erantzukizunpekoak dira eta ez du, derrigorrez, islatzen GAZE programaren posizionamendua edo hura bultzatzen duten instituzioena.

7. Erreferentzia

- Barrenechea, Julieta, Javier Castro Spila, María Larraza eta Andoni Ibarra. «GAZE EKINnet: desarrollo de competencias emprendedoras en la educación superior de Gipuzkoa». *Revista Docente* Universidad de Deusto, Irakaskuntzako Berrikuntzaren Unibertsitate arteko Jardunaldiak, Donostia ekainak 16 eta 17, (2011): 161-165.
- Dosi, Giovanni, Marco Faillo eta Luigi Marengo. «Organizational capabilities, patterns of knowledge accumulation and governance structures in business firms: an introduction». *Organization Studies*, 29, 8-9. zbk. (2008): 1165-1185.
- Foster, Christopher eta Richard Heeks. «Conceptualising inclusive innovation: Modifying systems of innovation frameworks to understand diffusion of new technology to low-income consumers», *The European Journal of Development Research*, 25, n.º 3 (2013): 333-335.
- Howells, Jeremy. «Intermediation and the role of intermediaries in innovation», *Research Policy*, 35, 5. zbk. (2006): 715-728.
- Johnson, William. «Roles, resources and benefits of intermediate organizations supporting triple hélix collaborative R&D: the case of Precarn», *Technovation* 28, 8. zbk. (2008): 495-505.
- Kato Vidal, Enrique Leonardo. «La paradoja exploración explotación: una perspectiva desde la capacidad organizacional», *Economía y Sociedad*, 10, 16. zbk. (2005): 85-98.
- Kingsley, Gordon eta Edward J. Malecki. «Networking for competitiveness», *Small Business Economics*, 23, 1 (2004): 71-84.
- Lundvall, Bengt-Åke. *National Systems of Innovation: Toward a Theory of Innovation and Interactive Learning*. London: Pinter, 2010.
- Luque, Borja. «Crowdlearning», *MaGAZinE, GAZE programaren aldizkaria - Gipuzkoa Gazte Ekintzaile*, 4. zbk. (2015). <https://gazteekintzaile.wordpress.com/magazine-maiatzamayo-2013/> (Kontsulta-data: 2016ko maiatzak 23).
- Nooteboom, Bart. *Learning and innovation in organizations and economies*. Oxford: Oxford University Press, 2001.
- Owen, Richard, Phil Macnaghten eta Jack Stilgoe. «Responsible research and innovation: from science in society to science for society, with society», *Science and Public Policy*, 39, 6. (2012): 751-760.
- Provan, Keith eta Patrick Kenis. «Modes of network governance: structure, management, and effectiveness», *Journal of Public Administration, Research and Theory*, 18, 2. zbk. (2008): 229-252.

- Sapsed, Jonathan, Andrew Grantham eta Robert De Fillippi. «A bridge over troubled waters: bridging organisations and entrepreneurial opportunities in emerging sectors». *Research Policy*, 36, 9. zbk. (2007): 1314-1334.
- Smits, Ruud. «Innovation studies in the 21st century: questions from a user's perspective», *Technological Forecasting and Social Change*, 69, 9 . zbk. (2002): 861-883.
- Teece, David J., Richard Rumelt, Giovanni Dosi eta Sidney Winter. «Understanding corporate coherence. Theory and evidence», *Journal of economic behavior and organization*, 23, 1. zbk. (1994): 1-30.
- Van Lente, Harro, Marko Hekkert, Ruud Smits eta Bas Van Waveren. «Roles of systemic intermediaries in transition processes», *International Journal of Innovation Management*, 7, 3 . zbk. (2003): 1-33.
- Van Lieshout, Marc, Tineke M. Egyedi y Wiebe E. Bijker (eds.) *Social learning technologies. The introduction of multimedia in education*. Aldershot: Ashgate, 2001.
- Winch, Graham M. eta Roger Courtney, «The Organization of Innovation Brokers: An International Review», *Technology Analysis & Strategic Management* 19, 6. zbk. (2007): 747-763.

GOBERNPROY: gogoetazaletasun inklusiboan oinarritutako egitasmoen kudeaketarako tresna

Julieta Barrenechea, Andoni Ibarra

Miguel Sánchez-Mazas Katedra, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Javier García-Fronti

Buenos Aireseko Unibertsitateko Zientzia Ekonomikoen Fakultatea

1. Sarrera

Kapitulu honetan, 2012an GAZE egitasmoaren barruan diseinatu zen GOBERNPROY¹ tresna deskribatzen da, erakunde arteko bere gobernantza dinamika sendotzeko asmoz, bai plangintza estrategikoan, bai kudeaketan.²

GOBERNPROY tresna gogoetazaletasun ariketen bitartez helburu estrategikoak haztatzeko diseinatu zen, horietan erakunde arteko programa edo egitasmo bateko erabakitze instantziek parte hartzen dute. Bikotekako analisi metodoa erabiltzen du; horrela, epe ertain eta luzeko erabaki estrategikoetan, eragileen parte-hartze altua duen egitasmoen gobernantza eraginkorra errazten du. Haztapan tresna da, eta era berean, aldean arteko elkarriketa eta gogoeta estrategikoa errazten duten elementuak eskaintzen ditu. Diseinua egiteko erakunde arteko sareak gobernantza iturritzat dituen kudeaketa ikuspuntu batetik abiatu zen. Ikuspuntu horrek kudeaketa zailtasunak gainditzen lagunduko duen, eta, era berean, erabakiak eta emaitzak koproduzitzeko ahalmena indartuko duten autoantolatutako egitura tresnak garatzeko beharra mahaigainertzen du.

Horizon2020 markoak definitzen dituen ikerketa eta berrikuntza politika europarren gaur egungo testuinguruan, geure buruari beste analisi maila batean

¹ Tresna honen bertsio berriago bat Barrenechea *et al.* (2012) lanean kontsulta daiteke. Bertan, jardueren kudeaketa eta egitasmo baten aurrekontu mailara arte erabiltzeko eskuliburuazalitzen da.

² Kudeaketa tresna honen garapena Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Sanchez-Mazas Katedraren ikerketa taldearen ardurapean egon da, eta gogoeta estrategiko eta programazio adituen laguntza izan du.

sartzea planteatzen diogu. Erantzunkidetasun printzipio moduan ulertutako «inklusibotasunean» eta «aurre hartzen duen gobernantzan» (*anticipatory governance*) oinarria duten elkarlaneko egitasmoen kudeaketan, ekarpena egiteko tresna honek duen potentzialtasuna esploratuko dugu.

Lan honetan, ikuspuntua, helburuak, prozedurak eta tresnaren aplikazioak deskribatuko dira. Gogoeta inklusiboaren dinamika definitzen eta gaitzen duten irizpide teknikoak azaltzeko, helburu estrategikoen haztapenari dagozkion mailak zehaztuko dira.

2. Tresnaren ikuspegi kontzeptuala

GOBERNPROY tresna sortzean, politika publikoen eremuan, erakunde arteko sare autoantolatuek dituzten arazo berezietan ardaztutako ikuspegitik abiatu zen (Klijn eta Koppenjan, 2000; Rhodes, 1996). Horrela, emaitza eta erabaki kolektiboak lortzeko tresna aproposa proposatzea bilatu zen. Mota horretako antolakunde anitzek konplexutasun instituzional maila altuei aurre egin behar izaten diete, honako faktoreek definituta: jurisdikzio aniztasunek edo erakunde-autoerreferentziek, ekimen bateratua artikulatzeko eta komunikazio mekanismoak garatzeko oztopoek eta emaitzen ardura hartzeko ikuspegi bateratu ezak (Teisman eta Klijn, 2002).

Horrela, erakunde arteko gobernantzak definitutako erronka baten aurrean, tresnaren helburuetako bat erabaki eta emaitzen koprodukzioan oinarritutako kudeaketaren emaitzak bermatzea izan da (Keast, Mandell, *et al.*, 2004). Aitzitik, ardura instrumentala islatzen duela dirudien helburua den arren, sorreratik tresna hau egitasmo sarean auto-antolakuntzari lotutako ikuspegi erreala goa bermatzeko oinarritzakoak diren elementuak era berritzailean babestera bideratu zen: a) gogoetazaletasun inklusiboa, sarean ikasteko oinarri moduan eta b) etorkizuneko aukeren erantzunkidetasunaren garapena.

Horizon2020 markoa elikatzen duen *Responsible Research and Innovation* (RRI) ikuspegitik, gizartearekin eta gizarterako berrikuntza eta zientzia dinamika batean, etengabeko taldeko konpromisoak sortzeko dimentsio gakotzat ulertzen da inklusibitatea (von Shomberg 2011, Owen *et al.* 2013). Era berean, inklusibotasunerako gakoa da etorkizuneko ariketa edo ariketa estrategikoe-tako hainbat eragileren «gogoeta-kapitala»³ mobilizatzea eta horrek gobernantza aurreratzaila eraginkorra izatea ahalbidetzen du (Karinen eta Guston, 2010). Hau da: bilatzen diren eraginen proiektzioan erakargarritasun soziala mobilizatzea, edo zientzian eta berrikuntzan garatutako *right impact*-ak (Owen *et al.*, 2012).

³ Owenek eta bazkideek honela definitzen dute gogoeta-kapitala: «*concerning the purposes, processes, and products of science and innovation in an interactive, inclusive, and deliberative way*» (Owen *et al.* 2013:57).

GOBERNPROYren diseinuaren kasuan, erakunde arteko sare batek duen konplexutasun maila kontuan hartzen duen eskala baterako lan egin zen, eta erabaki eta jarrera partikularretan oinarria duten emaitza-kolektiboak ahalbidetzen dituzten haztapen-mekanismoak eta gogoeta-mailak artikulatzen dituen egitasmoen kudeaketa sistema eskaintzen da. Aldi berean, urrats guztietan lortzen diren emaitzak aproposak dira eztabaida eta gogoeta sustatzeko, emaitza orokorren ikuspegia eta erakundeetako erabaki profilak uztartuz. Azkenik, jarduketa zehatzen plangintza egitera zuzendutako aplikazio mailak gogoeta ariketekin koherentzia gordetzen du, jardueren haztapenean eta aurrekontuaren lehentasunetan izandako emaitzek baldintzatzen baitute.

GOBERNPROY tresnak eragileak eta ikusmolde zilegi anitzak biltzea kontuan hartzen duen kudeaketako aldi bat aurreikusten du, egitasmo baten helburu estrategikoen azterketarako ariketa parte-hartzailea gauzatzeko. Ariketa bera egitasmoa modu eraginkorrean garatzeko definitzen diren jarduketan mailarako planteatu daiteke.

Horrela, elkarlaneko egitasmo baten helburuen haztapen-ariketa kolektibo gogoetazaletasun inklusiborako tresna moduan aurkezten da, osatzen duten eragile edo erakundeen sareak haren ikuspegia, lehentasunak, emaitzak eta itxarondako eraginak arazotsu bihurtzen dituen momentuan.

Ildo beretik, tresna honen balio nagusia RRI ikuspegirako nagusi diren bi elementutan datza: a) gogoetazaletasun estrategiko prozesuetan eztabaida dinamikak errazten dituen elementuak ematen ditu eta b) elkarlaneko egitasmoan parte hartzen duten eragileen multzoaren ahalduntze-inklusihoa gauzaten du.

Era berean, tresnak inklusibotasun maila ezberdinak ezartzea ahalbidetzen du, bere aplikaziorako, gogoeta estrategikorako talde zabalduak definitu baitaitezke. Hau da, ariketa berberera egitasmotik kanpo dauden eragileak batzea, interes zilegiak eduki ditzaketanak, edo profil ezberdinetako eragile taldeen arteko alderaketak ezartzea.

3. Tresnaren deskribapena

GOBERNPROY tresna osoak aginte-koadro baten logika duten 5 urrats artikulatzen ditu.

GOBERNPROYren urratsak

- 1. urratsa. Egitasmoaren edo programaren datak sartzea,
- 2. urratsa. *Gogoeta estrategikoa*: helburu eta jarduera kolektiboaren lehenespen eta definizioan datza eta software tresna batean eusten da. Horrek erabakiak hartzeko aukera ematen du «bikotekako analisisa» metodoa erabiliz (*Pairwise Analysis*),

- 3. Urratsa. *Aurrekontuaren planifikazioa*: helburu, jarduera eta gastuaren kontzeptuaren arabera aurrekontuaren esleipena egiteko aukera ematen du, 1. urratseko emaitzak kontuan hartuz (helburu eta jarduera kolektiboaren haztapena),
- 4. urratsa. *Aurrekontuaren monitorizazioa*: desbideratze-analitik, 1. urratsean planifikatutako aurrekontuari dagokionez, gauzatutako gastuaren jarraipenerako tresnak eskaintzen ditu (taulak eta grafikoak),
- 5. urratsa. *Jarduera eta produktuen planifikazioa eta monitorizazioa*: Betetze-helburuak ezartzeko eta jarraipena egiteko aukera ematen du. Atal honek jardueretara bertaratzea, sare sozialen garapena eta produktu eta entregagaiak barne hartzen ditu.

Nabarmentzekoa da kudeaketa tresna eta bere emaitzak gobernantzaren eta programaren edo egitasmoaren gogoetazaletasunaren mesederako bitarteko bezala planteatuta daudela. 1. urratsean egiten diren egitasmoaren helburu eta jardueren haztapenerako ariketa kolektibo eta parte-hartzaileak, automatikoki, planifikazio eta aurrekontuen, eta betetze-helburuen urratsetara zabaltzen dira.

Bestalde, bere urrats bakoitzerako tarteko emaitzak lortzen dira, taula, grafiko formatuetan eta *power point* euskarrian eta horiek elkarrizketa eta malgutasuna bizirik mantentzeko balioko dute.

Bikotekako analisiaren metodoa, gobernantza eta gogoeta inklusiboa

Helburu eta jardueren haztapenerako erabilitako eredua *bikotekako analisi*⁴ metodoan datza, eta horren abantaila nagusiak dira:

- Aukera ematen du
 - Aukera, irtenbide, arazo eta abarren artean garrantzia erlatiboa identifikatzeko.
- Bermatzen du
 - Aukera guztiak konparatu direla
 - Ikuspuntu guztiak integratu direla

⁴ *Bikotekako konparazio metodologia (Analytic Hierarchy Process (AHP))* erabiltzen da lehenetsun-eskalaren ratioa edo helburuen haztapenak lortzeko. Hori lortzen da erakunde edo egitasmo baten zuzendariei erakundearen helburuak banan-banan konparatzeko proposatuz. Bereziki, Saatyk (2003) proposatutako AHP metodologia helburuen lehenetspena egiten du, matrize elkarkari positibo baten autobektore nagusiaren kalkularen bidez, bikotekako balioztatzea duena. AHPk erabakiaren arazoa maila batzuk dituen egitura hierarkikoaz antolatzen du. Helburu batzuen araberrako alternatiben hautaketa-metodoa da, eta horiek, orokorrean, gatazkan egon ohi dira.

— Laguntzen du

- Lehentasunak ezartzen
- Talde-erabakiak argi eta garbi bistaritzen eta horien gainean eztabai-datzen eta estrategiak birplanteatzen

GAZEren kasuan, adibidez, 6 erakunde parte-hartzaileen ikuspuntuak kontuan hartu ziren eta, era berean, bi kolektibo nagusien ikuspegiak gogoan hartzea posible da: a) arduradun instituzionalak eta b) ikasleak. Nahi izanez gero, talde berriak sar litezke, irakasleak edo lurraldeko eragile sozialak, esaterako.

Zein da helburu eta jardueren haztapan ariketen helburua?

Helburu eta jardueren haztapan ariketek inklusibotasun tresna moduan haien funtzioa betetzeko, bere ezarpena gogoeta eta kontraste kolektiboko ariketekin laguntzea garrantzitsua da. Horiek behin haztapan-emaitez lortuta egin daitezke.

Haztapan ariketek elementuak eskaintzea dute helburu honako hauetarako:

- Programarako gogoeta eta denen lehentasun eta helburuen definizioa,
- Programaren erabaki/helburuen trazabilitatea (historia),
- Programaren erabaki/helburuen jarraipena (monitorizazioa).

1. ARIKETA. *Helburuen haztاپena*

Lehenengo ariketa helburuen arteko garrantzia erlatiboa ezartzean datza. Parte-hartzaile bakoitzak formulario bat beteko du eta horretan helburu bakoitzari esleitzen zaion garrantzia-maila ezarri beharko da, gainerako helburuekin alderatuta (bikotekako analisisia).

Horretarako, parte-hartzaileei inkesta-formularioak aurkeztuko zaizkie paperean edo formulario elektronikoa bat e-mailez bidaliz.

Ariketa pertsona-talde batzuetan egin daiteke (programaren erabiltzaileak, erakunde-ordezkariek, patronatua...). GAZE Programaren kasuan, adibidez, Talde Sustatzailearekin eta Ikasleen Aholku Batzordearekin bereizita egin da. Talde bakoitzerako emaitzak lortuko dira eta talde bien emaitzen batez bestekoa egiten duen (taldeen pisua haztatzeko aukerekin) behin betiko emaitza lortuko da.

Zeintzuk dira 1. ariketaren emaitzak?

Parte-hartzaile bakoitzak helburu bakoitzari esleitzen dion garrantzi erlatiboa ezarri eta gero, honakoa lortzen da:

Emitza	Erabilera	Aurkezpen-modua
Parte-hartzaile bakoitzarentzako helburuen haztapena (erakunde bat ordezkatu dezakeena)	Erakunde bakoitzaren lehentasunak identifikatzen ditu, programaren edo egitasmoaren helburuei eta bere behar partikularrei dagokienez. Monitorizazioa.	Ehunekoak dituen taula
Helburuen haztapen kolektiboa (haztapenen batez bestekoa)	Lehentasun/behar kolektiboak identifikatzen ditu, programaren edo egitasmoaren helburuei dagokienez. Programa gauzatzean, baliabideen esleipena eta esfortzuak antolatzeako aukera ematen du Monitorizazioa.	Ehunekoak dituen taula Diagrama

Nola analizatzen dira 1. ariketako emaitzak?

Kasu honetan, bariantza kalkulatu da, hau da, homogeneotasun edo heterogeneotasun maila laburtzen duen dispersio-estatistikoa. Datu horrekin programaren instantzia erabakigarriek analiza dezakete, esaterako:

- Helburuei dagokienez, erakunde parte-hartzaileen arteko *adostasun* maila,
- Erakunde bakoitzean *lehentasunen* identifikazioa,
- Erakunde-taldeak partekatutako *lehentasunen* identifikazioa.

GAZE bezalako programa batean, zeinetan profil oso ezberdineko erakundeek parte-hartzen duten, eta gakoa gobernantza den, kontua ez da helburuen batebestekoa ematea, edo adostasunean ardaraztea, horrela albo batera utziko zirelako programaren ezaugarriak diren konplexutasuna eta aniztasuna. Tresna honek, aitzitik, batebesteko akordioak irudikatzea ahalbidetzen du, baina gogoeta estrategikoak laguntzen duen neurrian, eta lehentasun indibidualen irudikapenarekin, aproposa eta malgua da a) etapa ezberdinetan programaren lehentasunak islatzeko eta b) behar partikularren arabera zenbait jarduketa egokitzeko.

Bestalde, hainbat helburuen arteko elkarbizitza adostu daiteke. GAZERen kasuan, helburu nagusia duen programa da, «sentsibilizazioa», baina bere estrategia hainbat ikuspegitan oinarritzen du: curriculum inkardinazioa, monitorizazioa, hedapena, nazioartekotzea eta abar. Helburu eta jardueren haztapenak ahaleginak non eta nola ardaztu eztabaidatzeko aukera eman du.

2. ARIKETA. *Jardueren haztapena*

Ariketaren bigarren urratsa programaren jardueren garrantzia erlatiboa ezartzean datza, helburu bakoitza betetzeko emate-maila definitzetik abiatuta, jarduera bakoitzak programaren helburu bat edo batzuk betetzeko ekarpena egin dezake.

Parte-hartzaile bakoitzak formulario bat beteko du eta horretan programaren helburuak betetzeko jarduera bakoitzak esleitzen duen garrantzia-maila ezarri behar da. 1. atalaren eskuliburua ikusi.

Zeintzuk dira 2. ariketaren emaitzak?

Behin pertsona bakoitzak jarduera bakoitzari ezarri dion garrantzia erlatiboa esleituta, helburu bakoitza betetzeko lortuko da:

Emaitza	Erabilera	Aurkezteko modua
Programaren jardueren haztapen kolektiboa helburuei esleitutako garrantzia erlatiboaren arabera ezarria (1. ariketa)	Lehentasunezko jarduerak identifikatzen ditu eta bere garrantzia erlatiboa, erakunde-talderako. Programaren baliabide/esfortzuak esleitzeko orientatzen du, Monitorizazioa.	Taula: jardueren <i>ranking</i> -a, helburuei esleitutako garrantzia erlatiboarekin lotutako portzentaje-banaketa Diagrama

Nola analizatzen eta aplikatzen dira 2. ariketako emaitzak?

Helburu eta jardueren haztapen kolektibotik ondorioztatzen den jardueren *ranking* analisiak aukera emango du gobernantzan oinarria duten eta eskuragarri dauden baliabideak esleitzeko. *Ranking*-ean islatutako lehentasunek baliabide/ahalegin erlazio proportzionala ezartzeko aukera ematen dute. Eta horiek helburu eta jardueretan eragina izatea espero da. Halaber, jardueren arabeko helburuak ezartzeko eta monitorizatzeko orduan, erreferentzia argia izateko aukera emango du.

Gobernantza monitorizazioan eta kudeaketan

GOBERNPROY monitorizazio eta kudeaketa-tresna informatikoak sargaitzat hartuko ditu aurrekontuaren planifikaziorako helburu eta jardueren haztapen-ariketen emaitzak. Bestalde, betetze-helburuak ezarri ahal izango dira, emaitza horiek beraiek erreferentziatzat hartuta. Egitasmoaren planifikazio eta

monitorizaziorako (2tik 4rako urratsak), tresna informatikoak honako aplikazio hauek izan ditzake:

- Esleipenerako eta baliabideen kudeaketarako 1. urratseko emaitzak aplikatzen dituen aurrekontuko diru-izendapenaren matrizea,
- Programa gauzatzen den bitartean, gastuaren jarraipena egiteko aukera ematen duen monitorizazio finantzarioaren matrizea. Horrek alertak (semaforoak) ditu eta gastuan dauden desbideratzeak adierazten dituzte, esleitutako lehentasunei dagokienez,
- Helburuen araberako inpaktu-monitorizazioaren matrizea, jardueren bertaratze-datu errealak eta espero izandako bertaratze betetzearekin lotzen duena, eta planteatutako helburuen desbideratzeak adierazten dituzten alertak (semaforoak) dituena,
- Helburuen araberako eragin monitorizazio matrizea, ekitaldi eta sare sozialetako jarraitzaileen datu errealak eta espero izandako helburuak lotzen dituena,
- Helburuen araberako eragin monitorizazio matrizea, produktu eta hedapen datu errealak eta espero izandako helburuak lotzen dituena,
- Aipatutako matrize bakoitzarentzako grafikoak.

Laburbilduz, egitasmoaren etapa bakoitzean baliabide eta ahaleginak antolatu ahal izango dira, eta jarraipena egin ahal zaie, gogoeta inklusiboaren araberaz ezarritako lehentasunetan oinarrituta.

Hurrengo atalean prozedurak eta tresnaren xehetasunak azalduko dira, helburuen haztapeneko maila adibidetzat hartuz.

4. Helburuen haztapenerako prozedura operatiboa.

Menu nagusia

Aplikazioak pantaila nagusia du atari eta menu moduan, eta aplikazioan zehar lekuz aldatzeko aukera ematen du:

Botoiek erabiltzaileei aplikazioan garatutako ataletara sartzeko aukera ematen diete. Horietako bakoitzean, menu nagusira bueltatzeko aukera ematen duen botoia egongo da.

Datuak menu nagusitik bakarrik sar daitezke eta datuak automatikoki zabalduko dira aplikazioaren atal guztietara. Horrela, jardueren haztapenaren hurrengo urratsean, ariketa jarduera bakoitzaren ekarpena zein den zehaztera orientatuta egongo da, egitasmoaren helburu guztiak lortzeko. Emaitza portzentaje-banaketa izango da eta horrek, era berean, aurreko urratsean esleitutako helburuen pisuarekin lotura izango du. Jardueren haztapenak jarduera bakoitzak helburu bakoitzari, bereizita, zenbat ematen duen bistaratzeko eta, era berean, egitasmoaren gainean jarduera honen garrantzia zein den jakiteko aukera emango du.



1. irudia

Hasierako orria

Operatiboki, helburuen haztapan-txantiloian, programaren helburuen ize-nak bete beharko dira, eta automatikoki aplikazio osora zabalduko da.

Menú

Haztatu beharreko Helburuak sartu	
1	1 HELBURUA
2	2 HELBURUA
3	
4	
5	
6	
7	

Zure proiektuaren jarduerak sartu	
1	1 JARDUERA
2	2 JARDUERA
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	
16	
17	

Gastuaren kontzeptua sartu	
1	1 KONTZEPTUA
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	

2. irudia

Datuak sartzeko txantiloia

1. ATALA. *Gogoeta estrategiko inklusiborako tresnak (2. urratsa)*

Atal honetan azalduko da helburu-haztapenen tresnak nola erabili, eta modu eraginkorrean, gogoetazaletasun inklusiboa gogoeta estrategikoan sartzeko aukera emango du.

Haztapen-ariketaren datuak sartzeko, ondoren deskribatzen diren txantiloiak erabiliko dira:

«Helburuen haztapenerako formularioaren» txantiloia

Txantiloia honetan helburuen haztapen-ariketan lortutako datuak sartu ahal izango dira. Horiek inkesta formulario baten aplikaziotik lortuko dira, papelean edo e-mail-ez modu elektronikoan egitasmoaren sareko eragile parte-hartzaileei bidalitakoa.

Formularioak bikoteka kontrastatzeko aukera ematen du aurretik definitutako helburu bakoitza.

Helburuen haztapen-formularioa betetzeko kontsigna izango da:

Egitasmoaren helburu bakoitzari esleitzen diogun garrantzia egiaztatuko dugu, bikoteka egindako konparazio-metodoa erabiliz.

Horretarako, lerro bakoitzean ixa batekin 1 HELBURUARI (ezkerra) 2 HELBURUAREKIKO (eskuina) ematen diozun GARRANTZIA MAILA adierazi.

GARRANTZIA MAILA 1etik 7rako eskalan definituko da kategoria hauen arabera: «askoz gutxiago», «nabarmen gutxiago», «gutxiago», «berdin», «handiago», «nabarmen handiago» eta «askoz handiago».

«1» zenbakiak ezkerreko HELBURUA eskuineko HELBURUA baino garrantzia «askoz gutxiago» duela adierazten du

«7» zenbakiak ezkerreko HELBURUA eskuineko HELBURUA baino garrantzia «askoz handiago» duela adierazten du

Formularioarekin biltzen diren datuek balioko dute aplikazioak helburuen haztapena kalkulatzeko, egitasmo-sarearen komunitatea osatzen duten erakunde/kolektiboen lehentasunak biltzen dituen haztapen-ariketan oinarrituta.

Klik bikoitza eginez, erantzunari dagokion koadrantean, formularioa bete ahal izango da, inkestan lortutako emaitzekin.

Aplikazioa prestatuta dago, gogoeta estrategikoan kontuan hartu ahal izateko programaren edo egitasmoaren bi taldeetako erabiltzaileen eta parte-har-

tzaileen iritziak. Horregatik, helburu eta jardueren haztapenaren bi ariketak egiteko aukera aurreikusita dago eta horiekin, gero, batez bestekoa egin ahal izango da bi ikuspegiak integratzen dituen behin betiko emaitza lortzeko. Kontsulta-talde bakarrarekin, helburu eta jardueren haztapen-ariketa bakarra eginez gero, aplikazioak kontuan hartuko ditu emaitza bakar horiek, gainerako atalen funtzionamendurako.

Bestalde, nahi izanez gero, kontsultatutako talde bakoitzari esleituko zaion erabakiaren garrantzia proportzionala definitu ahal izango da, programa edo egitasmoaren gogoeta estrategikorako.

Aplikazioak 1. atalerako, bi menu-pantaila izango ditu: lehenengoak 1 Taldearekin haztapen-ariketa egiteko aukera emango du eta bigarrenak 2 Taldearekin, atalaren txantilioietan zehar nabigatzeko edo gainerako atalera sartzeko edo 1. urratsean sartutako datuak aldatzeko menu nagusira itzultzeko aukera emango duten botoiak dituena (helburuen izena, jarduerak...).

1 Taldearen ariketaren menuan, baita 2 Taldearen ariketaren menuan ere, formularioetara sartzeko aukera ematen duten botoiak egongo dira, non helburu eta jardueren haztapen-ariketetan lortutako datuak betetzen diren eta formularioetara sartzeko aukera emango den.

Horrez gain, kontsultatutako beste Talde baten ariketaren emaitzak eta kontsultatutako talde bien emaitzen batez bestekoa ematen duten behin betiko emaitzak bistaratzeko botoia du.

Ariketa talde bakar batean egiten bada, haztapenaren behin betiko emaitza, automatikoki 2 eta 3 ataletan aplikatuko dena, kontsultatutako talde bakarrera dagokiona izango da.

Ariketa bi talderekin egiten bada, orduan 2 eta 3 ataletan automatikoki aplikatuko den haztapenaren behin betiko emaitza bi taldeetan lortutako emaitzen batez besteko haztatuta izango da. Haztatutako batez bestekoa da, aplikazioak bi taldeek erabakietan pisu bera izango duten edo ez erabakitzeko eta horren arabera haztapena esleitzeko aukera ematen duelako.

Mugimendu-taularen bidez, eskuragarri dauden (30 guztira) formularioetan zehar nabiga daiteke eta helburuen haztapena kalkulatzeko beharrezko informazio guztia bete daiteke.

Helburuen portzentaje-haztapenaren emaitzaren analisisa

«Bariantzak, maximoak eta minimoak ikusi» botoiaren bidez, erakunde/ parte-hartzaileen emaitzen arteko dispertsio-maila analizatzeko aukera ematen duten emaitzetara sartuko da.

Helburuak	Bariantza	Min	Max
1 HELBURUA	%2,97	%1,26	%25,40
2 HELBURUA	%0,70	%34,40	%24,58
3 HELBURUA	%0,40	%6,50	%28,69

5. irudia

Helburuen-haztapenean bariantzen emaitza

5. Azken iruzkinak

Kapitulu honetan, jatorrian, gogoeta estrategikoan eta erakunde arteko egitasmoen kudeaketan, gobernantza modu eraginkorrean garatzeko tresna aurkeztu dugu.

Tresna honen potentzialtasuna analizatzeko erronka planteatu diogu geure buruari; tresna honen potentzialtasuna arakatu dugu, «inklusibitatean» eta «aitzinamendu-gobernantzan» (erantzunkidetasuna oinarritzat ulertuta) oinarrituta, garatzeko nahia duten elkarlaneko egitasmoen kudeaketan laguntzeko, *Responsible Research and Innovation* (RRI) ikuspegiaren presentean dauden elementuak eta horrek zientzia eta berrikuntzaren politika europarren markoa orientatzen du, eta hortik berrikuntza inklusiboaren kontzeptua, liburu honen ardatz nagusia, definitzen duten oinarritzko elementuak planteatu dira.

Analisian aurkitzen dugu tresnak sarbide hirukoitza gaitzen duela, eta RRIan presentean dagoela inklusibotasun terminoak definitzeko orduan: hainbat ikuspegi, elkarrenganako ardura termino prospektiboetan eta desiratutako eragin edo etorkizunak definitzera zuzendutako gogoeta kapitalaren mobilizazioak markatutako ikaskuntza-sarearen dimentsio bat.

Berrikuntza inklusiboaren ikuspegitik bereziki nabarmenduko dugu tresna honen potentzialtasuna elkarriketa eta inklusio-mailetan gogoetazaletasuna bizirik mantentzeko, deliberamendua gaitzen duten tarteko emaitzak dituelako eta, era berean, hainbat eragileren profilak gehitu dakizkiolako gogoeta estrategikoak egiten dituen egitasmoaren komunitateari. Zentzu horretan, tresna egokia da ikuspegi «gertagarria» bizirik mantentzeko, berrikuntza inklusiboaren prozesuetan desiragarria dena. Horretarako, oinarritzkoa da tresna hau helburu-

tzat ez erabiltzea, modu teknikoan emaitzak definituz, baizik eta egitasmo-komunitate batean elkarrizketa-mailak eta gogoetazaletasuna mantentzeko bitartekotzat.

6. Erreferentzia

- Barrenechea, Julieta, Javier García Fronti eta Andoni Ibarra. «GOBERNPROY: una herramienta para la ponderación participativa de objetivos en proyectos basados en gobernanza», *Revista de investigación interdisciplinaria en métodos experimentales*, 2, 1. zbk. (2012): 77-124. http://www.economicas.uba.ar/wp-content/uploads/2015/11/Rev_Inter_Met_Exp_A%C3%B1o_2_1.compressed.pdf (Kontsulta-data: 2016 ko maiatzak 2).
- Karinen, Risto eta David Guston «Toward anticipatory governance: the experience with nanotechnology» in Kaiser Mario, Monika Kurath, Sabine Maasen y Christoph Rehmann-Sutter (argit.). *Governing Future Technologies: Nanotechnology and the Rise of an Assessment Regime*. 217-232. Dordrecht: Springer, 2010.
- Keast, Robin, Myrna Mandell, Kerry Brown eta Geoff Woolcoc. Network Structures: Working Differently and Changing Expectations. *Public Administration Review*, 64, 3. zbk. (2004): 363-371.
- Klijin, Erik Hans, eta Joop Koppenjan. «Public management and policy networks: foundations of a network approach to governance». *Public Management an International Journal of Research and Theory*, 2. 2. zbk. (2000): 135-158.
- Owen, Richard, Phil Macnaghten eta Jack Stilgoe. «Responsible research and innovation: From science in society to science for society, with society», *Science and Public Policy*, 39, 6. zbk. (2012): 751-760.
- Owen, Richard, Jack Stilgoe, Phil Macnaghten, Mike Gorman, Erik Fisher eta David Guston. «A Framework for Responsible Innovation», in Owen, Richard, John Besant eta Maggy Heintz (argit.). *Responsible Innovation: Managing the Responsible Emergence of Science and Innovation in Society*. 27-50. Sussex: Willy & Sons, 2013.
- Rhodes, R.A.W. «The new governance: governing without government». *Political studies*, 44, 4. zbk. (1996): 652-667.
- Saaty, Thomas. «Decision-making with the AHP: Why is the principal eigenvector necessary», *European Journal of Operational Research*, 145, 1. zbk. (2003): 85-91.
- Teisman, Geert eta Klijin, Erik Hans». Partnership Arrangements: Governmental Rhetoric or Governance Scheme?» *Public Administration Review*, 62, 2 (2002): 197-205.
- von Schomberg, René. «Towards responsible research and innovation in the information and communication technologies and security technologies fields», Brusela: European Commission, 2011. <http://ssrn.com/abstract=2436399> (Kontsulta-data: 2016ko ekainak 2).


Ikasketa faseak GAZE proiektuan

Olaia Etxeberria Garmendia, Lucía Lomas Echeveste
Ingeniaritza eta Industri Antolaketa Graduko ikasleak Tecnun-Nafarroako Unibertsitatean

Geisiane Maiara Marth
Goi-mailako Marketin eta Publizitateko ikaslea Tknikan

Amaia Zumeaga Hurtado
Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzako ikaslea Mondragon Unibertsitatean

Jarraian datorren artikulua helburua zera da: GAZE proiektuaren barruan ikasleek bizi izan duten aurkikuntza eta ikasketa prozesua erakustea. Horretarako, 1. irudian ikus daitezkeen moduan banatzen da prozesua, partaideen zein proiektuaren beraren eraldaketa ikusarazteko. Berrikuntza inklusiboaren inguruko liburu honen ildotik, erakusten da zertan datzan prozesu hau; ikasleak gizarte arazoaren aurrean ikaskuntza erlazional eta inklusiboetan oinarritutako dinamiketan parte hartzeko prestatzen dituen prozesua, hain zuzen.



1. figura

GAZEko proiektuan zehar dauden faseen banaketa

1. Aurrefasea

Erabaki, prestatu, egin / aldatu / elkartu / harritu


Ikasleek euren kabuz programan parte hartzeko aukeraketa egitea bera bada jarrera proaktibo bat, oso garrantzitsua GAZEko hurrengo faserako, non proiektuen sorrera, garapen eta kudeaketan parte hartuko duten. Behin lehen pausoa emanda, curriculumaren sorreraren prozesua dago, non hautagai bakoitzak bere esperientzia pertsonala erakuts dezakeen. Horrez gain, ordura arte lortutako gaitasunei buruz eta lan merkatura ateratzeko gaitasunei buruz gogoeta pertsonal bat egiten laguntzen die. Aurrefasea bukatu ahal izateko eta esperientziaren parte izango diren ikasleak aukeratzeko, elkarrizketa bat egiten da. Horren helburua hautagai bakoitzaren talentu ezkutua deskubritzea eta ikustea da, talde prozesuaren barruan bete dezakeen rola balortzea, batez ere garrantzia talde-lanari eta aurrera egiteko gaitasunei emanaz.

Aurretik jadanik esan den moduan, etorkizuneko GAZEkideek euren curriculumak bidaltzea erabakitzen dutenean hasten da prozesua. Lehen momentu horretan, aztertu beharko litzateke proaktibitate horren zergatia. Zer da GAZEren inguruan erakartzen dituen? Zein da ikasle segmentu horiek ase nahi duten beharra?

Proiektuan parte hartu nahi duten ikasleak kezka dituzten pertsonak dira, aldaketarekin konprometituak eta aldaketa honetan parte hartzeko erabakia hartu dutenak. Gainera, ikasle horiek Gipuzkoako Goi Mailako Hezkuntzako bost erakundetakoak dira; horrenbestez, esan dezakegu dauzkagun hautagaiak diziplina anitzekoak, ezagutza ezberdinekoak direla; profil ezberdinak dituzte, baina esan genezake lotura komen bat dutela: GAZE aukera paregabea iruditzen zaie euren etorkizunerako ezinbestekoak diren gaitasunak garatzeko, baina ez daukatela momentuz tokirik egungo hezkuntza sisteman.

Behin proiektuan parte hartzea erabakita, hautagaiak euren curriculumak egiteari ekingo diote, ondoren postua eskatzeko bidaliko dutena. Hau idazteko orduan, ikasleen aldetik barne gogoeta bat ematen da, ikasketa urteetan zehar lortutako ezagutza eta gaitasunen inguruan eta horien garrantziaren inguruan, programaren barruan sartuz gero: zer dakit? Zer eman diezaioket nik GAZEri? Eta galdera horiek egitean beste hainbat ere sortzen dira: Zer jaso dezaket nik GAZEtik? Zein motatako pertsonak osatuko dute proiektua? edo, Nolako izango da elkarrizketa?

Amaitzeko, proiektuaren koordinaziorako erabilgarria den elkarrizketa egiten da, hau da, hautagaiak ezagutzea. Elkarrizketa aurrefasean dagoen tresnarik garrantzitsuena da, curriculumak pertsona bat ezagutzeko orduan nahiko mugatua baita. Aurrez aurreko egoerak pertsonaren jarduna behatzeko aukera ematen du; euren komunikazio gaitasunak ikusi, arazoei erantzuteko gaitasuna eta baita motibazioa eta proiektuan parte hartzearen inguruko kezka ere. Horrenbestez, honek bi helburu ditu esan genezake: hautagaiengan GAZEki-deen ezaugarriak identifikatzea eta etorkizuneko GAZEkideek proiektua hobeto ezagutzea.



2. figura
Curriculumaren eredua



3. figura
Elkarrizketa

Badaude elkarrizketarekin identifikatu nahi diren ezaugarri batzuk; horien artean proaktibitatea eta changemaker (aldaketaren aurreko jarrera positiboa) nagusitzen dira, hala nola pertsona bateratzailea, komunikazio handikoa, enpa-

tikoa eta burutsua izatea, beste ezaugarri askoren artean. Horrez gain, elkarriketak ere balio du proiektuaren barruan pertsona bakoitzak izango duen rola definitzeko.


Aurrefaseko emaitza talde heterogeneo eta diziplina anitzekoak sortzean oinarritzen da, non partaide bakoitzak bere aurreikuspen eta beharrak izango dituen, prozesua aurrera doan bitartean argituko direnak.

2. 1. Fasea

Lehenengo faseari «KAIXO» edo egokitzearen fasea deritzo, profil ezberdineko jendea lehen aldiz elkartzen delako eta talde gisa beren bidea egiten hasten direlako. Denbora horretan GAZEKideek erronka ezberdinak izango dituzte, adibidez, lankideen izaeraren aniztasuna, laneko kultura eta metodologia ezberdinak, talde-lanaren barruko indibidualtasuna, eta gainera, gainontzeko lankideak ezagutzeak dakarrena.

Aurrefasea azkar igarotzen da, ondoren denbora tarte bat dago GAZEKideak gisa hautatutako pertsona guztiak elkartu baino lehen. Lehenengo eguna iristen denean, GAZEKideek elkar ezagutzen dute dinamiken bitartez, horretaz gain, hausnarketa egiten dute beren burua nola ikusten duten jakiteko. Aurrefasean hausnarketa egin dela egia bada ere, fase honetan partaide bakoitzak proiektuaren inguruko lehenengo sententzioak izan ditu eta horrek aurreikuspenak hobeto finkatzeko aukera ematen die, gainontzeko lankideengandik jasoko dutenari dagokionez, behintzat.

Proiektuaren lehen egunek berebiziko garrantzia dute, GAZEKideak ingurune berrira egokitzan hasi behar direlako. Momentu honetan, gaitasunak bultzatu behar dira, hala nola proaktibitatea eta ekintzailtza. Ez da bakarrik profil ezberdineko jendearen interakzioa eta elkar ezagutza bilatzen, baizik eta GAZEren metodologia didaktikora moldatzea ere.



4. figura

Talde-lanaren prozesuaren bilakaera

Proiektuaren idazkaritza tekniko ezinbestekoa da lehenengo fase honetan: elkar ezagutzeko prozesuan laguntzen dute, GAZEn lantzen diren kontzeptuak ezagutarazten laguntzen dute eta lehenengo erronkak planteatzen dituztenak ere beraiek dira. Gainera, horren bidez zehazten dira aurrerago proiektuei forma emango dieten jarraibideak. Proiektu horiek lehenengo hila-beteetan burutzen dira, eta kasu askotan denbora faktore erabakigarri eta mugatua da, ikasketa kolaboratiboen prozesu honetan.


Amaitzeko, esan genezake GAZEkideen taldeak aniztasun handiko mundu bati aurre egiten diola bat batean, enpatia, proaktibitatea eta moldatzeko gaitasuna behar dituela eta talde bat sortzearen ideia duela oinarri. Lankideen elkartasunak konfiantza atmosfera sortzen du eta horrek helburuak definitzen laguntzen du, konpromisoa sustatzen du eta GAZEren lan-metodologian erabiltzen diren erreminten implementazioa errazten du. Metodologia hori Sibbet y Drexlerrek blog bateko aipamen batean «*team performance model*» deitu zutenaren antzekoa da, ekimen honen beharriaz netara egokituta.

Lehenengo fase honetan lehen lan-taldeak sortzen dira, erronka bakoitzaren beharren arabera. Azpimarratzekoa da lan-talde bakoitzaren barruan rol ezberdinak agertzen direla era natural batean, GAZEkide bakoitzaren izaeraren arabera. Horrek zehazten du bakoitzak proiektuarekiko daukan ardura eta inplikazio maila, proiektuarekiko identifikazio sentimenduarekin batera.

3. 2. Fasea

Bigarren fasea «TALDEAK SORTZEA» da, partaideen gaitasunen eta ikasketen arabera osatuak. Horren helburua ahalik eta talde onenak osatzea da, erronketan planteatzen diren beharrak asetzeko gai izango direnak. Hurrengo pausoa lehenengo fasean identifikatutako behar eta jakin-minak asetzeko ekintzak definitzea da, gizarte erakundeen eta GAZEren arteko kolaborazio baten bitartez. GAZEkideen taldeak aurrerapausoak eman behar ditu saio bakoitzean, hurrengo saioetan emango diren pausoak definituz, nahiz eta hasieran zaila den ikuspegi global bat edukitzea. Azpimarratzekoa da instituzioek, gizarte erakundeek eta GAZEk berak lan metodologia ezberdinak dituztela, denborarekin jabetzen eta bideratzen joango direnak.

GAZEkideen esku dago proiektuetan jorratuko diren gaiak aukeratzea, lehenengo fasean identifikatutako beharretan oinarrituz. Gai ezberdinez beteriko zerrenda batetik abiatuz, lehen pausoa, horietako bakoitzarekin lan egingo luketen gizarte-eragileak identifikatzea izango litzateke. Iradokizunen lehen bahetzea etorriko litzateke eta ondoren GAZEn interesgarrienak suertatzen diren gaiak zeintzuk diren jakiteko galdeketa bat. Azkenik, demokratikoki gizarte-eragileen aukeraketa egiten da, horrela, GAZEkideek beren jakin-minekin bat datozen eragileak aurkituko dituzte.



5. figura

Taldean antolamendua eta proiektuaren aukeraketaren prozesua

5. *figuran* ikus daiteke GAZEren barnerako eta azpitalde bakoitzerako eragileen aukeraketa eta esleipen-prozesua nola burutzen den.

GAZEen landuko diren arazoaren aukeraketa denen esku egon arren, kontuan izan behar da partaide kopurua handia dela. Horregatik, talde txikiagotan banatu beharra dago prozesua ahalik eta eraginkorra izateko. Talde horietako bakoitzak bere eragileekin harremanetan jarri behar du, bien arteko elkarlanaren egitura finkatzen hasteko eta proiektuaren nondik norakoak erabakitzeko.

Fase honetan ikasle-taldeak elkarlana, sorkuntza eta lana gauzatzearen inguruko zailtasunak ulertzen hasten dira, gizarte-eragileekin batera. Esan daiteke bigarren fase honetan ikaskuntzak gora egiten duela nabarmen, proposamen sistematika eta konpromiso beharrezkoak.

4. 3. Fasea

Amaitzeko, 3. fasea dugu, «EMAITZAK ETA BILAKAERA PERTSONALA» deitua. Proiektua amaitzean hausnarketarako tarte bat dago, zeinak modu objektibo batean bilakaera eta lorturiko emaitzak ebaluatzea ahalbidetzen dituen. Fase honetan prozesua fase guztiakin bateratzen da, pausu bakoitza eta egindako akats eta izandako arrakasta guztiak ebaluatuz. Bukatzeko, ebaluazio hori norbanakoei estrapolatzen zaie, 4 hilabete hauetan zehar lorturiko gaitasunen eta jarrerren ikuspuntu global bat lortuz.

Esperezia hau aurreko hilabeteetan lorturiko emaitzen ebaluazioarekin amaitzen da, izan ere, zaila izaten da proiektua aurrera doan heinean modu objektibo batean neurtzea. GAZERen egitura bera da emaitza pertsonalak eta taldekoak ebaluatzerantz bultzatzen duena.

Baloraziorako erabilitako metodologietako bat «Motorola» sistema deiturikoa da. Prozedura honen bidez gure lanaren hainbat aspektu analizatzen ditugu, beti ere modu positibo eta eraikitzaile batean. Horretarako, bost galderari erantzun behar diegu: «zer irten da ondo?», «zer joan da gaizki?», «zertan hobetu dezakegu?», «zer ikasi dugu?» eta «zeintzuk dira ondoren eman behar ditugun urratsak?». Mahai-inguru batean ere analizatzen da, horrela ekitaldi bakoitzean egindako ekintza nagusiak eztabaidatuz. Bi teknika horien bidez bilatzen dena komunikazioa sustatzea eta iritzi eta emaitza ezberdinak eta GAZE kideen ikaskuntza ezagutzea da.

Alderdi interaktiboez gain, txostenek pisu handia dute ikaskuntzaren barruan. Edozein ekitaldi, barneko prestakuntza-dinamika edo proiekturen ostean, puntu aipagarrienak biltzeko dokumentu bat egiten da. Idatziz sistematizatzeak aukera ematen du ikasitakoa eta egindako akatsak gerora hobeto aztertzeko, hala nola egon diren proiektua garatzen ari zen bitartean egon diren zailtasunak antzemateko.

Amaitzeko, esan daiteke GAZE kide bakoitza bere ebaluazioaren jabe dela; izan ere, haiek dira hilabeteak nola joan diren ebaluatzen dutenak. Ikuspuntu global osoak garapenaren ideia errealistagoa eta objektibagoa ematen die. Horrek partaide bakoitzaren motibazioa handitzen du taldearen barruan, eta etorkizunerako hobetu daitezkeen aspektuak identifikatzen ditu. Ikaskuntzaren zati handiena prozesuaren amaieran nabaritzen da, baina oso garrantzitsua da GAZE kide bakoitzaren aurrerapenak dokumentatzen joatea.

5. Ondorioak

Artikuluari ikus daitezkeen moduan, GAZERen proiektuekin egiten den prozesuaren barruan gizarte-eragileak daude. Emaitzak eraginaren arabera neurtzen dira, ez onura ekonomikoen arabera.

Eraginaz ari garenean, esan nahi dugu prozesuan zehar positiboki eragina izan duten dimentsio guztiak, hau da, GAZEKideak bezalako faktore sozialak, eragile sozialak, gaztetasuna eta proiektua bideratuta dagoen pertsoneri. Baina honetaz gain ingurunean eta ekonomikoki jasangarriak diren praktikaldiak sustatu nahi dira epe luzera.

Ez dugu isolatua dagoen proiektu batetaz hitz egiten, baizik eta gaur egungo inguruneko behar eta behar ekonomikoei eta behar sozialei erantzun bezala. GAZEK urtero garapena izanez, inklusibitatea kontuan hartuz, monotonian ez eroriz eta ekintzailetasuna sustatuz.

Prozesu hauei erantzuna emanez, GAZEK GAZEKide taldearen gaitasun horizontalen garapena sustatzen du, ikaskuntzaren prozesu erlazionalak eta inklusiboak bultzatuz. Prozesu horiek eraldatzaileak dira eta eragin positiboak lortzen laguntzen dute, gizartearekin kolaboratuz, lehenago aipatu den bezalaxe.

Eta nola lortzen dugu hori? Esan genezake taldekideen arteko ikaskuntza ahalbideratzen duen diziplina aniztasunean dagoela gakoa. Kontuan izan behar dugu izaera eta jarrera ezberdinak dituzten pertsonekin lan egiteak guztiok arduradun egiten gaituela eta proiektuan guztiok garela parte aktibo. Zentzu horretan, erronka zera da: ingurumen, gizarte eta aniztasunaren ikuspuntutik gure ingurunean sortzeko gai garen eraginak identifikatzea.

Laburbilduz, gure artikulua azpimarratu nahi duena da GAZEKideen prozesu indibiduala eta gizartearekin eta gizartearentzat kolaboraziozko proiektuak egiteko profil ezberdinak nola egokitzen diren.

6. Bibliografia

Sibbet, A. y Drexler, D. «Team Performance Model». *The Grove Consultants International The Grove blog*, 2016ko ekainean kontsultatua: http://www.grove.com/ourwk_gm_tp.htmlhttp://www.grove.com/ourwk_gm_tp.html

Berrikuntza inklusiboa GAZElanki-n

Amaia Iraundegi Gimenez

Diseinu Industrialeko eta Produktuen Garapeneko Ingeniaritza,
Universidad de Navarra

Ane Iturzaeta Agirre

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza eta Ingeniaritza Informatika,
Deustuko Unibertsitatea

Maria Markiegi Mendieta

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza,
Deustuko Unibertsitatea

Izaro Toledo Retegi

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Irakasleen Formakuntza Masterra,
Formakuntza Profesionala eta Hizkuntzen irakaskuntza (MFPS/BBLH),
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Martin Zozaya Apalategui

Antolakuntza Industrialeko Ingeniaritza,
Universidad de Navarra

Borja Luque Martínez

Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea

Julen Ibarra Segurola

Marketing eta Zuzendaritza Komertzialeko Masterra,
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

1. Sarrera

GAZElanki proiektua GAZE programaren barnean dago, eta berau Miguel Sánchez-Mazas (UPV/EHU) Katedraren esparruan. Programa honen helburu nagusia ikasketa metodologia berritzaileak ikertzea eta garatzea da. Zehazkiago esateko, garatu nahi diren zeharkako kompetentziak inizatiba eta ekin-tzaitetasunarekin daude erlazionatuta. GAZE programa urtero garatzen da eta ikerketa eta esku-hartzea dute helburu bere proiektuek. 2014-2015eko ikastur-tean GAZElanki proiektua garatu zen.

Garai hartako Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzako, Landa Gara-peneko eta Turismoko Departamentuak eta goi mailako hezkuntza osatzen du-ten bost instituzioek bultzatu zuten proiektu hori: UPV/EHU, Deustuko Uni-bertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, TECNUN (Universidad de Navarra) eta TKNKA (Lanbide heziketarako ikerketa eta berrikuntza aplikaturiko zentroa). GAZEn parte hartzen dute, hasieratik.

Argi utzi behar da proiektuaren protagonista nagusiak aipatu instituzioe-tako ikasleak direla. Protagonismoa praktika-kontratu baten bitartez proiektuak planifikatu, dinamizatu eta burutzen dituzten ikasleena da. Ikasle bakoitzari GAZEKide deitzen zaio.

2. Helburua

GAZE lehenago aipaturiko zeharkako konpetentziak lantzeko helburua-rekin sortu zen, hezkuntza berrikuntzaren esparruaren elementu praktiko eta konkretuak aplikatuz, ideiak proiektu bihurtzeko asmoan oinarrituz. Helburu nagusiaz gain honako helburu espezifikoak garatzen dira:

- Problematika errealak identifikatu eta lantzea.
- Proiektu errealetan lan egitea diziplina eta erakunde arteko taldeen bi-tartez.
- Parte hartzen duen proiektu desberdinetan autogestiorako gaitasuna lor-tzea.
- Bakoitzaren ikasketaren jabe egitea.
- Goi mailako ikaskuntza-prozesuaren lortutako esperientziak, konpeten-tziak eta ezagutzak elkarbanatzea.
- Egindako lanarekin «erreflexiboa» izatea eta lortutako emaitzak autoe-baluatzea.
- Gizarte-eragileen proposamenekin malguak izatea eta interpretatzen eta negoziatzen jakitea, marko errealaren barruan emandako egoeretara egokituz.

3. Hipotesiak

GAZE lanki proiektuan hasiera batean planteaturiko hipotesi garrantzitsuena-k honakoak izan ziren:

- GAZEKideek beren ikasketarekiko kontzientzia eta erantzukizun parte-katua garatuko zutela, hasieran batean zutena baino handiago lortuz.
- Beren bizitza profesionalean eta pertsonalean egunerokotasunean era-bili ahal izango dituzten konpetentziak eskuratuko zituztela.
- Zeharkako konpetentziak eskuratuko zituztela, normalean goi mailako ikasketetan garatzen zailak direnak osatzen laguntzarekin batera.
- Beste GAZEKideen ikaskuntzan kolaboratuko zutela.

4. Metodoa

GAZEren metodologia gobernantzan oinarritzen da. Bere egitekoa ulertzeko beharrezkoa da GAZEren barne-egitura ezagutzea. Nukleo motorra aurretik aipatutako GAZE-kideek osatzen dute, diziplina eta zentro desberdinetako ikasleek. Ikasleria Idazkaritza Teknikoak gidatzen du; azken horrek bitartekari funtzioa, alegia dauka proiektuko parte-hartzaileen (GAZE-lanki gure kasuan) eta instituzioetako ordezkarien artean (unibertsitateak, lanbide heziketako zentroyen sarea, Gipuzkoako Foru Aldundia eta gizarte-eragileak).

GAZEren barruan gobernantzaz ari garenean, ikasleriaren parte-hartze aktiboaz ari gara, proiektuaren ziklo osoan zehar. Zikloa funtsezko lau printzipiotan oinarritzen da: parte-hartzea, pluraltasuna, konpetentziak eta kultura. Errealiterara eramateko hainbat inizatiba eta ekitaldi garatzen dira, ikasleriaren sensibilizazio eta formakuntzarako balio dutenak, berrikuntzaren eta lehen aipatutako konpetentzien esparruan. Bestalde, proiektuen ideia eta gauzatzea, gizartearen beharrei erantzuten dieten gizarte-eragileekin batera lan eginez.

GAZE-lankiren bi oinarri nagusiak hezkuntza berrikuntzaren arloko *crowd-learning*-a eta «berrikuntza inklusiboa» izan ziren. Jarraian, bi kontzeptuak nola ulertu eta interpretatzen ditugun azalduko dugu:

Crowdlearning-a gainontzekoekin daukagun interakzioan oinarritutako ikasketa modua da. Besteek eskaini dezaketena aprobetxatzean datza, era berean, bakoitzak dakiena eskaintzen duen bitartean. Horrela, ezagutza, ideia eta pentsamenduen arteko hartu-emana gertatzen da, pertsonak eta proiektua aberastearekin batera. Metodoa ikuspuntu bezala jartzen du, eta hezkuntza tradizionalarekin edo *e-learningarekin* (internet bidezko hezkuntza) sortzen diren arazoetatik haratago eramaten gaitu. *Crowdlearning*-ak ezagutza bertikalki elikatzen den zerbait baino gehiago dela ikusararazten du, kooperazioa eta interakzioa ere estimulatzeko dituelako.

Metodologia hori giza faktorea presente dagoen esparru guztietan aplikatu daiteke. Ideia ugari daude, ezagutza eta informazio ezkutua pertsonen eta erakundearen barnean. Sortu daitezkeen soluzio eta ideia berriak erakundeko beste pertsona batzuen atzeraelikadurarako erabil daitezke, taldearen erresistentzia, sormena eta efizientzia indartuz.

Talde guztietan hainbat diziplinetako ikasleak daude, emaitzaren aberastasuna bermatzen dutenak. Ezagutza eta pentsamoldea partekatzen dugun sinergia honen bitartez, bakoitzak uste baino gehiago garatu dezake bere potentziala. Hortaz, kasu honetan $1 + 1 = 3$ formula aplika daiteke, talde-lanaren bitartez bakarka baino gehiago lortu baitezakegu. *Crowdlearning*-ari esker, lortutako emaitza alderdien batura baino harago doa.

Metodo hori oso erabilgarria da etengabe garatzen eta aldatzen ari diren industrientzako: etengabeko ikasketa bat da, ezagutza, ideia eta esperientziak uneoro sortzen direlako. Bigarren mailako rol bat izaten duten pertsonak beren sormena landu gabe izaten dute, parte hartzeko, aktibo izateko eta ideiak elkar-

banatzeko gogoia badute ere. *Crowdlearning*-ari esker, eduki bateratu horretara iristea lortzen da, taldearen inizatiba orokorra handituz.

GAZEren kasuan, *crowdlearning*-a oso erabilgarria da ikasle aniztasuna dela eta. Gradu beraren barnean desberdintasunak badira nabariak eta zer esanik ez ingeniari, informatika, antropologia, psikologia eta beste gradu batzuetako pertsonak batzen direnean. Bestalde, dibertsitate hori ez da ikasleentara mugatzen; unibertsitate, instituzio, gizarte-eragileek eta gizarteak berak ere egiteko garrantzitsua dute eta. Prozesuan laguntzeaz gain, GAZE-kide taldeak egindako ekintzei erantzuna ematen diotenak dira.

Era berean, GAZE-lankin «berrikuntza inklusiboaren» inguruan egin zen lan. GAZEren helburuetako bat berrikuntza inklusiboa proiektu errealean bitartez sustatzea eta irakastea da, inklusio eta eskusioaren arteko tentsioak landuz proiektu eta prozesu desberdinetan.

Aurrera jarraitu baino lehen, argitu beharra dago nola ulertzen dugun inklusibotasuna. Edozein proiektuarekin lan egiterako orduan, GAZE-k azken emaitzaren aurretik jartzen du prozesuak berak duen balioa. Zentzu horretan, inklusibitatea etengabeko erantzun bilaketa bihurtzen da, efizientziara modu zuzen batean iristeko saiakera edo erronkaren aurrean dugun jarrera: bilatzen dena zer den eta nola bilatu behar den jakiteko etengabeko apustua da.

Baina zein da horrek berrikuntzarekin duen lotura? Zerbait berritzailea edo berria denean, ezezaguna da era berean: baliteke hori onerako edo txarrerako izatea, baina berrikuntzak «oraindik ez jakitea» esan nahi du. Hori horrela izanik, eremu ezezagunak esploratzerako orduan, arriskatu eta ondoren datorrena irudikatzea besterik ez zaigu geratzen. Momentu horretan hartzen du parte inklusibitateari buruzko jarrera erreflexiboak: zein da berrikuntzak izango duen eragina? Zein sektoreri eragingo dio? Noiz esango dugu zerbait efizientea dela? Zer da sakrifikatu nahi dena, zer ez?

GAZE-lanki berrikuntza laborategi bat izan zen. Bilatzen zena ez zen produktua bera soilik, ikaskuntza prozesua bera ere bilatzen baitzen. Ikasketa prozesuan bertan nabaritu zen, gizarte-eragileekin eta problematika errealekin egindako etengabeko lanak egokitzeko malgutasuna eskatzen baitu. Lan egiteko moduak, arazoei aurre egiteko erak, etengabeko barne-erronkak dakartza, planteatutako erronkari ahalik eta modurik inklusiboenean erantzun behar baitzaio: garatu litezkeen metodologia desberdinak ikusiz, esparru desberdinetan izan litzaken eraginak kontuan edukiz. Eragileen parte-hartze maximoa lortu nahi zen, inguruko arriskua gutxitu, ahalik eta berdintasun sozial handiena edo eta desgaste ekonomiko urriena, besteak beste.

Barne helburu nagusia beste proiektuetan lanean jarraitzeko jarrera inklusiboa eskuratzea zen: inklusiboa izaten ikastea zen helburua. Ez soilik GAZE-kideentzat, baizik eta taldearekin elkarlanean ibili pertsona guztientzat ere bai.

GAZE-lankiko proiektuen garapenak lau fase izan zituen: 1) Muntaiia; 2) Taldearen osatzea, problematika errealean identifikazioa eta definizioa; 3) Ideia pentsatu eta, gizarte-eragileekin batera, perspektiba zabal batez lehenengo

eredua finkatzea eta 4) Garapena eta jarduna gizartearekin kontaktuan egitea. Fase bakoitza artikuluan garatuko dugu.

Proiektu bat garatzerako orduan, GAZEk prozesu bera jarraitzen du urtero. Prozesu hori globo aerostatiko baten zikloarekin konpara daiteke; aire-ratu, behean dagoenaren ikuspegi zabalago bat lortu eta beharrezko tokietan lurreratzen dena. Hori dela eta, globoaren metafora erabiliko dugu jarraian GAZELankik 2014-1015 urtean nola funtzionatu zuen azaltzeko.

Jarraitu aurretik, beharrezkoa da argitzea gure globoaren helburua ez dela ilargiraino iristea, ezta urrutiko lurra konkistatzeko itsasoak gurutzatzea ere. Benetako helburua gurea denaren perspektiba zabal bat eskuratzea da, gure egunerokotasunean ekin eta identifikatzen ditugun problematikei irtenbidea aukeratzeko, gero.

Prozesu honetan lau fase bereizten dira: muntaia, lehen bidaia (GAZE soilik), bigarren bidaia (gizarte-eragileekin batera) eta lurreratzea. Lehen fasean, Miguel Sánchez-Mazas Katedrak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko goi heziketako 5 instituzio nagusiak eta Idazkaritza Teknikoak sortzen dute garraibidea.

GAZEkideak bigarren fasean sartzen dira. Ikasleriak diziplina eta instituzio desberdinetatik etorrira, Idazkaritza Teknikoaren bitartez hainbat instrumentu jasotzen ditu hegan egin ahal izateko. Behin aireratuta, problematika desberdinak identifikatu ditzakete ikasleek lehenago ezagutzen ez zuten ikuspuntu batetik. Garrantzitsua da azpimarratzea globoa garraioa dela, baina bidaiariak direla bertatik begira ari direnak: bakoitzak bere ikuspegia dauka, neurri handi batean bere formazio akademikoarekin lotzen dena, eta horrek begiratzeko modua eta diagnostikoa aberastea dakarkio bidaiari. Ondoren, globoa berriz lurreratzen da eragile sozialarekin batera erronka definitzeko, jarraian bi globoak berriz aireratzeko beren amaierako helburura bideratzeko.

Azaldu beharra dago Idazkaritza Teknikoa globoa ikasleriaren gain uzten joaten dela pixkanaka, beraiek erabaki dezaten beren ibilbidea. Globoaren lastrea izango liriteke: hau da, oreka mantentzen laguntzen bidaiariak konfiantza irabazten ari direla ikusi arte. Behin globoak goian mantentzeko borondatea eta gaitasuna duela ikusita, jaisten doaz pixkanaka, globoaren igoera ahalbidetzeko.

Hirugarren fasean bi globoak goian daude eta elkar komunikatuta jarraitzen dute. Lehenik, ikerketa fase bat dago, non bestea ulertu behar den, modu hobean jakiteko zein egoerari egiten dioten aurre. Ondoren, ikasi dutena definitu eta arazoari mugak jarri behar dizkiote, egingo dutenari zentzua bilatzeko. Jarraian ideia finkatzeko fasea dator, zeinetan ideiak sortu, definitu eta aukeratu behar diren, aurre egiten ari diren erronkari erantzuna emango diotenak. Azkenik, lurreratu aurretik beharrezkoa da ideiak prototipatzea, ondo funtzionatzen duten edo aldatu behar diren ikusteko.

Prozesu hori ez da lineala, beti bueltatu baikaitezke atzera punturen bat birmoldatzeko eta modu zuzenago batean jarraitu ahal izateko. Gainera, oso

gomendagarria da hori egitea, hobekuntzak berriro planteatzen ari garela esan nahi baitu, errealtatera hobeto egokitzeko saiakerak egiten ari garela.

Hala ere, helburua argi dago: eta eragile sozialekin batera lortutako emaitzak ebaluatzea lortu nahi da.

Azkenik, laugarren fasea dugu, lurreratzearena, hain zuzen ere. Fase honetan, globoa lurrera jaisten da eta programatua izan den bezala jarduten du. Aurrez definitutako proiektua garatzen da, bigarren fasean hautemandako problematikari irtenbidea aurkituz.

Metaforarekin amaitzeko, esan beharra dago globoak suari esker duela igotzeko eta jaisteko gaitasuna. Sugarrek globoa igoarazten dute; indarra dira, ahalmena, bidaiako txinparta. Biziz betetako sugarrek konpetentziak dira, proiektuko partaide guztien artean egindako lanari esker garatzen ditugun gaitasunak. Bidai horren ostean, GAZEKideek globo bat pilotatzen jakingo lukete: igo eta jaitsi ahal izango lirake eta ibilbidean zehar ikasitako gaitasunak erabiliko lituzkete etorkizunean. Honela, bidai berriei ekin eta ezaguera partekatzeri ekingo liokete.

Bidaia honen azalpen enpiriko gisa, Hegaldi¹ gizarte-eragilearekin batera eramandako proiektua erabili dezakegu. Proiektu honek kartzelaren inguruko mitoak suntsitzea zuen helburu. 10 GAZEKideek parte hartu zuten proiektu horren garapenean, 2 Gipuzkoako goi hezkuntzako instituzio bakoitzeko. Diziplina desberdinetako ikasleak, hala nola, Zuzenbidea, Ingeniaritza, Enpresen Kudeaketa eta Zuzendaritza, Ingurumena eta LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza). Era berean, Idazkaritza Teknikoak bidaia osoan zehar laguntza eskaini zuten, baina batez ere aieratzean, non ikasle taldea osatu zen eta erronka errealak identifikatzen hasi zen.

Problematika errealean identifikazioan GAZEKideen lana funtsezkoa izan zen, baina batez ere, problematika horiei erantzuna ematen zieten eragile sozialen hautematean. Lantzen ari garen proiektuaren kasuan, GAZEKideei interesgarria iruditu zitzaion kartzelaren gaia lantzea baina horren inguruko aurreiritziak suntsitzea ere. Gaia aukeratu ondoren, Hegaldirekin kontaktuan jartzea erabaki zuten. Hegaldik hurrengo erronka proposatu zien: «Kartzelaren inguruko mitoak hautsi». Hortaz, erronkari erantzuna emateko, Nafarroako Unibertsitatean tailer bat aurrera eramatea erabaki zen. María Teresa Valencia gonbidatu zen, kartzelan egondako emakume bat, baita Laura Pego

¹ Hegaldi Donostiako elkarte bat da, Martuteneko kartzelan dauden emakumeen egondia errazten saiatzen dena. Horrez gain, kartzelatik atera ondoren babesa emateaz arduratzen dira, baita gizartean integratzeaz ere, horrek izan ditzakeen arazo guztiekin. <http://www.hegaldi.com/>

² AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) euskara berreskuratzea eta Euskal Herria berreuskalduntzea helburu duen elkarte da. Bi urtero, AEK Korrika antolatzen du, euskararen aldeko inizatiba jendetsuenetarikoa. <http://www.aek.eus/index.php/es/>

³ Basherrri, Gipuzkoako kontsumo taldeen sare bat da. Bere helburu nagusiak kontsumo arduratsua bultzatzea, lan baldintza duinak ziurtatzea eta landa garapena eta ekoizpen ekologikoa indartzea dira, biodibertsitatea eta lurraren emankortasuna hondatu gabe. <https://basherrri.wordpress.com/>

ere, Kriminologiako Euskal Institutuko kriminologoa. Horiez gain, Brais Varela, Martuteneko kartzelan preso etorkinekin lan egiten duen Gurutze Gorriko langilea eta María Jesús Laberdi Etxeandi eta Mamen Guimerans ere egon ziren, Hegaldiko borondatezko langileak eta elkarteko sustatzaile nagusiak. Ekitaldia baino lehen, GAZEKideek zabalkunde eraginkor bat eraman behar izan zuten aurrera, (sare sozialak, kartelak), komunikatzeko gaitasuna hobetuz. Ekitaldian zehar, unibertsitateko ikasleez eta pertsona adituez osatutako mahai tematiko desberdinen arteko dinamizazio lana egin zuten. Azkenik, garatutako proiektuaren barne-ebaluazio bat egin zen, eta horrela, autoebaluazioaren konpetentzia landu ahal izan zen.

Gainera, Hegaldirekin landutako erronkan beste problematika batzuekin ere egin behar izan zuten topo, non bi gizarte-eragilek erronkak proposatu zituzten eta horiei eta biei eman behar zitzaizkien erantzunak. Halaber, 3 erronka landu ziren: jada azaldutako Hegaldiren erronka, AEKren erronka, ikasleen artean euskara bultzatzea oinarri zuena, eta Basherry-ren erronka, elikadura subiranotasunarekin eta kontsumo lokalarekin erlazionatua.

3 erronka horiek eskuetan izanda, GAZEKideen taldeak konpetentziak garatzea lortu zuen, beste baldintza batzuetan horiek lantzea ezinezkoa izango zelarik. Gizarte-eragileekin kontaktuan jartzean, kasu honetan Hegaldirekin, komunikazio eraginkorra eta talde lanean aritzeko gaitasunak landu ziren. Horrez gain, lana hobeto antolatzea eta denbora era eraginkorrean kudeatzea lortu zuten. Azkenik, proiektua inolako laguntzarik izan gabe aurrera eraman behar izan zenez, autonomia, erantzukizuna eta proiektuak zuzentzeko gaitasuna eskuratu zuten.

GAZELankiko ebaluatzeko metodologiari dagokionez, ikasleen eta idazkaritza teknikoaren autoebaluazioa etengabekoa izan zen. Horrez gain, GAZEko kolaborazio sareko parte-hartzaileen ebaluazio bat aurrera eraman zen. Alde batetik, egitura osatzen duten pertsonen eta entitateen ebaluazio jarraitu bat egin zuten, gobernantza printzipioa efektibo bilakatzen duena. Bestalde, gizarte-eragileen eta proiektuen onuradunen ebaluazio bat jaso zen. Azkenik, GAZEko egiturako pertsona eta erakunde guztien artean azken ebaluaketa bat egin zen eta etorkizuneko ekintzak proposatzearekin batera.

5. Proiektuko faseen emaitzak

Proiektuko partaideek era positiboan ebaluatu zuten esperientzia, ikasketak beharren kontzientzia handiagoa gailenduz eta hauei erantzun emateko baliabideak eskainiz. Horrela, beraien trebetasunak eta ezagutzak sendotu eta finkatu zituzten. Era berean, instituzio eta formakuntza akademiko desberdinetako ikasleekin egindako lanari esker, ezaguera berriak eskuratu zituzten, beraien egunerokotasun profesional eta pertsonalean aplikatu ahal izango dituztenak.

GAZElanki proiektuak kompetentzia desberdinak praktikan jartzea eta ikasleen ikasketa prozesuaren ahalduntzea izan zuen oinarri, proiektuen garapenean rol aktiboa izanik. Gizarte-eragileekin burututako proiektuen garapenean zehar, GAZEKide taldeak gizarte errealitatearekin kontaktuan jarri ziren eta problematika errealak identifikatzeko ahalmena izan zuten. Ezagutza eta kompetentzia berriak eskuratu zituzten, hala nola, jardueren planifikazioa, gastuen aurreikuspena, arazoei konponbidea emateko negoziazioa, krisi egoeren ebazpena eta komunikazio eraginkorra (ahozkoa eta idatzizkoa).

Hortaz, uste dugu GAZElanki proiektua garrantzitsua izan daitekeela orokorrean goi hezkuntzako zentroetan garatzen ez diren kompetentziak eskuratzeko. Kompetentziak praktikan jarri (*learning by doing*) eta ikasleen ikasketa prozesuaren ahalduntzean oinarritzen baita.

Kompetentzien garapena bi fase desberdinetan bana dezakegu. Aurreneko fasean, taldea sortzen denean eta problematika posibleak aztertzen direnean, honako kompetentzia hauek lantzen dira, besteak beste: formakuntza akademikoko kontzientziarioa; beharren, ikuspuntu eta egoeren adierazpena; perspektiba desberdinen interpretazioa ikasi eta ikertzea; entzute aktiboa eta sortzailea garatzea; talde-lana; argudioen elaborazioa eta defentsa; enpatia eta guztien arteko garrantzitsuena, diziplina arteko integrazioa lantzea. Azken finean, gure beharrak azaltzeko beharrezkoak ditugun gaitasunak lantzen dira, pertsonen arteko erlazioak kaltetu gabe. Horrez gain, gure kideen ideiak entzuten ikasten dugu, hau da, asertibitatea lantzen dugu, benetan baliagarria dena talde-lanean aritzean, komunikazio eraginkorragoa lortu ahal izateko eta taldeko partaideen artean ulermena lortu ahal izateko, efizientzia eskuratzear gain. Gainera, talde-lanean aritzean, taldeko partaideen eta eragile sozialen helburu partekatutako kolaborazioa eta integrazioa era aktiboan garatzen dugu. Beharrezkoa da arazoan irtenbideen bilaketan parte-hartze aktiboa izatea, gure sozializazioa eta interes pertsonalak lantzea, taldean osotasuna eta zintzotasuna sortzea eta lankidetzaren eta elkarkidetasun baliok sustatzea. Horretarako, enpatia kompetentzia gisa lantzen dugu, beharrezko ikusten baitugu bestearen aldean jartzea, bere errealitatearen ikuspegia, jarrera eta iritzia ulertzea, aurretik aipatutakoarekin erlazionatua dagoena, hau da, entzute aktiboa eta asertibitatea garatzea talde lanean aritu ahal izateko. Jada aipatu dugun bezala, diziplina arteko izaera nabarmendu nahiko genuke, izan ere, GAZE, diziplina desberdinetako eta beraien artean erlazionatutako taldeez osatuta, ekintzak era isolatuan garatzea saihesten du, arazoan dimentsio desberdinak integratuko dituzten irtenbideak aurkituz.

Horrela, ezagutzak sortzeko egoerak eta alderdiak integratzeko beharra sortzen dugu eta arazo konplexuen ebazpenetarako ikuspegi metodologiko berrien garapena sustatzen dugu. Hots, integrazio honen bidez eremu metodologiko bat eskaintzen dugu, non urtero proiektua osatzen duten diziplina desberdinak konbinatzen diren, elkarlotu ahal izateko eta bakoitzak eskaintzen dituen abantailak hedatu ahal izateko.

Bigarren fasean taldeak proiektu desberdinetan lan egiten dute. Etapa honetan gaitasun hauek sustatzen dira: antolakuntza, planifikazioa, inplementazioa, errebisioa eta ebaluazioa, sormenaren garapena eta ikasleriaren zeharkako konpetentzien sendotzea, konfiantza eta portaera ereduaren aldatzea, lan bateratua pertsona, familia, talde, erakunde eta komunitateekin, horien beharrak eta baldintzak baloratzeko, administrazioa eta erantzukizuna, autonomia maila egokiarekin osteko ikasketak burutu ahal izateko gaitasunen garapena, komunikazio eraginkorra, negoziazioa eta trukea eta aurreko fasean bezala, integrazioaren konpetentzian nabarmentze berezia egin nahiko genuke, kasu honetan komunitatekoan. Bigarren fase honetan, problematika zehatz baten aurrean ideiak eta konponbidea garatzen dugu. Horrela, arazoei irtenbidea emateko gaitasuna ikuspuntu desberdinetatik jorratzen dugu, baita orijinaltasuna ere. Kapaz izaten gara proiektu indibidualak eta kolektiboak imajinatu, sortu, garatu eta ebaluatzeko; sormen, konfiantza, erantzukizun eta kritikotasun zentzuarekin. Edukiera berezia duen beste trebetasunetako bat komunikazioa da. Izaki sozialak gara, gure bizitzaren parte handienetako bat beste pertsona batzuekin partekatzen dugu. Beraz, elkarri entzuten ikastea, beste pertsonekin elkar ulertzea eta egoera sozialetan modu egokian funtzionatzen jakitea garrantzitsua da. Entzuten jakitea gaitasun garrantzitsuenetarikoa dela uste dugu, prozesu komunikatiboa dela zailena. Gehiago egoten gara geure emisioei begira, eta horrela komunikazioaren esentzia galtzen da, hau da, partekatzea. Beraz, esan nahi duguna adierazten ikasten dugu, modu argi eta zuzenean, momentu eta leku egokian, ahalik eta modu egokienean.

6. Ondorioak

Egindako azterketaren arabera, ondoriozta dezakegu hasieran proposatutako hipotesietan eboluzio eta aldaketa nabariak eman zirela.

Lehenengo hipotesia bete zen, GAZEkideek hasieran zutena baino ikaskuntza kontzientzia nabariagoa hartu zuten unetik. Puntu honek GAZEren ikasleriaren garapen integralaren balioa adieraziko luke.

Bigarren hipotesia ere bete zen, GAZEkideak euren egunerokotasunean erabili ahaliko dituzten ezagutza berriak bereganatu zituztelako, bai maila pertsonalean, baita profesionalean ere.

Hirugarren hipotesia bete zen, GAZEkideek konpetentzia osagarriak garatu zituztelako, goi mailako ikaskuntza curriculumetan garatutakoez gain.

Era berean, GAZElanki proiektuak asea ikusi zituen bere helburuak, hasieran proposatutako jarduerak modu egokian garatu ahal izan zirelako, ikasleriaren ahalduntzearekin batera, ikaskuntza prozesuan eboluzio nabaria eman zela ikusi zelako. Gainera bertan, berrikuntza inklusiboaren, errealitate sozialaren, gobernantzaaren, ekintzaitzaren eta ikaskuntza kolaboratiboaren inguruko gaiak barneratzea lortu zen.

Egindako ebaluazioen arira, GAZElanki parte hartu zuten hainbat eragilek oso esperientzia positibotzat baloratu zuten proiektua: bai arlo akademikoan (*learning by doing*) baita arlo pertsonalean ere (autoezagutza, autoebaluazioa, iniziatiba). GAZEkideek ezinbestekotzat hartu zuten bizitako esperientziaren difusioa eta orokortzea, modu horretan GAZE proiektua eta bertan bereganatutako ikaskuntzak, goi mailako beste hainbat ikasleei iristen utziz. Halaber, GAZEkide taldeak GAZE proiektuaren eta horren garapena dakarten ikaskuntzen biderkatzaile eta anplifikadore modukoak izan ziren; euren ikaskuntza prozesuaren erantzunkide bihurtzeko balio izan zietela ziurtatu baitzuten.

7. Erreferentziak

GAZE *Konpetentziak, ekimenaren zentzua eta ekintzaitetza Goi Hezkuntzan*, Euskal Herriko Unibertsitatea Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2011.

Unibertsitate Inklusiborantz

Beñat Azaldegi Lakuntza

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko
Zuzenbide graduko ikaslea

Lide Gil Pascual

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko
Erizaintza graduko ikaslea

Gorka Otermin Balda

Deustuko Unibertsitateko (DBS) ADE
eta Ingeniaritza Informatikoko gradu bikoitzeko ikaslea

1. Sarrera

GIPUZKOA: GAZTE EKINZALE (GAZE) programak, kultura ekintzailera sustatzea helburu du Gipuzkoako goi mailako ikasleen artean. Hau lortzeko, sentsibilizaziozko ekintza ugari burutzen dira. Era berean, iniziatiba eta ekintzailatzarekin erlazionaturiko kompetentzia desberdinen garapenarena aurrera eramaten dute.

GAZE Promozio Ekonomikoko Departamentuak, Landa Inguruneak eta Foru Aldundiko Lurralde Orekak sustatutakoa da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko goi mailako hezkuntzako bost erakunderekin batera: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, TECNUN eta Euskal Herriko Formazio Profesionalerako Berrikuntza Zentroa (TKNIKA).

Artikuluaren xedea

Dagokigun artikuluan, GAZE proiektuan 2016. urtean parte hartu dugun ikasleok zuzenean bizitako esperientziak agerian jartzen ahaleginduko gara.

Proiektuaren diziplinarteko formakuntzatik abiatuz, urtero, programako partaideek proposatu eta hautatutako gizarte-eragile ezberdinekin proiektu errealak burutu dira. Gainera, 2016. urtean, proiektu hauen baitan «berrikuntza barne-hartzaile» kontzeptua lantzen ahalegindu zen, kontzeptu berri bat, oso

interesgarria, baina erronka gehigarri bat ekarri ziena beren proiektuetan aplikatzen saiatu ziren GAZEKideei. Artikulu osoaren oinarria hori izango da; izan ere, kontzeptua lehenik modu teorikoan aztertuko dugu, eta ondoren, praktikan nola jarri genuen azalduko dugu.

Hala bada, kontzeptu hau proiektuetan esploratu eta aplikatzea proposatu zen GAZEren barruan, baina gure galdera zera zen: zein puntutaraino izan dira inklusiboak gauzatu diren proiektuak, eta zein zailtasun topatu dira bide horretan? Hortaz, artikulua hasieran, gure ikuspuntutik GAZEren eta «berrikuntza» kontzeptuaren hausnarketa egingo da, eta gizarte-eragileekin batera diseinatutako proiektuak aztertuko dira berrikuntza barne-hartzailearen esparruan.

2. Nola ulertzen dugu GAZE GAZEKideek?

GAZE deituriko programa honen protagonistak ikasleak dira. Taldea osatzeko, lehenago aipaturiko bost instituzioetako gazteak aukeratzen dira praktika kontratuen bitartez. Horrela, aukeraturiko ikasleria GAZEren nukleo sustatzailea izango da, betiere programak eskaintzen duen lan eta ikaskuntzaren protagonista izango direlarik.

Hautatutako ikasleak instituzio desberdinetakoa izanik, parte-hartzaileen profil eta estiloak oso desberdinak dira. Gainera, garrantzi berezia ematen zaio partaideen profilak anitzak izateari; izan ere, GAZEren oinarri garrantzitsuenetako bat zera da: «Aniztasunetik kapazitate handiagoa sortzen da». Hori dela eta, ikasleriaren profil anitzari eta GAZE programako lehenengo saioetan lantzen den teoriari esker, zeharkako kompetentziak lantzea posible da. Kompetentzia horiek unibertitate geletan eskaintzen den ohiko irakaskuntzan ez dira lantzen normalean, ez daude hezkuntza sistema tradizional batean errotuta.

Aipaturiko kompetentzia horiek pertsonak garatzen dituzten ezagutza, trebetasun eta jarrera multzo bat dira, zenbait lan edo egiteko modu eraginkorrako batean burutzea ahalbidetzen dietenak. Beste kompetentzia batzuen artean, lantaldean aritzea, komunikazio eraginkor bat izatea, ikertzen ikasteko erremintak lortzea eta abar dauzkagu (Castro Spila *et al.* 2011). Modu honetara, partaide diren pertsonen heziketa aberasten saiatzen da, beraien hezkuntzarekiko osagarriak diren kompetentziak lortzen baitituzte. Hau da, GAZE programa sortzearen arrazoietako bat hauxe da: gazteriari beren garapen pertsonal eta profesionalerako hain garrantzitsuak diren kompetentziak lantzeko aukera eskaintzea. Era berean, kompetentzia horiek gazteriaren artean garatzeak, gizarteak aurreapenean jarrai dezan eta gizarte justuago baterantz bidera dadin ahalbidetzen duela uste dugu.

GAZE ekimenaren zentzua eta kultura ekintzailea sustatzea ahalbidetzen duten kompetentzien garapenean egituratuta dago nagusiki. Hori proiektu errealak aurrera eramanez lortzen da, hori baita oinarri nagusia. Gainera, al-

dizkakotasun nabariarekin beste gai edo ikuspuntu osagarri batzuk ere lantzen dira, urtero sortzen diren beharren menpe daudenak eta urtez urte aldatzen edo aldatzen doazenak. Ikuspuntu osagarri hori sartzeak erronka berri bat planteatu zuen, zeharkako gaitasunen garapenaz aparte. Adibidez, 2016 urtearen kasuan, garatu beharreko ikuspegi osagarria «berrikuntza barne-hartzailea» izan zen. Honek, programan burutu ziren proiektuei konpromiso maila handiago bat eskatu edota eranstea ekarri zuen: inklusibitatea ardura sozial berri bat bezala ulertua. Aurrerago hitz egingo dugu horretaz.

3. GAZE 2016ko proiektuak

Ekimenaren zentzuaren eta kultura ekintzailearen sustapena, Europa 2020-ren Estrategiaren baitan proposatutako ekimen adierazgarrietako bat da (Merino Egea, 2012). Horrek erakusten du GAZEk gure inguruan egiten duen lanak duen garrantzia, Europa mailan helburutzat hartutako prestakuntza bat eskaintzen baitu.

GAZEk testuinguru zabal bat barne hartzen duen ikuspegi dauka (izaera sortzailea, berritzailea eta ekintzailea) eta gizarte-eragile ezberdinekin batera lan egitean zentratzen da. Eragile horiek interes komuneko problematika sozialei erantzuna emateko xedea dute. 2016an, ondorengo eragileekin egin genuen lan gure proiektuak aurrera eramateko:

- *Acabe*: Anorexia eta Bulimiaren aurkako Euskadiko elkarte.¹
- *Emaús*: Gizarteratzearen, ekonomia sozial eta solidarioaren, eta mundua eraldatzeko hezkuntzaren alorrean lan egiten duen elkarte.²
- *Aranzadi Zientzia Elkarte*: Hainbat diziplina zientifiko barne hartzen dituen elkarte, ondorengo alorren eragin handiarekin: Biologia, Historia, Arkeologia, Medikuntza, Antropologia, Etnografia, Geografia eta Geologia.³
- *Gautena*: Gipuzkoako Autismo Elkarte.⁴
- *Bidelagun*: Etorकिन integrazioan jarduten duen irabazi asmorik gabeko elkarte.⁵
- *Piztu*: Energia berriztagarrien inguruan lan egiten duen elkarte.⁶

¹ Anorexia eta Bulimiaren aurkako Euskadiko elkarte. (2016). ACABE Gipuzkoa: Nor gara? <http://acabeuskadi.org/> webgunetik berreskuratua.

² Emaús. (2016). Zer egiten dugu? Recuperado de <http://www.emaus.com/>

³ Aranzadi Zientzia Elkarte. (2016). Zer da Aranzadi. <http://www.aranzadi.eus/> webgunetik berreskuratua.

⁴ Gautena, Gipuzkoako Autismo Elkarte. (2016). Gautena: inicio. <http://www.gautena.org>

⁵ Bidelagun. (2016). Bidelagun: Quiénes somos. <http://www.bidelagun.com> webgunetik berreskuratua.

⁶ Piztu. (2016). <http://www.piztu.info> webgunetik berreskuratua.

- *Kultura Alternatiboa*: Jada existitzen diren artisten bateratze eta ikustaraztea.⁷

Proiektuaren lehen asteetan, partaideen artean ekimenaren zentzua sustatzean erdiratzen da GAZE programa. Hala, lehen fase bat antolatzen da, ikasleen interesa pizteko eta egun gure gizartean dauden arazo jakinen ondoriozko eskaera errealean inguruan motibatze eta sentsibilizatzeko. Horretarako, programak, askotariko ekintza eta topaketak antolatzen ditu. Ondoren, eta behin ikasleriak ekimenaren zentzuaren kontzeptua barneratuta duenean, diziplina arteko taldeen bidez, interes sozialeko problematika konkretuei irtenbidea aurkitzen ahalegintzen diren proiektuak garatzen dira. Ikasleek arazoa identifikatzen dute, bai eta zein eragile sozialekin lan egin nahi duten berau konpontzeko. Eragilearekin harremanetan jartzen dira, eta lehen kontaktua egiten da. Fase honetan, ikasle-taldeak ekimenaren zentzua garatzen hasten dira; izan ere, beren idealen kideko proiektuak aukeratzen dira, balio sozial jakin batekoak direnak, eta haiekin harremanak ezartzeko lan egiten dute. Hirugarren fase batean, eta modu guztiz kolaboratiboan, eragileak duen izaera sozialeko arazoari konponbide bat emateko proiektu bat gauzatzen da; era horretan, gizarte-eragilearen eta GAZE kideen taldearen arteko elkarrekiko ikaskuntza sustatzen delarik. Aipatutako faseak sakonago aztertzen dira liburu honetako «Ikaskuntza-faseak GAZE proiektuan» deritzon artikuluan.

Laburbilduz, esan dezakegu GAZE programak lankidetzarekin hertsiki lotutako formakuntza eskaintzen diola ikasleriari, sistema tradizionalagoa oinarritzat duten instituzioetan ematen denarekiko ezberdina. Aipatutakoa oso interesgarria eta positiboa da, izan ere, gaur egun, goi-hezkuntzako instituzio asko daude era honetako formakuntzarekin lan egiten dabiltzanak; hots, ikaskuntzaren eredu aktiboago eta erlazionalagoak barne hartzen dituztenekin.

4. Zergatik ez Unibertsitate Inklusiboa?

Unibertsitate tradizionalak irakaskuntza akademikoan oinarrituriko eredu batekin lan egiten du, non ikasleak, aurrez aurreko eskola teorikoetan parte hartzen duen, entzule pasibo gisa. Irakaskuntza mota hori teorikoezia eta praktikotasun gutxikoa da. Eredu tradizional honetan, irakaslearen autoritateak eta honek dioenak du garrantzi handiena; ikasleriak duen autonomia eta parte-hartze aktiboa kontuan izan gabe. Dinamika honek, kasu gehienetan, ez ditu jarrera erreflexibo ez kritiko baterantz bultzatzen ikasle gazteak. Horrela, ondorio gisa, ikasleriak ez du azaltzen interesik ikasten ari denarekiko eta irakasleak esandakoarekin gelditzen da, ikasitakoa zalantzan jartzen ikasi gabe eta jarrera guztiz pasibo bat hartuz (Merino Egea, 2012). Era horretan, unibertsitate tradizionalaren helburu nagusia informazioaren biltegitratze mekanikoa da; gero,

⁷ Kultura Alternatiboa. (2016). Zer da KA? <http://kulturaalternatiboa.com/?lang=es> webgunetik brrreskuata

ikasitakoa azterketa batean islatu beharko da eta instituzioarekiko endogenoak diren ebaluazio-sistemen arabera kalifikatuko da. Horiek ez dituzte ikasleen formakuntza eta ikaskuntza prozesuan garrantzitsuak diren beste aspektu batzuk kontuan izaten (Pérez *et al.* 2015).

Baino, bestalde, azken urte hauetan, gizartean azaltzen ari diren behar berriei erantzuna emateko asmoarekin, irakaskuntza metodo berriak garatzen saiatu da, sortzen ari den hezkuntzarekiko ikuspuntu berri honekiko kide dena. Esparru berri honetan murgildurik, unibertsitate erlazionala sortzen da, iniziatiba eta ekintzailatza kompetentziak ardatz dituen irakaskuntza batean oinarriturik dagoena. GAZE programa, unibertsitate erlazionalak testuinguru duen ereduarekin bat dator arlo oso handi batean (Castro Spila, *et al.* 2011), unibertsitate tradizionalan lantzen diren kompetentziekin baino. Baina kompetentzia hauetaz gain, ekimen eta inklusibitatearen ikuspuntua eta erlazioa duten beste hainbat kompetentziekin egiten du lan. Horregatik, zergatik ez dugu GAZE unibertsitate inklusiboa bezala izendatu dezakegun metodologiarekin uztartzen?

«Unibertsitate inklusiboaren» kontzeptuak, gaur egunera arte, problematika sozial partikular bati erantzuna emateko sortu den ereduari egiten dio erreferentzia: aniztasun funtzionala duten ikasleek hezkuntza unibertsitarioan eskubide berdintasuna izatea. Horrela, eskaera sozial bati erantzuna ematen saiatzen da eta era berean, denontzako berdina izango den unibertsitate bat lortzea. Ikuspegi honetatik abiatuz, inklusibitatea ulertzeko orduan, pertsona batak dituen baldintzak (fisikoak, psikologikoak...), eguneroko bizitzako aktibitate eta jarduerak egiteko gaitasunak zeintzuk diren auresuposatu ez dezala ulertzen du. Urritasun bat duen ikasle batek, unibertsitatera gerturatzerako garaian, eskusioa egoera edo zailtasunak ez aurkitzea (arkitektoniko, sozial...) dugu helburu, aniztasuna araua dela konturatuz eta ez eskusiorako bidea. Helburu honekin, dibertsitate funtzionala duten pertsonak ikusarazten saiatzen gara eta horien egoeraren normalizazioa eta goi mailako hezkuntzarako esku-bidea lortzen ahalegintzen gara (Reznik, 2012).

Guk ikuspuntu hori jaso eta oraindik harago joan nahi izan dugu, inklusibitatea unibertsitateko alor guztietan egotea planteatuz. Horregatik, *Responsible Research and Innovation* (RRI) ikuspegian bermatuz unibertsitate inklusiboa, ikasketak inklusiboko prozesuetan oinarriturikoa bezala definitzea proposatzen dugu, non eta ikasleriak paper aktibo bat izango duen gizartea «-rentzako eta -rekin» interakzioarekin. RRIa, Europako zientzia, teknologia eta berrikuntza-politikak orientatzen ditu (Owen *et al.* 2012). Unibertsitate inklusiboak parte-hartzearekin eta ideien ekarpenarekin dauka lotura; eta edozein motako ikaskuntza-esklusio baztertzeko du. Horretan gain, unibertsitate hezkuntza berdina eta bidezko bat eskatzen du ikasle guztientzat, eta batez ere, eskusio edo diskriminazioa pairatu dezaketean horientzat; aniztasun funtzionala duten ikasleentzat, adibidez. Bilatzen den hezkuntza dinamikoa da eta ikaslea bere ikasketa-prozesuaren jabe egitea lortzen duena da. Inklusioaren xedea ikaskuntzaren mugak identifikatu eta desegitea da, baita hezkuntza kolektiboko kide guztiek eta horiek gizartearentzako eta gizartearekin eratzen duten interakzioa bultzatzeko ere.

Hori lortu ahal izateko, gizartea eta hezkuntza eremu desberdinen artean elkarrizketa sortzea beharrezkoa da; izan ere, unibertsitate inklusiboak hezkuntza parte-hartzaile baten aldeko apustua egiten du, non eta ikasleria bere ikaskuntza prozesu eta garapenaren parte aktiboa den. Horrek ikasleria aberastuko du, bai ikasle bezala bai eta pertsona bezala ere, ikaskuntza prozesu hau aberasteko beharrezkoa den burujabetza eta autonomia eskaintzen baitu (García eta García, 2012).

Horregatik, hezkuntza, ikasleriaren garapen pertsonal nahiz profesionalera orientaturik dauden ikasketa-prozesuetara bideratuta dago, berau bere ikasketa prozesuaren partaide izatera eramanez inplikazio dinamikoaren bitartez. Hezkuntza inklusiboa gizarte inklusibo baten sorkuntza-aukera gisa agertzen da, biztanle guztien partaidetza izango duena eta horiek kontuan izango dituen, eskusio sozial, ekonomiko eta kulturalak ezabatuz.

Baina, unibertsitate inklusiboaren kontzeptua oraindik harago joango litzake. Ez litzake bakarrik gizartean eskusio objektu izan diren profil desberdinak kontuan hartuko, baterako erantzukizunaren kontzeptua ere mahai gainean jarri nahi dugu. Hau da, ikasleek jarrera pasiboa alde batera utzi eta ekimen gehiago izaten hasi beharko lukete. Gizartea «-rentzako eta -rekin» erronka berriak beraienak egiten hasi beharko lirateke, ideia eta proiektu berriak planteatzen hasi beharko lirateke. Modu honetara, ikasleria bere ikasketa prozesuaren partaide izateaz gain, horren erantzule ere egingo da, bere akatsak onartuz eta erantzukizunak partekatuz.

Guzti honengatik, unibertsitate inklusiboa unibertsitate erlazionalaren kideko eredu gisa definitzen dugu, baina hori baino pauso bat harago doana. Iniziatiba eta ekintzailertan oinarritzen da, eta arazo errealak dituzten proiektuetan lan egiten duenez, ikasleriak erantzukizunak bere gain hartzen ditu. Izan ere, ikaskuntza praktikoa bat gauzatzen dute, gizarteko gai desberdinei erantzuna ematen dieten proiektuen garapenean oinarritzen dena.

Unibertsitateko diskurtso akademikotik, profesional eta kolektiboen arteko kolaborazioa eta instituzio, zerbitzu, familia, eta abarren arteko loturen ezarpena funtsezko printzipioak direla onartu da. Baldintza bakar eta ezinbestekoa dira, hezkuntzaren garapena ikaskuntza barne-hartzailezko prozesuen bitartez eman dadin ahalbidetzen dutenak. Ikusten dugun moduan, GAZEren filosofia eta metodologia unibertsitate mota honekin bat etorri daiteke, eta horregatik, gure ikuspuntutik, esango genuke unibertsitate erlazionala definitzen duten kompetentziak garatzeaz gain, GAZE, unibertsitate barne-hartzailearekin bat datozen kompetentziak garatzeko gai dela, unibertsitate erlazionala baino harago joanez.

5. Zer ulertzen dugu GAZEkideok inklusibitate gisa?

Guzti horregatik, GAZEk 2016. Urtean lan egindako proiektuetan berrikuntza barne-hartzailearen erronka erantsi nahi izan zuen. Hori bai, zein

puntutaraino izan ziren inklusiboak landuriko proiektuak? Zein zailtasun aurkitu genituen helburuak lortzeko unean? Nola diseinatzen da berrikuntza barne-hartzailea lantzen duen proiektu bat? Beharrezkoa al da berau lantzea? Hauek dira proiektuak diseinatzen hasi ginenean sortu zitzaizkigun galderetako batzuk.

Eragile sozialekin lanean hasi aurretik, GAZE programaren lehendabiziko asteetan berrikuntza barne-hartzaileari buruz gehiago jakiteko eta hori aplikatzen jakiteko erabilgarriak izango zitzaizkigun kontzeptu batzuk barne-hartzen lan egin genuen. Hartu gintuen galdera nagusia honako hau izan zen: «nola eratu daitezke proiektuak berrikuntza barne-hartzailezko prozesuen bitartez?». Izan ere, berrikuntza barne-hartzailea zuten proiektuek hainbat elementurekin berdindu edo kidezen ziren, baita maila ezberdinetako inklusio prozesuekin ere. Horrek asko zailtzen du berrikuntza barne-hartzailearen inplementazioa proiektu errealetan, izan ere, inklusio mailak desberdinu behar ditugu.

Berrikuntza barne-hartzailea ez da kontzeptu homogeneo bat, autore batzuek berrikuntzaren alor desberdinetan analizatu duten moduan. George *et al.* (2012)-en ideiatik abiatuz, GAZE programako ikasleok aztertu genuen ideia, berrikuntza barne-hartzailea «bere eskubideak debekaturik dituen» gizartearen ongizate sozial eta ekonomikoa igoko duten aukeren sorkuntza da, ideia berrien garapen eta inplementazioaren bitartez.

Esan beharra dago bere eskubideak debekaturik dituen gizartea ez dela ekonomikoki txiroa den populazioa. Gure ikuspuntutik, bere eskubideak debekatuak dituen populazioa, gainontzeko populazioak dituen aukera berdina ez dituen da, aukera desberdintasun horiek maila ekonomiko, sozial edo politikoan izan daitezkeelarik. Hori azpimarratzea garrantzizkoa da, izan ere, berrikuntza barne-hartzailea alderdi ekonomikotik harago doa, gizarte guztia barne hartuaz, horrek esan nahi duen guztiarekin.

Gainera, berrikuntza barne-hartzailea aldi berean prozesu bat eta emaitza bat izan daitekeela pentsatu genuen, horren baitan ikaskuntza, koordinazioa, kolaborazio eta gaitasunen metatzea bezalako azpi-prozesu desberdinak inplikatu. Baina gainera, ongizate eta arazo sozialak jasaten dituzten pertsonen kaltetate mailaren igoera bat emaitza izango litzateke (Sampedro, 2013).

Horregatik, berrikuntza bere baitan helburu bat ez dela oinarri hartuta, eza-gutzaren eta horren gestioaren, ikaskuntza teknologikoaren, organizazionalaren eta instituzionalaren sorkuntza inplikatzeko duten prozesu batzuk direla deritzogu. Horrela, ahal dugun neurrian, problematika sozial bat jasaten duen gizartearen ongizatea hobetzen saiatzen gara, guk gizarte-eragileekin diseinaturiko proiektu errealei izaera inklusibo bat emanez.

Berrikuntza barne-hartzaileak duen eta gailendu beharra dagoen beste ezaugarrietako bat zera da: problematika sozial bat jasaten duen eta horregatik «bere eskubideak ukatuta dituzten biztanleak» eurak egoera horri konponbidea aurkitzeko prozesuaren parte izatea. Horrela, proiektua benetan errealitatera gerturatuko da, izan ere, problematika hau jasaten duten pertsonak planteatzen dituzten beharretan oinarritua egongo baita proiektua.

6. Berrikuntza barne-hartzailea duten proiektuak

Iniziatiba eta ekintzaitza kultura zentzu bezala, pertsonen ideiak proiektu bilakatzeko duten gaitasun bezala ulertzen da. Sormenarekin, berrikuntzarekin eta arriskuaren onarpenarekin erlazio estua dago, baita proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko gaitasunarekin, horrela, hasieran finkaturiko helburuak lortzeko jarritako jomuga lortzea posible eginez (Merino Egea, 2012). Era berean, garrantzitsua da bakarka edota lankidetzan ekipo baten barnean lan egiteko gaitasuna garatzea. Hori guztia aurrera eramanez ahal izateko ezinbestekoa da bakoitzaren indargune eta ahulguneak zeintzuk diren zehaztea, baita arriskuak onartu eta ebaluatzea ere, justifikaturik dauden uneetan. Hau da, aipaturiko esperientziak bizitzen hasi aurretik, aurretiazko lan pertsonal bat egitea garrantzitsua da, bakoitzak bere izateko eta lan egiteko era azter dezan eta zein puntutaraino iritsi daitekeen ikusi dezan.

Behin lan egingo genuen esparru teorikoa definiturik genuela eta tesuinguruaren lehendabiziko fasea bukatua zegoela, 2016 urteko GAZEKideek gizarte-eragileekin batera diseinaturiko beraien proiektuetan berrikuntza barne-hartzailea ezartzeari ekin zioten.

Proiektuak amaitu genituenean, bakoitza aztertzeko garaia heldu zen. Esango genuke, berrikuntza barne-hartzailea gehien aplikatua izan zen proiektua Emausekin batera diseinaturikoa izan zela.

Emaus gizarte-eragileak hiru eremutan lan egiten du batez ere: eskusio soziala jasaten duten egoeran dauden pertsonen inklusioaren inguruan, ekonomia solidario eta zirkularraren inguruan eta mundu aldatzeko klaseak ematen unibertsitate eremuan.⁸

Ikuspegi honetatik abiatuz, ekonomia solidario eta zirkularraren alorrean lan egin nahi izan genuen, non arropa jasotzea, ondorengo aukeraketa eta azkenik, erabilgarri dagoena berriro salgai jartzearen bidez, bigarren aukera bat eskaintzea helburu duten, ahalik eta gutxiena baztertu dadin eta errekurtso ekonomiko gutxi duten pertsonen arropa erostea eskuragarri egiteko asmoa duten.

Emausekin lankidetzan, proiektuak diseinatzeko garaian eman genuen lehendabiziko pausoa Donostian duten Ekoshop delakoa aztertzea izan zen. Horri esker, lehendabiziko arazo bat identifikatu genuen: ohiko erabiltzaileak duten pertsonak zaharrak edota botere ekonomiko baxukoak dira. Ez dute jende gaztea erakartzen, salgai duten arropa modaz pasatuta eta zaharkituta baitago. Behin arazo hori identifikatu genuela, ohiko erosleen artean gazteriarren profila sartzen saiatu ginen, horiek ekimen hauekiko eta ekonomia zirkular eta solidarioaren inguruan duten perspektiba aldatzeko asmoarekin. Helburu hau lortzeko intentzioarekin, jostuntza sortzaileari buruzko tailer batzuk diseinatu ziren, non gazteek josten ikasteaz gain, haien gustuko arropa diseinatzeko aukera izan zuten, jendeak emandako arropatik abiatuz, eta ondoren, behin konponduta eta berrituta zeudela salgai jartzeko; hots, berrerabiliak izateko.

⁸ Emaús. (2016). *Zer egiten dugu?* Berreskuratua: <http://www.emaus.com/>

Joskintza sortzailearen inguruko tailer hauen helburua jendeak erakundeari emandako arropari bizitza berri bat ematea da, kasu askotan arropa hau zaharkituta baitago eta konponketa txiki batzuk besterik ez baititu behar estilo berri bat izateko eta modernoagoa eta erakargarriagoa bihurtzeko. Honela, bilatu zena gazteria berrerabilpenaren eta ekonomia zirkularraren inguruan kontzientziaztea izan zen, ukitu moderno bat emanaz jada modaz pasatutako arropari edo arropa zaharkituari. Ekintza horrekin, gazteriaren-gandik urruti dagoen erakunde bat hurbilagoa eta erakargarriagoa bihurtzeko bidea bilatzea lortu zen.

Berrikuntza barne-hartzailea hauteman dezakegu, hain zuzen ere existitzen ez ziren joskintza tailerren sorkuntzan, problematika sozial bati erantzuna bilatu nahian sortuak izan baitziren. Hemen, berrikuntza onura sozial bat lortzeko intentzioan antzeman dezakegu.

Bi helburu gehiago lortu genituen arroparen beraren eraldaketaz gain: joskintza tailerretan parte hartu zuten gazteek josten ikastea eta gizonak aipaturiko tailerretan parte hartzea. Azken hori puntu garrantzitsu bat izan zen, joskintza emakumeekin erlazionatzen baita kasu gehienetan; hortaz, tailerrak ikasleen kolektibo osoari zuzendu zitzaizkion, eta bai gizonak eta bai emakumeak izena ematea lortu zen. Azken puntu horretan tailerren inklusibitatea ikusi dezakegu, genero berdintasunaren aurka zihoan topiko bat haustea lortu baitzen. Hortaz, esan dezakegu gure proiektuan berrikuntza barne-hartzaile-rako pausoa ematea lortu genuela.

Halaber, azpimarratzekoa da dena ez dela bide erreza izan. Proiektu guztietan muga edo oztopo desberdinei aurre egin behar izan diegu, izan ere, oztopo eta muga hauek proiektuak guztiz inklusiboak izatea galarazten zuten, eta proiektuak aurrera modu ez hain inklusibo batean ateratzea edota inklusibitate totala lortu ezinagatik proiektuak alde batera uztearen artean erabaki behar izan genuen.

GAZEko partaideek beste eragile sozial bat aukeratu zuten, zeinetan berrikuntza barne-hartzailea lantzea erabaki zen; hain zuzen, Aranzadi Zientzien Elkartearekin burutu zena (*Zientziaren alor desberdinetan aritzen den erakundeak, haien artean Biologia, Historia, Arkeologia, Medikuntza, Antropologia, Etnografia, Geografia eta Geologia*).

Kasu honetan, GAZEtik Donostiako auzo desberdinak aztertzean eta haien beharrak zeintzuk ziren identifikatzean zetzan proiektua sortzen saiatu ginen. Horren adibide izango lirakeke gune berdeen mantentzea, parkeen sorkuntza, eta abar. Sortu zitzaigun galdera honakoa izan zen: non aurkitu genezake berrikuntza barne-hartzailea proiektu honetan? Proiektua aztertu eta antzeman genuen guk planteaturiko ideian, auzoko bizilagunak lan hauek egingo zituzten subjektuak izango zirela; hain zuzen ere, haiek baitziren gune berdeen gabezia pairatzen zutenak.

Hori lortzeko urtero lan komunitarioak antolatzea proposatu zen. Modu honetan, aipaturiko arazoak konpontzeaz gain, bizilagunei beranduago disfrutatuko zuten zerbaitetan lan egiteko aukera ematen zitzaien. Hortaz, onuraduna

eta egilea subjektu berdina izango litzake eta horrekin gure helburua lortuko genuke: berrikuntza barne-hartzailea. Gauzak horrela, proiektuaren proposamenaren zirriborroa egin genuen guk ikusitako behar bat aztertu ondoren eta auzoko bizilagun kolektiboaren lankidetzarekin. Ikusi daitekeenez, proiektu berritzailea zen, beharren azterketa batetik ateratakoa, eta inklusiboa, era berean, bizilagun kolektiboaren parte-hartze aktiboa baikenuen. Proiektua proposamen bezala planteatu zen, baina, parte-hartzaileen profilen konplexutasunagatik, posizioengatik, balioengatik eta abarregatik, ezin izan zen lortu implementatzea. Hala ere, honako hau esperientzia ona izan zen prozesu inklusiboak ezartzeko garaian agertzen diren zailtasunen inguruan ikasteko, non inklusibitatea erantzukizunarekin erlazionatzen saiatzen den, integrazio horizontal bat lortzeko asmoarekin.

7. Ondorioak

GAZE programa bi dimentsioren arabera kultura ekintzailearen inguruan lan egiten saiatu da. Alde batetik, «ekimenaren zentzua» lantzen eta bestalde, «berrikuntza barne-hartzaile» kontzeptuan sakonduz. Ekimen gisa ulertzen duguna honako hau da: ideiak proiektuetan eraldatzeko gaitasuna, eta honela, ekintzailetasuna sustatzea eragile sozialekin lankidetzazko lanen bitartez. 2016. urtean, gobernantzan eta diziplina aniztasunean oinarrituz proiektu desberdinak sortu ziren. Aipaturiko proiektuen barnean berrikuntza barne-hartzailea lantzea proposatu zen. Honek beste erronka bat gehitu zuen proiektuen parte-hartzaileentzat, baina, era berean, aberasgarria izan zen, izan ere, era nabarmen batean garaturiko formakuntzetan lagundu zen, prozesu erlazional eta kolaboratibo batean oinarritu baitzen, zeharkako konpetentzia batzuk eskuratzeko eta garatzeko lagundu zuena.

Esandako formakuntzan GAZE kide taldearentzat guztiz ezezagunak ziren alderdiak garatu ziren; hala nola, «berrikuntza barne-hartzailea». Laburtzeko, nabarmendu beharko litzateke berrikuntza barne-hartzailearen erronka ez dela bakarrik emaitza batean irudikatzen, prozesua bera ere baita. Hau da, berrikuntza inklusiboa edo barne-hartzailea lantzen duten proiektuak guztiz inklusiboak izateko, inklusibitatea sustatzen duten emaitzak lortzeaz gain, prozesua bera ere inklusiboa izan dadila beharrezkoa izango da. Nola? Proiektuak azpi-prozesuetan zatituz, hala nola, koordinazioa, kolaborazioa, eta abar, eta berrikuntza barne-hartzaile hau aplikatzen zaien kolektiboak haien prozesuan parte hartu dezaten lan eginez, honela, emaitza hobekak lortzea ahalbidetuko baitu.

Bestalde, hezkuntza-esparru desberdinen arteko konparazioa egiten da eta GAZEn esperimentatzen den ikaskuntza prozesua zein esparruri gehien lotzen zaion aztertzen da. Lehenik, unibertitate tradizionala aurkitzen dugu, emandako irakaskuntza teorikoan oinarritzen dena. Ikusi genuen GAZErekin hobekien kideak zitekeen esparrua ez zela hori. Ondoren, unibertitate erlazionala

aztertu genuen, irakaskuntza ekimenaren eta ekintzaitasunaren kompetentziei bideratua dagoena. Ohartu ginen GAZEk kompetentzia horiek partekatzen zituela; hortaz, esan genezake eredu horrekiko kidetasun gehiago duela. Baina ikuspuntu berri bat garatzea erabaki genuen, momentura arte unibertsitate inklusibo bezala ezagutzen zen kontzeptutik abiatuta eta eredu erlazionalaren alderdiak barneratuz. Gainera, eremu akademiko eta unibertsitarioan aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa gauzatzeaz gain, unibertsitate erlazionalako kompetentzietan eta ikasleriaren baterako erantzukizunean gizartearekin eta gizartearentzat interakzioan egindako ikaskuntza prozesuetan oinarrituriko irakaskuntza bat barneratzen saiatu gara. Gure ustetan, esparru honek inklusibitate gradu handiagoa izan dezake, ikasleak, edozein dela ere haien baldintza fisiko, psikologiko, sozial edo intelektualak, ikaskuntza prozesuaren parte izango balira. Honela, problematika errealak lantzen dituzten proiektu errealen garapenaren bitartez inklusibitatea landu zen, «haien eskubideak galarazita dituzten hiritarrak» bezala definituko genituzkeen biztanleriarekin landuko baitzen.

Azkenik, GAZEn (2016) egindako proiektuetan berrikuntza barne-har-tzailearen txertatzea dugu. Azken zati honetan, proiektuak guztiz inklusiboak eta berritzaileak izatea benetan zaila dela antzeman genuen, hortaz, proiektuak haien inklusibitate-mailaren arabera desberdintzea behar-beharrezkoa dela ohartu gara. Hau da, proiektu batek inklusibitate handiagoa izan dezake edo ez hain inklusiboa izan, izan ere, guztiz inklusiboa izatea oso zaila baita. Gainera, esan beharra dago inklusibitatea aurrera eramatea ez dela prozesu erraza, ez baitzen bakarrik GAZEKideen eskuetan egon hori lortzeko fun-tsa. Aplikazioa zailtzen zuten faktore ezberdinekin topo egin genuen; asko-tan faktore horiek kanpo-faktoreak izaten dira, proiektuarenak ez direnak, eta gaingiditu edo kontrolatu ezin daitezkeenak. Horrela, unibertsitate inklu-siboaren erronka iragazkorra izatea da eta logikak, balioak eta ikaskuntza pro-zesuko kolaboratiboak ezartzen diren kolektiboen jarrera ulertu eta hauei ego-kitu ahal izatea.

8. Erreferentziak

- Castro Spila, Javier, Julieta Barrenechea, eta Andoni Ibarra. «Cultura emprendedora, innovación y competencias en la educación superior. El caso del Programa GAZE». *Arbor*, 187, Extra 3. (2011): 207-212.
- García, Mayka eta Manuel García. «La contribución de la universidad al desarrollo de prácticas inclusivas: dilemas y propuestas para avanzar compartiendo». *Revista de Educación Inclusiva*, 5, 1. zbk. (2012): 123-138.
- Merino Egea, Manuel. «MotoStudent, un paradigma de emprendimiento y educación no formal en la universidad». *ArDIn. Arte, Diseño e Ingeniería*, (2012): 63-81.
- Owen, Richard, Phil Macnaghten eta Jack Stilgoe. «Responsible research and innovation: From science in society to science for society, with society». *Science and Public Policy*, 39, 6 . zbk. (2012): 751-760.

Pérez, Pedro R., Miriam Álvarez, Alfonso González, eta David López Aguilar. «La enseñanza universitaria y la formación para el trabajo. Un análisis desde la opinión de los estudiantes.» *Paradigma*, 30, 2 (2009): 7-19.

Reznik, Lía. «Aportes para una Universidad inclusiva desde una perspectiva transversal.» *Revista Espacios Educativos*, 49, (2012): 4-11.

Autoreak

Ainhoa Aizpuru Murua Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapene-
neko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuko diputatua
da. Ekonomia Sustapeneko Departamentua da GAZE ekimena sustatzen
eta finantzatzen duena.

ainhoaizpuru@gipuzkoa.eus

Beñat Azaldegilakuntza 2015-2016 ikasturtean egin zen GAZE: Kaleidos-
kopio proiektuko kide izan zen eta gaur egun abokatutza masterra egiten
ari da UPV/EHU unibertsitatean.

azaikt@gmail.com

Mikel Azqueta Alzuaz Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiko partaide izan
zen. Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasi zuen Enpresen Administra-
zio eta Zuzendaritza eta Nazioarteko Ekonomia Gradu bikoitza, gaur De-
loitten egiten du lan.

mikelazqueta@yahoo.es

Julieta Barrenechea GAZE Programaren Idazkaritza Teknikoko kolabora-
tzailea da, Euskampus Fundazioan lan egiten du, eta UPV/EHUko Miguel
Sánchez-Mazas Katedraren Zientzia, Teknologia eta Gizarte Sareen Iker-
larloko ikerlaria ere bada.

julieta.barrenechea@euskampus.eu

Iñigo Cantero Loinaz, Partaidetza eta Bestelab kaiko teknikaria da Donostia/
San Sebastián 2016 Fundazioan. Arkitektura ikasketak ditu eta Partaidetza
eta Komunitate Garapeneko Masterra gauzatu du. Aurretik UPV/EHU
lan egin du ikertzaile bezala eta arkitektura parte hartzailearen inguruko
proiektu kultural eta sozialetan aritu da.

inigo_cantero@dss2016.eu

Andoni Eizagirre, Filosofian Doktorea eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea, Praxis ikertaldeko kidea da (Euskal unibertsitate sistemako A Taldea, 2013-2018, IT644-13). Bere lan-eremuak dira ikerketa eta berrikuntza politikak, zientziaren soziologia, eta zientzia-gizartea harremanak.

aeizagirre@mondragon.edu

Olaia Etxeberria Garmendia 2015-2016 ikasturtean egin zen GAZE: Kaleidoskopio proiektuko kide eta gaur egun ingurumen masterra egiten ari da Sevillako Pablo de Olavide unibertsitatean.

A903662@alumni.tecnun.es

Enara Garcia Donostia/San Sebastian 2016 Fundazioko Partaidetza eta Ebaluazio Zuzendaria da. Psikologia eta Kultur eta Gizarte Antropologian lizentziatua da, bitartekaritza prozesuetan espezializatua. Bere egitekoa kalitatezko partaidetza anitz eta barneratzailea ahalbidetzen duten estrategien diseinu eta planifikazioan ardatzu da. Bere ibilbide profesionala haurtzarora eta gazteriarren, gizarte ikerketaren eta hiritarren partaidetzaren inguruan egin du.

enara.garcia@dss2016.eu

Javier García Fronti «Nanoteknologiaren inpaktu ekonomiko eta soziala Argentinako nekazaritzan: Inbertsioen eta finantziario instrumentuen balorazioa» talde finkatua zuzentzen du Buenos Aireseko Unibertsitatea eta Unibertsitateko Ekonomialarientzako Matematika Katedraren irakasle arduraduna da.

javier.garciafronti@economicas.uba.ar

Geisiane Maiara Marth, egun Zuzenbide eta Komunikazioko gradu bikoitzeko ikaslea Deustuko Unibertsitatean. Marketing eta Publizitateko ikasketak bukatuta Nazaret Zentroan. Kolaboratzaile eta artista aktiboa Kultura Alternatiboan. GAZE kidea 2016an. «Sister of another mama» programa europarraren kolaboratzailea, Corner barruan. «*Orillas Vivas*» liburuaren egilea.

geisi.maiara@gmail.co

Lide Gil Pascualek GAZE: Kaleidoskopio 2016 programaren kide bezala parte hartzen du. Erizaintza graduko ikaslea UPV/EHU-n.

lidegil95@gmail.com

Andoni Ibarra. Euskal Herriko Unibertsitatean Irakaslea Zientziaren Filosofian, Miguel Sánchez-Mazas Katedraren zuzendaria eta GAZE Programaren arduraduna.

andoni.ibarra@ehu.eus

Julen Ibarra Segurola. Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza Gradua (Bartzelonako Unib.) eta Ekintzaletza ekimena eta enpresen sorkuntza Masterra (Madrilgo Carlos III Unib.). Donostia-San Sebastián 2016 Europako Hiriburua-ren Kaleidoskopio proiektuaren koordinatzailea.

ibarrasegu@hotmail.com

Amaia Iraundegi Ingenieritza Mekanikoa eta Diseinu Industrial eta produktu garapena ikasten ditu TECNUNen, Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Eskolan.

amaiairaundegi@gmail.com

Daniel Irazola Atxa Durangoko Maristak Ikastetxeko zuzendaritza arduraduna eta LH irakaslea da. TKNIKAN ikertzailea da arreta berezia jarritz erdi mailako zikloetan elkarlaneko metodologia aktiboak ezartzeko.

dirazola@tnika.eus

Ane Iturzaeta Agirre EAZ eta Ingeniaritza Informatikoko ikaslea da Deustuko Unibertsitatean.

aneiturzaeta@gmail.com

Lucía Lomas Echeveste-k Tecnun - Nafarroako Unibertsitateko Ingenieritza Eskolako Antolakuntza Industrialeko Sailean lan egiten du, Garapen Iraunkorraren inguruko ikerketa arloan.

lucialomasecheveste@gmail.com

Borja Luque Martínez UPV/EHUn Psikologian lizentziatua eta Ikerkuntza masterra egina. GAZE programaren Idazkaritza Teknikoaren parte da 2014-2015 ikasturtetik.

Borja.luque@ehu.eus

Maria Markiegi Mendieta, Deustuko Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako ikaslea, GAZE kide gisa parte hartu du.

mariamarkiegi14@gmail.com

Paz Morer, Improving the World Boluntariotza Talde Profesionaleko koordinatzailea da TECNUNen (Nafarroako Unibertsitatean). Horretaz gain, irakasle eta ikertzaile bezala dihardu eta Diseinu Industrialaren Arloko buru da Mekanikako Sailean.

pmorer@tecnun.es

Gorka Otermin Balda senior bezala aritu zen lanean GAZE:Kaleidoskopio markapean 2016 urtean. Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza eta Ingeniaritza Informatikoko gradu bikoitza ikasten du Deustuko Unibertsitatean. (Donostia).

gorotba@gmail.com

Xabier Paya Ruiz, Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioko Kultur Zuzendaria da. Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziatua da, piano ikasketak gauzatu ditu eta Ikus-entzunezko Komunikazioan zein Modern European Cultures-eko masterrak dauzka. Kultur kudeaketan ibilbide zabal bat izateaz gain, ikerketa eta irakaskuntza arloetan esperientzia zabala du ere, UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea, University of Birmingham edo Université de Pau et des Pays de l'Adour bezalako zentroetan.

xabier_paya@dss2016.eu

Hannot Rodríguez Irakasle Atxikia da Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Filosofia Sailean eta PRAXIS ikerketa-taldeko eta Miguel Sánchez-Mazas Katedrako (UPV/EHU) kide.

hannot.rodriguez@ehu.eus

María Isabel Rodríguez-Ferradas, TECNUNeko (Nafarroako Unibertsitateko) Improving the World Boluntariotza Talde Profesionalean parte hartzeaz gain, irakasle eta ikertzaile gisa dihardu Diseinu Industrialaren Arloan, Mekanikako Sailean.

mirodriguez@tecnun.es

Izaro Toledo Retegi Globalizazioa eta Garapena masterreko ikaslea da (UPV/EHU eta HEGOA) eta GAZEKide izan zen 2016ko GAZE: Kaleidoskopion.

marrubigorri@gmail.com

Antton Tomasena Rodriguez. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko Ekonomia Sustapeneko zuzendaria da. Ekonomia Sustapeneko Departamentua da GAZE ekimena sustatzen eta finantzatzen duena.

atomasena@gipuzkoa.eus

Martin Zozaya Apalategui, Industria Antolakuntzako Ingeniaria da eta momentu honetan Graduondoko Ikasketa garatzen ari da Jaso Industrial Cranes enpresan.

martinzozaia@gmail.com

Amaia Zumeaga GAZEko partaidea izan da eta gaur egun LEINN ikasketen gradu amaierako proiektua lantzen dago Goieki garapen agentzian.

amayazumeaga@gmail.com

